Goienkaria

2007ko apirilaren 27a > Egubakoitza > VII. urtea > 285. zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net



"Lehenengo aldiz dugu orain memoria historikoa berreskuratzeko aukera"

**Llum Quiñonero** Idazlea eta gidoilaria > 09

**G2a** Alardeak aztertuko dituzte Antzuolan > 43-44

**OSASUNA** Ludopatia gaitza dutenendako egoitza ireki dute Elgoibarren > 18

**BIDEGORRIA** Aretxabaletako bi tartetako lanak esleitu berri dituzte > 30

**KIROLA** Arrasate-Oñati eta Otala-Zelai lasterketa beteranoa > 41-42

**ETORKINAK** > UDALEKO GIZARTE ONGIZATE SAILAK 2006KO TXOSTENA AURKEZTU BERRI DU

# Bergarako biztanleriaren %4,9 etorkinek osatzen dute

**GORAKO BIDEAN** Bergararren biztanleria jaisten doan neurrian etorkinena gora doa; 2005etik %26 igo da etorkin kopurua

**GUNE JAKINETAN** Jatorriaren arabera auzo konkretuetan bizi dira, eta Udalak uste du ghetto bihurtzeko arriskua dagoela

**JATORRIA** Iaz 726 etorkin zeuden erroldatuta Bergaran: %21 Boliviakoak, %16 Pakistangoak eta %11 Portugalgoak > 24




**ELKARRETARATZEA** Bergarako Candy Hoover lantegian protestaldia egin zuten atzo, ELA, LAB, UGT, CCOO eta ESK-k deituta. XABIER URTZELAI

## Sindikatuen protesta, Lan Osasunaren Nazioarteko Egunaren bezperan

Bihar, zapatua, Lan Osasunaren Nazioarteko Eguna da. Horren harira, Bergarako Candy Hoover lantegiko sindikatu guztiek bat egin eta lan istripuak salatzeko asmoz elkarretaratzea egin zuten eguen goizean. Prekarietateari aurre egin behar zaiola eta administrazioak ahal duena baino gutxiago egiten duela salatu zuten, aho batez. Gaurko, barikua, deialdi gehiago egin dituzte sindikatuek: besteak beste, ELAk eta ESK-k manifestazioa deitu dute Bilbon eta LABek lanuztea 12:00etatik 13:00etara. > 06

**ANTZUOLA** > ERREPIDEAK

## GI-632 konpondu egingo dute

Maiatz hasieran hasiko dira Antzuola eta Urretxu arteko bidea konpontzen > 36

**ENPRESA** > GARAIA POLOA

## Inauguratu dute lehen laborategia

Mikrofabrikazioko laborategiak dira eta MUk jarri ditu; Garaia estreinatzen lehenak izan dira > 05

## Autoen gaineko gehigarria

GOIENKARIArekin batera hamasei orriko gehigarria autoen gainean, dena koloretan: azken berritasunak, teknologia puntakoenak...




**AURKIBIDEA**

**Debagoiena** > 04-08
**Elkarrizketa** > 09
**Iritzia** > 10-11
**Gutunak** > 12
**Herriak** > 15-39
**Kirola** > 40-42
**Kultura** > 45
**Sailkatuak** > 46
**Eskelak** > 47
**Denbora-pasa** > 48
**Gazteak** > 50
**Komunikazioa** > 51
**Telebista-Irratia** > 52
**Non-zer** > 54-55






**HAUTESKUNDEAK** > MAIATZAREN 27AN UDAL ETA GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIETAKO ORDEZKARIAK AUKERATUKO DITUGU

# Udal hauteskundeetarako 60 zerrenda aurkeztu dituzte Debagoienean

**ANTZUOLAN EA EZ** Oraingoan Eusko Alkartasunak ez du zerrendarik aurkeztu Antzuolan eta Aralar eta EB lehenengo aldiz aurkeztuko dira, Zutikekin batera

**ELGETAN EAJ ETA EA-KOAK BATERA** Gipuzkoako beste 7 herritan bezala, hautesleen elkartea osatu dute Elgetan EAJ eta EAkoek

**PP HERRI GUZTIETAN** Popularrak dira herri guztietan, baita Leintz Gatzagan ere, zerrenda aurkeztu duten bakarrak; 2003an bi boto jaso zituen PPk Gatzagan

## ARRASATE

### EAJ PNV



**Luis Mari Apraitz**
Enpresaria
60 urte • Murueta

2 Rafael Uribarren.
3 Amaia Zeziaga.
4 Jose Ramon Uribarren.
5 Maria Luisa Larrañaga.
6 Juan Karlos Garitano.
7 Jose Luis Galdos.
8 Adoracion Bello.
9 Antton Eierbe.
10 Maria Cristina Larraza.
11 Ibon Arrupe.
12 Sara Sagasti.
13 Francisco Javier Aresti.
14 Maria Arantzazu Akizu.
15 Ismael Erraste.
16 Maria Amaia Aspiazu.
17 Jose Antonio Axpe.
18 Maria Angeles Iñurritegi.
19 Ixidor Solupe.
20 Eli Bolinaga.
21 Jose Antonio Aranguren.

### Arrasateko Abertzale Sozialistak



**Xabier Zubizarreta**
Prebentzio arduraduna
62 urte • Aretxabaleta

2 Utzune Urrizalki.
3 Enrike Letona.
4 Larraitz Trojaola.
5 Atarratz Etxebarria.
6 Idurre Amozarrain.
7 Xabier Betzuen.
8 Nagore Llodio.
9 Jose Agustin Ibarluzea.
10 Amaia Etxebeste.
11 Jon Usobiaga.
12 Maria Pilar Iriarte.
13 J. Miguel Francisco Azkarate.
14 Miren Lizarazu
15 Gorka Morras.
16 Onintza Lopez De Munain.
17 Gregorio Etxabe.
18 Josefa Arregi.
19 Julen Barinaga-Rementeria.
20 Maria Elena Arrieta.
21 Jokin Aiastui.

### PSE-EE PSOE



**Paco Garcia**
Langilea
54 urte • Arrasate

2 Miren Lorea Lana.
3 Gregorio Atxutegi.
4 Carmen Atxutegi.
5 Aritz Arrieta.
6 Isaias Carrasco.
7 Ana Belen Granado.
8 Santiago Concepcion.
9 Maria Rosa Jimenez.
10 Miguel Vivar.
11 Elena Octavio de Toledo.
12 Venacio Garcia.
13 Antonia Pozo.
14 Oscar Garcia.
15 Maria Angeles Navarro.
16 Juan Carlos Bañuelos.
17 Carolina Garcia.
18 Luis Limon.
19 Osane Pajuelo.
20 Agustin Horrillo.
21 Rafael Gomez.

### eusko alkartasuna



**Pello Urizar**
Informatika teknikaria
39 urte • Arrasate

2 Ainhoa Gallastegi.
3 Bixente Etxebarria.
4 Amaia Larrañaga.
5 Igor Altuna.
6 Kontxi Etxebarria.
7 Iñaki Egidaza.
8 Ainhoa Menika.
9 Luis Etxebarriarteun.
10 Javier Navarrete.
11 Maria Arantzazu Garcia.
12 Manuel Uribe.
13 Esther Zaitegi.
14 Jose Mari Urizar.
15 Iñaki Aierbe.
16 Eguzkiñe Landaluze.
17 Felix Ayala.
18 Maria Jesusa Etxebarria.
19 Jasone Giraldo.
20 Jose Antonio Altuna.
21 Esther Larrañaga.

### aralar



**Joxe Etxeberria**
Langilea
56 urte • Berastegi

2 Felix Hernandez.
3 Garazi Etxeberria (Indep.).
4 Miguel Angel Beitia.
5 Maria Cabezas (Indep.).
6 Unai Bergaretxe.
7 Iñaki Mikel Sierra.
8 F. Javier Sebastian (Indep).
9 Irantzu Ezenarro.
10 Julen Goikoetxea.
11 Josu Zugasti.
12 Gaizka Eraña (Indep.).
13 Saioa Azkarate.
14 Maria Teresa Poveda.
15 Jon Andoni Ormaetxea (Indep.).
16 Adei Arana (Indep).
17 Maria Paz Barandiaran.
18 Mikel Mantzisidor.
19 Nestor Arana (Indep.).
20 Maria Mercedes Corral.
21 Andoni Mujika.

### EzkerBatua Berdeak



**Joseba Ugalde**
Langilea
56 urte • Arrasate

2 Ander Rodriguez.
3 Julia Monge.
4 Jose Antonio Baz.
5 Pilar Garcia.
6 Malen Errasti.
7 Juan Ramon Garai.
8 Alberto Encinas.
9 Maria Prat.
10 Angel Tijero.
11 Julian Feo.
12 Francisco Duque.
13 Dionisio Ovejer.
14 Elisa Martin.
15 Noelia Olabarria.
16 Leire Feo.
17 Abilio Saenz.
18 Pilar Erdozi.
19 Josefa Iglesias.
20 Virginio Hernandez.
21 Jose Luis Encinas.

### PP



**Itziar Lamarain**
Enpresaria
62 urte • Arrasate

2 Tomas Mayo.
3 Laura Garcia.
4 Juan Etxaurre.
5 Ignacio De Orue.
6 Maria Pia Rubio.
7 Catalina Sastre.
8 Ricardo Suescu.
9 Luis Zarraoa.
10 Emilio Valcarcel.
11 Maria Del Carmen Valledor.
12 Margarita Ferre.
13 Eduardo Juan Navarro.
14 Mikel Xabier Perez.
15 Jose Luis Jordan.
16 Susana Perez.
17 Almudena Gandasegi.
18 Juan Carlos Arcas.
19 Angelino Alejandre.
20 Alberto Mayorga.
21 Isabel Bastida.

### EAE ANV



**Ino Galparsoro**
Kooperatibista
59 urte • Beasain

2 Francisco Maria Arburua.
3 Oihana Aranburu.
4 Arkaitz Biain.
5 Maria Yolanda Perez.
6 Juan Mari Sanpedro.
7 Izadi Mondragon.
8 Aitor Urrutia.
9 Amaia Pagaldai.
10 Jesus Mari Garmendia.
11 Ines Osinaga.
12 Joseba Ezpeleta.
13 Margarita Rosa Mercade.
14 Ibai Madariaga.
15 Pilar Martinez De Ubago.
16 Illart Azkarate.
17 Eukene Mondragon.
18 Unai Lazkano.
19 Maria Jose Jimenez.
20 Felix Iturbe.
21 Alaitz Morras.

## BERGARA

### EAJ PNV



**German Muruamendiaraz**
Nekazal ingeniari-teknikoa
57 urte • Bergara

2 Juan Jose Arrieta.
3 Arantzazu Amasorrain.
4 Belen Abarzuza.
5 Rafael Amasorrain.
6 Maite Barrena.
7 Miguel Angel Larrañaga.
8 Valentin Egidazu.
9 Aintzane Oiarbide.
10 Iñaki Arregi.
11 Enekoitz Badiola.
12 Arantza Ilzarbe.
13 Juan Luis Vicuña.
14 Miren Lazkano.
15. Maria Arantzazu Agirre.
16 Jose Antonio Aperriba.
17 Aintzane Ugalde.

### Bergarako Abertzale Sozialistak



**Jesus Mari Garitano**
Aurre-erretiratua
60 urte • Bergara

2 Mila Elortza
3 Aitor Arantzabal.
4 Maite Aristegi.
5 Jose Luis Elkoro.
6 Itxaso Galarraga.
7 Xabier Arregi.
8 Mila Etxaniz.
9 Antxon Sasiain.
10 Amaia Agirre.
11 Mikel Eguren.
12 Mireia Alberdi.
13 Jose Ramon Etxeberria.
14 Itxaso Mendizabal.
15 Dunixi Olabarria.
16 Yolanda Juaristi.
17 Jose Luis Loidi.

### PSE-EE PSOE



**Mari Karmen Barrenetxea**
Administraria
49 urte • Bergara

2 Francisco Javier Garai.
3 Francisco Javier Zendoia.
4 Luz Telleriarte.
5 Gloria Maria San Martin.
6 Eugenio Matesanz.
7 Maria Begoña Urbistondo.
8 Jose Gonzalez.
9 Matilde Martin.
10 Francisco Morales.
11 Maria Isabel Rata.
12 Juan Chups.
13 Manuela Barrenetxea.
14 Juan Pineda.
15 Julio Jimenez.
16 Maria Jesus Muñoz.
17 Agustin Sanchez.

### eusko alkartasuna



**Lauri Askargorta**
Komertziala
35 urte • Bergara

2 Jose Ignacio Zabala.
3 Victor Gorrotxategi.
4 Garbiñe Lazkano.
5 Kontxi Irizar.
6 Jose Antonio Etxeberria.
7 Juan Garitano.
8 Luciano Arguya.
9 Arantxa Egaña.
10 Begoña Valle.
11 Vidal Mujika.
12 Xabier Diaz De Zerio.
13 Teresa Jauregi.
14 Francisca Urbistondo.
15 Jesus San Martin.
16 Javier Garmendia.
17 Ignacio Garitano.

### aralar



**Mikel Etxaniz**
Langilea
43 urte • Bergara

2 Iñigo Iñurrategi.
3 Martin Etxeberria.
4 Amaia Zabaleta.
5 Arrate Bengoa.
6 Oihan Vega.
7 Jose Angel Amasorrain.
8 Aitziber Azkondo.
9 Nerea Lazpiur.
10 Justina Elexpuru.
11 Rafael Sanchez.
12 Edurne Barrutia.
13 Libe Txintxurreta.
14 Xabier Larrañaga
15 Maria Gaztanbide.
16 Ainhoa Larrañaga.
17 Juan Martin Elexpuru.

### EzkerBatua Berdeak



**Salvador Gonzalez**
Langilea
51 urte • Cordoba

2 Andres Diez.
3 Isabel Salud.
4 Carmen Zabaleta.
5 Juan Manuel Garcia
6 Eulogio Diez.
7. Teodora Delgado.
8 Miguel Angel Hernandez.
9 Maria Isabel Millan.
10 Pedro Rodriguez.
11 Jose Mari Arlegi.
12 Rosario Jurado.
13 Mariano Teodoro.
14 Maria Jesus Puertas.
15 Juan Antonio Viña.
16 Rosa Perez Ibañez.
17 Jose Ostiz.

### PP



**Luis Miguel Urretxu**
Delineante topografoa
54 urte • Gasteiz

2 Angel Javier Ruiz De Arbulo.
3 Adoracion Fernandez.
4 Julio Alberto De La Torre.
5 Angeles Contreras.
6 Salvador Lopez.
7 Juan Jose Criad.
8 Ignacio Garcia De Vinues.
9 Begoña Ma Rosso.
10 Isabel Caparros.
11 Narciso Calderon.
12 Daniel Feito.
13 Carlos Javier Rodrigue
14 Carmen Perez.
15 Carmen Fuentes.
16 Mari Jose Moreno.
17 Pedro Maria Sanz.

### EAE ANV



**Agurne Barruso**
Partehartze teknikaria
38 urte • Bergara

2 Roberto Martinez.
3 Maite Guridi.
4 Aitor Goiti.
5 Enara Minguez.
6 Mikel Elkoroberezibar.
7 Amagoia Aristegi.
8 Markel Azkargorta.
9 Intza Arregi.
10 Bibi Andueza.
11 Jone Salegi.
12 Luis Mari Alberdi.
13 Nerea Gabilondo.
14 Gotzon Ibarra.
15 Ane Jauregi.
16 Juan Luis Barrutia.
17 Agurtzane Diaz.

## OÑATI

**EAJ PNV**



**Lourdes Idoiaga**
Lagun Aroko langilea
56 urte • Oñati

2 Ainhoa Galdos.
3 Angel Biain.
4 Andoni Gartzia.
5 Maria Rosario Galdos.
6 Jose Mari Igartua.
7 Felipe Lizaur.
8 Mikel Iturrospe.
9. Mari Jose Etxegoien.
10 Ainhoa Irizar.
11 Luis Anduaga.
12 Aitor Arregi.
13 Nerea Altube.
14 Mikel Gartzia.
15 Mireia Arregi.
16 Lourdes Urtaza.
17 Andoni Campos.

**Oñatiko Abertzale Sozialistak**



**Jose Mari Zugasti**
Langilea
33 urte • Oñati

2 Nagore Lasarte.
3 Gaizka Arregi.
4 Imanol Barrena.
5 Felisa Zumalde.
6 Asier Sagastizabal.
7 Bittor Imanol Axpe.
8 Lierni Arregi.
9 Aitor Arkauz.
10 Nagore Lazkano.
11 Patxi Xabier Kortabarria.
12 Lourdes Ugarte.
13 Juan Mari Fernandez.
14 Esther Altube.
15 Miguel Arregi.
16 Imanol Garai.
17 Juan Jesus Bozal.

**PSE-EE PSOE**



**Blanca Roncal**
Medikuntzan lizentziaduna
56 urte • Burgete

2 Justino Parra.
3 Mariano Cardeñosa.
4 Juan Ramon Belloso.
5. Maria Rodriguez.
6 Jose Luis Ibarguren.
7 Ignacio Barriuso.
8 Zohartze Zarraga.
9 Esperanza Jimenez.
10 Jose Eugenio Lekuona.
11 Juana Maria Muñoz.
12 Javier Salas.
13 Daniel Luis Sarraga.
14 Francisco Salas.
15 Gemma Beatriz Gonzalez.
16 Maria Francisca Guenaga.
17 Manuel Huertas.

**eusko alkartasuna**



**Ernesto Murgiondo**
Irakaslea
40 urte • Oñati

2 Amaia Intza (Ind.).
3 Iñaki Galdos
4 Aitor Elortza (Ind.).
5 Argiloain Perosterena (Ind.).
6 Joseba Agirre (Ind.).
7 Nazario Gordoa (Ind.).
8 Trinidad Bergara (Ind.).
9 Ignacio Urtzelai.
10 Maria Pilar Arrondo (Ind.).
11 Jose Irizar.
12 Felipe Arteaga (Ind.).
13 Maria Luisa Azurmendi.
14 Maria Teresa Zubia (Indep.).
15 Miguel Angel Txintxurreta.
16 Ramon Igartua (Indep.).
17 Jose Ramon Bengoetxea.

**aralar – zutik – EzkerBatua Berdeak**



**Karmelo Perez de Almaraz**
Administrari kudeatzailea
41 urte • Oñati

2 Miren Arregi.
3 Jose Ruiz Fajardo.
4 Manu Egaña.
5 Isabel Rebollo.
6 Cris Gereta.
7 Iker Zelaia.
8 Belen Zumalde.
9 Karmele Exposito.
10 Felix Biain.
11 Eli Amilibia.
12 Pablo Miguel Esteban.
13 Jone Ma Izura.
14 Elias Mugika.
15 Jose Moto.
16 Maria Asuncion Zelaia.
17 Ana Mari Agirre.

**PP**



**Julio Perez de Arriluzea**
Soziologoa
31 urte • Gasteiz

2 Karmelo Barrio.
3 Jose Miguel Lopez-Roberts.
4 Mercedes Ruiz.
5 Ana Maria Lopez.
6 Jose Ignacio Perez.
7 Gonzalo Peral.
8 Joaquin Ferrer.
9 Mari Cruz De La Fuente.
10 Ana Maria De Garnica.
11 Francisco Javier Lopez.
12 Jorge Iñigo Tapia.
13 Maria Cristina Garcia.
14 Susana Felipe.
15 Maria Rosario Atxa.
16 Mari Carmen Barrera.
17 Antonio De Escudero.

**EAE ANV**



**Marijo Altube**
Irakaslea
40 urte • Oñati

2 Karmelo Arregi.
3 Lierni Axpe.
4 Mikel Gotzon Igartua.
5 Jesus Mari Gotilla.
6 Aitor Lizarralde.
7 Ana Mari Evaristo.
8 Mikel Mantxol.
9 Arantzazu Altzelai.
10 Santiago Bernal.
11 Ignacio Etxeberria.
12 Esther Auzmendi.
13 Gerardo Zurutuza.
14 Begoña Usandizaga.
15 Mikel Kortabarria.
16 Esperanza Elizondo.

## ARETXABALETA

**EAJ PNV**



**Arritxu Oliden**
Komertziala
40 urte • Aretxabaleta

2 Juanan Gutierrez.
3 Neida Gabilondo.
4 Pedro Mari Amallobieta.
5 Jesus Mari Herrasti.
6 Leire Solupe.
7 J. Iñaki Saenz-Azkunaga.
8 Aitor Gabilondo.
9 Isidoro Garcia Etxabe.
10 Sabina Igartua.
11 Maria Pilar Leanizbarrutia.
12 Antonio Cortes.
13 Mikel Uribetxebarria.

**Aretxabaletako Abertzale Sozialistak**



**Josu Atxaga**
Kooperatibista
30 urte • Aretxabaleta

2 Ainara Bilbao.
3 Josu Zaloña.
4 Irati Pagoaga.
5 Haritz Arrese.
6 Oier Amozarrain.
7 Aiora Filarmendi.
8 Xabier Urtzelai.
9 Maria Azucena Cardenal.
10 Unai Altuna.
11 Leire Urra.
12 Gorka Uriarte.
13 Maria Asuncion Bengoa.

**PSE-EE PSOE**



**Ainhoa Sagarribai**
Kazetaria
33 urte • Aretxabaleta

2 Angel Sagarribai.
3 Milagros Martinez.
4 Andres Lorenzo.
5 Lorenzo Fernandez.
6 Elena Lopez De Gereñu.
7 Julian Gabino.
8 Inmaculada San Sebastian.
9 Francisco Lopez Urbano.
10 Antonia Boyero.
11 Victoriano Sardon Perez.
12 Maria Lourdes Rodriguez.
13 Valentin Luis Romero.

**eusko alkartasuna**



**Lore Martinez**
Informatika Ingeniaria
36 urte • Aretxabaleta

2 Edorta Mendieta.
3 Andres Lezeta.
4 Ana Isabel Aranzadi (Indep.).
5 Vicente Manuel Zubillaga.
6 Elena Vazquez (Indep).
7 Iñigo Juan Lopez (Indep).
8 Mari Carmen Olabe.
9 Pedro Mendieta.
10 J. Domingo Landaluze (Ind).
11 Francisca Sasiain.
12 Miguel Angel Delgado.
13 Jose Ignacio Altuna.

**aralar**



**Inaxio Garro**
Euskadiko KUtxako langilea
43 urte • Aretxabaleta

2 Jose Angel Antxia.
3 Araceli Herran.
4 Jon Ander Loidi.
5 Laura Perez (Indep).
6 Peli Beltran De Heredia.
7 Xabier Sarasua.
8 Maria Agirre.
9 Leire Arana (Indep).
10 Kepa Gotzon Antxia (Indep).
11 Luz Mery Rojas (Indep)
12 Pedro Maria Azkargorta.
13 Idoia M. Elexpuru. (Indep).

**EzkerBatua Berdeak**



**Tomas Fernandez**
Langilea
48 urte • Aretxabaleta

2 Javier Abalde.
3 Jaime Mujika.
4 Sonia Galan.
5 Maria Luisa Uriarte.
6 Gorka Uriarte (Indep)
7 Antonio Calvelo.
8 Rosa Maria Navajo.
9 Jesus Del Fresno.
10 Maria Isabel Olivenza.
11 Julian Muñoz.
12 Maria Teresa Lejarza.
13 Agustin Valor.

**PP**



**Angel Santano**
Industria maisua
50 urte • Gasteiz

2 Andres Maria Gay-Pobes.
3 Carlos Perez De Camino.
4 Silvia Peral.
5 Maria Pilar Corrales.
6 Jose Mari Erenas.
7 Francisco De Borja Morillo.
8 Ana Mari Gozalo.
9 Gregorio V Arreytunandia.
10 Marta Llavero.
11 Maria Victoria Maher.
12 Jose Ignacio Gutierrez.
13. Maria Rocio Macias.

**EAE ANV**



**Anjel Bergaretxe**
Ingeniari teknikoa
45 urte • Aretxabaleta

2 Larraitz Arando.
3 Jose Ignacio Iturri.
4 Nerea Altuna.
5 Juan Mari Urrutia.
6 Naiara Olabarria.
7 Francisco Javier Ormaetxea.
8 Marta Martinez Etxapresto.
9 Ane Arenaza.
10 Lorea Serrato.
11 Igor Pedro Oskoz.
12 Eneritz Urrutia.
13 Maria Isabel Etxeberria.

## ESKORIATZA

**EAJ PNV**



**Aitor Urrutia**
Zaharren egoitzako zuzendaria
33 urte • Eskoriatza

2 Maria Begoña Eraña.
3 Mari Carmen Iglesias.
4 Edith Altuna.
5 Karmelo Azkoitia.
6 Josu Ezkurdia.
7 Maria Arantzazu Enekotegi.
8 Emeterio Gallastegi.
9 Jose Ignacio Heriz.
10 Maria Isabel Alberdi.
11 Florentino Galindo.

**Eskoriatzako Abertzale Sozialistak**



**Edorta Zubizarreta**
Administraria
44 urte • Eskoriatza

2 Dorleta Kortazar.
3 Lorea Diaz.
4 Jose Joaquin Enekotegi.
5 Victor Gurrutxaga.
6 Iñaki Uribe-Etxeberria.
7 Oihana Aranburuzabala.
8 David Arriola.
9 Liher Armendariz.
10 Asier Urtzelai.
11 Aritz Oianguren.

**PSE-EE PSOE**



**Iñaki Pierrugues**
Talde sozialistako asesorea
50 urte • Eskoriatza

2 Coral Rodriguez.
3 Jose Perales.
4 Catalina Nuñez Parada.
5 Edgar Humberto Astudillo.
6 Mari Carmen Llorente.
7 Agapito Eulalio Gil.
8 Roberto Erraste.
9 Begoña Larrauri.
10. Donato Gasco.
11 Josefa Lozano.

**eusko alkartasuna**



**Juan Karlos Bengoa**
Historialaria
40 urte • Eskoriatza

2 Karmelo Lezeta (Indep).
3 Xabier Otamendi.
4 Txomin Azpitarte.
5 J. Ignacio Leturiaga (Indep).
6 Maria Angeles Agiriano.
7 Unai Iñurrategi.
8 Koldo Oianguren.
9 Manu Villar.
10 Maider Otamendi.
11 Eduardo Okina.

**aralar – zutik – EzkerBatua Berdeak**



**Juan Luis Merino**
Fagorreko espezialista
42 urte • Aretxabaleta

2 Imanol Zubizarreta.
3 Luis Varo.
4 Blanca Mercha.
5 Enrique Marcos.
6 Monserrat Perez.
7 Antonio Caballero
8 Manuel Mata.
9 Teresa Manzanal.
10 Maria Mercedes Horrillo.
11 Unai Agirrezabalaga.

**ESKORIATZAKO ELIZATEAK**



**Leire Okarantza**
Emuneko teknikaria
33 urte • Eskoriatza

2 Unai Salaberria.
3 Juan Carlos Beloki.
4 Javier Villar.
5 Arantzazu Loidi.
6 Ugutz Muñoa.
7 Ana Rosa Iregi.
8 Arantzazu Hernandez.
9 Igor Elkorobarrutia.
10 Asier Heriz.
11 Francisco Javier Zabala.

**PP**



**Mercedes Delgado**
Harreman publikoak
52 urte • Madrid

2 Jorge Federico Knopf.
3 Domingo Rueda.
4 Angel Santos.
5 Pilar Zapata.
6 Ana Maria Sainz.
7 Nazario Redondo.
8 Ana Maria De Juana.
9 Santiago Agirre.
10 Maria Concepcion Ansaldo.
11 Maria Tavira.

**EAE ANV**



**Pedro Lasagabaster**
Baserritarra eta biologoa
37 urte • Eskoriatza

2 Dorleta Lezeta.
3 Edorta Barandiaran.
4 Ander Agiriano.
5 Estitxu Azpitarte.
6 Jesus Mari Erraste.
7 Maria Milagros Goñi
8 Naroa Esnal.
9 Fernando Etxebarria.
10 Gotzone Duñabeitia.
11 Agustin Zugasti.

## ELGETA

**ELGETAKO ABERTZALEAK**



**Patxi Basauri**
Industria-maisua
62 urte • Elgeta

2 Josefa Mujika.
3 Iñaki Ugarteburu.
4 Izaskun Larrea.
5 M. Begoña Alejandra Arozena
6 Idoia Ubera.
7 Itziar Urizar.
8 Luis Mari Retolaza.
9 Maria Begoña Ardantza.

**Elgetako Abertzale Sozialistak**



**Xabier Ezpeleta**
Tabernaria
48 urte • Elgeta

2 Sebas Arantzabal.
3 Victor Manuel Gallastegi.
4 Ane Bilbao.
5 Jesus Mari De Vega.
6 Ane Elortza.
7 Segundo Urizar.
8 Maria Arantzazu Arrieta.
9 Juan Ramon Garitano.

**PSE-EE PSOE**



**Gonzalo Solana**

2 Pedro Lopez
3 Maria Jesus Diez.
4 Jose Martinez.
5 Alicia Gonzalez.
6 Alberto Egaña.
7 Maria Del Carmen Basurto.
8 Emilio Pascual.
9 Juan Antonio Rey.

**aralar**



**Oxel Erostarbe**
Irakaslea
28 urte • Elgeta

2 Iban Retolaza.
3 Rebeka Ubera.
4 Ana Gillegi (Indep).
5 Jose Mari Zubiaurre (Indep).
6 Garbiñe Sarasketa (Indep).
7 Itziar Eizagirre (Indep).
8 Gaizka Bolinaga (Indep).
9 Jabier Arantzeta.

**PP**



**Isabel Gracia**
Langilea
60 urte • Madrid

2 Ramon Segura.
3 Elisa Lopez.
4 Jose Castañeda.
5 Francisca Orgaz.
6 Vicente Rivera.
7 Maria Josefa Sanchis.
8 Clara Salido.
9 Diana Caruncho.

**EAE ANV**



**Edurne Alberdi**
Autonomoa
61 urte • Elgeta

2 Leire Basauri.
3 Iraitz Lazkano.
4 Geaxi Ezpeleta.
5 Mikel Romanelli.
6 Maialen Elortza.
7 Jesus Mari Beristain.
8 Maider Gainzos.
9 Rosa M. Untzetabarrenetxea.

## ANTZUOLA

EAJ PNV



**Basilio Ormazabal**
Administraria
50 urte • Antzuola

2 Dina Mujika.
3 Jose Ignacio Beltran.
4 Mikel Larrea.
5 Joseba Lezeta.
6 Iñigo Ramirez De Ocariz.
7 Florentino Lamariano.
8 Jesus Agirre.
9 Tomas Jauregi.
10 Jose Angel Zabalo.
11 Jose Mari Larrea.

Antzuolako Abertzale Sozialistak



**Juan Antonio Iturbe**
Ingeniari teknikoa
53 urte • Antzuola

2 Mireia Unamuno.
3 Mikel Aristi.
4 Patricio Bideluze.
5 Jose Antonio Ugarteburu.
6 Agurtzane Loidi.
7 Maria Itziar Loidi.
8 Juan Cruz Lizarralde.
9. Marai Mercedes Araistegi.
10 Miguel Angel Olabarria.
11 Juan Jose Aranburu.

PSE-EE PSOE



**Paco Morcillo**
Langilea
56 urte • Antzuola

2 Maria Elvira Kortajarena.
3 Juan Benitez.
4 Modesto Caceres.
5 Venancio Tena.
6 Isabel Ortiz.
7 Leandro Pedro Garcia.
8 Claudio Cabrera.
9 Isabel Benitez.
10 Juan Raul Soriano.
11 Marcelino Pozo.

aralar zutik EzkerBatua Berdeak



**Pilar Etxaniz**
Irakaslea
53 urte • Antzuola

2 Jose Mari Iturbe.
3 Francisco Castro.
4 Mara Cristina Bakaikoa.
5 Maria Belen Azkarate.
6 Juan Carlos Conde.
7 Joxe Javier Etxaniz.
8 Maria Eugenia Irizabal.
9 Agustina Caceres.
10 Tomas Larrañaga.
11 Maria Begoña Murgiondo.

PP



**Pedro Antonio Martin**
Langilea
57 urte • Madrid

2 Maria Cristina De Miguel.
3 Maria Pilar Albizu.
4 Maria Teresa Rodriguez.
5 Maria Consolacion Lorz.
6 Maria del Carmen Seco.
7 Juan Angel Campos.
8 Miguel Jimenez.
9 Jorge Torres.
10 Alicia Soto.
11 Martina Hernandez.

EAE ANV



**Pedro Mari Iturbe**
Mekanikoa
29 urte • Zumarraga

2 Patxi Olabarria.
3 Mari Paz Ugalde.
4 Andoni Azkargorta.
5 Mari Carmen Jauregi.
6 Alberto Burunza.
7 Eneko Iturbe.
8 Teresa Sanchez.
9 Jose Ignacio Agirre.
10 Mariano Jurado Garcia.
11 Bernardo Kortabarria.

## LEINTZ GATZAGA

INDEPENDENTEAK



**Eusebio Villar**
Industria diseinatzailea
56 urte • Eskoriatza

2 Ainara Zubillaga.
3 Ignacio Elkorobarrutia.
4 Asier Elkorobarrutia.
5 Iñaki San Pedro.
6 Ibon Oñederra.
7 Ainhoa Barandiaran.

PP



**Julio Valle**
Erretiratua
74 urte • Ferrol

2 Emilia del Pilar.
3 Iñigo Elorza.
4 Ana Maria Garcia
5 Silvia Lurueña
6 Maria Teresa Aldasoro.
7 Javier Romero.

## ARAMAIO

EAJ PNV



**Iñaki Nafarrate**
Teknikaria Fagorren
56 urte • Aramaio

2 Jose Mari Vilches
3 Angel Diaz de Zerio.
4 Juan Miguel Loiti.
5 Patxi Unzueta.
6 Pili Beitia.
7 Ana Mari Jauregi.
8 Juan Barriola.
9 Julian Unzueta.

Aramaioko Abertzale Sozialistak



**Luis Mari Eriz**
Kooperatibista
52 urte • Aramaio

2 Jon Uribarren.
3 Aitor Axpe.
4 Juan Jose Peciña.
5 Agustin Arrizabalaga.
6 Oier Kortabarria.
7 Jose Carretero.
8 Juan Saizar.
9 Alex Mendikute.

PSE-EE PSOE



**Asuncion Irazustabarrena**

2 Ezkioga San Juan.
3 Jose Mari Prieto.
4 Florencio Martiarena.
5 Eduardo Markina.
6 Gaizka Malo.
7 Ramon Agirre.
8 Cristina Juesas.
9 Miguel Marizkurrena.

eusko alkartasuna



**Andres Osinaga**
Proiektista
59 urte • Aramaio

2 Miren Dorleta Beitia.
3 Jose Francisco Goronaeta.
4 Yago Goronaeta.
5 Ignacio Etxabe.
6 Rosa Maria Kortabarria.
7 Benjamin Fernandez.
8 Esperanza Urizar.
9 Enrique Ibabe.

EzkerBatua Berdeak



**Jose Miguel Hernandez**
Abokatua
34 urte • Gasteiz

2 Nicolas Cardenas.
3 Xaira Alacid.
4 Antonio Maeso.
5 Luis Jaime Perea.
6 Nagore Fernandez.
7 David Lopez.
8 Juan Manuel Perez.
9 Agustin Quesada.

PP



**Iñaki Ortega**
Ekonomilaria
35 urte • Bilbo

2 Hilario Alfaro.
3 Conchi Agüera.
4 Juan Onaindia.
5 Francisco Sainz.
6 Lourdes Hortas.
7 Beatriz Maylin.
8 Luis Dos Santos.
9 Mari Luz Zarasketa.

EAE ANV



**Asier Agirre**
Autonomoa
33 urte • Aramaio

2 Joseba Jauregi.
3 Martin Arriolabengoa.
4 Jon Errasti.
5 Ainara Inunziaga.
6 Alberto Barrondo.
7 Iker Agirreurreta.
8 Gillen Agirre.
9 Patxi Xabier Bastarrika.

**BATZAR NAGUSIAK** > DATUAK

# Batzar Nagusietarako bailarako 27 hautagai

## Lau barrutitan banatzen dute Gipuzkoa; Deba-Urola barrutian 14 ordezkari aukeratuko ditugu

## Hauteskundeetako mahaiak osatzeko zozketak egunotan egingo dituzte udaletxeetan

**AINTZANE IRIZAR** > BERGARA

Maiatzaren 27an, udal hauteskundeekin batera, Gipuzkoako Batzar Nagusietako ordezkariak aukeratzeko hauteskundeak ere izango ditugu. Beti egiten dira bi hauteskundeok batera. Eta, ezustekorik ezean, maiatzeko azkeneko domekan izaten dira, Hauteskunde Legeak halaxe ezartzen du eta.

Gipuzkoaren kasuan, herrialdea lau hauteskunde barruti edo eskualdetan banatzen da: Donostialdea, Oria, Bidasoa-Oiartzun eta Deba-Urola. Azkeneko hori da guri dagokiguna.

Batzar Nagusiak 51 ordezkarik osatzen dituzte. Donostialdeko barrutian 17 ordezkari aukeratuko dituzte; Bidasoa-Oiartzuni 11 ordezkari aukeratzea dagokio; Oriari bederatzi eta guri, Deba-Urola barrutiari, alegia, 14 ordezkari.

**DEBAGOIENDAR UGARI HAUTAGAI**

Alderdi eta plataformek Batzar Nagusietako hauteskundeetarako aurkeztu dituzten zerrendetan, 27 debagoiendar ditugu. Aldameneko taulan jaso ditugu guztien izen-abizenak, zerrendan zenbatgarren tokian aurkezten diren eta nongoak diren edo non bizi diren.

Debagoiendar horien artean, aipatzekoak dira Iñaki Galdosen eta Rebeka Uberaren kasuak. Iñaki Galdos oñatiarra EAko Deba-Urolako zerrendaburua da, baina baita ahaldun nagusi izateko hautagaia ere. Bestalde, Ezker Batua Berdeak-Aralar koalizioko zerrendaburu da Rebeka Ubera elgetarra.

Debagoiendar gehien dituen zerrenda da Deba-Urolako Abertzale Sozialistena. Sei debagoiendar aurkitu ditugu zerrenda horretan.

**ZOZKETAK EGUNOTAN**

Hauteskundeetarako mahaietan zein herritarrek egon behar duten zehazteko zozketak egunotan egingo dituzte udaletxeetan. Hauteskunde Legeak ezartzen duenaren arabera, apirilaren 28a eta maiatzaren 2a bitartean egin behar dira zozketak, jendaurrean eta osoko bilkuran. Ibarreko herri gehienetan zehaztu dute zozketok noiz egin. Bihar, zapatua, Oñatin eta Elgetan egingo dute zozketa. Astelehenean, hilak 30, Bergaran, Antzuolan eta Arrasaten. Eskoriatzan, Aretxabaletan eta Aramaion, azkenik, maiatzaren 2an, eguaztena, egingo dituzte zozketok.

Aipatzekoa da, azkenik, astelehean, hilak 30, emango dituztela argitara hauteskundeetarako behin betiko zerrendak.

### Batzar Nagusietarako gureko hautagaiak

| | POSTUA | HERRIA |
|---|---|---|
| **EAJ-PNV** | | |
| Ainhoa Galdos | 4 | Oñati |
| Aintzane Oiarbide | 9 | Bergara |
| Ixidor Solupe | 11 | Arrasate |
| Iñigo Ramirez de Okariz | 13 | Antzuola |
| **DUAS** | | |
| Maite Aristegi | 2 | Bergara |
| Aitor Arantzabal | 3 | Bergara |
| Aitzol Arregi | 7 | Oñati |
| Natale Landa | 8 | Arrasate |
| Mila Elortza | 10 | Bergara |
| Utzune Urrizalki | 12 | Arrasate |
| **PSOE** | | |
| Francisco Garcia | 2 | Arrasate |
| Maria Karmen Barrenetxea | 6 | Bergara |
| Ainhoa Sagarribai | 11 | Eskoriatza |
| Maria Lorea Lana | 13 | Arrasate |
| Francisco Zendoia | 14 | Bergara |
| **EA** | | |
| Iñaki Galdos | 1 | Oñati |
| Juan Carlos Bengoa | 3 | Eskoriatza |
| Bittor Gorrotxategi | 5 | Bergara |
| Amaia Larrañaga | 11 | Arrasate |
| **EB-Aralar** | | |
| Rebeka Ubera | 1 | Elgeta |
| Ander Rodriguez | 2 | Arrasate |
| Iñigo Iñurrategi | 5 | Bergara |
| Juan Martin Elexpuru | 11 | Bergara |
| Juan Luis Merino | 12 | Eskoriatza |
| **EAE-ANV** | | |
| Agurtzane Diaz | 5 | Bergara |
| Ino Galparsoro | 7 | Arrasate |
| Jose Ramon Agirreurreta | 12 | Arrasate |

Iturria: Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala (GAO)

**ENPRESA** > GARAIA POLOA

# Mikrofabrikazioko laborategiak inauguratu ditu MUk Garaia Poloan

Espainiako Estatuan bakarrak dira laborategiak, eta, arduradunen esanetan, Europan erreferente bihurtuko dira



**INAUGURAZIOA** Agintariak, udal ordezkariak eta enpresetako arduradunak inaugurazio ekitaldian. ARRITXU BARRUSO

**AINTZANE IRIZAR** > ARRASATE
Mikrofabrikazioko laborategiak inauguratu ditu asteon Mondragon Unibertsitatearen Goi Eskola Politeknikoak Garaia Berrikuntza Zentroan, Arrasaten. Horrela, MUk apustu berria egin du ikerketaren alorrean, eta beste urrats bat egin.

Eguaztenean egin zuten inaugurazio ekitaldia eta hantxe izan ziren, besteak beste, Eusko Jaurlaritzako Industria Berritzeko eta Garatzeko sailburuorde Iñaki Telletxea; Unibertsitate eta Ikerketa sailburuorde Ibone Ametzaga; MCCko lehendakari Jose Maria Aldekoa; MUko errektore Josu Zabala; MUko lehendakari Jose Ramon Goikoetxea; eta MUko zuzendari Bizente Atxa. Eusko Jaurlaritzako Industria Saileko, Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntza eta Jakintzaren Gizarteko Departamentuko, SPRIko, enpresetako eta zentro teknologikoetako ordezkariak ere Arrasaten izan ziren. Horiek guztiek azpimarratu zuten Mondragon Unibertsitateak egindako ibilbide bikaina industriaren eta ikerketaren alorretan.

**INBERTSIO GARRANTZITSUA**

Eguaztenean inauguratutako laborategiak eraikitzeko 1,8 milioi euro inbertitu dituzte. Horretarako, Espainiako Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren eta MCCren laguntza izan dute. Aipatzekoa da, bestalde, zentroek urtero bi milioi euroko aurrekontua izango dutela ikerketetarako.

**ESTATUKO LEHENENGOA**

MUren laborategiak Estatuan bakarrak dira eta ikerketaren alorrean Europako erreferente bihurtuko dira, arduradunen esanetan. Doitasun handiko eta teknologia aurreratuko makinekin hornituta daude eta mikrofabrikazioko prozesuen ikerketa garatzeko espezializatuta daude.

Honako sektore hauetan jardungo dute laborategietan, besteak beste: automozioa, aeronautika, osasuna eta bioteknologiak, energia, etxetresna elektrikoak, telekomunikazioak, moldeak eta matrizeak.

Aurrerantzean 120 langile izango dituzte laborategiok; langileok bi taldetan banatuta jardungo dute: mikrokonformazioko laborategietan batzuek eta mikromekanizatuko laborategietan besteek. Mikrokonformazioko laborategian materialen konformaziorako prozesu aurreratuak garatuko dituzte; mikromekanizatuko laborategietan, bestalde, errendimendu handiko mekanizazio prozesuak.


# Gazte ikastaroak



**GAUR EGUNGO DANTZA**

Maite Albesen eskutik
Maiatzaren 7tik ekainaren 13ra arte
Astelehena eta eguaztena, 18:00-19:30
Kultur Aten
Matrikula:
20 euro
12 euro ikasle edo langabeentzat

**EUSKAL DANTZAK**

Lore Gazteak-en eskutik
Maiatzaren 17tik ekainaren 16ra arte
Egubakoitza, 19:00-20:30
Lore Gazteak taldearen lokalean
Matrikula:
10 euro
6 euro ikasle edo langabeentzat



**Izena emateko: Gazte Bulegoan (943 77 00 65)**
**www.gaztebulegoa.com**

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Gazteria saila

**ELKARTASUNA** > MUNDUKO UME GUZTIEN HEZKUNTZA ESKUBIDEAREN ALDE

# Hezkuntzaren aldeko ekintza astea gurean

Arrasateko Zero Pobrezia Plataformak, Elkarhezitzen taldeak, ikastetxeek eta Alboan Fundazioak hainbat ekitaldi izan dituzte asteon, hezkuntzaren aldeko munduko ekintza astean



**JAIALDIA** Arrasaten egindako jaialdia. ARRITXU BARRUSO

**AINTZANE IRIZAR** > ARRASATE

Munduko ume guztiek hezkuntza eskubideak izan ditzatela eskatzea izan da hezkuntzaren aldeko munduko ekintza astearen helburua. Arrasaten eta Eskoriatzan hainbat ekitaldi izan dituzte, Arrasateko Zero Pobrezia Plataformak eta Elkarhezitzen taldeak antolatuta. Herri horietako ikastetxeen, Gipuzkoako Medicus Mundi taldearen eta Alboan Fundazioaren laguntasuna izan dute ekitaldi horiek guztiak prestatzeko.

**EKITALDI NAGUSIA ARRASATEN**

Eguazten goizean egin zuten ekitaldi nagusia Arrasaten. Teranga Senegalgo musika taldea, bertsoak, manifestuaren irakurketa eta abar egin zituzten Herriko Plazan. Ferixalekuko eta San Viator ikastetxeetako DBHko lehen eta bigarren mailetako ikasleek parte hartu zuten ekitaldi hartan, eta eurak arduratu ziren antolaketa lanez ere. Giza kate erraldoia ere egin zuten ikasleek.

Arratsaldean, bestalde, Afrika eta Amerikako jokoak ezagutzeko aukera izan zuten neskamutikoek, baita hainbat tailerretan parte hartzeko ere. Teranga taldeak jarri zien musika erritmoa ekitaldiei.

Eguen goizean Eskoriatzan egin zituzten ekitaldiak, Luis Ezeiza ikastetxeko eta Almen ikastolako ikasleek prestatuta. Giza katea egin zuten, Teranga musika taldearen emanaldia izan zuten eta hezkuntzaren aldeko testua eta manifestua irakurri zituzten, besteak beste.

Ekitaldi horiek guztiak Elkarhezitzen izeneko ekimenaren barruan kokatu behar ditugu. Elkarhezitzen ekimena da ibarreko hainbat gobernuz kanpoko erakundek eta ikastetxek abian jarritakoa.

**AUTOBIDEA** > DELITU EKOLOGIKOAK

## AP-1 eraikitzen akatsak egin direla salatu du Aralarrek

AP-1en eraikuntzan irregulartasunak izan direla adierazi zuen Aralarrek martitzenean

**AMAIA ZALDUA** > DEBAGOIENA

Martitzeneko prentsaurrekoan, Aralarrek irregulartasunak salatu zituen Zarimutz errekan eta Mekolalde-Landa bidegorrian. Hortaz, Ingurumen fiskalari eskatuko dio ikertzeko AP-1en eraikuntzan delitu ekologikorik egon den edo ez.

**ERAIKUNTZAKO AKATSAK**

Batetik, obren gaineko informazioa publikoari emateko epea bukatu aurretik, Aralarrek azalpenak eskatu zizkion Bidegiko zuzendari Nestor Aranari, eta "ez zuen egia esan; proiektuan ez zen Zarimutz errekaren estaltzea jasotzen", esan zuten.

Bestetik, Mekolalde-Landa artean egiten ari den bidegorria Foru Aldundiak finantzatuko zuela aurreikusi zen. Aralarrek salatu zuen ardura udalek hartu dutela. Hala, Foru Aldundiari dei egin zion ardura beregana dezan.

**HEZKUNTZA** > EKAINEAN IZANGO DIRA

## UNED-Bergarak udako ikastaroak aurkeztu ditu

32 ikastaro orokor eta metodologiko izango dira, euskaraz eta gazteleraz

**MIRIAN BITERI** > BERGARA

VI. aldiko udako ikastaroen egitaraua aurkeztu zuen eguaztenean UNED-Bergarak. Horien bitartez heziketa eskaintza osatu gura dela esan dute antolatzaileek, "norbanako birziklapena eta profesionala ahalbideratuz"; izan ere, etengabeko heziketa, unibertsitate hedapena eta egungo arazoen hausnarketa bermatzeko antolatutako ikastaroen eskaintza handitu egin da aurten.

Bergaran egingo dira ikastaroak, ekainean. Guztira hiru edo lau egun iraungo duten 32 kurtso eskainiko dira, euskaraz eta gazteleraz.

Maiatzaren 31ean amaitzen da matrikulazio epea. Informazioa jaso edo matrikulazioa osatu nahi duenak UNED-Bergarekin jarri behar da kontaktuan.

**ULMA**

ULMA Hormigon Polimero, Koop. E. Oñati

**OHIKO BATZAR NAGUSIA**

**D E I A**

**Eguna:** 2007ko maiatzaren 4a
**Ordua:** 15:00etan lehen deialdia eta 15:30ean bigarrena
**Tokia:** Gandiaga Topagunea - Arantzazu

**GAI ZERRENDA**

1. Aurreko akta onartzeari buruzko txostena eta Batzar Nagusi honen akta onartzeko bazkideak izendatzea.
2. 2006ko ekitaldiko memoria irakurtzea eta onartzea, eta 2007ko gestio plana berrestea.
3. Ulma taldeari buruzko txostena.
4. 2006ko ekitaldiko kontuak eta balantzea aztertzea eta, hala badagokio onartzea.
5. Soberakin garbiak banatzea.
6. Heziketako eta kooperatiba-sustapeneko fondoen (HKSF) erabilera.
7. Egituraz gaindiko erakundeekin zerikusia duten gaiak.
8. POGU IIIren III. tituluaren 2.1.2 eta 2.2 atalak aldatzea, hala badagokio.
9. Auditore izendapena.
10. Estatutu Sozialen 13 eta 28. artikuluak aldatzea, hala badagokio.
11. Kooperatibaren Barne Araudiaren 6 eta 82. artikuluak aldatzea, hala badagokio.
12. Ekonomia araubideko Estatutu-Xedapenak.
13. Mendeko ekarpen finantzarioen jaulkipena.
14. Zaintza batzordeko kide bat berritzea.
15. Kontseilu Sozialeko kideak berritzea.
16. Galderak eta eskaerak.

*Oñati, 2007ko maiatza*

OHARRA: Bazkide guztien jakinaren gainean zera jartzen da, kontabilitate liburuak eta deialdi honetan proposatutako Estatutuzko, Barne Araudiaren eta POGU IIIren aldaketen testuak eta zergatien txostena egoitza sozialean aztertzeko eskubidea dutela. Hala eskatzekotan, dokumentuok eman egingo zaizkie, edo doan bidaliko.

**LANGILEEN ESKUBIDEAK** > SINDIKATUEN MOBILIZAZIOAK

# Candyko sindikatu guztiek lan istripuak salatu zituzten atzo

ELA, LAB, ESK, CCOO eta UGTk lan istripuak salatzeko asmoz kontzentrazioa egin zuten atzo Bergarako Candy Hoover lantegian

**AMAIA ZALDUA** > DEBAGOIENA

Lan Osasunaren Nazioarteko Eguna gertu dagoela-eta, ELA, LAB, ESK, CCOO eta UGT sindikatuak biltzen dituen Candyko batzordeak kontzentrazio bateratua egin zuen atzo.

Sindikatuak bilduta egon ondoren, batzordeak erabakitakoa azaldu zieten langileei eta ordubeteko kontzentrazioa egin zuten.

Sindikatu guztiek bat egiten dute "prekarietateari aurre egin behar zaiola eta administrazioak ahal duena baino gutxiago egiten duela" esatean.

Candyko batzordeko ordezkari Ramon Romerok argi utzi du "enpresariek ikusten ez duten arren, istripu eta baja gutxiago badaude enpresa errentagarriagoa izango dela, eta, beraz, prebentzioan inbertitu behar dela".

Eta, azkenik, dei egiten zieten gainontzeko sindikatuei euren bateratzea eredutzat har dezaten.

**GAURKO DEIALDIAK**

Bihar da Lan Osasunaren Nazioarteko Eguna eta horren harira, ELA eta ESKk manifestazioa egingo dute gaur, barikua, Bilbon.

LABek 12:00etatik 13:00etara bitarteko lanuztea deitu du, gaur.

UGTk, 10:00etan, erakusketa egingo du Bilbon lan osasunaren argazkiak erakusteko, eta ondoren, manifestazio baten bidez, manifestua eramango du Eusko Jaurlaritzara.

CCOOk, berriz, atzo, eguena, egin zuen lanuztea.

**MAIATZAREN 1ERAKO DEIAK**

Maiatzaren 1erako dei ere egin dute sindikatuek. Bilborako bi deialdi daude: batetik, ELAk manifestazioa egingo du, 12:00etan, Jesusen Bihotzetik Plaza Biribilera. Ondoren, bazkaria izango da BECen. Bestetik, ESKk ere manifestazioa egingo du EILASekin batera. Hala ere, Tuterarako eta Iruñerako deialdiak ere egin ditu CGTrekin bateratuta.UGTk Bilbon, Gasteizen eta Donostian egingo ditu manifestazioak, CCOOrekin batera.

Azkenik, LABek 19 eskualdetan egin du deialdia, eta gure bailaran 12:30ean hasiko da manifestazioa, Arrasaten.

**euskara plazara**

**DEBAGUNE-REN BULETINA**

## Herri Urratsera joateko autobusak antolatu dira bailarako herrietatik

**DEBAGUNE** > DEBAGOIENA
Datorren maiatzaren 13an, Herri Urrats ospatuko da Senpereko lakuaren bazterretan. Ohikoa den legez, Debagunek ibarreko hainbat herrietan autobusak antolatu ditu Seaskak antolatzen duen Iparraldeko ikastolen aldeko festara hurbiltzeko.

Zehazki, Aretxabaleta, Arrasate, Oñati eta Bergaratik irtengo dira autobusak. Esandako lehen herrian 8:45ean izango da irteera Azbetik. Oñatin ere ordu berean ekingo diote bidaiari, Correosetik. Arrasatetik, berriz, ordu laurden beranduago irtengo da. 9:00etan, hain zuzen ere. Garibain jarrita dago hitzordua. Bergarako autobusa ere ordu berean du jarrita irteera, autobus geltokitik. Itzulera, berriz, 19:00etan izango da Senperetik.

> **Aretxabaleta, Arrasate, Oñati eta Bergaratik irtengo dira autobusak**
>
> **Txartelak herri bakoitzeko euskara elkarteetan salduko dira maiatzaren 9a baino lehen**

**TXARTELAK**
Debagunek jakinarazi duenez, txartelen prezioa zazpi eurokoa izango da bazkideentzat. Gainontzekoentzat, bitartean, hamar eurokoa izango da.

Txartelak herri bakoitzeko euskara elkarteetan eskuratu ahal izango dira datorren maiatzaren 9a arte. Alegia, Aretxabaletan Loramendin, Arrasaten AEDn, Oñatin Laixan eta Bergaran Jardunen. Informazio gehiago izan nahi duenak edo zalantzaren bat duenak, 943 76 36 61 telefono zenbakira deitzea du.

Aurreko edizioetan bezala, Herri Urratseko ibilbidea Senpere lakuaren inguruan egingo da. Lau kilometro inguruko luzera izango du.Ibilbidean zehar sei gune topatuko dituzte euskaltzaleek, egitarau zabalarekin.

Edozein ikastolen aldeko festetan gertatzen den legez, musikari tarte handia eskainiko diote antolatzaileek egun osoan zehar. Han izango dira, beste askoren artean, Gatibu, Zea Mays, Eraso eta Une musika talde ospetsuak. Haurrentzako ekimenak ere edozein gunetan topatuko dituzte euskaltzaleek. Eguraldi ona eginez gero, gainera, lakua erabiliko dute Seaskakoek ur-jokoak egiteko.

Iparraldeko ikastolei laguntza emateko deia egin du Debagunek. Horretaz gain, "egun polita" igarotzeko jaialdia paregabea dela gogorazi du.

**POLITIKA** > 4.521 DEBAGOIENDAR JOAN DIRA SINATZERA

## Ezker Abertzaleak eskerrak eman ditu sinadurengatik

Diote "Hauteskunde demokratikoei" 4.521 debagoiendarrek eman dietela babesa

**MIRIAN BITERI** > BERGARA
"Prozesu eta hauteskunde demokratikoen alde" sinadura eman duten guztiei eskerrak eman nahi dizkie ibarreko ezker abertzaleak. 4.521 babes jaso dira.

Sinadurek "balio handia" dutela esan du, "zinezko hauteskunde demokratikoei ateak irekitzeko" balio duelako. Eta "soluzioen prozesuari, herriaren hitza eta erabakiari, bakean eta askatasunean eraiki beharreko aro berriaren" alde egiten duela dio.

Beste eragileei "kontabilitate elektoral hutsean oinarritutako interesak" alde batera utz ditzaten eskatu die ezker abertzaleak.

**Sinadurak herriz-herri**

| | KOPURUA |
|---|---|
| Arrasate | 1522 |
| Bergara | 1149 |
| Aretxabaleta | 492 |
| Eskoriatza | 318 |
| Oñati | 679 |
| Antzuola | 219 |
| Elgeta | 107 |
| Gatzaga | 35 |
| Aramaio | 183 |

**HUHEZI** > EUSKARA BATZORDEA ERATU DUTE EGOERA SOZIOLINGUISTIKOA HOBETZEKO

# Huhezi da MUko fakultate euskaldunena

Huhezin hizkuntzaren ezagutza %100 da, erabilera %82 eta leialtasuna %83. Euskara batzordea eta plana aurkeztu dituzte asteon



**BATZORDEA** Ezkerretik hasita, Perez, Arratibel, Azurmendi eta Zamalloa. GOIENKARIA

**MIRIAN BITERI** > ESKORIATZA
Huhezik, Mondragon Unibertsitatearen Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak, Euskara batzordea aurkeztu zuen martitzenean. Modu horretan, "euskalduna dela eta euskaldun izaten jarraitu nahi duela" erakutsi gura du.

Huhezi da Mondragon Unibertsitatearen barruan fakultate euskaldunena. Emun kooperatibak egindako diagnostikoan azaltzen denez, euskararen ezagutza %100 da esandako fakultatean. Erabilera, berriz, %82 eta leialtasuna %83 da.

**LAU KIDE**
Hala ere, egoera hobetzerik badagoela ohartarazita, Euskara batzordea eratu dute. Lau pertsonak osatzen dute. Zuzendaritzaren izenean, Nekane Arratibel dekanoa dago. Langileen eta ikasleen ordezkariak Beñat Azurmendi eta Beñat Zamalloa dira, hurrenez hurren. Euskara arduradun Karmele Perezek ere osatzen du batzordea.

Joan zen martitzenean egindako aurkezpenean euskara planari buruzko zenbait xehetasun ere aurreratu zituzten.

Euskararen normalizazioan langileak eta ikasleak inplikatzen saiatuko da batzordea, baita langileen hizkuntza kalitatea hobetzen eta, oro har, fakultateko hizkuntzaren kalitatea bermatzen ere. Horretaz gain, euskararen erabilera bultzatzeaz arduratuko da, bereziki ikasleen artean eta baliabide informatikoetan.

Mondragon Unibertsitateko euskara planen markoa adostu eta garatzea, kanpo harremanetan eragin eta finantzabideak lortzea ere badaude helburuen artean. Horiek guztiak lortzeko, eratu berri den Euskara batzordeak zenbait ekintza proposatu eta departamentuei bidali dizkie, haiek azter ditzaten.



## gure artekoak

**OPEL ANTARA>** Merkaturatu berri du Opel etxeak bide orotako automobila: Opel Antara. Automobil dotorea, errepiderako oso egokia, baina errepidetik irteteko aukera ematen diguna.

**Karlos Etxaniz** > Giautoko Opel-eko arduraduna

# "Turismo bezala erabiltzeaz gain, mendirako egokia da"

**AINTZANE IRIZAR** > BERGARA

Badira urte batzuk Opel etxeak lur orotako automobilak ekoizteari laga ziola. Orain, Opel Antara dakarkigu, bide orotako automobila. Horrelaxe azaldu digu Karlos Etxanizek, Bergarako Giautoko Opeleko saltzaileak, zelako ibilgailua den Antara: "Batez ere, errepidean ibiltzeko ibilgailua da, baina aukera ematen digu errepidetik irten eta noizean behin mendiko pistetan ibiltzeko ere; gurpil handiak ditu, altua da eta trakzio integrala dauka".

Aipatzekoa da trakzio integral berezia daukala: AWD (All Wheel Drive). Sistema hori elektronikoa da eta ibilgailuak berak erabakitzen du momentu bakoitzean gurpi bakoitzera zenbaterainoko indarra bideratu behar duen. Horrekin batera, DCS sistema ere badauka, jaitsieretarako kontrol sistema. Botoi bat sakatuta, malda handietan abiadura bera mantentzen du.

**SEGURTASUN OSOA**

Opel Antarak dakarzkigun segurtasun sistemak askotarikoak dira; hona hemen horietako batzuk, bertsio guztiek dakartzatenak: ESP, DCS, balaztatzeko laguntza (HBA), CDC (bihurguneetarako balaztatze kontrola), ARP (iraulitakoan babesteko sistema), AWD eta abar. Segurtasunari dagokionez, maila altuko ibilgailua da.



Karlos Etxaniz, Opel Antara automobilaren ondoan, Bergarako Giauton. A.I.

### Antara Enjoy 2.0 CDTI 150 ZP

| | |
|---|---|
| Prezioa | 31.520 eurotik |
| Luzera | 4,57 metro |
| Zabalera | 1,85 metro |
| Maletategia | 1.740 litro[1] |
| Kontsumoa | 7,5 litro /100 km[2] |
| Abiadura | 180 km/h[3] |
| Otik 100era | 10,3 seg. |
| CO2 isurketak | 197 g/km |

(1) Gehienezko edukiera
(2) Batez besteko kontsumoa, hiri barrukoa eta errepidekoa kontuan hartuta
(3) Gehienezko abiadura

**ESTETIKA ETA EROSOTASUNA**

Estetika bereziki zainduta dauka eta oso ibilgailu dotorea da, kontuan hartuta bide orotarikoa dela. "Bestalde, bidaiatzeko oso erosoa da, turismo bat bezala erabiltzeko modukoa, baina, era berean, erabilera berezia eman dakiokegu, errepidetik irtenda", diosku Etxanizek. Gainera, kontsumoa ez da oso handia bide orotariko ibilgailua izateko.

## etxeko leihotik



**Iban Arantzabal** > Goienako ikus-entzunekoen zuzendaria

# Biktimak: espektakulua arrazoiaren gainetik?

Interesatzen zaizkigu emazteak edo gizonak negarrez, elbarriak mikrofono aurrean, hil dutenaren umeren bat oso piktoriko geratzen da telebista pantailan, hitzaldietan hildakoaren seme-alabaren bat hizlari... Espektakuluaren kulturan bizi gara zoritxarrez eta hedabideetan behin eta berriro ikusten dugu biktimak nola erabiltzen diren. Eta biktimez dihardut, biktima guztiez.

Biktimak heroi ere bihurtu dira zelanbait eta joko berri bat dago modan: "Biktimago zein?". Joko horrek ez du ulertzen arrazoiez, joko hau emozioekin irabazten da: jokatu telebista aurrean zeinek negar egin altuago, jokatu biktimago izatera, monolitoak inauguratzera. Orriak eta orriak *Gara*-n, orriak eta orriak *Deia*-n, orriak eta orriak *El Mundo*-n. Ez denak jokalari berari eskainiak, baina orriak eta orriak emozioei eskainiak eta ez arrazoiari.

**"Errekonozimenduaren ondoren etor bitez barkamena eta oroimena"**

Oker gabiltza espektakuluaren kultura arrazoiarenari gailentzen bazaio, oker lehen eta bigarren mailako biktimak bereizten, biktimez bakarrik berba egiten eta ez barkamenaz, autokritikaz eta oroimenaz, oker biktimak biktimatzat eta pertsonatzat hartu barik espektakulu bihurtzen.

**> Biktimak dira biktima, ez gehiago eta ez gutxiago: ez marionetta, ez heroe, ez politikari, ez bandera; biktimak dira biktima: bai memoria, bai sufrimendua bai pertsona eta bai gure bizitzetako parte.**

**> Biktimak ez daude alde bakarrean. Ekitaldietan ez ditugu "gureak" ez diren biktimak aipatzen eta aurrerapausoa hortxe legoke, biktima guztien errekonozimenduan. Edo biktimagoak dira "gureak"?**

## begi-bistan



**Kontraesana seinaleetan (Oñati)**
**2007/04/25**

**Argazkia:** Oihana Elortza.
**Testua:** Aintzane Irizar.

Oñatiko Olakua auzoan zirkulazioa berrantolatu dute, baina gauzak ez dira argi geratu. Ikusi, bestela, irudia. Zutikakoak diosku ezin dugula eskumara egin eta lurrekoak baietz. Zela ote?

**Har ezazu parte:**
Argazkia eta azalpentxoa bidali honako helbidera:
goienkaria@goiena.com

## izen propioak



**Haritz Etxaniz**
ENPRESARIA

Haritz Etxaniz eta Mikel Almortza bergararrek Jaurlaritzaren Urrats Bat programaren bigarren saria jaso dute. Urrats Bat da Jaurlaritzak lanbide eskolekin abiarazitako programa bat enpresa berriak sortzeko. Bergararrek eguzki plakak instalatzeko Alet enpresa sortu zuten.



**Unai Zuntzunegi**
TXIRRINDULARIA

Espainiako Trialsin Txapelketa jokatzen dihardute Unai Zuntzunegi eta Aitor Murua aretxabaletarrek. Aurreko asteburuan jokatu zuten bigarren proba eta sailkapen orokorrean hirugarren daude biak; Zuntzunegi hasiberrien mailan eta Murua infantiletan.



**Juan Antonio Aretxaga**
BASERRITARRA

Aramaixoko Sagarzalien Elkartea eratu berri dute. Sagarrondoak dituzten 24 baserritar elkartu dira, denen artean sagar-ura egiteko azpiegiturak jartzeko asmoarekin. Lehen batzarra egin dute eta Juan Antonio Aretxaga aukeratu dute lehendakari.

Oroimen historikoa berreskuratzeko ahaleginetan ari den Llum Quiñonero idazle eta gidoilariak *Mujeres que perdimos la paz* hitzaldia egin du asteon Eskoriatzan eta Elgetan. Era berean, 1998an ekoiztu zuen *Mujeres del 36* dokumentala izan da ikusgai. Espainiako gerraren ondorioz isilarazi zituzten emakumeen ahotsa berreskuratu nahi du Quiñonerok.

**Llum Quiñonero** > Idazlea eta gidoilaria

# "Lehenbiziko aldiz dugu orain memoria historikoa berreskuratzeko aukera"

**EDU MENDIBIL** > ARRASATE

**Trantsizioaren garaian, lehen mugimendu feministen sorreran hartu zuen parte Llum Quiñonerok (Alacant, 1954). Historian lizentziaduna, hainbat komunikabidetan egin du lan eta *Nosotras que perdimos la paz* liburuaren (2005) aurretik beste bi lan argitaratu zituen: *Las luces del mar* eta *La soldado Quinoa*. Interneten ere aurki ditzakezue haren testuak, *www.llumquinonero.es* helbidean.**



Llum Quiñonerok bi hitzaldi egin ditu asteon Debagoienean, Eskoriatzan eta Elgetan. Argazkian, martitzenean, Arrasateko Santa Barbara parkean. E.M.

**Debagoienean egindako hitzaldiotan Espainiako gerra jasan behar izan zuten emakumeak omendu dituzu.**

Nire haurtzaroan eta gaztaroan ez nuen emakume horien historia ezagutzerik, ez ziguten historia hori kontatu. Nire asmoa zera izan da: diktadurak isilarazi zuen belaunaldi harekin zubi lana egitea, emakume haiei ahotsa jartzea. Errepublikaren porrotak eta diktaduraren ondorioek borroka hura isilaraztea ekarri zuten, eta horrenbeste atsekabe eta isiltasun berreskuratzeko garai aproposa da gaur. Era berean, nire buruari egindako omenaldia ere bada, nolabait, emakumeen historia ezagutzearekin batera nire historia partikularraren zati hori hobeto ulertzeko.

**Sasoi hartan Espainiako gerran parte hartu zutenei egindako omenaldiak izan dira han eta hemen, Elgetan tartean. Zauriak orbaintzen laguntzen du horrek?**

Zaurien orbaintzea faktore askoren menpe dago: pertsonalak, familiarrak... Eta gerrek eragindako zauriak hain larriak direnez... Irabazleentzat ere gerra batek porrota dakar eta ikusi besterik ez dago zer-nolako ondorioak jasan behar izan dituzten ondorengo belaunaldiek edonon: Vietnamen, Balkanetan, Iraken... Gure kasuan, Espainiako gerraren ondorio larrienetako bat zera izan zen: diktadurak disidenteak zigortu zituela urtetan eta ondorioz ez zegoela lekurik gizartearen zati batendako. Eta egoera hori gainditu ahal izateko ondo daude gizartearen eta alderdi politikoen babesa duten omenaldiak, urtetan errotutako beldurra gainditzeko eta egoera hura sufritu zutenek gauzak aldatzen hasiak direla ikus dezaten. Oraindik ere zahar askok beldurra daukate, ezberdin pentsatzeak zekarrena ondo baino hobeto dakitelako. Beldur eta mesfidantza horiek guztiak indibidualki gainditzen laguntzeko baliagarriak dira omenaldiak, zalantzarik ez.

**Manuel Azañak bakea, barkamena eta errukia defendatzen zituela gogoratzen duzu.**

1938an egindako hitzaldi gogoangarri batean adierazi zuen hori. Errepublikaren alde zirenen artean egondako tirabirak gaindituta, bakea lortzeko hitz egin beharra zegoela esaten zuen, gerrak ez duela inora eramaten. Demokrazia da askatasunez bizitzeko modu bakarra.

**Oroimen historikoa berreskuratzearen alde makina bat lan egindakoa zara. Mingarria eta aldi berean atsegina gerta daiteke. Batzuek nahiago dute atzera ez begiratzea...**

Memoria historikoa berreskuratzea osasuntsua da, bai familientzat eta baita diktaduran bizi izan den gizarte batentzat ere. Ondorioak oraindik ere bizi-bizirik daude hainbat kasutan, eta ez badiegu alde guztiei ahotsa ematen... Ahots asko dituen gizartea da gurea. Eta askotan diot: memoria bakarra baino gehiago, memoria eta egia askoko gizartea da gurea, eta horiek kontatuak izateko eskubidea izan behar dute. Historian lizentziaduna naiz eta gure demokraziaren historian, lehenbiziko aldiz daukagu orain memoria historikoa berreskuratzeko aukera. Trantsizioa ez zen garai aproposa izan, garai hartan komenigarria zelako gauzak ez nahastea. Orain, urrats bat emateko momentuan gaude; instituzio ezberdinen babesarekin, gainera.

MEMORIA HISTORIKOA

**"Memoria historikoa berreskuratzea osasuntsua da, bai familientzat eta baita diktaduran bizi izan den gizarte batentzat ere"**

ISILTASUNA

**"Isiltasuna elementu konplize bat izan da, erresistentziarako baliabide bat askotan"**

OMENALDIAK

**"Beldur eta mesfidantzak gainditzen laguntzeko baliagarriak dira omenaldiak"**

**Jende askoren isiltasuna apurtzea ez da erraza gertatu, ala?**

Isiltasuna elementu konplize bat izan da, erresistentziarako baliabide bat kasu askotan. Zenbaitetan bizirik irauteko jokabide oso inteligentea izan da. Momentuaren arabera, bide hori aukera dezakezu: isilik egon eta garai hobeak etorri arte itxaron. Errespetatu egin behar duzu norbait isilik egon nahi badu. Isiltasun horrek bere lekua behar du, eta, hain zuzen ere, parte hartzen dudan memoria historiko tailerretan isiltasunari omenalditxo bat egiten diogu. Isiltasunean badago errekuperatzerik, badago indarberritzerik.

**Zein da ikastaro horietan egiten duzuen lana?**

Norberaren historiari begirada botatzen diogu eta hausnarketa egiten dugu. Etxeko leihoak zabaltzea bezala da; azken baten, gaur garena gure arbasoak izan direnaren ondorioa da, eta gustuko ez ditugun gauzak ere egingo zituzten beharbada. Historiari aurre egin eta onartzea da kontua. Debagoienean ikastaroren bat egiteko asmoa daukagu. Hasieran, emakumeekin lanean hasi nintzen baina ezinezkoa da norberaren historia planteatzea gizonezkoak kontuan hartzeke. Beraz, ikastaro irekiak izaten dira.



zabalik

Arantxa Jaka

# Zorretan

Badira hilabete batzuk gure bailara honetako ikastetxe batek bizi duen egoera zailaren inguruan han eta hemen albisteak irakurtzen eta ikusten ditugula.

Nire asmoa ez da inplikatutako bi alderdien jarrerak eztabaidatzea, oso une konplikatua delako eta gauzak barruan egonaz bakarrik ondo ezagutzen direlako (eta ondo dakit zer den antzeko prozesu bat orain dela urte gutxi gure elkarteak bizi izan zuelako).

Baina isiltasun bat agerian jarri nahi dut: orain arte, ez da entzun ikastetxe horretako erlijiosoen aldeko eskerroneko hitz bat bera ere. Emakume talde horrek zenbat urte darama beraien onena (pertsona bezala, dirua eta denbora) herriaren/pertsonen alde eskaintzen?

Faltan botatzen ditut behin eta berriz irainduak diren emakume horien aldeko beste emakume batzuen ahotsak, bederen. Eta, aldi berean, guztiz harriturik gelditu naiz erakunde publikoen azkartasunaz arauak aldatzeko orduan. Komeni denean bakarrik (eta ezin dugu ahaztu hauteskundeak gainean ditugula) azkartasun hau? Nork sinetsi dezake bat-batean kongregazio horren asmoa aberastea dela hainbeste urtetan dirua poltsikotik jartzen aritu denean? Horretaz norbait jabetu eta kezkatu al da orain arte? Beste norbaitzuen interesak ez ote daude jokoan?

**"Ez da entzun ikastetxe horretako erlijiosoen aldeko eskerroneko hitz bat bera ere"**

**"Uste nuen Debagoienak solidaritatezko beste sen bat zeukala"**

Kooperatibak direla-eta, uste nuen gure bailara maite honek solidaritatezko beste sen bat zeukala, sakonagoa, baina ametsa dirudi. Hemendik animu beroena ikastetxea osatzen duten guztiei eta erlijiosoen elkarteari, azken txanpa hau ahalik eta egokien gerta dakien, jarrera ezezkorrak bideak erraztu beharrean nahastu besterik egiten ez baitituzte. Egin eta bizi izandako guztia ez da alferrikakoa izango!

Goienkaria

**Argiraratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Monika Belastegi **Sailetako arduradunak** Ubane Madera (Herriak), Edu Mendibil (G2a), Alex Azkarate (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea) **Erredakzioa** Iker Barandiaran, Mirari Altube, Xabi Urtzelai, Oihana Elortza, Aintzane Irizar **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Maketazioa** Alex Azkarate, Kepa Martelo **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martín, Imanol Elortza, Itxaso Berezibar **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 19.155 ale • **Difusioa:** 18.629 ale.

Goiena Komunikazio Zerbitzuak
OJD erakundeak ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK

Eusko Jaurlaritza · Gipuzkoako Foru Aldundia · Arrasateko Udala · Bergarako Udala · Oñatiko Udala
Aretxabaletako Udala · Eskoriatzako Udala · Antzuolako Udala · Aramaioko Udala · Elgetako Udala · Leintz Gatzagako Udala

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo kolboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

herritarrak galdezka

ZERGATIK DAUDE HORRENBESTE ITURRI UR BARIK?

**Arrasateko irakurle batek ondoko galdera bota digu. Izan ere, Urkulu urez beteta dagoela ikusita, esan digu ez duela ulertzen nolatan dauden horrenbeste iturri ur barik. Eta, honako adibideak eman dizkigu: Uribe auzokoa, Garagartzako plazakoa, Kobaten dagoen iturria, Garibai etorbidekoa eta abar.**

Arrasateko Udalean honako erantzuna jaso dugu: "Lehortea egon zenean, Udalak hartu zuen erabakien artean egon zen kaleko iturrien ur emaria moztea. Lehortea atzean utzita, Udala orain dela aste batzuk hasi zen lanean iturri horiek normaltasunera buelta daitezen".

ZER EGIN BEHAR DA ERRENTA AITORPENA EGINDA JASOTZEKO?

**Batzuei errenta aitorpena eginda iristen zaie etxera. Ze irizpide jarraitzen du Ogasunak herritar batzuei lan hori aurreratzeko eta beste batzuei ez? Hori da herritar batek helarazi digun kezka, hari orain arte ez diotelako zerbitzu hori eskaini.**

Hauxe da Bergarako Ogasun teknikari Miren Pozuetak emandako erantzuna: "Herritarrek ezin dute ezer egin, hau da, ezin da eskaera hori egin. Ogasunak herritar baten gaineko informazio guztia daukanean bidaltzen du errenta aitorpena eginda. Hau da, informazio falta dagoenean Ogasunak ezin du lan hori egin, herritarrari dagokiolako informazioa osatzea. Ogasunak informazio osatua eta gaurkotua daukan bitartean jarraituko du herritar horren errenta aitorpena egiten.

**Galdera egiteko:**
Zerbaitetaz arduratuta bazaude eta gai horren gaineko informazio gehiago jaso nahi baduzu, bidaliguzu galdera eta geu jarriko gara harremanetan dagiokionarekin. Galdera egiteko bideak:
- Telefonoz: 943 25 05 01
- Faxez: 943 25 05 13
- Postaz: Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
- Posta elektronikoz: goienkaria@goiena.com

ZER PASATZEN DA OBRA BAT EGITERAKOAN APURTUTA GERATZEN DIREN ERREPIDE TRAMUEKIN?

**Aretxabaletatik egin digute ondoko galdera, Aretxabaletatik Untzillarako bidea geroago eta okerrago dagoelako, eta Arrasate eta Aretxabaleta arteko zatian ere zulo galantak egoten direlako.**

Aretxabaletako Udaletik Jose Mari Segoviak erantzun digu: "Partikular batek eragiten dituen hondaketak partikular horrek ordaindu behar ditu, eta errepidea gestionatzen duenaren ardura da konponketa horiek exijitzea, edo ordainaraztea.

Bi adibide horietan Foru Aldundiak kudeatzen dituen errepide zatiak dira, eskualdekoak direlako". Horrenbestez, Diputazioari dagokio zainketa lana egitea.

marrazkiz

Unai Busturia



blog

## Efektu 'euskalduntzailea'

**Nahikari Ayo**
www.goiena.net/blogak/begietatik/

Lagun bati aspaldi entzun nion "efektu euskalduntzailea" zuela. Jendeari hurbildu eta makina batzuk balira bezala, euskaraz hasten zirela hizketan. Hasieran barre egiten nuen, baina gero ikusi nuen egia zela.

Baina niri berdina gertatzen zait, batik bat eskoletan. Irakasle gelara joaten naiz, ohitura daukadalako goiz iristen. Sartu eta denak erdaraz ari dira, baina ni ikusterakoan euskaraz hasten dira. Agian frogatu nahi dute eurak ere euskaldunak direla, euskaraz badakitela.

Tamalez, laneko hizkuntza bezala hartzen dute. Kexatzen dira ikasleek euskara gutxi egiten dutelako. Ikasleen erreferente dira eta eskolako atetik atera bezain pronto erdaraz hasten dira. Zer egingo dute umeek? Erdaraz, noski!

Txarrena da, ez dakidala zein izan daitekeen konpontzeko era, ez baitira euskaraz hitz egiten hasiko.

## Zaharrak berri

**Ibon Meñika**
www.matraka.info/blogak/menika

Orain dela egun batzuk *Llámame Telésforo* (Txalaparta, 2006) Iñaki Anasagastik idatzitako liburua irakurri dut. Onartu beharra daukat liburu interesgarria dela, nahiz eta idazlearen ideologiarekin bat ez natorren. Seguruenik guda zibila eta ondorengo gertaeren inguruan, 1973an Telesforo Monzoni bere Donibane Lohitzuneko etxean egindako elkarrizketa delako

plazara

Euskara eta haren egoeraren gaineko hausnarketa egin du Iñigo Arregik. Normalkuntzarako bidean egin beharreko urratsen artean aipatu du Euskal Herri osorako euskararen lege bakarraren beharra. Bigarren urrats gisa, euskararen ezagutza derrigorrezkoa izatea aipatu du, eta horren ondotik hizkuntza plan berri eta ausartagoak behar ditugula nabarmendu EHEko ordezkariak.

Iñigo Arregi *

# Euskal Herria euskalduna, amets edo errealitate

Oharkabean pasa baina garrantzia gutxikoa ez den gaia plazaratu nahiko nuke: Euskal Herria euskalduna posible ote?

Lehenik, Euskal Herria euskalduna nire irudiz zer den argitzea nahiko nuke; lurralde osoan jendartearen funtzio guztietan euskara jakin eta erabili ahal izango den egoera lortzea alegia.

Gaurko Euskal Herriaren hizkuntza egoera (egoera soziolinguistikoa) herriz herri, eskualdez eskualde edo herrialdez herrialde, zonalde Administratibo batetik bestera gora behera asko aurkezten ditu. Kontseiluak egin berri eta herrietan orain aurkezten ari den Udal Hizkuntza Politikaren azterketak azaldu duen bezala. Hala ere, gustukoa izan ala ez, egoera hauek abiapuntutzat hartu eta lekuan lekuko neurriak hartzetik segitu behar dugu. Hau da, Tuteran, Oionen, Ondarrroan, Bergaran, Gasteizen edo Orion neurri edo pausu desberdinak izan behar duten arren, herri guztietan helburu berbera zehaztuz gero ez dago zertan ez lortu.

Beste hainbat eginbeharren artean, nire ustez lehentasunez eta garrantzia handiarekin hartu beharreko lehen neurriak hauek lirateke.

Lehena, Euskal Herria osoan euskararen lege bakarra gauzatzea. Bertan, euskal herritarren hizkuntza eskubideen aitortza jaso eta bermatzeko arauak zehaztuko lituzkeena. Euskarak gainontzeko hizkuntzen izaera edo estatus juridiko bera izan beharko luke. Izaera ofiziala. Euskararen biziraupenerako eta Euskal Herriaren euskalduntzeko oinarrizko pausua baita hizkuntzek berdintasun maila berbera izatea.




MIKEL ARROIABE

Bigarrenik, euskara euskal herritar guztien eskubide eta hizkuntza izanik euskararen ezagutza derrigorrezkoa izan beharko luke. Horretarako Administrazioak euskararen ezagutza bermatzeko sistema berria gauzatu beharko luke; haurtxoa hezkuntza sisteman hasi eta heldu aroan ikasketak amaitzen dituen arteko ikasgai eta irakasle guztiak euskaldunak ezarriz.

Azkenik, euskara erabiltzea, ezagutzea bezain garrantzitsua da. Haatik, egungo Hizkuntza Politikak gainditu eta abian diren hizkuntza plan gehiago eta ausartagoak behar ditugu. Hots, euskararen erabilera arautu eta euskara lehentasunez sustatuko duen hizkuntza politika berri bat; Administrazioko langile eta funtzionario guztiei hizkuntz eskakizuna egitea ziurtatuko duena. Udalerri euskaldunak babestu eta udak hauen ereduaren zabalpena erraztuko duena. Euskal Herrian diharduten hedabide ezberdin eta guztiei euskarazko kuotak zehaztuko diena. Herriz herri abian diren euskara planak ugaldu eta eredu parte hartzaile eta integratzailean gauzatzea bideratuko duena.

**"Tokiko egoera soziolinguistikoak abiapuntutzat hartu eta lekuan lekuko neurriak hartzen segitu behar dugu"**

**"Euskara lehentasunez sustatuko duen hizkuntza politika berria behar da"**

Azken finean, herritar eleanitzez osatua egongo den herri (Euskal Herria) elebakarrerantz gaurtik autodeterminazio linguistikoaren ariketa praktiko eta demokratikoaren bidez pausuak emanaz, biharko Euskal Herria, euskalduna izatea posible izango dela deritzot.

Ezin nezake aipatu gabe utzi, Euskal Herria euskalduntzearen bidean hain beharrezkoak diren eta egunez- egun inurri lana eginez gaztetxoen aisialdian, helduen alfabetatze eta euskalduntzean edo herriko lantegietan euskara zabalduaz dabiltzan milaka euskaltzaleak. Bai eta aipatu gabe utzi ahal izan ditudan eta euskararen normalizazioaren alde lanean eta borrokan dihardutem beste hainbat euskaltzale.

Amaitzeko, datorren maiatzaren 6an EHEek Azpeitian egingo duen Hizkuntza Eskubideen egunerako deia luzatu nahi dut. Euskararik gabeko Euskal Herririk ez delako.

*Iñigo Arregi, Euskal Herrian Euskaraz taldeko kidea da

zer deritzozu?

www.goiena.net

## Zer deritzozu prostituzioa legeztatzeari?

| | |
|---|---|
| BAI | %100 |
| EZ | %0 |

**> BAI**
Nik uste legeztatu egin beharko luketela hainbat arrazoirengatik: batetik, emagalduak baldintza egokiagoetan lan egin ahal izateko eta, bestetik, kotizatzeko aukera izango lukeelako etorkizunera begira. Gainera, uste dut legeztatuko balitz lanbide hori behartuta egiten duten emakume askok askatzeko aukera izango luke.
**Ainara**

**> ZALANTZA BARIK**
Batez ere emakumeen esplotazioarekin bukatzeko. Guztiok gara kontziente emakumeen trafikoa ematen dela eta horrekin bukatzeko balioko balu ez litzateke gutxi izango.
**Miren**

**> LANBIDE DUINA DA**
Gizartea jabetu beharko litzateke putak ez direla zaborra. Edozein bizilagun bezalakoak direla. Legeztatzeak onurak ekarriko lizkieke, baina iritzi berarekin segituko genuke.
**Aitor**

**DATORREN ASTEKOA:
Zer egin daiteke lan istripuak saihesteko?**

Eman zure iritzia **www.goiena.net** atarian. Datorren astean argitaratuko ditugu hemen erantzun interesgarrienak.

-top

egingo zitzaidan hain interesgarria. Bertan, garai hartan, Euskal Herriaren askatasuna lortzeko bidean PNVk zelako jarrerak eta hartu behar izan zituen agerian gelditzen da: Lizarrako autonomia estatutua; Jaurlaritzaren sorrera eta zinpea Gernikan; euskal gudarostearen sorrera Loiolan, arma erosketak Europan, Espainiako Gerra Zibila, erbestea...

Ideiak argi, Euskal Herria ardatz, zailtasun eta oztopo guztiak gainditzeko determinazioaren ispilu legez agertzen da liburuan Monzon. Orduko Eusko Jaurlaritzan PNVko ministro izan zen, baita erbestean ere. Pasarte batean Calvo Sotelo faxistarekin izandako ika-mika kontatzen du. II. Errepublikaren garaian, Monzon bertako parlamentuko diputatu zela, 1935ean, Calvo Sotelok PNVren ilegalizaioa eskatu baitzuen.

## Urre bilatzaileak

**Imanol Murua Uria**
www.berria.info/blogak/imanol

Latza bota dio Arzalluzek gaur egungo klase politikoari, baita EAJ barrukoari ere, Luis Mari Retolazari buruz *Deia*n atzo argitaratutako artikuluaren aitzakian.

"*No se portaron bien con él. Se ha ido. Uno más de aquella generación de patriotas que entraron en el quehacer político en unos tiempos en los que no había nada que ganar y sí mucho que perder; hombres y mujeres que fueron movidos por un fuerte ideal, el de la libertad de su pueblo y que contemplaban estupefactos cómo brotaba a la vida política y partidaria una pléyade de buscadores de oro con ansia de poder que no se paran ante nada que no sea su propia ambición y vanidad*".

koplak

Egoitz Aizpuru

## Hi legala haiz?

Begira gaude begira
hauteskundeen harira
aukera zabalak eta,
kolore anitzak dira.

Berdeak gorriengatik
bultzaka gaurkoagatik,
ta ortzadarrak parrezka
mingain zurienetatik.

Alkate ta alkatesa,
kontua ez da erreza,
ekintzarako trankila
ta hitzegiteko presa.

Babes ofizialeko
etxez aho denak lepo.
Ba al da metro karraturik
Gaztetetxeak egiteko?

Enbido eta ordago
botua garesti dago
izakera duina baino
pixka bat garestiago.

Nago lasai eta bapo
erabaki dudalako:
Nik ez daukat botatzerik
ilegala naizelako.

GOIENKARIA
2007ko apirilaren 27a

# Ondo egindako lanagatik

**Mikel Errasti**
Aretxabaleta

Norbera ez den edonork, zerbait gaizki egiten duenean, erraza da kexatzea eta askotan beharrezkoa ere izan daiteke. Baina besteak gauzak ondo egindakoan, askotan ez da ondo egindakoaren onarpenik adierazten.

Seguru Arrasateko ospitalean ere maiz gertatuko den zerbait dela hau. Orain dela denbora gutxi, ospitalean egon beharra izan nuen ebakuntza txiki bat egiteko. Egin, irten eta alde, beste historiarik gabe. Hala ere, lerro hauen bitartez, nire esker ona adierazi nahi diet nire osasuna eta erosotasunaren alde, lanean fin ibilitako pertsona guztiei.

# Arrasateko Abertzale Sozialistak herriko plazan

**Enrike Letona**
(Arrasateko Abertzale Sozialistak hautes elkartea)
Arrasate

Euskal Herrian une erabakigarriak bizi ditugu. ETA erakunde armatuak suetena iragarri zuen. Geroztik esamesa ugari izan da eta izaten ari da. Baina, Euskal Herria Estatu espainol eta frantsesarekin jasaten ari den gatazka, modu adostu baten bukatu dadin baldintzak sortzen ari dira. Hauxe da, gaurkoz Euskal Herriko politikagintzan eskuartean dugun zeregin nagusia.

Eta lan horretan, abertzale eta ezkertiar sentitzen garenok ausartenak, eskuzabalenak eta eraginkorrenak izan nahi dugu. Geu garelako, herritar xumeok, irabazteko gehien dugunok.

Eta norabide horretan, maiatzaren 4an, arratsaldeko 7,30etan, Herriko Plazan, Arrasateko hiritar aurrerazale guztiak bildu nahi ditugu.

Bertan, udal hauteskundeetarako zerrenda aurkeztuko dugu.

Ez dago zalantzarik, aipatu norabidean, maiatzaren 27an egingo diren hauteskundeak urrats garrantzitsu bat bihur daitezkeela.

Euskal Herriak jasan behar izan duen ukazioari bukaera eman behar zaio. 2003ko hauteskundeak ukazio horren adierazle garbia izan ziren; milaka arrasatearren aukera politikoa zakarrontzira bota nahi izan zuten. Eta ikusi dugu zein ondorio latzak izan dituen.

Arrasateko Ezker Abertzalea, Udal bizitzatik zokoratua izan ondoren, egungo korporazioak ikuskizun lotsagarria eskaini digu.

Eta hau ezin da errepikatu. Gu herri honetako zati bat gara; herri honekin eta bere arazoekin bat egiten dugu eta bere alde lanean saiatzen gara.

Beraiek izan dira herritarrengandik bereizita eta urrunduta ari direla ikusarazi digutenak.

Berriro halakorik gerta ez dadin, eman ezazu zeuk ere urrats bat. Arrasateko abertzale eta sozialistok herri hau maite dugulako; bere arazo guztiak geure egiten ditugulako eta konponbidean jartzeko giltza garelako.

Maiatzaren 4an, arratsaldeko 7,30etan, Herriko Plazan duzu hitzordua.

Gero eta gehiago garela ikus dezaten, bil gaitezen; Aurrera Bolie!

# Udal hauteskundeetan euskaraz

**Olatz Arana** (Debagoieneko Euskal Herrian Euskaraz)
> Debagoiena

Aurten, maiatzean, udal hauteskundeak direla kontuan hartuta, Debagoieneko Euskal Herrian Euskarazek gutun bat helarazi die oraintxe bertan udaletxean zein udaletik at dauden alderdi politiko ezberdinei. Udaletxeek ezinbesteko papera jokatzen dute euskararen normalizazioa lortzeko. Udal bakoitzak bere hizkuntza politika dauka, eta bertatik neurri politikoak hartu behar dira euskara berreskuratu ahal izateko. Beraz, alderdiek dute erantzukizun nagusia gai honetan, eta, horregatik jotzen dugu eurengana.

Egun euskarak eta euskaldunok jasaten dugun bigarren mailako egoera gainditzeko, euskararen normalizazioa erdiesteko helburuarekin, hizkuntza politika oso eta eraginkorrak abian jartzea eskatu diegu. Honekin batera, udal hauteskundeei begira neurri zehatz batzuk hartzera gonbidatu ditugu:

1. Aurkeztuko dituzten hautetsiak euskaldunak izatea.
2. Programa hizkuntza politika oso baten proposamena egitea eta neurri politiko zehatzak planteatzea.
3. Udalean euskara ofiziala eta lehentasunezkoa izendatzea.
4. Printzipio horrekin lotuta, hizkuntza politikaren helburu nagusia euskararen normalizazioa izatea, horretarako behar den determinazioz jokatuz.
5. Herritarren hizkuntza eskubideak errespetatzeko neurriak hartzea.
6. Herritarrei, udalarekin izango dituzten harreman guztietan euskara erabiltzeko esku bidea bermatu behar zaie, salbuespenik gabe.

Gure ustez, euskararen normalizazioan urratsak emateko neurri hauek hartzea funtsezkoa da. Behin alderdiei gutuna bideratuta, udal hauteskundeei begira gure jarraipena egingo diegu alderdiei, beharrezkoa, balitz zapalketak salatuz. Alderdiek gurekin hitz egin nahiko balute, badaukate kontaktua.

Udal administrazio eta herri euskaldun baten alde lanean jarraituko dugu.

# Laneko minbizia ikusaraztea

**Jesus Uzkudun**
Euskadiko CCOOko Laneko Osasuneko arduraduna
Bilbo

Laneko minbizia Laneko Gaitzen Zerrendan egon ez ezik, zabaldu ere egin dute. Enpresek eta Kanpoko Prebentzio Zerbitzuek, ordea, ez dute horren inguruko kezkarik. Osakidetzak herritarrek dituzten ohitura osasungaitzei leporatzen die epidemia –"zenbat erretzen duzu, zenbat alkohol edaten?"–. Ahaztu egiten dute, baina, "non, nola eta zerekin lan egiten duzu?" galdetzea.

Laneko minbiziak jota hil diren langileei buruzko datuak ezberdinak dira. Lanaren Nazioarteko Erakundeak ziurtatzen duenez, urtero 600.000 langile hiltzen dira munduan, eta laukoiztu edo boskoiztu egiten dira lan istripuen ondorioz gertatutako heriotzak, berez onartezinak. Bilbon egoitza duen Europako Segurtasun eta Osasunerako Agentziak dioenez: "Urtero 8.900 heriotza eragiten dute lan istripuek Europan, eta 31.000 eta 56.000 arteko heriotza lanean substantzia arriskutsuak erabiltzearen ondorio dira, horietatik 21.000 amiantoaren eraginez".

Lan Ministerioaren estatistikek, Eusko Jaurlaritzarenak edo Osalanenak bestelakoak dira: "Ez dago laneko gaixotasunek eragindako heriotzarik, gihar-hezurretako lesio arinak eta hipoakusiak besterik ez". Horrela, enpresetan prebentzioaren kultura eta ekintza eskasa izatea eragiten dute, edo KPZek edo Osakidetzako medikuek gaitzak laneko arriskuekin duen lotura ahaztea.

Nazioarteko Sindikatuen Konfederazioak kanpaina burutu du substantzia kantzerigenoen laneko erabilpen zabalari aurrea hartzeko, eta munduan amiantoa erabili edo merkaturatzeko debekua exijitzeko. Euskadiko CCOO ahalegin sindikala egiten ari da lanean substantzia kantzerigenoen eraginpean egoteagatik sortutako gaitz eta heriotza ugari ikusarazteko eta aitortzeko.

CCOOk amiantoaren biktimak aitortzeko borroka egiten duenean ez du "kontu zaharren aldeko borroka egiten", enpresa-zuzendari batek zioen moduan.

Lanean kantzerigenoen erabilpenak gora egiten du etengabe, substantzia kimikoak sartzen dira horien arriskuak ezagutu gabe, kantzerigenoekin lan egiten da horiei buruzko informaziorik gabe (asfaltoa, klorurodun disolbatzaileak, silize kristalinoa, zur hautsa, artsenikoa, formaldehidoa, beruna, pestizidak, desinfektatzaileak, olio mineralak, hozgarriak...), eta ez da prebentzio egokirik egiten.

Horrela, bada, "erailketa atzeratua" onartzen da (hamarkadak igaro daitezke gaitza nabarmendu arte). Onartezina da enpresa gehienek eta Prebentzio Zerbitzuek substantzia arriskutsuen inguruko informazioa eta prebentzioa saihestea, nahikoa baita apur bat arnastu edo horren eraginpean egotea gaitza garatu eta heriotza goiztiarra ekartzeko. Halaxe gertatu zitzaion Wagon Lits ohebagoietako Marcos Albitre langileari.

F. Bereciartu, Sidenor, Nervacero, Paisa, Elezqui, Envases Metalurgicos de Alava, Arcelor-Olaberria, CAF, F. Flexic, Coches Cama Wagon Lits eta abarretako langileei laneko minbizia eta asbestosia aitortu zaizkie, mutuen eta administrazioaren zangotraba ugariak gaindituz. Horri esker, prebentzio neurriak hartuko dira gaixo berriak agertzen direnean. Ekintza sindikalik gabe, horiek guztiak ezkutuan geldituko ziren.

Baina asko dago egiteko oraindik. Osalan, Mutuek, Prebentzio Zerbitzuek edo Osakidetzak minbiziaren jatorri profesionala aitortuko dutela pentsatzea amets hutsa eta etsigarria da. Gure iritziz, beharrezkoa da gizartearen jarrera eta kultura aldatzea, laneko zaratak eragindako hipoakusia edo entzumen galeraren inguruan egin den moduan edo are indar handiagoz, substantzia kantzerigenoei buruzko informazioan, ezagutzan eta ordezkapenean sakonduz.

Bestalde, nekez irudika daiteke substantzia arriskutsuen erabilpenagatik plus toxikoa kobratzea onartzen duen langilea kontsumitzaile arduratsua eta ingurumenari errespetua zor dion herritar bezala.

Langileek informazioa exijitu behar dute, erabilitako produktuen etiketak kontrolatu, substantzia arriskutsuenak ordezkatzeko eskatu, eta gaitz baten jatorria lanean dagoen susmoa dutenean sindikatuari jakinarazi. Sindikalgintzak minbiziaren zergatiak aztertu behar ditu, lankide multzo bati gertatuz gero.

Horregatik, apirilaren 28aren aurreko egunetan, CCOOk bultzada berria emango dio laneko minbizia aitortzearen aldeko lanari, laneko arriskuen prebentzioa istripuen arriskuak baino areago exijitzeko, laneko gaixotasunak ezkutatzea saihesteko.

Sindikatuen zatiketa ez dago justifikatzerik, sindikatuen ekintza bateratuak zalantzarik gabe bultzada handia emango lioke aldarrikapen lanari.

Elkarrekin jarduteko borondaterik ez badago, "gehiengo sindikala" animatu nahi dut irain gezurtiak eta ekintza mediatikoetarako deialdiak bazter ditzan eta hitzen ordez benetako ekintzak burutu ditzan, bere eraginkortasuna eta erradikaltasuna erakuts dezan, errealitatea aldatzen duten laneko gaitzak ikusarazteko. Horrela, prebentzioaren kulturan irabaziko genuke, eta laneko gaixotasun eta heriotzak saihestu. Ahaleginak merezi du.

**IRAKURLEAREN GUTUNAK** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

Barrenkalea 33
20570 BERGARA

Telefonoa:
943 25 05 01

Faxa:
943 25 05 13

Posta elektronikoa:
goienkaria@goiena.com




"Etorkizuna zeurea da. Aukeratu gustuko bidea."

IZEN EMATE EPEA ZABALIK APIRILAREN 23tik MAIATZAREN 4ra

902 11 20 25
informa zaitez

Arizmendi
ikastola

# Aretxabaleta eta Eskoriatzako taberna eta jatetxeen gida




hemen bada giro!


































hemen bada giro!





**> BERGARA** Pazkoetarako irudiak aukeratzeko lehiaketak **> 26**



**> ARETXABALETA** Banatu dituzte etxebizitza sozialen giltzak, hamabost **> 30**



**> ANTZUOLA** Bergara aldeko errepidea hasiko dira konpontzen maiatz hasieran **> 36**



**> ARAMAIO** 24 baserri egin dira bazkide ASE sagarzaleen elkartean **> 38**

**OÑATI** > MUGIKORTASUN PLANA

# Mugikortasuna Plana lantzen dabiltza Udala eta 23 enpresa, Oñatin

**LEHEN FASEA**
Uztailean hasi ziren mugikortasuna lantzen; lehen fasean daude

**IRTENBIDEA**
Emaitzen arabera autoa gehiegi erabiltzen dute, baina arazoa konpon daitekeela dio alkateak




**ZAILTASUNAK** Zenbait lantegitara oinez edo bizikletaz joateko errepidearen egoera ez da egokia. GOIENKARIA

**UBANE MADERA** > OÑATI

Mugikortasun Plana egin gura dute Oñatin. Hain justu ere, uztailean hasi ziren egitasmoa lantzen: "Hasi besterik ez gara egin. Bestalde, esan behar da, baita ere, Udalak bultzatutako ekimena dela, baina 23 enpresarekin batera osatutako lantalde batean gabiltzala lantzen", argitu du Oñatiko alkate Lourdes Idoiagak.

Orain arte lehenengo fasea gauzatu dute: langileek lanera joateko dituzten ohiturak aztertu ditu LKS aholkularitzak.

Hain zuzen, emaitzak esku artean, oraingo asteko astelehenean beste batzar bat egin du mugikortasun planaren lantaldeak eta emaitzetan ikusitakoari proposamenak egin dizkiote: "Hilabete barru, berriz, beste batzar bat egingo dugu eta hara LKSk ekintza plana ekarriko digu", gaineratu du Oñatiko alkateak.

Eta horrekin guztiarekin, etorkizunean "nork bere ardurak hartu eta landu beharko ditu".

**IRTENBIDEA POSIBLE DA**

Baina hori etorkizunean izango da. Oraingoz, inkestak egin dituzte, eta, haien emaitzen arabera, ikusi dute Oñatiko langileek automobila larregi erabiltzen dutela lanerako. Hala ere, Idoiagak ikuspuntu positiboagoa dauka: "Ikusten dudalako aukera badagoela egoera konpontzeko. Inkestak erakusten du langileen %60 Oñatikoak direla. Horrek posible egiten du garraio publikoa ipintzea. Beste datu bat da enpresa guztiak daudela GI-2630 errepidean ilaran, eta horrek ere erraztu egiten du garraio publikoa ipintzea zein bestelako irtenbideak gauzatzea; bidegorria ipini, esaterako. Horrez gainera, langileen %52 gertu daude autoa konpartitzeko. Horrek esan gura du irtenbideren bat aurkitzea posible dela, ez biharko, aldaketa kultural handia da-eta egin beharrekoa, baina bai etorkizunerako. Eta akaso ez dugu lortuko, baina, gutxienez, ahalegindu egin behar dugu", dio alkateak.

Eta irtenbideren bat aurkitzeko oso gertu dago Oñatiko Udala: "Gertu gaude finantzatzeko, kontzientziatzio kanpainak bultzatzeko. Eta enpresak lanerako beti egon dira gertu. Eskertzekoa da haien jarrera eta partaidetza. Azken batean, enpresako ordezkarien lana da garrantzitsuena, haiek egiten dituzte-eta proposamen gehienak".

**BESTELAKO IRITZIAK**

Proposamen horien harira, ekimenean parte hartzen dabilen ULMAko (Oñatik enpresarik handiena) Carretillas negozioko ordezkari Iban Lizarraldek bat egin du, oro har, azterketan ondorioztatukoarekin: "Herriko jende asko joaten da lanera autoz. Guk ez dugu arazo hori, herrian bertan gaudelako, eta gurera jendea dator autoz, oinez eta bizikletaz. Hori bai, esan behar da, baita ere, Ulma Construccionera bizikletaz edo oinez joatea arriskutsua da. Oinez joateko, ez dago bidea gurutzatzeko leku egokirik. Eta bizikletaz joateko, berriz, ez dago bazterrik. Beste arazo bat da, baita ere, lantegiak autobusa ipini arren, jende gutxik erabiltzen dutela hura".

Horrela, pentsatzen du bidegorria egiteko proiektuak aurrera egingo balu, asko lagunduko lukeela. Lizarralden ustez, beste irtenbide bat litzateke autoa konpartitzea, "batez ere txandaka dabiltzanek, haiek errazago dute-eta ordutegiarengatik, batera ibiltzea".

**EGITASMOAREN NONDIK NORAKOA**

Mugikortasun Planaren beharra nondik sortu den azaldu du alkateak. Esplikatu du iaz kargua hartzean eta enpresekin harremanetan jartzean ikusi zuela enpresek dituzten lur eremuak euren beharretarako behar dituztela, eta ez aparkalekuak ipintzeko. Hori horrela, alkateak proposatu zien herriko enpresa guztiei mugikortasun plan bat sortzeko lantaldea sortzea. Eta 23 enpresak baiezko erantzuna eman zioten: "Oso erantzun positiboa da. Gainera, 23etatik askok hartu zuten konpromisoa batzarretan parte hartzeko".

Bestalde, langileen mugikortasuna aztertzeaz gain, Udala herri barruko mugikortasuna aztertzen ere badabil, Txirrinka txirrindulari elkartearekin batera.

DATUA

**3.658**

**LANGILE**

Oñatiko 23 enpresako 3.658 langilerekin egin dute mugikortasunaren gaineko azterketa. Inkesten emaitzaren arabera, 2.916 langile automobilez doaz Oñatin dauden enpresetara.

ZENBAIT DATU

**> AUTOAN GEHIEN**
Oñatiko lantegietako langileen %80,1ek autoa erabiltzen dute lanera joateko; bizikletaz eta oinez, berriz, %15 joaten dira. Autoei dagokienez, 1.000 biztanletik 431k autoa dute; Gipuzkoako batez bestekoa baino handiagoa da hori.

**> DISTANTZIA**
Batez beste 9,55 kilometro egiten dituzte langileek lanera joateko. Oñatin bizi direnen artean, berriz, kopurua jaisten da 3,6 kilometrora.

**> OKUPAZIO MAILA**
Automobil gehienetan ibiltzen dira 1,18 lagun; bestela esanda, autoen %85ean gidaria bakarrik doa.

ZENBAIT KONPONBIDE

**> GARRAIO PUBLIKOA**
Garraio publikoa erabili ahal izateko langileek zenbait baldintza eskatzen dituzte: zerbitzua lan ordutegira egokitzea; bidaia ekonomikoa izatea; eta geralekuak etxebizitzatik gertu izatea.

**> LANERA AUTOBUSEAN**
1.961 langilek, Oñatitik lantokirako urbanoa balego, erabiliko lukete.

**> BIZIKLETA**
Oñatiko langileen %60k uste du bizikleta bihur daitekeela lanera joateko eguneroko garraioa; hori dela eta eskatzen dituzte bizikletendako ibilbide seguruak.

**> AUTOAN ELKARREKIN**
Autoa konpartitzeko egitasmoan parte hartuko lukete 1.423 langilek.

## zerbitzuak

### GUARDIAKO FARMAZIAK

**ARRASATE**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 28 | Ruiz | Maala 31 | 943 77 16 30 |
| Domeka, 29 | Etxeberria | Zarugalde 42-44 | 943 77 16 30 |
| Astelehena, 30 | Azkoaga | Ferrerias 1 | 943 79 15 15 |
| Martitzena, 1 | Azkoaga | Iturriotz 17 | 943 79 79 99 |
| Eguaztena, 2 | Corcuera | Maisu Aranbarri 1 | 943 79 22 26 |
| Eguena, 3 | Irizar | Erguin 15 | 943 79 12 39 |
| Egubakoitza, 4 | Amezua | Santamaina 32 | 943 79 09 74 |

**BERGARA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 28 | Estella | Matxiategi 5 | 943 76 19 63 |
| Domeka, 29 | Estella | Matxiategi 5 | 943 76 19 63 |
| Astelehena, 30 | Mozos | San Antonio 5 | 943 76 11 05 |
| Martitzena, 1 | Urrutikoetxea | Oxirondo 4 | 943 76 11 74 |
| Eguaztena, 2 | Zabala | Barrenkale 25 | 943 76 16 87 |
| Eguena, 3 | Guallar | San Antonio 5 | 943 76 11 05 |
| Egubakoitza, 4 | Estella | Matxiategi 5 | 943 76 19 63 |

**OÑATI**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 21 | Barrenetxea | Kale Zaharra 1 | 943 78 01 22 |
| Domeka, 22 | Barrenetxea | Kale Zaharra 1 | 943 78 01 22 |
| Astelehena, 23 | Garate | Kale Barria 42 | 943 78 05 58 |
| Astelehena, 24 | Garate | Kale Barria 42 | 943 78 05 58 |
| Eguaztena, 25 | Juldain | Kale Barria 6 | 943 78 11 28 |
| Eguena, 26 | Juldain | Kale Barria 6 | 943 78 11 28 |
| Egubakoitza, 27 | Anduaga | San Lorentzo 3 | 943 78 21 16 |

**ARETXABALETA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 28 | Iturralde | Belorrieta auzoa1 | 943 08 11 43 |
| Domeka, 29 | Iturralde | Belorrieta auzoa1 | 943 08 11 43 |
| Astelehena, 30 | Iturralde | Belorrieta auzoa1 | 943 08 11 43 |
| Martitzena, 1 | Fraile | Herriko plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Eguaztena, 2 | Fraile | Herriko plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Eguena, 3 | Fraile | Herriko plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Egubakoitza, 4 | Fraile | Herriko plaza 10 | 943 79 21 99 |

### TELEFONO JAKINGARRIAK

**((112))**
**SOS DEIAK**

**OSASUNA ETA LARRIALDIAK**

Osakidetza (Larrialdia) ....943 46 11 11
DYA (Antzuola) ....943 78 71 57
Gurutze Gorria (Elorregi) ....943 76 55 76
Suhiltzaileak ....943 78 28 00
Ertzaintza ....943 53 47 20
Osasun Etxeak
- Arrasateko ospitala ....943 03 53 00
- Antzuola ....943 76 62 23
- Aramaio ....945 44 53 40
- Aretxabaleta ....943 71 19 59
- Bergara ....943 03 54 00
- Elgeta ....943 03 54 00
- Eskoriatza ....943 71 44 52
- Leintz Gatzaga ....943 71 47 46
- Oñati ....943 03 54 30

Udaltzaingoak
- Antzuola ....943 76 62 46
- Arrasate ....943 79 14 39
- Aretxabaleta ....943 71 18 63
- Bergara ....943 77 91 06
- Eskoriatza ....943 71 44 07
- Leintz Gatzaga ....943 71 47 46
- Oñati ....943 78 04 11

**GARRAIOAK**

PESA ....902 10 12 10
Taxiak
- Arrasate ....943 79 12 22
- Aramaio ....945 44 50 33
- Aretxabaleta ....943 77 12 64
- Bergara ....943 79 12 22
- Eskoriatza ....943 71 40 59
- Oñati ....943 78 03 65

**DEBAGOIENA**

Mankomunitatea ....943 79 33 99
Hiltegia (Zubillaga) ....943 78 15 12
Nekazaritza ganbera ....943 76 10 15
Zerga Bulegoa ....943 76 58 63
Hondakindegi alternatiboak
- Arrasate ....943 77 11 43
- Bergara ....943 76 44 42
- Oñati ....943 78 36 67

Kiroldegiak
- Aramaio ....945 44 53 35
- Arrasate ....943 77 16 77
- Aretxabaleta ....943 71 26 28
- Bergara ....943 76 56 41
- Elgeta ....943 76 82 84
- Eskoriatza ....943 71 53 28
- Oñati ....943 71 63 75

Kultura Etxeak
- Antzuola ....943 76 60 65
- Aramaio ....945 44 53 74
- Arrasate ....943 77 01 05
- Aretxabaleta ....943 71 10 27
- Bergara ....943 77 91 58
- Eskoriatza ....943 71 46 88
- Leintz Gatzaga ....943 71 47 46
- Oñati ....943 78 03 53

Udalak
- Antzuola ....943 76 62 46
- Aramaio ....945 44 50 16
- Arrasate ....943 79 09 00
- Aretxabaleta ....943 71 18 62
- Bergara ....943 77 91 00
- Elgeta ....943 76 80 22
- Eskoriatza ....943 71 44 07
- Leintz Gatzaga ....943 71 47 46
- Oñati ....943 78 04 11

### URBANOAK

**ARRASATE**

**Gorostizatik Eroskira (2 Linea )**
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00. IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara (2 Linea )**
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35. IBILBIDEA: Eroski, J. Bengoa, S. Teresa, C. Obrero, Obenerreka, Makatzena, Iñarra, S. Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

**Gorostizatik Eroskira (1 Linea )**
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30. IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxibar, S. Frantzisko, Iñarra, Makatzena, Obenerreka, C. Obrero, Galizia, Bengoa eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara (1 Linea )**
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05. IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazuri, Alecop, Uribarri, Erguin A eta Gorostiza.

**BERGARA**

**San Lorentzo/San Juandik irteerak**
07:00, 07:55, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:40, 13:30, 14:10, 16:00, 16:40, 17:20, 18:00, 19:00, 19:40 eta 20:20. Geralekuak: S. Juan (Torunsa), Amillaga (Manso), S. Lorentzo (Soraluzen), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

**Labegaraieta/Olabarrenetik irteerak**
07:20 , 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:50 (Olatik), 14:25 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:35, 18:25, 19:20, 20:00 eta 20:30. Geralekuak: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoloia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

**ARAMAIOKO AUTOBUSA**

| Arrasate | Aramaio | Gasteiz |
|---|---|---|
| 07:00 | 07:15 | 08:00 |
| 10:00 | 10:15** | |
| 11:00 | 11:15 | |
| 12:00 | 12:15** | 13:00 |
| 15:15 | 15:30 | 16:15 |
| 17:20 | 17:35 | |
| 18:30 | 18:45** | 19:30 |
| 19:00 | 19:15 | |
| 21:10 | 21:25** | |
| **Gasteiz** | **Aramaio** | **Arrasate** |
| | 07:50 | 08:05 |
| 08:30 | 09:00 | 09:15 |
| | 10:15 | 10:30 |
| | 11:15 | 11:30 |
| 13:10 | 13:45 | 14:10 |
| 16:20 | 17:00 | 17:20 |
| | 17:35 | 17:50 |
| | 19:15 | 19:30 |
| 19:30 | 20:10 | 20:25 |

Izardun orduak, eskaeraren arabera, auzoetakoendako. Bezperan deitu: 629 54 59 23

## eguraldia

### DEBAGOIENEAN



**Zapatua, 28**
Egubakoitzaren tankera berdintsua izango du, baina karga handiagoa izango da eta horren ondorioz, ekaitzak izango dira han-hemenka.



**Domeka, 29**
Egun samurragoa egingo du. Ez da nabarmenduko ekaitz giroa eta haizeak hego puntua izango du. Orokorrean, giro polita izango da.

### EUSKAL HERRIAN

Eguzkia, hodeiak eta euria, denetarik izango dugu datozen jai egunetan. Dena den, egunek aurrera egin ahala, okertzera joko du eguraldiak eta astelehenean tenperaturek behera egingo dute. Martitzenean, berriz, goibeldu egingo zaigu eguraldia, lainoak nagusituko dira-eta.



### TENPERATURAK

**MINIMOA** Zapatua, 21 — **8 ºC**

**MAXIMOA** Astelehena, 23 — **31 ºC**

**ASTEKO EURIA** (l/m²) — **0 L**

| | Max. | Min. | Euria |
|---|---|---|---|
| **Eguaztena, 18** | 23 ºC | 13 ºC | - l/m² |
| **Eguena, 19** | 24 ºC | 11 ºC | - l/m² |
| **Egubakoitza, 20** | 25 ºC | 10 ºC | - l/m² |
| **Zapatua, 21** | 25 ºC | 8 ºC | - l/m² |
| **Domeka, 22** | 26 ºC | 8 ºC | - l/m² |
| **Astelehena, 23** | 31 ºC | 8 ºC | - l/m² |
| **Martitzena, 24** | 31 ºC | 8 ºC | - l/m² |

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak.

### ILARGIA MAIATZEAN



| Ilbehera | Ilberri | Ilgora | Ilbete |
|---|---|---|---|
| **10** | **16** | **23** | **2** |

## oharrak eta deialdiak

BERGARA
**> EHNA tramitatzeko aukera bihar, zapatua**
Kultura etxean egigo dituzte tramitazioak, 11:30etik 13:30era. EHNA egiteko eraman behar dira: hiru argazki, errolda agiria eta 15 euro.

OÑATI
**> Matrikulazio epea Haurreskolan**
Maiatzaren 17tik 31ra arte matrikulazio epea irekiko dute Haurreskolan. Eskola Olakua 19an dago. Informazio gehiago 943 71 64 05 telefono zenbakian.

DEBAGOIENA
**> Enpresak sortzeko *on-line* ikastaroa antolatu du Mankomunitateak**
Helburua da nork bere enpresa ideia aztertu ahal izateko pertsona ekintzaileak trebatzea. 150 orduko izango da, eta doan. Apirilaren 23tik ekainaren 29ra izango dira eskolak. Informazio gehiago lortzeko edo izena emateko deitu 943 79 30 90 zenbakira edo idatzi *www.debagoiena.com* helbidera.

ESKORIATZA
**> Emakumeendako defentsa pertsonal ikastaroa**
Udalak emakumeendako defentsa pertsonal ikastaroa antolatu du. Maiatzaren 12an eta 13an izango da, 10:00etatik 12:00etara, pilotalekuan. Prezioa 20 euro da eta dago eneko zabalik dago izena emateko epea. Horretarako jo kultura etxera edo Gizarte Zerbitzuetara maiatzaren 7a baino lehen. Leku mugatuak daude.

ARETXABALETA
**> Posta bidez bozkatu nahi dutenendako zerbitzua jarri du EAJk**
Posta bidez bozkatzeko orduan zalantzaren bat izan edo laguntza behar dutenendako zerbitzua jarri du EAJk batzokian. Interesa dutenak astelehen eta eguaztenetan 18:00etatik 19:30era hurrera daitezke.

BERGARA
**> Ludotekan begirale izateko izenematea zabalik dago**
Apirilaren 27ra arte egongo da zabalik ludotekan begirale izateko izenematea. Informazio gehiagorako edo izena emateko jo ludotekara –Agorrosin ekintza gunea–.

BERGARA
**> Zuhaiztara irteera Jardun elkartearekin**
Maiatzaren 4tik 6ra egingo dute irteera hori, eta bazkideendako da. Prezioa 42 euro da. Izenematea apirilaren 24an bukatuko da. Informazio gehiago: 943 76 36 61.

BERGARA
**> 1957an eta 1958ko urtarril eta otsailean jaiotakoen irteera**
Udan, ekainaren 9an egingo dute irteera, Arratiara. Interesatuek honako telefonoetara dei dezakete: 619 21 97 53 edo 943 71 50 42.

BERGARA
**> Ezker abertzaleak bulegoa jarri du posta bidez bozkatzeko**
Posta bidez bozkatu nahi duten guztiendako jarri dute bulegoa. Artatse elkartean dago, 11:00-14:00 eta 18:00-20:00 –zapatuetan goizez bakarrik–. Maiatzaren 17a da mugaeguna.

OÑATI
**> Mendi martxa deitu du Oñatiko Gazte Asanbladak gaur hasi eta domekara arte**
Gorostiaga, Ugastei, Mañamendi eta Urbia bezalako mendietan barrena ibiliko dira. Zapatu eta domekako gosaria eta zapatuko afaria egongo dira. Gainerakoa norberak eroatea komeni da; baita lo egiteko zakua ere. Kanpin denda, berriz, ez. Irteera ordua 18:30ean jarri dute, Olakua auzotik.

**943 25 05 01**
**goienkaria@goiena.com**

BERGARA
**> Jardunek gaztetxoendako olinpiadak antolatu ditu**
Lautik seigarren mailara artekoentzat dira. Zapatuetan jokatuko dira, maiatzaren 12tik ekainaren 16ra, arratsaldez. Gutxienez sei eta gehienez zortzi laguneko taldeak osatu behar dira. Informazio gehiago *www.goiena.net/blogak/jardun* helbidean.

DEBAGOIENA
**> Etxean konposta egiteko konpostagailuak banatuko dituzte**
Azken 100 konpostagailuak banatzeko kanpaina astelehenean hasiko da eta maiatzaren 4ra arte iraungo du. Konpostagailua hartzeko interesa dutenek 943 79 33 99 zenbakira dei dezakete, 08:00etatik 14:00etara.

BERGARA
**> 1963an jaiotakoen kinto bazkaria**
Maiatzaren 12an egingo dute, Torrekua erretegian, 15:00etan. Izenematea maiatzaren 10ean bukatuko da. Horretarako 10 euro aurreratu beharko dira Torrekua erretegian edo Ariznoa tabernan.

ANTZUOLA
**> Arrolak Urkulu-Degurixa irteera antolatu du**
Maiatzaren 6an egingo dute eta egun erdikoa da. Izena emateko jo maiatzaren 2an elkartera, 19:00-20:00.

kale inkesta

# Amaitu barik asfaltatuko dute Domingo Irala. Zer deritzozu?



**Aitor Lamariano**
Ikaslea
Bergara

Udaletxeak ardura gutxi duela uste dut. Orain asfaltatu gero berriro apurtzeko, ez dut ulertzen. Jaiei begira, hala ere, ondo ikusten dut asfaltatzea, zerbait gerta ez dadin. Horrela ezin da egon-eta.



**BegoñaUgarte**
Erretiratua
Bergara

Txarto dago. Bukatuta ez bazegoen ere, obrek aurrera egin beharko lukete. Festetarako lardaskeri bat gainean jarri eta gero kentzea dirua alferrik galtzea da. Zergatik ez dira ahalik eta bizkorren hasten?



**Arantzazu Salaberria**
Langilea
Bergara

Batetik, ondo ikusten dut, horrela ezin delako utzi jaietarako, Udalak ardura du-eta. Baina ez dakit beste aukerarik dagoen. Hilabete falta da jaietarako, eta denbora horretan ez dute konponduko.



**Felix Garitano**
Erretiratua
Bergara

Ondo. Zerbait egin behar da Bergarako festei begira. Hori horrela izatea lotsagarria da, ez dago tokirik ezertarako. Lehen esan zuten laster hasiko zirela berriro obrak, baina ez da horrela izan.



**Aitziber Iztueta**
Langilea
Antzuola

Gaizki dago. Obra hasi zutenean festetarako amaituta egongo zela aurreikusita bazegoen, bukatuta egon beharko litzateke. Segurtasun neurri bezala ondo dago, baina dirua galtzea da.

txaloak eta txistuak



M.B.

## Ikuspen gutxi dago Kurtzetako igoeran

Kurtzetatik Gureiara joateko bihurgunean ispilua aspaldi falta dela jakinarazi du irakurle batek. Behin baino gehiagotan lapurtu dute hori eta azken aldi horretan ez dute berriro jarri. Bidegurutze arriskutsua dela eta ahalik eta bizkorren jartzeko eskatu du irakurle horrek.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

asteko datua

# 2.100

Bakeak, Arantzazuko Bakea Zentroak, gatazka etikoki konpontzeko ikastaroa antolatu du. Lehen sei hilabeteotan, 2.100 lagunek eman dute izena han parte hartzeko. Aurreikuspen guztiak hautsi ditu kopuru horrek.

usteak uste

Mirari Altube

## Herri bakoitzak bereari eutsi

Gonzalez de Txabarri diputatua izan zen Aretxabaletan joan zen astean. Hitzarmen bat sinatzera etorri zen Udalak dirulaguntza jaso zezan, eta alkateak eskerrak eman zizkion halako batean gure herriarekin gogoratu direlako. Ez zitzaizkion berbok larregi gustatu diputatuari, eta kontua argitu gura izan zuen. "Debagoienak izen handia du baina izan gutxi", bota zuen, eta herri bakoitzak bereari eusten diola, hau da, oso aretxabaletarrak, oso arrasatearrak… garela.

Berbok zer pentsatua eragin didate; izan ere, aretxabaletarroi sarri leporatu digute hori. Eta zergatik ez izan oso aretxabaletarrak? Alor askotan beharrezkoa da mankomunitate mailako bateratzea, baina herri bakoitzaren izaerari eutsita. Ondo dago kudeaketa batzuk –zaborra…– bateratuta egitea, baina zergatik ez izan herri bakoitzak kultur eta kirolari dagokion ekipamenduak esaterako? Bestela herri txikiak sarri galtzen ateratzen dira.

Debagoiena aipatzerakoan Euskal Herriko laugarren hiria dela esan izan dute batzuek. Bai, badakit hiri izatetik urrun gaudela –nahiz eta hirietako gaitz asko izan–, baina ez nuke halakorik gura ere.

5 galdera…

# Irene Zenitagoia

Gorosti loradenda
Bergara

**1. Noiz hasi eta noiz arte irauten du udaberriko loreen denboraldiak?**
Hasten zaigu martxoaren lehenengoetan eta jarraitzen du uztaila arte. Hilabete horretan oso ederra egoten dira balkoietan, baina jada ez dira merkaturatzen. Martxoan ipintzen diren landareek segitzen dute neguko izotzak arte.

**2. Zein lore mota ikusten da gehien Bergarako balkoietan?**
Askotariko aukerak daude. Bezero batzuek urte guztirako janzten dituzte balkoiak. Zuhaixkak jartzen dituzte, horiek ez diraeta neguan izozten. Baina ez dira baltsaminak, surfiniak edo geranioak bezain ikusgarriak. Hiru horiek dira, bestalde, orain gehien jartzen direnak, oso jantziak direlako. Lorontzi handiak izanez gero, zuhaixkak eta sasoiko loreak jar daitezke batera.

**3. Zer egin behar da lore ikusgarriak eduki ahal izateko?**
Komenigarria da loradendako profesionalei galdetzea. Adibidez, balkoia nora begira dagoen esan beharra dago, horren arabera aukeratzen dira-eta loreak. Aukeratutako loreari dagokion lur mota eta sulfatoak ere oso garrantzitsuak dira. Horretan datza misterioa.

**4. Zeinek erosten ditu lore gehien. Profil zehatza al dago?**
Etxekoandreek sasoikoak jartzen dituzte. Gazteen artean, gehiago mugitzen dira lore modernoak edo itxura ezberdinak dituztenen artean. Jende gazte asko dator gurera, baita mutilak ere. Azken horiek bonsaiak, kaktusak eta aromatikoak nahiago dituzte.

**5. Zuk zeuk zer-nolako lore mota landatzen duzu etxean?**
Beteta dut etxea. Itxura eta tamaina askotariko zuhaixka finkoekin loreak jartzen ditut. Eguzkitan geranioak eta gorri-gorriak jartzen diren huntz frantsesak eta gerizpean baltsaminak jartzen ditut. Nire iritziz, oso inportantea da etxean kolorea izatea.





ZORIZKO JOKOAK Tabernetan, bingoetan, saltokietan... dauden zorizko jokoekiko mendekotasuna dute ludopatek. XABIER URTZELAI

**OSASUNA** > LUDOPATEI LAGUNTZEKO ELKARTE BERRIA

# Ludopatia gaitza dutenek beste elkarte bat dute aukeran, Elgoibarren

Orain dela sei hilabete zabaldu zuten Egun Bat, Sólo Por Hoy elkartea; osatu duten taldean, besteak beste, arrasatear batek parte hartzen du

**UBANE MADERA** > ARRASATE

Orain arte, ludopatia gaixotasunaren gaineko informazio eske Udalera zihoazen arrasatearrak Gasteizko Asajer edo Errenteriako Ekintza Dasalud elkarteetara bideratzen zituen Udalak. Bada, orain, beste elkarte bat sortu da halako gaixoei laguntzeko, eta Arrasateko Udalak ere hartu du haren gaineko informazioa, herriko gaixoak Elgoibarrera ere bideratzeko.

**ATEAK ZABALIK, ELGOIBARREN**

Egun Bat, Solo Por Hoy da elkartearen izena, eta orain dela sei hilabete eratu zuten: "Lehen, Ondarroan zegoen gertuen halako elkarte bat, zapatuetan egiten dituzte batzarrak. Eta pentsatu genuen Elgoibarren beste bat jartzea. Guk martitzenetan egiten ditugu batzarrak. Modu horretan, gaixoek aukera dezakete nora joan, gertukoena aprobetxatuz. Edo, nahi badute, bietara joan daitezke, batzarrak egun desberdinetan egiten ditugu-eta", azaldu du Egun Bat elkarteko kide batek.

Hark gaineratu du Elgoibarko elkartea sortu berria den arren dagoeneko osatu dutela taldea. Gaineratu du, bestelakoen artean, arrasatear batek ere parte hartzen duela han. Hori horrela, ludopatia gaixotasuna duten eta laguntza gura duten gainerako arrasatearrei Egun Bat elkartearen ateak zabalik dituztela jakinarazi gura die: "Ludopatia gaixotasuna dugunondako inportanteena da terapia egitea. Gaixotasun hau ez da sekula sendatzen eta norberak pentsatu arren gauza dela gaixotasuna bakarrik gainditzeko, azkenean gaixotasunak irabazten du".

**AURRETIK BESTE HITZORDU BAT**

Hori horrela, batzarretara joatearen garrantzia azpimarratu du. "Beharbada eguna eta ordua gaizki datozela pentsatu arren, gero igartzen den mesedea horren handia izaten da, edozer egiten dute gaixoek batzarretara joan ahal izateko". Bere esperientzia propioa ipini du adibide moduan: "Nik neuk benetan alde handia igarri dut denboran. Begira, horren alde handia dago zuloan egotetik kanpoan egotera, merezi duela, zalantza barik. Gainera, gaixotasun honek eragina dauka gaixoarengan berarengan, baina baita ingurukoengan ere; ingurukoek asko sufritzen dute, bizimodua zeharo okertu egiten zaie nirea moduko gaixotasuna dutenen alboan".

Martitzenetan 18:30ean egiten dituzte batzarrak, Udalak utzitako lokal batean. Gaixoak eta haien familiartekoak, guztiak batera egoten dira, esperientziak elkartrukatzera.

Edozelan ere, halako batzar batera joan baino lehen beste hitzordu bat egitea komeni dela dio Egun Bat elkarteko ordezkariak: "Halako elkarte batean sartzeak sor ditzakeen beldurrak eta zalantzak uxatzeko, komeni izaten da batzar batera joan aurretik nirekin hitzordu bat egitea gaixoak berak nahi duen lekuan eta egunean. Nor garen, zer egiten dugun… eta halakoak azaltzen dizkiogu informazio eske datorrenari". Harremanetarako kontaktua da 657 71 07 56, eta 24 orduan dago erabilgarri.

Elgoibarko elkartean egiten dituzten batzarrei dagokienez, berriz, kontatu du Errenteriako Ekintza Dasalud elkartearen laguntza osoa dutela: "Diputazioak bultzatutako psikologo talde bat da hori".

**JOKO BERRIA TABERNETAN**

Bestalde, Elgoibarko elkartea arrasatearrendako zabalik dagoen moduan, Debagoieneko eta Debabarreneko gainerako herritarrendako ere zabalik dagoela argi utzi gura izan du elkarteko kideak.

**ZORIZKO JOKOAK**

Egun Bat eta elkarteek zorizko jokoetarako larregiko zaletasuna dutenei laguntzen diete: "Tabernetan eta bestelakoetan dauden makinetan, loterian, bingoan, idi probetan, frontoian… Edozein zorizko jokotan ibiltzen direnei. Adibidez, orain Jaurlaritzak –Jaurlaritza diot, hark kobratu behar du-eta joko horren gaineko zerga– tabernetan halako beste joko edo makina bat ipini behar du, Internet bidez jokatzeko, eta kontuz ibili beharra dago horrekin ere bai".

Ludopatia gaixotasunaren gainean, berriz, adierazi du zoritxarrez ez dagoela horren kontrako prebentziorik: "Ez dago prebentziorik, hain justu, joko horiek guztiak negozioak direlako. Horregatik ez diote inportantziarik ematen. Baina jokalarien %5 ludopatak direla kontsidera daiteke. Gertatzen dena da asko ezkutuan geratzen direla".

**EKONOMIA**

## Eskaera handiak ditu Fagorrek Errusiatik

Fagor Arrasatek Errusiatik 30 milioi euroko balioko eskaerak lortu ditu

**U.M.** > ARRASATE

Errusiara makina-erreminta esportatzen Estatuko lehen postuan dago Fagor Arrasate. Hala erakusten dute azken hilabeteotako datuek. Izan ere, Arrasateko kooperatibak lortu ditu 30 milioi eurotan baloratutako eskaerak. Alemaniako, Ameriketako Estatu Batuetako, Japoniako eta Italiako hornitzaileen aurrean hobetsi dituzte errusiarrek Fagorreko esportazioak.

Besteak beste, Fagorrek Errusiako OMK enpresa hornitu behar du altzaria prozesatzeko instalazio birekin. Halako beste bat instalatuko du Errusiako iparraldeko beste zerbitzu zentro garrantzitsu batean. Burdingintzan jarduten duen beste enpresa bati ere bidaliko dizkio Fagorrek makinak. Roberto Fernandezek, Fagor Arrasateko Errusiako merkatuko arduradunak, dio eskaera horien arrazoia dela orain Errusian burdingintza hazten dabilela nabarmen.

2006an Fagor Arrasatek 142 milioi euro fakturatu zituen, %90 esportaziotan.

> PERTSONA NAGUSIAK

### Mallorcarako bidaia atzeratu egin da, hegaldiarengatik

Abaroako erretiratuen elkartetik jakinarazi dute Mallorcarako bidaia atzeratu egin dela, maiatzaren 3tik 15era beharrean, maiatzaren 4tik 16ra izango dela. Bigarren txanda, berriz, 5etik 17ra izango da. Edozein argibidetarako Abaroako bulegotik pasa beharra dago.

UGARAN jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

KONTRATAK
IRUROK S.L.
ERAIKUNTZAK
Meatzerreka 5 bis - 246 posta-kutxa
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 79 78 14
ARRASATE

BITTORI
ERRETEGIA
Eguneko menua - Kartako menua
Espezialitateak:
legatz kokotxak eta txuletak
Araba Etorbidea 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

Lehiaketaren baldintzak aldatu egingo dituzte

Aldaketak egin ondoren lehiaketa deituko dute berriro

Baina baldintza berriak osokoak onartu behar ditu

**HIRIGINTZA** > ZERRAJERA BI PROIEKTUA

# Ez da inor agertu Zerrajerako etxeak egiteko lehiaketara

**UBANE MADERA** > ARRASATE

Joan den astean bukatu zen Zerrajeran babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeko proposamenak aurkezteko epea. Eta oraingo asteko eguaztenean zabaldu behar zituzten plikak edo eskaintzak, guztien artean bat aukeratzeko Zerrajeran babes ofizialeko 216 etxebizitza eraiki ditzan. Baina eguna iritsi eta esku-hutsik aurkitu da Udala, enpresa batek berak ere ez du-eta eskaintzarik aurkeztu.

"Interesa zeukana atzera bota da", azaldu du Inazio Lakuntza alkateak. Hauxe ere gaineratu du: "Orain batzar bat egingo dugu ikusteko ea posible den etxebizitza horiek eraikitzeko ezarritako baldintzetan aldaketa txiki bat egitea. Dena den, plegua aldatzen badugu, osoko bilkuratik pasa behar da berriro lehiaketa deitzeko. Ahalegindu behar dugu aldaketa txiki bat egindа ea posible den aurrera egitea, baina derrigor pasa behar du gero osoko bilkuratik". Hala, jakinarazi du maiatzaren 25ean egingo duela azken lau urteotan Udalean jardun izan duen udalbatzak.

**ZAZPI ETXEBIZITZA UDALARENDAKO**

Gaur egun Visesa eraikitzen dabilen etxeen atzean babes ofizialeko beste 216 etxebizitza eraikitzeko deitu zuen Udalak lehiaketa, 4.979.181,19 euroko aurrekontuarekin. Caixak eraiki behar dituen babestutako etxebizitzen moduan, trasteleku eta garaje bana dituzten etxebizitzak izan beharko dira, 35 urtetik beherakoei eta 65 urtetik gorakoei zuzendutakoak. Hori da baldintzetako bat. Beste bat da Udalari zazpi etxebizitza eman beharko dizkiotela. Etxebizitza horiek erabiliko lituzkete bazterkeria edo indarkeria jasaten duten pertsonei uzteko, adibidez.

Baldintza horiek joan den martxoaren 12an onartu zuen osoko bilkurak, EAJ, PSE-EE, EA eta Aralarren aldeko botoekin; EB-Berdeek eta Talde Mistoak, berriz, kontra bozkatu zuten.

Bestalde, Udalak lan horietarako aurreikusitako egutegiaren arabera, maiatzaren 21ean adjudikatu behar zituzten obra horiek. Beraz, lehiaketa hutsik geratzearen eraginez, atzerapena jasan behar du Zerrajera Biko proiektu horrek.

**MARKULETEKOA ERE HUTSIK**

Bestalde, Zerrajerako proiektuarekin batera, eguaztenean zabaldu behar zituzten, bait ere, Markuleteko industrialdean partzela bat erosteko eskaintzak. Hain zuzen ere, TKVren ondoan dagoen 7.590 metro karratuko partzela enkantera atera zuen Udalak, TKV berak hura erosteko interesa erakutsi eta gero. Baina kasu honetan ere, ez dute eskaintzarik aurkeztu. "Berarekin berba egin beharko dugu", esan du alkateak.

GELMAKO ETA URIBARRIKO ETXEBIZITZAK

## 12 alegazio aurkeztu dizkiete Gelmako eta Uribarriko etxeen zozketarako baldintzei

Bestalde, bukatu da baita ere Gelmako eta Uribarriko babes ofizialeko etxebizitzen zozketei alegazioak aurkezteko epea. "Gehienak izan dira kupoarekin lotutakoak", azaldu dute Hirigintza Sailetik. "Diote etxebizitza gutxiegi daudela pertsona bakarrei zuzendutakoak". Izenemate dataren gainean ere aurkeztu dituzte alegazioak; izan ere, Etxebiden izena emateko epea urriaren 31ra mugatu zuten, eta batzuek eskatu dute epe hori luzatzea.

Horrez gainera, EB-Berdeak alderdiak ere aurkeztu du alegazioa. Besteak beste, uste du egokiena dela Etxebidek osatzea zozketa horretarako zerrenda bakarra, "Arrasateko bizilagunen artean nahasketa eragiten duelako". Halaber, besteak beste, uste du "ezarritako kupoa ez datorrela bat Arrasateko beharrekin".

**HIRIGINTZA** > 'ABAROA BERRIA'

# Proiektuan aldaketak egiteko eskatu dute

Eraikinaren aurreko aldean aldaketak proposatzeko eskatu dute Udaletik; edozelan ere, oraingo proiektua ez dute atzera bota



**JOLASTU** Materialekin eta elementu horizontal eta bertikalekin "jolastu" dute proiektua egiterako orduan. GOIENKARIA

**U.M.**> ARRASATE

Abaroa berria izango den proiektuan zenbait aldaketa egiteko eskatu dute Udaletik. Hala jakinarazi dute proiektua egin duten Biark Studio enpresakoek. "Fatxadetan beste aukera batzuk aurkezteko eskatu digute, izan ere, proiektua aztertu zuen batzordean denetariko iritziak izan ziren. Dena den, ez dute esan proiektua ez dutela dagoenetan egingo, baizik eta aukera gehiago proposatzeko eskatu digute". Aldaketa horien artean, eraikinaren itxura berdin mantenduta, material berriak erabiltzeko aukerak aurkeztea eskatu die. Hau da, Biork-eko arkitektoen proposamenean erabiltzen dute egurra eraikinaren zati nagusian (gris argia dena) eta zati txikienean, edo behekoan, berriz, harria. Bada, zati horietarako bestelako materialak proposatzeko eskatu du Udalak.

**LEIHOEN KONFIGURAZIOA**

Horrez gainera, arkitektoen proposamenean, leihoen konfigurazioa bertikala da. Bada, horiendako bestelako antolaketa bat ere eskatu dute Udaletik. 2,5 hilabeteko epea eman diete aldaketak proposatzeko, ekainaren 29ra arte.

"Gainerako guztia onartu egin dute, hau da, eraikinaren kanpoko itxura eta barruko bolumena (solairuen banaketa) onartu egin dituzte", esplikatu dute Biork-eko arkitektoek.

**ESPAZIOA APROBETXATZEKO**

Horren harira, esplikatu dute eraikinari itxura borobildua eman diotela espazioa hobeto aprobetxatzeko: "Beheko solairuan azalera gehiago behar zuten, taberna eta orotariko aretoak ipintzeko. Goiko solairuetako gelak, berriz, txikiagoak dira. Horrela, mozketa erradikalak egin beharrean, barrukoa dago egituratuta estalkiarekin batera, hau da, estalkiak solairu guztiak batzen ditu".

Halaber, gaineratu dute eraikina luzea dela kontuan hartuta, eraikinaren aurrea eta atzea desberdintzeko materialekin jolastu egin dutela proiektua lantzeko orduan, egurrarekin eta harriarekin, "eta baita elementu horizontalekin eta bertikalekin ere".

Txitxinpe
Berezitasunak
Kazuelatxoak
Ogitarteko
hotz eta beroak
Arrasate pasealekua 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

LEIHOAK, ATEAK, ZORUAK, ARMAIRUAK
AGR García Ripa
ZAHARBERRITZEAK
PVC, ALUMINIOA, EGURRA
Erakusketa eta biltegia:
Kale txiki 3 behea (Musakola)
Tel. eta faxa: 943 77 11 20
Metal aroztegia eta PVC
Leihoak eta itxierak
Egur aroztegia
Leihoak
Ateak
Armairu enpotratuak
Armairu-fronteak
Mota guztietako zoruak
Lixatua eta bernizatua
Osagarriak
Neurrira egindako alfonbrak
Gortinak, mahaiak eta aulkiak

Pelukak eta ilea berreskuratzeko sistema berri eta pertsonalizatua

Gubi
ILE APAINDEGIA
Otalora Lizentziaduna 5
Tel.: 943 79 12 74

**MUSIKA** > GOIKOBALU ABESBATZA

# Goikobaluko gaztetxoak haur abesbatzen tailerrera joango dira

Goikobaluko abeslari gaztetxoenak Hondarribiara joango dira hainbat diziplina ikastera

**IKER BARANDIARAN** > ARRASATE
Goikobalu abesbatzako gazte talde bat Hondarribiara joango da bihartik, zapatua, astelehenera bitartean. 8 eta 16 urte arteko dozena bat gaztek esku hartuko dute Haur Abesbatzen Lehenengo Tailerrean. Han, errepertorioak prestatu eta gorputza eta dramatizazioa lantzeko moduak irakatsiko dizkiete.

**ASKOTARIKO DIZIPLINAK IKASI**
Bihar, zapatua, goizean helduko dira Hondarribiara. Parte-hartzaileak hiru taldetan banatuko dituzte, eta arduradun baten laguntzarekin errepertorioa prestatuko dute. Maite Oca, Esteban Urtzelai eta David Azurtza izango dira arduradun-zuzendariak.

Abeslari gazteek erlaxazioa, gorputzaren kontzientzia, desinhibitzea eta espresatzeko gaitasuna lantzen ikasiko dute.

**KONTZERTU IREKIA EGINGO DUTE**
Prestaketa hori egin ostean, astelehenean, hilaren 30ean, kontzertua egingo dute tailerrean prestatutako errepertorioarekin. Emanaldi hori ikustera edozein joan ahal izango da. Aipatu beharra dago aurretik ez dutela ezer prestatuko; guztia tailerrean ikasi eta landuko dute.



**BELAUNALDI GAZTEAK** Goikobalu abesbatzako gaztetxoak ere erronkak hartzeko gogoarekin daude. GOIKOBALU

**KULTURA EGITARAUA** > MAIATZEKO UDALEKO KULTURA EGITARAUA

## Jonathan Richman, Erdi Aroko Azoka eta 'El chico de la ultima fila' antzezlana maiatzean

**I.B.**> ARRASATE
Udalak dagoeneko prest dauka maiatzeko kultura egitaraua. Hilabetero moduan, asteburuetan film komertzialak emango dituzte Amaia Udal Antzokian, baita eguenetako zinekluba ere. Bestalde, hilaren 13rako Ur taldearen *El chico de la ultima fila* antzezlana iragarri dute.

Hilaren 19an eta 20an Erdi Aroko Azoka egingo dute; eta 26an, Modern Lovers musika taldean aritutako Jonathan Richman musikariaren emanaldia.



**ESTILO PROPIOA** Odriozolaren lanek estilo propioa dute. IKER BARANDIARAN

**ERAKUSKETA** > LIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK

## Elena Odriozolaren ilustrazioak ikusgai daude

Azken 20 urteotan ehunka liburutarako marrazki eta ilustrazioak egin ditu

**I.B.** > ARRASATE
Liburuaren Nazioarteko Egunarekin lotutako ekintzak antolatzen jarraitzen du Udal Bibliotekak. Hala, Kulturateko klaustroetara Elena Odriozola ilustratzailearen erakusketa eraman dute. Martitzenetik domekara bitartean ikusgai egongo da, maiatzaren 13ra arte. Ordutegia, berriz, honako hau da: 17:30etik 20:30era, hain zuzen ere.

Erakusketaren izena *Minimo* da, eta han, Odriozolaren hainbat ilustrazio tamaina handian eta argitaratutako liburuak batu dituzte.

Ilustratzaile donostiar horrek ibilbide luzea dauka, eta liburuetarako marrazkiak egiten urte asko darama. 2005ean Haur Literaturaren ilustrazio onenaren saria jaso zuen *La princesa que bostezaba a todas horas* liburuarekin.

**JAIAK** > SAN ANDRES AUZOKO JAIAK

## Hainbat ekitaldi egingo dituzte San Andresko jaietan

Kalejirak, umeendako jolasparkeak, nagusiei omenaldia eta beste egitarauan

**I.B.** > ARRASATE
Bihartik, zapatua, maiatzaren 1era bitartean San Andresen auzoko jaiak ospatuko dituzte.

Bihar, zapatua, umeendako parkea jarriko dute goizean Bedoñabe herri eskolako patioan; eta arratsaldean, auto telegidatuen erakustaldia, dantzaldia eta beste egingo dituzte.

**NAGUSIENEI OMENALDIA**
Domekan eta astelehenean ere egongo da zer ikusi eta non gozatu. Domekan ume eta gaztetxoendako bonba japoniarrak botako dituzte. Bestalde, domekan eta astelehenean hainbat taldek alaitutako kalejirak egingo dituzte. Bukatzeko, astelehenean, 80 urtetik gorako auzotarrei omenaldia egingo diete.

ERRASTI KRISTALDEGIA
Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
osagaiak
San Andres Auzoa 10. pabilioia
Tel.: 943 79 22 55 / 943 79 14 25




MADINA ZURAK
Aroztegia
- Olak
- Aglomeratuak
- Kontratxapatuak
- Tablexa
- Ateak
- Egurrezko leihoak
- Oin-inguruak
- Zangoak
- Aroztegiko osagarriak
Uribarri auzoa B-2 B S3 sektorea • Tel.: 943 79 13 78 ARRASATE
e-posta: mz@madinazurak.com

ARTZUBI ELEKTRAGAILUAK

ARTZUBI ETXETRESNA ELEKTRIKOAK

ACTIVA




Iparragirre kalea 4 ARETXABALETA Tel.: 943 53 31 86



ANDAMIORIK GABEKO LANAK



ÑAÑARRI LAN BERTIKALAK

680 641 401
676 952 968

Fatxaden eta barruko patioen berrikuntza eta pintaketak

Teilatuak • Kanaloiak • Bajanteak
Tximiniak • Altuerako kimatzeak

**ERRUGBIA** > EUSKADIKO KOPAKO JARDUNALDIA

# Arrasate Errugbi Taldeak Bera Bera izango du zain, Donostian

Arrasateko taldeak bihar arratsaldean jokatuko du Bera Bera taldearen zelaian (14:30)

Atxabalpen Atletico San Sebastian taldearen kontra galduta, garaipen bila joango dira Donostiara

**XABIER URTZELAI** > ARRASATE

Kopan murgilduta, Arrasate Errugbi Taldea garaipen bila abiatuko da bihar arratsaldean Donostiara (14:30), Bera Bera taldearen kontra jokatzera. Ikusteko dago arrasatearrek zer-nolako kontrarioa izango duten aurrean, alegia, lehenengo taldeko zenbat jokalarik jokatuko duten; horrek goitik behera baldintzatuko du partidua, bestela ere Bera Bera talde indartsua da-eta.

**GARAIPENA ESKURA**

Gasteizen galdu eta gero (17-15), Arrasatekoek joan den zapatuan izan zuten Atletico San Sebastian taldearen bisita. Baina partidu hartan, jokalariak beharrean epailea izan zen protagonista. Jokoa etengabe moztu eta azalpenak emanez –jokalariek ondo dakite zertara jokatzen ari diren– partidua erabat moteldu zuen epaileak. Indartsu jokatzeko partidua izan zen; Arrasate ahalegindu zen kontrarioa estutzen, baina donostiarrak gehiago izan ziren (7-15).

## Arizmendiko atletak txapeldunorde Hernanin

Eskola Arteko Gipuzkoako Txapelketa egin zuten domekan Hernanin, eta erretratuan dauden Arizmendiko atletek zilarrezko domina ekarri zuten etxera.

Josu Revuelta (altuera saltoa), Iñigo Uribarren (500 metroko lasterketa), Rafa Cordero (80 metroko lasterketa), Chen Jian (80 metroko hezi lasterketa), Andoni Perez (1.000 metroko lasterketa) eta Gaizka Donai (luzera saltoa) lehiatu ziren. Horrekin batera, errelebuetako proban ere parte hartu zuten.



FERNANDO ZUFIRIA

## futbitoa zaldibar

**EMAITZAK**

Ligan atzeratutako norgehiagokak:
Lasagabaster-Iturriotz ........ **8-2**
Dublin Irish Pub-Betrayer ........ **2-11**
Omu Dribling-Manhattan Pippol ........ **5-1**

Kopako finalerdietako emaitzak:
Saukelu Abian-Iluntz ........ **3-4**
AT Celaya-Dribling ........ **5-6**

**SAILKAPENA**

| | | P | J |
|---|---|---|---|
| **1.** | Saukelu Abian | 41 | 16 |
| **2.** | Omu Dribling | 40 | 16 |
| **3.** | AT Celaya | 37 | 16 |
| **4.** | Cipris | 30 | 16 |
| **5.** | Iluntz | 30 | 16 |
| **6.** | Betrayer | 29 | 16 |
| **7.** | Lasagabaster | 29 | 16 |
| **8.** | HLB 108 | 27 | 16 |
| **9.** | Abokajarro | 26 | 16 |
| **10.** | Iriztu Taberna | 25 | 16 |
| **11.** | Manhattan Pippol | 20 | 16 |
| **12.** | McAwen Dauen | 17 | 16 |
| **13.** | Iturriotz Taberna | 16 | 16 |
| **14.** | Dublin Irish Pub | 12 | 16 |
| **15.** | Billy & The Cowboys | 11 | 16 |
| **16.** | Equs | 9 | 16 |
| **17.** | Cicatrus | 9 | 16 |
| **18.** | THC | 8 | 16 |

### Zubitik bueltan, Kopako finala!

Jende askok kanpora egingo duela jakinda, antolatzaileek erabaki dute oraingo asteburuan Zaldibarko txapelketarik ez egitea.

Itzulera, baina, emozioz betetakoa izango da, maiatzaren 12an jokatuko dute-eta Iluntzek eta Driblingek Kopako finala. Bi talde horiek alderatuz gero, Ligan Omu Driblingek hamar puntu gehiago batu ditu, baina jakinekoa da Kopa beste txapelketa bat dela. Bestalde, deskantsua hartu guztiok.




Sili Sili
Martxa eta estilo handiko arropa
Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

S. CARRASCAL S.L.
Guk egindakoak:
- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako armairuak
Erakusketa berria
Ekutio kalea pab. 14-15
Uribarri auzoa 4
Tel. faxa: 943 79 01 82

Monte taberna
Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

Lore
• Lurrindegia
• Kabina
• Fotodepilazioa
Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

Kanpotarrak Arrasaten

**Aida Farco Mendoza** > Boliviarra da Arrasaten bizi da

# "Nire ametsa lan egitea da, etxe bat eduki ahal izateko"

**MIRIAN BITERI** > ARRASATE

**2004. urtean iritsi zen Aida Farco Mendoza boliviarra Gasteizera. Han hilabete gutxi batzuk baino ez zituen egin eta ondoren Arrasatera etorri zen. Euskal Herrira iritsi denetik ez da jaioterrira bueltatu. Hara joateko gogoa duela jakinarazi du, familia osoa zain du-eta.**

Bakarrik egin zuen bidaia hura, inoren laguntzarik gabe. Lagun batek gonbidatuta etorri zen. Ordutik hona ondo moldatu dela eta ezin dela kexatu dio boliviarrak: "Dena ondo joan zait lanean eta osasunean, eta, beraz, oso gustura nago", esan du.

Pertsona nagusiak zaintzen egiten du lan. Jaioterrian zerikusi handirik ez zuen beste behar bat zuen. Funtzionarioa zen eta administrari lanak egiten zituen han. Arrasaten, hala ere, ezin izan du han zuen lanbidearekin jarraitu, besteak beste euskara eskatzen diotelako. Hitz solte batzuk ikasi ditu eta euskaldun batekin hitz egiten duenean zertxobait ulertzen duela dio: "Ez, ordea, berba egitea. Hala ere, gurako nuke hizkuntza jakin".

**"Zaletasunen artean, musika izugarri gustatzen zait; abeslari izatearekin amesten nuen lehen"**



Irudian, Aida Farco Mendoza.

**JENDE "ONA"**

Hemengo jendea "ona" dela eta "beti laguntzeko prest" dagoela iruditzen zaio Farcori. Horixe da, hain zuzen, ibarretik gehien gustatzen zaiona: "Nik, behintzat, mota horretako pertsonak baino ez ditut ezagutu", azpimarratu du.

Hala ere, iritsi zenean "aholkularitza apur bat gehiago" jasotzea espero zuela azaldu du, "bereziki paper kontuekin". Azken horren harira, etorkin gehienak "bizitza hobearen bila" etortzen direla aipatu du boliviarrak.

"Nire ametsa lan egitea da, egunen batean etxebizitza propioa eduki ahal izateko", dio Farcok. Zaletasunen artean, berriz, musika izugarri gustatzen zaiola adierazi du. Eta zera gaineratu du: "Abeslari izatearekin amesten nuen lehen".

Hau be badaukogu

## Sant Jordi eguna ospatu zuten Arrasaten bizi diren kataluniarrek, Sara Merenderuen

Joan den astelehenean, hilaren 23an, Sant Jordi eguna izen zen. Liburuaren Nazioarteko Eguna izateaz gainera, kataluniarrendako egun kuttuna da Sant Jordi.

Aurten ospatzea erabaki dute Arrasaten bizi diren zenbait kataluniarrek. Hala, astelehena lanegunа zela-eta, domekara aurreratu zuten ospakizuna. Sara Merenderuen elkartu ziren, seme-alaba eta guzti eta argazkia bidali dute.

Bestalde, kontatu dute aurten ez dutela deialdi zabala egin, baina datorren urterako ahalegindu-ko direla ibarreko bestelako kataluniarrekin harremanetan jartzen Sant Jordi eguna ospatzeko.



TXATXILIPURDI

bere ustez



Antxon Mendizabal

## Trantsizio Frankistaren Gizartea

Hasieran frankismoa izan zen eta kolaborazionismo pasiboa izan zen frankismoaren iraupena ziurtatu zuena.

Kolaborazionismoarekin haustu egin zuen erresistentziak krisian ezarri zuen gizarte frankista. Espainiako estatu osoan, Euskal Herriko ezker abertzalea izan zen horren muina, bihotza eta gibela.

Erresistentzia horri aurre egiteko frankistek gidatutako erreforma demokratikoa bideratu zuten, kolaborazionismoarekin batera. Eta kolaborazionismo aktibo izan da frankismoaren luzapena eta egungo trantsizio frankistaren sostengua.

**"Hemen demokrazia gizarte kapitalista eta Euskal Herriaren ukazioarekin identifikatzen da"**

Hau ez da demokrazia; trantsizio frankistak ezarri duen demokrazia baizik. Trantsizio frankistaren gizartea.

Hemen demokrazia, gizarte kapitalistarekin eta Euskal Herriaren ukazioarekin identifikatzen da. Hemengo ordezkari politikariek merkatu sistemak nahiz estatuak ezarritako ordena eta baloreak kudeatzen dituzte.

Biolentzian eta eskubide gabezian oinarritutako sistema soziopolitiko baten aurrean, trantsizio demokratikoa egiteke dago.

Pando Errotuloak
Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70
Argidun kartelak
Ibilgailuak
Stand-ak
Itsasgarriak
Biniloa
Seinaleak
Lonak
Erliebedun hizkiak

OSORIK PUB
Ignazio Zuloaga 4
ARRASATE

arbolapeta
arrasate
beinke

UGARTE
Industria hornidurak
San Andres auzoa 2. 5-6 Pab.
Tel.: 943 -71 21 41
Faxa: 943 - 71 21 40



ETORKINAK Etorkin gehienak Boliviakoak dira, argazkiko bi emakume hauek bezala. NEREA ZUBIETE

**ETORKINAK** > 2006KO TXOSTENA

# Bergaran erroldatuta dauden biztanleen %4,9 etorkinak dira

## Bergaran bizi diren etorkin gehienak Boliviakoak, Pakistangoak eta Portugalgoak dira

## Bi urtean, atzerrian jaiotako ikasleen kopurua ia bikoiztu egin da herriko ikastetxeetan

**OIHANA ELORTZA** > BERGARA

Bergarako biztanleria osoaren %4,9 etorkinek osatzen dute. Bestela esanda, 2006ko abenduan, 726 etorkin zeuden erroldatuta Bergaran. Etorkinek Bergaran duten lekuaz azterketa egin du Udaleko Gizarte Ongizate Sailak eta datu horiek dira atera dituzten ondorioetako bi. Ongizate Saila duela bi urte hasi zen etorkinen egoera aztertzen eta joan den urteko ikerketak aurreko biak osatu ditu. Bergarako biztanleen udal errolda izan da azterketaren oinarria.

**BOLIVIA, PAKISTAN ETA PORTUGAL**

Etorkinen kopuruarekin lotuta, bergararren biztanleria jaisten doan neurrian, etorkinena igotzen ari dela ere erakusten du azterketak.

Etorkinen jatorriari buruz, gehienak Boliviakoak (%21), Pakistangoak (%16) eta Portugalgoak (%11) dira. Boiliviatik etorritakoen kopurua, adibidez, seikoiztu egin da bi urtean. EAEn, orokorrean, Kolonbiakoak, Ekuadorkoak eta Marokokoak dira; Boliviakoak seigarren postuan daude eta pakistandarrak ez dira lehen hamarretan agertzen. Ongizate Sailak ikusi duen beste datu esanguratsu bat da Bergarako etorkinak nagusiki herriko gune konkretuetan kokatzen direla: pakistandar gehienak Zubiaurre inguruan, marokoarrak Osintxun eta boliviarrak erdialdean, Zubietan eta Simon Arrietan, besteak beste. Ongizate Sailak nabarmendu du gune horiek ghetto bihurtzeko arriskua ekar dezakeela joera horrek.

**HAMAR UME**

Joan den urtean, 2006an, hamar ume jaio ziren Bergaran familia etorkinetan. Kopuru hori handitu egin daitekeela uste du Ongizate Sailak, kontuan izanda etorkinen %56 adin emankorrean daudela, 21 eta 40 urte bitartean daudela. Bestalde, 0 eta 20 urte bitartean daudenen kopurua ere handituz doa; izan ere, urtebetean %7 igo da.

DATUA

**726**

**ETORKIN ERROLDATUTA**

**Bergaran 726 etorkin zeuden erroldatuta 2006ko abenduan, 2005ean baino 174 gehiago. Aurreko urteetako tendentziari jarraituz, etorkinen kopuru totala %26 igo da.**

> BEGIRALEAK

### Ludotekan begiraleak behar dituzte uztailerako

Agorrosingo ludotekan begiraleak behar dituzte uztailerako. Begiraleek goizetik egingo lukete lan, 10:00etatik 13:00etara. Izena Agorrosingo ludotekan bertan eman behar da eta gaur, egubakoitza, da azken eguna horretarako. Izena ematerakoan orri bat bete beharko du interesatuak eta nortasun agiriaren fotokopia eraman beharko du.

Agorrosingo ludoteka erabiltzen dute 2-3 urte dituzten umeek eta nagusiagoek. Jolasak, ipuinak eta tailerrak dituzte, besteak beste.

> EUSKARA

### Euskaldun zaharrak behar dituzte berriketan egiteko

Berriketan egitasmoan parte hartzeko euskaldun zaharrak behar dituzte. Proiektu horren helburua da euskaldun berriek eta zaharrek elkar ezagutzea eta tarteka elkartzea, euskaraz berba egiteko. Lehen bi ikasturte hauetan jende askok eman du izena eta euskaldun zaharren premia dute orain. Beraz, euskaraz berba egin nahi izanez gero eta astean ordubetez beste lagun batekin elkartzeko denbora izanez gero, idatzi hona: *berriketan@topagunea.com*.

> OBRAK

### Aranerreka kaleko zubia indartzea onartu du udalbatzak

Aranarreka kalean dagoen Peruldeko zubia indartu egingo dute, Bolutik Gorlara bitartean dagoen zubia, alegia. Horixe onartu zuen udalbatzak, aho batez, astelehenean egindako osoko bilkuran.

Peruldeko zubia indartzeko lanak Artzamendi eraikuntza enpresak egingo ditu. Aurrekontua da 4.307 euro eta erabakia jakinarazten diotenetik hasita hamar egun izango ditu lanak egiteko.

OGIZUN
koop. elk.
okindegia
Ibargarai 44-46
BERGARA
943 76 45 53
Zubillaga 10
OÑATI
943 78 24 13



ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
*Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.*
Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

KONDE
PANADEROKUA



Burdiñate 1
943 76 02 57
Toki Eder plaza 3
943 76 14 87
BERGARA

Aldoka Maldoka
TABERNA
Kruz Gallastegi
BERGARA

**HAUTESKUNDEAK 07** > BERGARAKO ABERTZALE SOZIALISTAK

# Hauteskundeetan egon behar dela dio BASek

Udalak herritarren parte-hartzea bultzatu behar duela diote Bergarako Abertzale Sozialistek

**OIHANA ELORTZA** > BERGARA

Maiatzeko hauteskundeetan aurkeztuko duten zerrendaren aurkezpena egin zuten Bergarako Abertzale Sozialistek eguaztenean prentsaurrekoan. Jesus Mari Garitano zerrendaburuak hitz egin zuen denen izenean: "Ezker abertzaleak beste edozein alderdik duen eskubide berak ditu hauteskundeetan eta erakundeetan egoteko eta egon egin behar du prozesuari aurrerako bultzada emateko eta hauteskundeak demokratikoak izateko". Plataformak Bergaran jaso dituen 1.149 sinadurengatik eskerrak eman zituen; guztira 82.000 jaso dituzte Hego Euskal Herrian.

**PARTE-HARTZEA BULTZATU**

Bergarako Abertzale Sozialistak plataformak dio "EAJk kudeaketa eskasa" egin duela Bergaran azken lau urteotan eta horrekin bukatu nahi duela. "Azpiegitura erraldoien alde egin du, AHT, adibidez. Angiozar kaltetu egingo du proiektu horrek eta oraindik inork ez du horren gaineko informaziorik jaso. Uste dugu herritarrek ez dutela garraio hori eskatzen, baina herritarren eskaeren aurrean beste aldera begiratu du EAJk, ez ditu herritarrak kontuan hartu. Apartheida, Zabalotegiko errepidea eta zinema dira beste adibide batzuk", esan du Garitano zerrendaburuak. Horregatik, Udalak parte-hartzea bultzatu behar duela uste du BASek.

**POSTA BIDEZKO BOTOA**

Botoa postaz eman nahi dutenendako bulegoa zabaldu du ezker abertzaleak Artatsen. Bulego hori 11:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara dago zabalik aste barruan eta zapatuetan goizean. Maiatzaren 17a da azken eguna.



**AURKEZPENA** BASeko zerrendan aurkeztu diren 17 lagunetatik 11 egon ziren prentsaurrekoan. O.E.



O.E.

## Biribilguneak, Udalak zaintzeko

Ondartza eta Tejeriako biribilguneak eta berdeguneak Udalak zainduko eta apainduko ditu datozen 15 urteotan, behintzat. Horixe hitzartu dute Udalak eta Foru Aldundiak, biribilguneen jabeak. Diputazioak 24.000 euro emango dizkio Udalari biribilgune eta berdegune horiek apaintzeko eta loreztatzeko. Aldundiak biribilgunearen galtzada zirkularra zainduko du, ertzak, drainadura sarea eta zolatuta dauden irlatxo guztiak barne. Lanak hasi aurretik, Udalak baimena eta proiektua aurkeztu beharko ditu.

> MENDEKOSTE JAIAK 2007

## Aurten ez da sokamuturrik egongo Pazko jaietako domekan, hauteskunde eguna delako

Aurtengo Pazko jaietan bi egunean egongo da sokamuturra, eta ez hirutan, urtero bezala. Pazkoetako domeka hauteskunde eguna da eta Kultura Sailak erabaki du egun horretan sokamuturrik ez egotea. Beraz, astelehenean, koadrilen egunean, eta martitzenean, umeen egunean, egongo da aurten sokamuturra. Pazko jaietako egitaraua erabat zehazteke dagoen arren, orain arte prestatutakoaren zirriborroa eginda dauka jadanik Kultura Sailak. Joan den urtean moto-krosak izandako arrakasta ikusita, aurten ere egingo dute, jaietako zapatuan, toki berean. Egun horretarako skate festa ere antolatu dute; Labegaraietan egingo dute. Musika, bakailao txapelketa, txosnak eta jolasak ere egongo dira.

Osasuna + edertasuna + ongizatea =
ELITium
Tratamendu pertsonalizatuetan onena
Tratamendu erosoak eta ez erasokorrak:
• Estresaren aurkakoa
• Zelulitisaren aurkakoa
• Sendotzailea
• Likidoen erretentzioa
• Zirkulazio arazoak
• Drainatzailea
• Izter lodiak
Estetika zentroa Igaro
Zure gorputza udarako presta ezazu!

Barrenkale, 35 • Tel.: 943 76 17 27 • 20570 BERGARA

TELEIXA BILTEGIAK
Eraikuntza materialak
Telleria (Labegaraieta)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93

disdira
ile apaindegia
edertze gela
Masterreka 7
BERGARA
Tel.: 943 76 00 55


Irrintzi
kafetegia
Irala 3. BERGARA
Tel.: 943 76 48 26

Dixula
BOKATAK DAUZKAGU
Barrenkalea 32
BERGARA
Tel.: 943 76 44 95

ETXEBERRIA
ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA
Bidekurutzeta 16 BERGARA
Tel.: 943 76 23 94 / 943 76 12 65


POL-POL
Taberna
943 76 07 78. Bergara

**LEHIAKETA** > PAZKOEN ATARIAN

# Pazkoetako irudiak aukeratzen

## Kartel lehiaketa deitu du Udalak eta jaietako zapia apaintzeko marrazki lehiaketa Jardunek



**JAIAK** Pazkoetako kartel lehiaketa deitu du Udalak. Herriko jaiak maiatzaren 25etik 29ra ospatuko dira aurten. GOIENKARIA

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

Maiatzaren 25etik 29ra ospatuko diren Pazkoei begira, kartel lehiaketa deitu du Bergarako Udalak. Azken urteotan ohiko bilakatu da kartel irabazlea jaiak iragartzeko erabiltzea. Aurten ere Bergaran bizi edo erroldatutako edozein pertsonak har dezake parte lehiaketan eta badira bete beharreko beste hainbat baldintza: esaterako, kartelek 40 x 60 zentimetroko neurria izan behar dute, formatu bertikalean. Era berean, aurkezten diren lanek ondorengo testua eraman beharko dute nahitaez: *Pentekoste Jaiak 2007 Bergara*. Teknika librea izango da eta kartelak DIN-A3 neurriko paperean inprimatuta eta kartoizko oinarri baten gainean aurkeztu beharko dira;informatika euskarrian ere bai, hau da, CDan edo disketean.

Irabazleak 600 euroko saria eskuratuko du eta Kultura zerbitzuak, egoki ikusiz gero, aurkeztutako kartel guztiekin erakusketa antolatu ahal izango du. Kultura zerbitzuko eta Beart elkarteko ordezkariak izango dira epaimahaian. Lanak entregatzeko epea apirilaren 28ra arte dago zabalik, kultura etxean.

**JARDUNEN JAIETAKO ZAPIA**

Bestalde, Jardun elkarteak jaietako zapia apaintzeko marrazki lehiaketa deitu du. Marrazkiarekin batera, jaiak eta euskara uztartzen dituen lelo bat jarri behar da. Saria 60 euro da eta lanak Jardunera (Errotalde jauregia z/g 20.570 Bergara) edo ondoko helbidera bidal daitezke: *gaztejardun@topagunea.com*. Argibideak 943 76 36 61 zenbakian.



GOIENKARIA

## Herriko musikariak, kalean gaur

*Apirilean musika* egitarauari amaiera emateko, gaur, egubakoitza, 17:00etatik aurrera, Musika Eskolako ikasleak kalera aterako dira: talde instrumentalak, saxofoiak, akordeoiak, biolinak, klarineteak, metalak, txistuak, flautak, trikitiak eta Ganbara taldea arituko dira. Espoloira, San Martin plazara eta Simon Arrieta plazara eramango dute musika. Ondoren, 19:30ean, Zumarragako Musika Eskolako Orkestraren kontzertua izango da Mariaren Lagundiko elizan.

> MUSIKA

### Aritzeta abesbatzaren bi emanaldi: gaur Andoainen eta etzi, domeka, Elgetan

Aritzeta abesbatzak emanaldia egingo du domekan, hilaren 29an, Elgetako plazan, 12:30ean. Gaur, egubakoitza, beste kontzertu bat emango dute Aritzetakoek: Andoaingo Santa Kruz elizan arituko dira kantuan, 20:30ean.

> IKASTAROA

### Kamisetak serigrafiatzeko ikastaroa domeka arratsaldean Agorrosin Ekintza Gunean

Udaleko Kultura Zerbitzuak antolatuta, serigrafia ikastaroa izango da Agorrosin Ekintza Gunean domekan, apirilaren 29an. Kamisetak serigrafiatzeko tailerra Agorrosingo ludotekan (2. solairuan) eskainiko da, 17:00etan. Aitor Lagoma bergararra izango da irakaslea. Izenematea doan da. Argibideak: 943 77 91 58.

> GAZTEAK

### Gaztetxoei zuzendutako irteera Zuhatzara eta olinpiadak, Jardun elkartearen eskutik

Jardunek 8-12 urte bitarteko gaztetxoei zuzendutako irteera antolatu du. Maiatzaren 4tik 6ra bitartean Zuhatzara joango dira. Bestalde, maiatzaren 12tik ekainaren 16ra arte gaztetxoen arteko olinpiadak jokatuko dira. Izenematea eta argibideak: 943 76 36 61.

KAIXO TABERNA
Zurradero 4an, Bergara
Pintxoak eta ogitartekoak.
Zabalik gauera arte!


Aurrematrikulazioa: apirilaren 23tik maiatzaren 4ra
UNIBERTSITATERA
edota
HEZIKETA ZIKLOETARAKO BATXILERGO ESKAINTZA
Osasun Zientziak
Teknologikoa
Giza eta Gizarte Zientziak
Bulego ordutegia: 9:00etatik 17:00etara
IPINTZA
Bigarren Hezkuntzako Institutua
Boni Laskurain 19 20570 BERGARA
Tel.: 943 76 31 42 • Faxa: 943 76 06 80 • e-mail: 012981aa@hezkuntza.net


iKER
SUKALDEAK: ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43 • OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48
BAINUAK: ARRASATE: Zarugalde 52 / 943 79 99 42
FAGOR

**SASKIBALOIA** > HIRU PARTIDU BAINO EZ DIRA GERATZEN ETA BIGARREN DAUDE BERGARARRAK

# Ezustekorik egon ezean, senior taldea lehen mailan izango da datorren denboraldian

Asteburu honetan, Bar Iraeta-Dolphiseko donostiarrak izango dituzte aurrean

Denboraldi bikainaren arrazoi nagusia entrenatzailea bera izan daitekeela uste dute



**KEVIANEN KONTRA** Jon Arteaga jokalaria, aurtengo denboraldian Kevian Sportekin izandako partiduan. JOSETXO ARANTZABAL

**MIRIAN BITERI** > BERGARA

Saskibaloiko senior mailako mutilak pozik daude aurten eginiko denboraldiarekin. Hiru partidu soilik geratzen dira amaitzeko eta bigarren doaz taulan. Beraz, datorren denboraldian Gipuzkoako talde hoberenen aurka lehiatzeko aukera ugari dituzte.

**ZAPATUAN BERGARAN**

Asteburu honetan etxean jokatuko dute, Bar Iraeta-Dolphis donostiarren kontra. Norgehiagoka zapatuan izango da, 16:00etan, kiroldegian. Hala, aurkariak denboraldi hasiera indartsua izan bazuen ere, denborarekin ahultzen joan da.

Denboraldi bikaina izatearen arrazoia argi daukate bergararrek: aurreko urteetan entrenatzaile barik egon direla. Aurten, berriz, entrenatzailea izan dute eta denboraldi bikaina egiten ari dira. Lehen fasean partidu bakarra galdu zuten eta bigarren honetan, jokatutako bederatzitik lau galdu dituzte orain arte. Denboraldia datorren maiatzaren 19an amaituko da.

Saskibaloiko lau talde ditu Bergarak: infantiletan mutilen talde bi, gazteetan nesken bat eta kadete eta seniorretan bana.



GOIENKARIA

## Eskubaloiko nesken taldeak ezin izan zuen gurasoen aurka

Joan zen domeka goizean, aurtengo denboraldia amaitu ostean, eskubaloiko nesken taldeak partidua jokatu zuten, gurasoen aurka.

Pareko samar ibili ziren bi taldeak. Azkenean, 10-9 amaitu zen norgehiagoka. Gurasoek irabazi zuten. Ondoren, mahai baten bueltan jarri eta elkarrekin bazkaldu zuten.

> FUTBOLA

### Erregional mailak etxean jokatuko du Union Txikiren kontra

Agorrosinen jokatzea tokatzen zaio oraingo astean erregional mailako futbol taldeari. Zapatuan izango da lehia, 15:30ean, Union Txikiren aurka.

Joan den astean 1 eta 0 galdu zuten bergararrek Usurbilen. Hala ere, zortzigarren postuari eusten diote.

> PILOTA

### Bergara Hiria Txapelketak aurrera jarraitzen du

Bi partidu izango dira datorren martitzenean. Nagusietan Baez Anaiek Cerezo eta Elizaldi izango dituzte aurrean final laurdenetan.

22 urte azpikoetan, berriz, Jon Larrañaga bergararra eta Aitor Mendizabal antzuolarra Bidan eta Telletxearekin lehiatuko dira 19:30ean.

> MENDIA

### Alberto Iñurrategi mendizalea, Kilometroen alde

Alberto Iñurrategi mendizaleak *Hire Himalaya* ikuskizuna eskainiko du maiatzaren 4an, egubakoitza, Uned-eko aretoan, 22:00etan. Kilometroak 07ren aldeko ekimena da.

Euskal Herrien arteko euskal joko jaialdia eta Urkulura irteera ere egingo da asteburu horretan.

> LEHIAKETA

### Argazki lehiaketan parte hartzeko epea zabalik dago

Aurten ere, kirol argazkien lehiaketa egingo du Udalak. Edozein kirol mota irudikatu behar dute lanek.

Argazkiak onartzeko epea irailaren 12an amaituko da. Lanak udaletxera eraman edo posta zertifikatuz bidal daitezke. Argibide gehiago 943 76 30 90 telefonoa.

UREDERRA
ITURGINTZA
Iturgintza
Berogintza
Aire egokitua
Konponketa
Salmenta
Arruriaga 11
686 943 918

AZPEITXI
Jatetxea
Aranerreka 13 behea. Bergara
943 76 55 00

JOXAN
ARRAINDEGIA

Ibargarai 24. Bergara. Tel.: 943 76 70 29

**bergararrak kanpoan**

**David Perez** > Espainiako Bankuko langilea
Madrilen bizi da

# "Oso gustura nago lanean, ez du-eta zerikusirik aurrekoekin"

**MIRIAN BITERI** > BERGARA

**Joan zen urtean maletak egin eta Madrilera bizitzera joan zen David Perez bergarar gaztea. Hasieran, ikasketekin zerikusia zuen proiektua egin zuen eta ondoren Espainiako Bankura sartu zen lan egitera, informatikari.**

Beharrean "oso gustura" dagoela jakinarazi du, lan "polita" duelako. "Gauza ezberdinak egitea bilatzen dut proiektu bakoitzean, eta aurretik egindakoarekin ez dauka zerikusirik lan honek".

Orain dela bi urte ez zuen pentsatzen Espainiako Bankuan lan egingo zuela; hala adierazi du bergararrak. Gaineratu du garai hartan, ETEOn master bat egiten zebilela eta inguruko enpresa batean lan aurkitzeko asmoa zuela. Baina "aukera irten zitzaidan eta poliki-poliki hona iritsi naiz".

Madrilen ondo moldatzen dela dio. Hara iritsi zenerako aurretik jendea ezagutzen zuela eta ondorioz gizarteratzea ez zitzaiola "horren gogorra" egin aipatu du. "Oporrak Valentzian pasa ditut, eta handik ezagutzen nuen jendea", adierazi du. Madrildarrek eta euskaldunek antza dutela iruditu zaio Perezi. Hala ere, euskaldunak "zabalagoak" direla azpimarratu du, "sozialki erlazionatzerako orduan behintzat".

**"Oporrak Valentzian eman ditut, eta handik ezagutzen nuen jendea; gizarteratzea, beraz, ez zait horren gogorra egin"**


Irudian, David Perez.

**"GAUZA ASKO DAUDE EGITEKO"**

Astean zehar, egun osoa ematen du lanean bergararrak. 18:00etan lanetik irten eta gehienetan neskalagunarekin egon edo lagunekin irteten da: "Gauza asko egiteko daude, eta beti bururatzen zaizu zerbait egiteko", esan du.

Horixe da, hain zuzen, hiriburutik gehien gustatzen zaiona. Trafikoa, aldiz, gorroto du. Perezek, hala ere, zorte handia du, lanera hamar minutuan iristen da-eta oinez. "Lanerako ez dut autorik behar, baina, azkenean, egunero hartzen dut zerbait egiteko".

Asteburuetan "ganoraz" lo egin eta inguruetako herriak ezagutzea du gustuko: "Madril ikusita dudalako jada". Parrandarako astia ere izaten du. Malasañan irtetea atsegin du.

Gustura dabilen arren, etxekoak eta lagunak igartzen ditu faltan. Bergarara zerbait berezia dagoenean etortzen dela dio. "Jaietan han izango naiz", esan du.

**bere ustez**


Lander Juaristi

## Bururik gabeko pistolak

Pasa zen astean tragedia izan zen AEBko Virginiako unibertsitatean, burutik jotako gazte batek bi pistola hartu eta tiroz akabatu zituen 30 lagun. Aho zabalik gelditu ginen guztiok, telebistako irudiak ikusi, gazteak eginiko argazkiak begiratzean.

Segurtasuna obsesio paranoiko bilakatu da AEBn, eta paranoia hau erabilia izan da kanpo politikan; herriak zapaldu eta okupatzeko. Baina, barrura begira ere nabari da beldurra. Seguru egoteko modua praketan pistola bat izatea dela dirudi armak txurroak lez saltzen diren herrian (urtean hiru miloi baino gehiago), eta honela bertako etxeen %39ak suzko armak dauzka.

**"Garbi dago beraz burutik jota zegoen gaztea, bururik gabeko politikek lagundu dutela"**

Tragedia ezerezean gelditzen da datuei begiratuz gero, azken datu ofizialen arabera, urtero 30.000 pertsonek galtzen dute bizitza suzko armek eraginda. 2005eko datuen arabera, 60.825 pertsona zauritu ziren arma hauen ondorioz, egunean 191 baino gehiago.

Garbi dago beraz burutik jota zegoen gaztea, bururik gabeko politikek lagundu dutela; arma libre barne segurtasunaren izenean, misilak eta okupazioa munduko segurtasunaren izenean, diru mordoa armen merkatuan... tamalez, emaitzak egunero ikus ditzakegu; galdetu bestela Basorako herritarrei.

**hau be badaukogu**

## Jose Luis Miner Arrieta motorzalea gogoan izan dute Bergara Bikekoek

**Joan den apirilaren 22an, Bergara Bike motorzaleen elkarteak Jose Luis Miner Arrieta lagun eta kidea oroitzeko irteera egin zuen. 20 bat motorzalek parte hartu zuten ekimenean. Han izan ziren, besteak beste, Jose Luis Minerren lagun ugari. Bergaran bertan eman zioten hasiera ibilbideari eta handik kostalderantz abiatu ziren motorzaleak. Elgoibarren geldiune laburra egin zuten, Jose Luis Miner hil zen tokian. Ekitaldi hunkigarria izan zen han, lore-eskaintza eta guzti. Bergara Bikeko presidente Josu Leturiak argazki hori bidali du, "gure oroimenean jarraitzen duen lagun hori gogoan izateko".**


GOIENKARIA

ZABALA
JATETXEA • OSTATUA

Labegaraieta, Ibarra 14
BERGARA.
Tel.: 943 76 20 07 - 76 42 57
1929az geroztik zure zerbitzura

Kabutzia
ARRAINDEGIA
Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

BERGARA
MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA
Sukalde eta bainu enzimerak
Urarte 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxa: 943 76 04 77

SANTOS
TIEN 21
Etxetresna elektrikoak eta argiztapena
Masterreka 2. BERGARA
Tel.: 943 76 26 10

LANAK > BIDEGORRIA

# Bidegorria bukatzeko lanak esleituta

## Aldundiaren ardura dira herriaren iparraldeko eta hegoaldeko bidegorriaren sarrerak egitea

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA
Herriko bidegorria guztiz bukatzeko tarte bi daude egiteko. Aldundiaren ardurapean geratu ziren orduan, eta orain dela aste bi jakinarazi zuen nork egingo dituen lanok.

**209 METRO EGITEKO 216 MILA EURO**
Aretxabaletako saihesbidearen iparraldeko sarreratik Cerrajera Valle Leniz lantegira bitartean dago konpondu beharreko tarte bat. Aipatutako bidegorriaren lehenengo zatia iaz egin zuen Aldundiko Errepide Sailak, Udalak eskatuta, eta urrirako bukatu zituzten lanok. Orduan, baina, 209 metro inguruko tartea egin barik utzi zuten –Deba ibaiaren eskuma aldean, CVL lantegira artekoa–, eta pasabide estua dute oinezkoek zein bizikletek saihesbidearen alboan. Lanok Excavaciones Olloquiegui SA enpresa iruindarrak egingo ditu – aipatutako lehen zatia ere hark egin zuen–, eta 216.638 euroko aurrekontua daukate. Hamar aste inguru beharko dituzte lanok egiteko, baina eguraldiak zeresan handia izango du; izan ere, ibaian sartu beharko dute hondeatzemakinek eta langileek, eta euri asko eginez gero ezin izango dute lanik egin.

**HERRIKO TARTEA BUKATZEN**
Egiteko dagoen bigarren tartea hegoaldeko sarrerakoa da, Eskoriatzara bidean dagoen tuneletik mugaraino doana. Bidegorri zati horretako lanak egiteko ardura Probisa, Tecnologia y Construccion SA enpresari eman dio Aldundiko Garapen Iraunkorreko Departamentuak. 101.266 euroko aurrekontua dauka tarte horrek, eta hamar astean bukatuta egongo delakoan daude, laua delako bidea eta ez daukalako aparteko berezitasunik.

Herri barrutik pasatzen den bidegorria Udalak egin zuen, eta txikikeria batzuk geratzen dira guztiz bukatzeko: bizikleten tartea zehaztuko duen marra gorria margotzea eta bideko seinaleak jartzea, esaterako. Copreci lantegi parean hainbat zuhaixka landatu zituzten otsail bukaeran, udaberrirako loratuta egon zitezen, eta orain, eserlekuak jarri dituzte atseden hartzeko. Bizikletek euren lekua izatea gura zuten, baina bidegorri tarte batzuk estuak dira eta oinezkoekin batera ibili beharko dute.



**BIDEGORRIA** Copreci lantegi parean eserlekuak jarri dituzte atseden hartzeko. M.A.

ONGIZATEA > ETXEBIZITZA SOZIALAK

# Banatuta etxebizitza sozialen giltzak

## Hamabost giltza banatu dituzte, eta bost etxebizitza Jaurlaritzaren eskuetan geratu dira

**M.A.** > ARETXABALETA
Joan zen astean, hilaren 18an, banatu zituen Jaurlaritzak etxebizitza sozialen giltzak. 15 herritarrek jaso zituzten.

**ERRENTAN HARTU DITUZTE**
Zozketa 2004ko ekainean egin zuten, eta orduan 18 etxebizitza banatu bazituzten ere, orain hamabosti eman dizkiete, gehienak gazteak. Gainerako bostak Jaurlaritzaren eskuetan geratu dira oraingoz. Errentan hartu dituzte etxeok, eta bost urterako izango dira. Epea bukatutakoan luzapena eskatu ahal izango dute, eta urtero jarraipena egingo diete.



**ETXEBIZITZA** Bedarreta auzuneko 18. atartea txukun utzi dute, inguruan lorategia eginda. M.A.

Goi mailako heziketa zikloetarako sarbide froga prestatzea nahi duzu? **21** urte baino gehiago edo **2** urtetako lan esperientzia baduzu

Etor zaitez **IEFPS ARETXABALETA GLHBI**ra eta informa zaitez

*Etxebarri auzoa, z/g*
*20550 ARETXABALETA (Gipuzkoa)*
*Tels.:943 79 79 00 / 943 77 09 55*
*E-mail: ia@iaretxabaleta.com Web orria: www.iaretxabaleta.com*

IEFPS Aretxabaleta GLHBI
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
Euskadi 2006

BENGOA
URDAITEGIA
**Bertako okelak eta odolosteak**
Durana 9. Aretxabaleta - Tel.: **943 79 19 79**

112
SOS DEIAK

**HEZKUNTZA** > ELKARLANA ALEMANIARREKIN

# Alemaniako 20 ikasle daude gure artean Arizmendik gonbidatuta

Europa mailako Comenius proiektuari esker etorri dira, eta maiatzaren 7an Arizmendiko ikasleak joango dira Alemaniara

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA

Hilaren 16an heldu ziren gure artera Alemaniako Traben-Trarbach institutuko 20 ikasle eta hiru irakasle. Arizmendi ikastolak gonbidatuta etorri dira.

**PROIEKTUA ELKARLANEAN**

Orain dela hiru urte egin zuen lehenengoz elkartrukea Alemaniako Land de Rheinland-Pfalz lurraldera Arizmendik. Benetan aberasgarria izan zen esperientzia hura eta ordutik hona hainbat elkartruke egin dituzte. Aurten, harremana sendotu egin dute Europako Erakundeetan elkarlanean egindako proiektua aurkeztuta. *Europe on stage* du izena proiektuak, eta bi ikastetxeen artean egin duten antzezlana da. Aipatutako antzezlana atzo aurkeztu zuten, Arrasaten.

**OSOKO BILKUREN ARETORA**

Lanera etorri dira alemaniarrak, baina gure bazterrak ezagutzeko aukera ere izan dute: Bilbo, Donostia, Gernika eta beste batzuk. Gure mendietara ere egin dituzte irteerak: Ugastegi, Orkatzategi… eta Aretxabaletako udaletxea ezagutzera etorri ziren. Arritxu Oliden alkateak egin zien ongietorria eta osoko bilkuren aretoa erakutsi.

Maiatzaren 7an, ostera, Arizmendi ikastolako ikasleak joango dira Alemaniara.



**UDALETXEAN** Alemaniako 20 ikasleak eta hiru irakasleak Arritxu Oliden alkatearen inguruan udaletxeko loradegian. ARIZMENDI

## Sei bikotek hasi dute esku pilota txapelketa

Lagunarteko esku pilota txapelketa antolatu du Udaleko Kirol Zerbitzuak, eta joan den zapatuan jokatu zituzten lehen partiduak. Sei bikote dabiltza txapelketan, eta horietatik bost lagun dira aretxabaletarrak: Iñaki Uribetxebarria, Asier Eraña, Xabier eta Oier Sarasua anaiak eta Unai Uriarte. Lehenengo fasea liga erara izango da, maiatzaren 26an finalerdiak jokatuko dituzte eta ekainaren 2an finala izango dute onenek. Partiduak zapatu goizetan dira Iturrigorri frontoian.




GOIENKARIA

**ERRETIRATUAK** > IRTEERAK

## Soriara irteera eta mendi buelta, Basotxok antolatuta

Maiatzaren 10ean eta 11n joango dira Soriara eta 4an edo 5ean eman behar dute izena

**M.A.** > ARETXABALETA

Irteera bi antolatu ditu Basotxo erretiratuen elkarteak maiatzerako. Bata mendi buelta Aretxabaleta inguruan, eta bestea, Soriara bi egunerako.

**SORIA ETA INGURUAK**

Martxoan hautatutako zuzendaritza batzordea hasi da lanean. Maiatzaren 8rako mendi buelta antolatu dute. 09:00etan atera Basotxotik eta Arkarazoko bidetik Bolinaga baserrirantz egingo dute, handik Areantza auzora, Urkulu ezkerretara dutela Larrinora joko dute, Oro auzora jaitsi eta Basotxon bukatu. Izena lokalean bertan eman behar dute 11:00etatik 12:30era, eta azken eguna maiatzaren 6a da.

Maiatzaren 10ean eta 11n Soriara joango dira. Lehen egunean Soria ezagutuko dute, eta arratsaldean Burgo de Osmara iritsiko dira. Bigarren egunean El Cañon de Rio Lobos ezagutu eta San Bartolome ermitara joango dira. Irteera egiteko gutxienez 40 bazkidek eman behar du izena maiatzaren 4an edo 5ean, 10:30etik 12:30era. 82 euro da bidaia, eta izena emateko bazkide txartelarekin joan behar da.

ZARAIA taberna
Goizeko 06:00etik irekita
Araba Ibilbidea 20 • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 88 95



mingainari tiraka

**Itsaso Ezenarro** > Euskara Zerbitzuko teknikaria

# "Euskarak lehentasunezko tokia behar du"

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA

**Getariakoa da Itsaso, baina Gasteizen bizi da. Eta urtarrilaren 15a ezkero Aretxabaletako udaletxean egiten du lan; Euskara teknikaria da hura.**



**Ezagutzen zenuen Aretxabaleta?**
Txikitatik izan dut harremana herriarekin, familia dut-eta. Lagunak ere baditut.

**Herrian zer da gehien gustatu zaizuna?**
Hizkera asko gustatzen zait, bizia delako, eta jendea ere bai. Oro har jende irekia da, eta ondo hartu naute.

**Zeintzuk dira zure eginbeharrak?**
Kirolean, merkataritzan eta enpresan euskara bultzatzeko egitasmoak lantzen ari naiz. Horrez gain, Udalaren webguneko edukiak zuzendu eta Udaleko Erabilera Plana kudeatzen dut. Dena den, bi langile gara Euskara Zerbitzuan, Ane Lore Estala eta biok, eta etengabeko elkarlanean dihardugu.

**Zein da Euskara zerbitzuak esku artean darabilen proiekturik garrantzitsuena?**
Asko dira: Barriketan, Atxabaltarrak Berbetan, etorkinei zuzendutakoa… Bat azpimarratzekotan lan esparrua aipatuko nuke, esparru estrategikoa baita euskararen normalizazioan, eta are gehiago hemen. Enpresen datu-basea osatzen ari naiz, eta sektorearen azterketa egin ondoren erabakiko du Udalak esku-hartzea nondik nora bideratu.

**Euskarari dagokionez zelan dago herria?**
Nik uste baino gehiago hitz egiten da gaztelaniaz. Ezagutzari buruzko datuak ez dira txarrak: 2001eko datuen arabera, %65ek badakite euskaraz. Hortik erabilerara jauzi handia dago, handiegia: 2005eko kale neurketaren arabera, herritarren %43k hitz egiten dute euskaraz kalean. Kontua da jendea sarritan ez dela konturatu ere egiten gaztelaniaz ari denik, eta hori da hizkuntza-ohiturak aldatzeko eman beharreko lehenengo pausoa: gaztelaniaz egiten dela ohartzea eta onartzea.

**Udal hauteskundeak gainean ditugu; zerbait eskatuko zenieke alkategaiei?**
Euskarari lehentasunezko tokia emateko, eta euskara Udaleko lan-hizkuntza izan dadin ahalegin berezia egiteko.

argazki zaharra

## Bat beharrean bi jaunartze, 7 eta 12 urterekin

Jaunartzeak izango dira domekan gurean. Lehen ere egiten zuten, baina bi: 7 urterekin soineko motza jantzita eta 12 urte betetakoan soineko luzearekin. On Angel Garmendia eta On Luis Agirre abadeen aurrean 12 neskato daude: Mertxe Lasagabaster, Consuelo Aranguren, Felisa Elkoro, Margari Perez de Mendiguren, Mila Ibartzabal eta Maxima Iturriaga. Kontxita San Migel, Milagros Zubiria, Ana Mari Elkoro, Maria Josefa Arenatza, Pili Larrañaga eta Maria Jesus Arenatza.

**Argazkia:** Felisa Elkoro.
**Testua:** Margari Perez de Mendiguren.
**Urtea:** 1946.



> ELKARTASUNA

### Mahai-ingurua eguenean GKEen lana ezagutzeko

Mahai-ingurua antolatu du Udalak, gobernuz kanpoko hainbat erakundek egiten duten lana ezagutarazteko herritarrei eta era berean esperientziak trukatzeko. Hona hemen parte hartuko duten taldeak: Bakerako Lankidetza Batzarra, Boheri, Hiruatx eta Inpet.

Esku artean duen proiektuaren berri emango du bakoitzak lehenengo, eta ostean mahai-inguruari ekingo diote. Maiatzaren 3an izango da, eguena, kultura etxeko bideo gelan, 18:30ean.

> EUSKARA

### Gizarte Segurantza izango dute berbagai maiatzaren 3an

Loramendi Euskara Elkarteak antolatuta, Gizarte Segurantza eta nekazariak izango ditu berbagai EHNE sindikatuko Onintza Ostolazak. Maiatzaren 3an izango da, eguena, 19:00etan, udaletxe zaharrean.

Maiatzaren 10ean, ostera, Askapena taldeko kideek munduko hainbat herritan brigadista joanda opor alternatiboak zelan pasatu azaldu ko dute. Berbaldi hori ere 19:00etan izango da, udaletxe zaharrean.

> IKASTAROA

### Oinarrizko euskal dantza ikastaroa edonorendako zabalik

Atzo, eguena, hasi zuten oinarrizko euskal dantza ikastaroa. Loramendi EEk antolatu du, eta Loramendi Dantza Taldeko kideak dituzte irakasle dantzan ikasi gura dutenek. 13 lagunek hasi dute ikastaroa, baina ez dago izenik eman beharrik, eta ondo hartuko dituzte azken orduan animatutakoak ere. Eguenetan egiten dituzte saioak, Basabeazpin, 19:00etatik 20:00etara, eta maiatzaren 24an izango da azkena.

GARBITU S. KOOP
Garbiketa orokorrak
Errekabarren 3- Behea ARETXABALETA
Tel: 943 79 01 28 / Mugikorra: 606 665 448

Mobiliario ARENAZA
• ALTZARIAK
• DISEINUA
• APAINKETA
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Jon Díaz
Harakina
Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA



**ERMITA** Argazkiak erakusten du Berezao auzoko Santa Lutzia ermita. NEREA ZUBIETE

**DIRULAGUNTZAK** > AUZOETAKO ERMITEI LAGUNTZA

# Ermiten argindarraren kostua ordaintzen lagunduko du Udalak

Auzoetako 13 ermiten argindarraren %90a ordaintzeko laguntza emango du Udalak

Dirulaguntza auzo alkateek eskatuko dute, arautútako epeetan ordainagiriak aurkeztuta

**O.E.** > OÑATI

Auzoetako ermiten argindarra ordaintzeko dirulaguntzak ematea onartu zuen udalbatzak martxoko osoko bilkuran. Hartutako erabaki horren arabera, eraikin horien argi kontsumoaren %90 ordainduko du Udalak, betiere ezarritako kW kopurutik gora pasatzen ez bada. Pasatzekotan, gehienez %10eko gehikuntza bakarrik onartuko dute dirulaguntza emateko, Olabarrietako kasuan izan ezik; auzo horretan, ezarritako kW kopurua da muga.

Dirulaguntza hori herriko auzoetako 13 ermitek jasoko dute. Hauexek dira: Murgiako Asentzio, Lezesarriko San Esteban, Garagaltzako San Juan, Berezaoko Santa Lutzia, Zubillaga, Olabarrieta, Urrexola, Araotz, Santxolopetegi, Uribarri, Zañartu, Torreauzo eta Garibai. Orain arte ere ematen zuen Udalak dirulaguntza hori, baina orain arautu egin dute laguntza: aurreko urteko irail-urriko ordainagiritik urte bakoitzeko uztail-abuztuko ordainagiria arte aurkeztu behar dira, biak barne, urte bakoitzeko azaroaren 15a baino lehen. Onartzen diren dirulaguntzak akordio datatik kontatzen hasi eta 30 eguneko gehiegizko epean ordainduko dira. Eskatzaile batek datu faltsuak ematen baditu, laguntza kenduko diote.

**HAUTESKUNDEAK 07** > OÑATIKO ABERTZALE SOZIALISTAK

## Eskubideen berdintasuna eskatu du OAS herri plataformak

Bide zibil eta politikoen aldeko apustua egingo duela esan du, Udal ezkertiar eta abertzalea izateko helburuarekin



**AURKEZPENA** Arrano elkartean egin du OAS-ek prentsa aurrekoa eguazten iluntzean. ARRITXU BARRUSO

**O. E.** > OÑATI

Oñatiko Abertzale Sozialistak plataformak maiatzeko hauteskundeetako hautagaiak aurkeztu ditu prentsaurrean. Hauteskundeetara aurkezteko eskubideen berdintasuna eskatu du alderdi guztiendako.

**ZERRENDA GAZTEA**

Joxe Mari Zugasti da Oñatiko Abertzale Sozialistak plataformako zerrendaburua eta berak azaldu ditu datozen lau urtetarako dituzten asmoak. "Bide zibil eta politikoen aldeko apustua egingo dugu; Udal ezkertiar eta abertzalearen alde egingo dugu, bake prozesua azken muturreraino eramateko. Batez ere legez kanporatzearen mailua buru gainean dugulako esaten dugu hori", esan du Zugasti zerrendaburuak. Helburu horiek lortzeko, zerrenda gaztea eta osasuntsua aurkeztu dutela esan dute, "gizarteko arlo ezberdinetan lana egitea ohituta dagoena". Hauteskundeetara bitartean, lelo hauxe erabiliko du Oñatiko Abertzale Sozialistakek: *Gu sortu ginen enbor beretik sortuko dira besteak.*

> IRTEERA

### Moralejara joango dira maiatzeko lehen asteburuan

Moralejako herritarrek oñatiarrak gonbidatu dituzte euren herria ezagutzera. Maiatzaren lehen asteburura-ko gonbidatu gura dituzte, maiatzaren 6an Vegako Ama Birjinaren eguna ospatzen dutela aitzakia hartuta. Joan den uztailean Oñatik gonbidatu zuen Moraleja, Macotera eta Valtierrarekin batera, handik hona bizitzera etorri zirenei esker oneko omenaldia egiteko. Orain, Moralejak gonbidatu du Oñati. Hara joan gura duenak kultura etxean eman behar du izena; gaur, egubakoitza, da azken eguna. Izenarekin batera, autoan edo autobusean joango den eta egonaldirako tokia duen edo ez esan behar du.

> MENDI MARTXA

### Asteburukako mendi martxa antolatu du Gazte Asanbladak

Gazte Asanbladak mendi martxa antolatu du asteburukako. Egubakoitzetik domeka bitarteko mendi martxa izango da. Udanatik Gorostiagara joango dira egubakoitzean; zapatuan, Gorostiaga, Zubillaga, Ugastegi eta Mañamendi zeharkatuko dituzte eta domekan, Mikeletxea, Urbia, Biozkornia eta Udana. Antolatzaileek gomendatzen dute kanpin dendarik ez eramatea, baina bai, ordea: lo egiteko zakua, alfonbra, kantinplora eta linterna. Horrekin batera, zapatu eta domekako gosaria eta zapatuko afaria egongo dela diote, baina gainerako otorduak norberak eraman behar dituela. Gaur, 18:30ean, abiatuko dira Olakuako ahateen ondotik.

> KIROLAK

### 107 lagunek hartu zuten parte karate txapelketan

Shotokan txapelketa egin zuten domekan Oñatin, 12. aldiz, eta 107 lagunek hartu zuten parte. Hiruko torneoa egin zuten Oñatiko, Bergarako eta Eibarko karatekek. Horrela, parte hartu zuten 107 karateken artean, 31 ziren oñatiarrak. Aurre-benjamin, benjamin, alebin eta infantil mailetako karatekak lehiatu ziren. Antolatzaileek adierazi duten moduan, "maila oso ona egon zen, batez ere txikienen artean; batzuk lau urteko neska-mutikoak ziren. Gainera, kontuan hartuta domekan Aloñako igoera eta eskubaloiko partiduak ere egon zirela, jende asko joan zen karatea ikustera".

**ONDAREA** > TUMULUAK ETA ZUBIATEKO LABEA

# Ondarea berreskuratu eta zabaltzeko hainbat lan

## Erañan dauden hiru tumuluen gaineko triptikoak argitaratu eta kartela jarri dute errepide alboan

## Zubiateko labea berreskuratzeko lanak hasita daude, eta Arantzadik hartu du horren ardura




**SEINALIZATUTA** Tumuluen gaineko informazioa eta airetik egindako argazkiak batu dituzte triptikoetan. IKER BARANDIARAN.

**IKER BARANDIARAN** > ESKORIATZA

Udaleko Turismo eta Ondare Sailak hainbat egitasmo landu ditu azkenaldian: batetik, Kurutzeberriko estazio megalitikoa seinalatzeko gailuak jarri dituzte; bestetik, Zubiateko laba berreskuratzeko lanean dabiltza; eta azkenik, Leintz ibarraren gaineko ikus-entzunezkoa egiten dabiltza. Hori guztia Udalaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzekin egin ahal izan dute.

Kurutzeberri estazio megalitikoa Kurtzebarri mendiaren mendebaldean dago, eta Jaurlaritzak kultura ondasun izendatuta du, monumentu multzo izendapenarekin. Ingurune horretan hiru tumulu daude. Tumuluak Brontzearen eta Kobrearen garaietako hilobi-elementuak dira; hau da, orain dela 5.000 eta 3.000 urte bitartekoak dira. Oinarrian ganbara txiki bat dute, zutikako hainbat harlauza txikiz osatuta; gainean beste harlauza bat; eta hori guztia erabat estaliz, harriak eta lurra jarrita daude modu ordenatuan, oinarri biribileko tumulu bat osatuz.

Tumulu horien gaineko informazioa zabaltzeko eta hilobi-elementuak non kokatuta dauden azaltzeko seinale handi bat jarri dute Bolibar eta Eraña arteko bidegurutzean, errepide alboan.

**TUMULUEN GAINEKO TRIPTIKOAK**

Horrez gain, Turismo eta Ondare Sailak tumuluen gaineko triptikoak argitaratu ditu. Horietan, Erañan dauden Puntiaga, Asuntzeta mendebaldeko eta Asuntzeta ekialdeko tumuluen gaineko informazioa eta airetik egindako argazki-mapa batu dituzte. Ibarraundi museoan, udaletxean bertan eta inguruetako hainbat ostalaritza negoziotan banatu dituzte triptikoak.

**ZUBIATEKO LABEA KONPONTZEN**

Bestalde, Udaletik jakinarazi digute Zubiateko labea aldamioz inguratuta dagoela, eta Arantzadikoek hartu dutela lanen ardura. Helburua da labea barrutik eta kanpotik berreskuratzea. Horretarako, apurtuta dauden zatiak konpontzen eta harria garbitzen dihardute, besteak beste.

Lan horiek hilabete eta erdiko iraupena izango dute. Labea XIX. mendeko erdialdetik XX. mendera artera egon zen lanean, eta historialarien esanetan garrantzitsua da. Udalaren asmoa da labearen inguruan zeramikaren gaineko museo-proiektua lantzea.

**LEINTZEKO IKUS-ENTZUNEZKOA**

Ondarearen alorrarekin jarraituta, Sormen enpresak, Udalaren enkarguz, Leintz ibarreko historiaren gaineko ikus-entzunezkoa egiten dihardu. Irudiz eta soinuz osatutako dokumentu horretan Leintz ibarreko Erdi Arotik gaur egunera arteko historia laburtuko dute. Horretarako, hainbat historialarik gidoia idatzi dute: Aitor Antxiak, Iñaki Urretak, Bea Akizuk eta Isabel Guridik, besteak beste.

Ekaineko lehenengo astean aurkeztuko dute, eta Ibarraundin jarriko dute betiko. Baliabide oso modernoak izango ditu, eta ikusle guztiendako egingo dute: ikasleendako, historiazaleendako eta baita turistendako ere.



**ALDAMIOEKIN** Zubiateko labea aldamioz inguratuta dago, Arantzadikoak berreskuratzen dabiltza-eta. JUAN LUIS MERINO




DE LA TORRE
igeltserotza

*Erreformak orokorrean*
*Gremioen koordinazioa*

Intxaurtxueta 7 2-D
20540 Eskoriatza
Tel.: 943 71 52 64 / 639 76 29 27

**ONDAREA** > EUSKALKIA ETA HERRIKO HISTORIA

# Berbetan egitasmoko protagonistei merezitako esker ona eman die herriak

Herriko 24 adinduni esker, Eskoriatzako historiaren zati garrantzitsua jaso dute. Udalak haiei merezitako onespena egin die ekitaldi baten

**IKER BARANDIARAN** > ESKORIATZA
Asteon, Eskoriatzako herriak eskerrak eman dizkie udalerriko historia jasotzen lagundu duten hainbat eskoriatzar edadeturi. Herriko 24 pertsona nagusik Eskoriatzarrak Berbetan ekimenean esku hartu dute, eta haiei esker bertako euskalkia berreskuratzeaz gain, Eskoriatzako historia osatzeko informazioa ere batu dute.

80 urtetik gorako 24 eskoriatzarren testigantzak batu dituzte. Horietatik bost 90 urtetik gorakoak dira: Andres Agiriano, Maximo Lezeta, Bernabe Errasti, Cruz Abarrategi eta Joxe Azkarate, hain zuzen ere.



**HISTORIAREN LEKUKOAK** Eskoriatzar adinduen testigantzei esker, herriko historiaren zati bat berreskuratu dute. ARTEMAN

Ekimena handituz joan da. Hasiera baten euskalkia jasotzea zen helburua, baina protagonistek euren bizitzako pasarte ugari kontatu dituzte; eta, hala, Eskoriatzako historiaren zati garrantzitsu bat jasotzea lortu dute, hala nola orduko ohiturak, usadioak, bizimodua zelakoa zen eta beste gauza asko.

**ONESPENA AITORTU DIETE**

Euskara Sailak jakinarazi duenez, elkarrizketak egiteko adindunengana jo zutenean haiek garrantzia kendu zieten euren testigantzei. Horregatik, Udalak publikoki eskerrak eman dizkie herritar horiei guztiei. Ez hori bakarrik, erakutsi gura izan die eurek kontatutakoa ondare garrantzitsua dela, eta historia jasotzeko ezinbestekoa dela. Adindunek gustura entzun zituzten Udaleko eta Badiharduguko ordezkarien hitzak, eta ekimenaren parte direla sentitu zuten.

Elkarrizketa guztiak *eskoriatza.badihardugu.com* webgunean daude; Arteman enpresak ikus-entzunezko bat egin du, besteak beste; eta jasotako informazioari erabilera handiagoa emateko asmoa du Udalak, ikasleei edo herritarrei zabaltzeko.

**HAUTESKUNDEAK** > ELIZATEAK TALDEAREN AURKEZPENA

# Baserritar eta auzotarren ahotsa

**I.B.**> ESKORIATZA
Eguaztenean aurkezpena egin zuen Elizateak taldeak kultura etxean. Zerrendaburu Leire Okarantzak, Unai Salaberriak, Juan Carlos Belokik eta Javier Villarrek eman zituzten azalpenak.

Elizateak taldea udal hauteskundeetara aurkezten den zazpigarren aldia da, eta beti ordezkaritza lortu du. Zazpi elizateetako eta Lete auzoko biztanleak ordezkatzen ditu: "Auzotarren bizi kalitatea hobetu eta baserritarren nortasunari eustea dira gure helburu nagusiak".

"Erdigunetik kanpo bizi garenok hainbat zerbitzu auzoetan bertan behar ditugu. Jende nagusi eta ume asko daude tartean; eta gauza guztietarako mugitu behar izaten dugu", azaldu zuten.

Bestalde, azpiegituren lanek eragiten dituzten kalteak saihesteko eta ingurumenaren alde egiteko lanean jarraituko dute.

Elizateetakoen ordezkarien esanetan, auzotarren eta baserritarren ahotsa Udalean entzun eta aldeko erabakiak har daitezen ezinbestekoa da ordezkariren bat udal gobernuan egotea.



**AUZOTAR TALDEA** Elizateetan bizi direnek eta baserritarrek osatzen dute. ELIZATEAK

> LEHIAKETA

## 'Mundua bertan' lehiaketaren bigarren galdera

Lau astean *Mundua bertan* lehiaketarako galderak argitaratuko ditugu. *lehiaketak @eskoriatza.net* helbidera bidali behar dira erantzunak.

Gaurko galderaren protagonista Ingalaterran sortu zen idazle-ikerlaria da. Kimika, Mineralogia eta Hizkuntzalaritza ikasketak egin zituen. 1856an egin zuen lehen bidaia Euskal Herrira eta Urruñako Lore Jokoetan egon zen. Lan asko egin eta eginarazi zituen, baina lanik ikusgarriena *Carte de sept provinces basques* da. Zein da ikerlariaren izena eta zer urtetakoa da lan hori?

SALON DE BELLEZA
OSASUNA ETA EDERGINTZA
DORLETA
Aranburuzabala 22, behea
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 51 20

AZKOAGA
ESTANKOA
943 71 48 77
Zure Zerbitzura

ILE APAINDEGIA
APAINDU
San Juan kalea 12c behea
ESKORIATZA
Tel.: 943 08 26 40

**ERREPIDEAK** > KONPONKETAK EGINGO DITUZTE GI-632 ERREPIDEAN

# Bergara alderako errepidea maiatz hasieran konpontzen hasiko dira

Urretxu eta Antzuola arteko errepide zatia konpondu egingo dute maiatzean zehar; oso egoera kaskarrean dago, batez ere elurteen ondorioz


**GI-632** Oso egoera kaskarrean dago errepidea, batez ere azkeneko elurteen ondoren. A.I.

**AINTZANE IRIZAR** > ANTZUOLA

Urretxun hasi eta Bergara arteko GI-632 errepidearen zatia oso egoera kaskarrean dago azkenaldian. Aurreko astean zulo handienak estaltzen jardun zuten Diputazioko langileek, baina maiatzean hasiko dira guztiz konpontzen.

Horixe jakinarazi digute oraingo astean Gipuzkoako Diputaziotik. Adierazi digute, gainera, azkeneko elurteak bereziki hondatu zuela errepidea. Gainera, zirkulazio pisutsudun errepidea da. Hiru zatitan banatu dituzte lanak: lehendabizi, Urretxutik Deskarga gainerako zatiari ekingo diote; ondoren, Deskarga gainetik Antzuolarainoko zatiari eta azkenik, Antzuola eta Bergara arteko zatia konponduko dute. Azkeneko zati honetako lanak gauez egingo dituzte, zirkulazioari ahalik eta arazo gutxien sortarazteagatik. Eguraldiak jarriko du lanen erritmoa, baina espero dute maiatzaren amaierarako lanok bukatuta izatea.

**MENDEBALDEKO SARRERA**

Errepideen kontuarekin jarraituta, aurreko asteko egubakoitzean argitaratu zuten Gipuzkoako Buletin Ofizialean, Antzuolako mendebaldeko sarrera egiteko lanen esleipena onartu duela Diputazioak. Galdiano enpresak egingo ditu lanok eta aurrekontua da 970.457 euro.

Gipuzkoako Foru Aldundiko arduradunek adierazi digutenez, behin lanok esleituta, datozen asteotan hasiko dituzte lanak, seguruena maiatzean, aurrez ikusita zuten bezala.

**BIDEGURUTZEA ETA ZUBIA**

Helburua da gaur egungo herrirako sarrera bertan behera lagatzea eta Bergara aldetik doazen ibilgailu guztiak Uzarragarako zubitik sartzea herrira. Hortaz, Uzarragarako zubian ere egin beharko dituzte lanak, zubia zabaltzeko. Bestalde, Kalebarrengo zubia ere zabaldu beharko dute, handik ere pasatu beharko dutelako ibilgailuek. Sei hilabete dituzte lanak egiteko.

---

**HAUTESKUNDEAK** > SINADURAK

## Antzuolako Abertzale Sozialistek 219 sinadura

Aurreko asteko egubakoitzean amaitu zen sinadurak batzeko epea

**A.I.** > ANTZUOLA

Antzuolako Abertzale Sozialistak izeneko plataformak maiatzaren 27ko hauteskundeetara aurkezteko asmoa erakutsi zuen. Horretarako, baina, 50 bat herritarren sinadurak jaso beharra zeukaten.

Udaletxeko bulegoan jardun zuten bertako langileek herritarren sinadurak batzen. Aurreko asteko egubakoitzean jaso zituzten azkenak. AAS plataformako kideek adierazi digutenez, 219 sinadura batu dituzte guztira.

Orain dela lau urte beste plataforma bat aurkeztu zen udal hauteskundeetara: Gertu Gae. Gero, legez kanpo laga zuten plataforma hori. Orduan 137 sinadura batu zituzten plataforma hura hauteskundeetara aurkeztu ahal izateko.

---

**PILOTA** > HERRI MAILAKO ESKUZ BINAKAKO TXAPELKETA

## Asteburuan amaituko da txapelketako lehen fasea

Maiatzaren 26an jokatuko dituzte finaleko pilota partiduak

**A. I.** > ANTZUOLA

Bihar, zapatua, amaituko dute Herri Mailako Eskuz Binakako Pilota Txapelketako lehendabiziko fasea, Olalde elkarteak antolatutakoa. Hurrengo astean, maiatzak 5, ekingo diote bigarren faseari, eta, maiatzaren 12ko eta 19ko partiduak jokatu eta gero, maiatzaren 26an finalak jokatuko dituzte.

Bihar, honako partiduak jokatuko dituzte, 09:00etan hasita: Zabalo-Iturbe / Iturbe-Irizar; Iparragirre-Jauregi / Garitano-Azkarate; Martin-Pagaldai / Aristi-Aranburu; Lezeta-Aranburu / Larrea-Aranguren; eta Bargiela-Unanue / Ormazabal-Iturbe.

Lehenengo fasean talde bakoitzeko lehenek eta bigarren onenak izango dute finala jokatzeko aukera.

---

> UDALA

### Bake epaile izateko eskaerak aurkezteko epea zabalik dago

Bake epaile berria aukeratuko dute Antzuolako bake epaitegirako. Lau urterako hartuko du kargua bake epaile berriak. Interesa dutenek udaletxean aurkeztu behar dituzte eskaerak, maiatzaren 9a baino lehen.

Besteak beste, honako baldintzak bete beharko dituzte eskatzaileek: Espainiako Estatukoa eta adinez nagusia izatea; eskubide zibil guztien jabe izatea eta alderdi politiko eta sindikatuetakoak ez izatea.

Informazio gehiago nahi izatekotan, udaletxeko idazkaritzara jo dezakezue edo telefonoz zenbaki honetara deitu: 943 76 62 46.

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA

DEKORAZIOA
ABAD
PINTURAK
ANTZUOLA
PAPER PINTATUAK
INDUSTRI MANTENIMENDUA
Jose Gomez Abad
Errekalde 6, 4-B.
Antzuola
943 76 60 19
943 76 60 43
Faxa:
943 76 60 19

EGAÑA
Era guztietako arotz lanak
Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kutxilatu eta barnizatuak
Kalegoi 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23

**OMENALDIA 'LEPO'-RI**

# Gudariei omenaldia egingo diete zapatuan

**L.Z.** > ELGETA

Elgetako Abertzale Sozialistak ekitaldia antolatu du zapaturako, hilak 28.

*Lehengo eta oraingo gudariak gogoratuz* ekitaldiari 12:00etan emango zaio hasiera Elgetako plazan. Asentziora abiatuko dira oinez eta 12:30ean *Lepo*ren 27. urteurrena dela-eta, omenaldia egingo diote bertan.

Bueltan, 13:15ean kontzentrazioa egingo dute Herriko Plazan *Hauteskundetan aukera denak egotearen alde* lemapean. 14:00etan herri bazkaria egingo dute eta 16:30ean Abiadura Handiko Trenaren aurka Bilbon egingo den manifestaziorantz irtengo dira.

**AISIALDIA** > EGOKIK BI PROPOSAMEN EGITEN DITU MAIATZERAKO

# Patinaje ikastaroa eta Udalatxera mendi irteera antolatu ditu Egoki Taldeak

Izenematea maiatzaren 2a baino lehen egin behar da patinaje ikastarorako eta 3a baino lehen mendi irteerarako



**EKINTZA UGARI** Duela hilabete Egokik gauez egin zuen igoera Intxortara. L.Z.

**LARRAITZ ZEBERIO** > ELGETA

Kirola egitea gustuko dutenek ez dute aspertzeko tarterik izango ondorengo asteetan. Egoki taldeak bi proposamen egin ditu maiatzerako eta ekainerako.

Lehenengoa patinaje ikastaroa, maiatzaren 4tik ekainaren 8ra bitartean barikuro egingo dena. Izenemateen eta parte-hartzaileen mailaren arabera bi talde egitea da asmoa. Bata hasiberriendako eta bestea trebatu nahi dutenendako.

Saioak 18:30ean izango dira, Elgetako pilotalekuan. Prezioa 15 euro da gazteendako eta 20 euro nagusiendako.

**MENDI IRTEERA UDALATXERA**

Maiatzaren 6an, domeka, egingo da eta bi ibilbide egongo dira aukeran. Bata, motza, hiru ordu eta erdikoa eta bestea, luzea, ordubete gehiagokoa.

Irteera 09:00etan da Herriko Plazatik. Kasu bietan izenematea udaletxean egin behar da.

**bere ustez**



Sebastian Arantzabal

## Zutik munduko langileok

Klaseen borroka da historiaren motorea" zioen Marxek orain mende eta erdi, baina gaur egun horrela al da? 70-80. hamarkadetan borroka gogorrak eman ondoren lorpen garrantzitsuak lortu zituen langile mugimenduak. Gauzak majo aldatu dira. XXI. mendeko langileak ez dauka bere klase izaeraren kontzientzia hain garbirik eta langileen artean ere maila ezberdinak sortu dira; finkoak, kontratudunak, ETTkoak eta inork nahi ez dituen lanak egiteko, atzerritarrak.

**"Gure klase izaeraz jabetu behar dugu langileok benetako demokrazia eraikitzeko"**

Gaurko gizarte moderno honek langileak kontsumo merkatuan murgiltzera bultzatzen ditu. Oporrak, autoa edo etxea erosteko urte asko egoten gara Kutxarekin zorretan. Egoera horretan, bere eskubideen alde borrokatzeko gogo gutxi izaten du langileak. Irabazitako lorpen batzuk galtzen joan dira. Ugazabak, gainera, egunero mehatxu berriekin etortzen dira. Mendebaldeko herrien konpetentzia aipatzen dute gure eskaeretan murrizketak lortzeko. Hori bai, euren irabaziak inoiz baino handiagoak dira.

Espero dezagun gaurko egoera, ziklo baten bukaera izatea eta etorkizunean langileok gure klase izaeraz jabetzea. Gizartearen gehiengoa izanik, benetako demokrazia eraikitzea.

**KONTZERTUAK** > HIRU SAIO GAUR, BARIKUA, ELGETAN

# Rogelio Botanz, Etxe eta Karelean arituko dira gurean

Rogelio Botanz Espaloian arituko da eta Etxe eta Karelean, gaztetxean

**L.Z.** > ELGETA

Gaur, barikuan, 22:30ean emango zaie hasiera kontzertuei bai gaztetxean bai Espaloian.

Gaztetxean bi talde arituko dira, Etxe eta Karelean. Iñaki Etxezarraga *Etxe*-k 21 urte ditu eta gaztea izan arren azken hilabeteotan arrakasta handia izaten ari da Euskadi Gaztea irratiaren top zerrendan. *Etxe* Berrizkoa da eta oso musika melodikoa egiten du. *Zatoz nirekin* lehenengo diskoa aurkeztuko du Elgetako gaztetxean.

Karelean, berriz, laukotea da eta Euskadi Gazteko XVI. maketa lehiaketako irabazlea. Rock melodikoa egiten dute Zestoa eta Azpeitiko gazte horiek.

**ROGELIO BOTANZ ESPALOIAN**

Taldearekin etorriko da Espaloira Rogelio Botanz kantautorea. Bigarren bisita du Espaloira eta mestizajearen emaitza den bere musika ekarriko du gaur gurera. Kontzertu hori ere 22:30ean hasiko da.

*Taller Canario de la Canción* lantaldearen sortzaileetako bat dugu Rogelio Botanz, Andres Molina eta Pedro Guerrarekin batera. 1992an tailerra desagertzean, irletako memoria erritmikoa lantzen jarraitzea erabaki zuen.



L.Z.

## Udal Liburutegiak 800 liburu opari

Astelehenean, hilaren 23an, Liburuaren Nazioarteko Egunean, Udal Liburutegiko Maria Elena Eztenagak 800 liburu atera zituen plazara. Nobedadeak erakutsi zituen, liburutegian zer aurkitu daitekeen erakusteko. Udal Liburutegia garbiketa prozesuan sartuta dagoela-eta, gainerako guztiak, ia 800, opari eman zituen. Ekintzak harrera ona izan zuela esan dio GOIENKARIAri.

BERGARA Margoak
Certificado ISO 9001 por BVQi
Kalitatea eta zerbitzua.
Amillaga 1, 1 pabilioia, goiko solairua. 162 posta kutxa, 20570 BERGARA
Tel.:943 76 97 31 Faxa: 943 76 97 32. bergara@bergaramargoak.com

Jatetxea zentzumena
Jaki goxoak eta giro aparta!
Tel.: 943 78 91 07 • Faxa: 943 78 91 06
hotelrosena@terra.es
www.casaruralelgeta.com
San Roke 26 • Elgeta
HOTELA
Elgeta

GOIENKARIA
2007ko apirilaren 27a



**ORDEZKARIAK** Argazkian azaltzen dira ASEren sorreran lanean ibili direnetariko batzuk. U.M.

**ARAMAIXOKO SAGARZALIEN ELKARTEA** > LORTU DITUZTE BAZKIDEAK

# Aramaixoko Sagarzalien Elkartea (ASE) eratzen dabiltza, 24 bazkiderekin

Joan den barikuan egin zuten 24 bazkide ofizialekin lehenengo batzarra; zapatuan, berriz, Udalak utzitako lokala prestatzen ibili ziren

**UBANE MADERA** > ARAMAIO
Aramaioko 24 baserri bazkide egin dira Aramaixoko Sagarzalien Elkartean (ASE). Denetariko bazkideak dira: batzuk sagarrondo ugaridunak, eta beste batzuk gutxi batzuk dituztenak. Behin-behinerako lokala ere eskuratu dute, Udalak utzitakoa, kultura etxearen azpiko aldean. Orain, elkartea modu ofizialean eratzeko pausoak ematen dabiltza. Dagoeneko eratu dute elkartearen batzorde izango dena: Juan Antonio Aretxaga izendatu dute lehendakari; Hector Arregi izendatu dute diruzain eta Kepa Lizarralde idazkari.

Hala, Aretxaga lehendakariak azaldu du orain elkartearen estatutuak egiten dabiltzala eta bazkideen onespena eskuratu ostean Jaurlaritzara bidaliko dituztela, ASE elkartea modu ofizialean eratuta gera dadin.

**AHALEGIN GUZTIAK, GAUZA DADIN**
Burokrazia kontuak egin bitartean, baina, elkarteko kideak burubelarri dabiltza bestelako lanak egiten: "Otsailean Zaragozan izan ginen, Enovid azokan. Han zenbait hornitzailerekin harremanak egin genituen. Errioxan ere izan gara. Eta dagoeneko zenbait eskaintza eskuratu ditugu".

Sagar ura egiteko makinen gaineko informazioa eskuratzen ere ibili dira, baita zenbait makina ikusten ere: "Astigarragara joan gara, haien makinak ikustera. Izan ere, gure asmoa da punta-puntako teknologiadun makinak ipintzea Aramaion. Hala, Grenobleko (Frantzia) zenbait hornitzailerekin harremanetan jarrita gaude eta haien erantzunaren zain gaude".

Eta zain daude, baita ere, Arabako Foru Aldundiari eskatutako dirulaguntzen gaineko erantzuna eskuratzeko, "baina orain, hauteskundeekin, guztia dago geldi eta oraingoz ez dugu erantzunik jaso", dio Aretxagak. Diputazioaren dirua oso garrantzitsua izango da makinak erosi ahal izateko.

Edozelan ere, ASEkoek lanean jarraituko dute, aurten hasi gura dute-eta sagar ura produzitzen: "Gurako genuke aurtengo uztan hasi (irailean), baina ez dago gure esku".

'CARPOCAPSA' (HARKUA) KONTROLATU NAHIAN

### Biolurrekin elkarlanean, sagarrondoari eraso egiten dion harra kontrolatu nahian

Bada har bat, *Carpocapsa* (harkua) izenekoa, sagarrondoari eraso egiten diona, urtean lau alditan. Lehenengo erasoa izaten da maiatzaren 28-30 inguruan, baina iaz aurreratu egin zen. Lehenengo erasoa kontrolatzea oso garrantzitsua da baserritarrendako, sagarrondoa ahulduta uzten du-eta. Bada, aurten, Biolur Aramaioko baserritarrekin harremanetan jarri da harkuaren gaineko ikerketa egin nahi duelako. Dagoeneko ipini dute tranpa bat Zalgo auzoan eta haren bitartez zainduko dute harkuen erasoa noiz gertatzen den. Har horri aurre egiteko produktuak ere hasi dira ekartzen.

**AHT** > HERRI GALDEKETA

## 'AHT nahi duzu?' galdetuko dute herri galdeketan

09:00etatik 20:00ak arte ipiniko dute postontzia kultura etxean

**U.M.** > ARAMAIO
Abiadura Handiko Trenaren gaineko herri galdeketaren xehetasunak jakinarazi dituzte oraingo astean. Etxe bakoitzerako hiru pertsonarendako botoak ere bidali dituzte, postaz.

Hala, zehaztu dute honako galdera egingo dietela herritarrei: *Abiadura Handiko Trena (AHT) nahi duzu?*

Zehaztu dute, baita ere, kultura etxean ipiniko dutela botoak batzeko mahaia, 09:00etatik 20:00ak arte. Eta botoa eman ahal izango dutela Aramaioko errolda osatzen duten eta 18 urtetik gora duten herritar guztiek.

**ESPETXEAN EDO OSPITALEAN**
Horren harira, espetxeetan, osasun etxeetan eta herritik kanpo daudenek (ikasleek…) ordezkari bat izendatu beharko dute botoa eman nahi badute. Ordezkariak honako agiriak aurkeztu beharko ditu, botoa emateko: ordezkaria izendatzeko agiria, udaletxean jaso daitekeena; bere egoera adierazten duen ziurtagiria eta nortasun agiriaren kopia. Mahaiaren osaketari dagokionez, berriz, bi lagun izango dira, auzoetako alkateak.

**EMAITZEN ONDORIOAK**
Bozketaren emaitzei dagokienez, zehaztu dute emaitza baiezkoa bada obrek iraun bitartean segurtasun neurriak mantentzen ahaleginduko direla eta herritarrei laguntza eskainiko dietela. Ezezkoa bada, berriz, emaitza komunikabideetara zabalduko dutela.

**POLITIKA** > SINADURA BILKETA

## Aurrekoan baino sinadura gehiago lortu ditu AAS-k

Aramaioko Abertzale Sozialistak-ek eskerrak eman nahi dizkie sinatu duten 183 aramaioarrei

**U.M.** > ARAMAIO
Pozik daude ezker abertzalekoak, Aramaioko Abertzale Sozialisten alde lortu duten sinadura kopuruarengatik: 183. "Horrek erakusten du jendeak nahi duela ezker abertzalea udaletxean presente egotea eta horren aurrean, ahalegin guztiak egingo ditugu erakundeetan egoteko eta egon egongo gara", adierazi du ezker abertzaleko kide batek. Halaber, eskerrak eman nahi dizkie euren alde sinadura eman duten 183 herrikideei.

**KOPURUA IGO**
Hala, batetik beharrezko sinadurak baino gehiago eskuratzeaz gainera, ezker abertzaleak nabarmendu du orain dela lau urte Hamalau alderdiaren alde batutako sinadura kopurua gainditu egin dutela oraingo honetan, 153tik 183ra igotzea lortu dute-eta.

**EGUENEAN, HERRI BATZARRA**
Horrez gainera, datorren asteari begira dei egin dute eguenean, maiatzaren 3an egingo duten herri batzarrean parte hartzeko interesa duten guztiek. 19:00etan da, kultura etxean. "Deialdi berezia da, hauteskundeei begira herri programa zehaztu egin behar dugulako. Helburua da udaletxera joatea ahalik eta jende gehienaren ekarpenarekin".

> UDALA

### Ibilgailuen gaineko zerga oker kobratu du Udalak; gaur, barikua, dirua buletatuko du

Joan den astean ibilgailuen gaineko zerga bidali zien Udalak herritarrei. Baina oker egin dutela abisatu dute Udaletik. Esandakoaren arabera, programa informatikoak kale egin zuen Gasteizen eta horren ondorioz, zergen tarifetan aldaketak egin zituzten.

Hori horrela, guztiak errepasatzen ibili dira. Eta jakinarazi dute gehiegi kobratu dietenei dirua bueltatu egingo dietela, gaur bertan, barikua. Azpimarratu dute ez dela komeni txarto dauden erreziboak bueltatzea, horrek egoera gehiago nahastuko lukeelako. Halaber, gaineratu dute herritarren batek zerga horren gaineko bestelako arazoren bat badu, udaletxera joan dadila.

Jakinarazi dute iazko kopuru bera kobratuko dutela aurtengo ibilgailuen gaineko zergan.

**KIROLA** > PILOTA TXAPELKETA

# Iker Aizpuru gatzagarra, Arabako eskola arteko pilota txapelduna

Olaun Goikoa baserriko mutilak ia ez du galdu partidurik, eta Aste Santuan jokatutako finala irabazita infantil mailako txapelduna da



**PILOTA TXAPELKETA** Iker Aizpuru eta haren kidea saria hartzen Gasteizko pilotalekuan. PEDRO AIZPURU

**MIRARI ALTUBE** > LEINTZ GATZAGA

Arabako eskola arteko pilota txapelketa jokatzen ibili da Olaun Goikoa baserriko Iker Aizpuru. Jokatu eta irabazi, infantil mailako txapela jaso zuen-eta.

**PARTIDU IA GUZTIAK IRABAZITA**

Gasteizko Jesus Obrero ikastetxean dabil ikasten 13 urte dituen Aizpuru, eta ikasturtean zehar ibili da jokatzen eskola arteko binakako txapelketa. Gasteizen bertan jokatu ditu partidu asko eta Arabako beste herri batzuetan ere bai: Oion, Lapuebla de Labarca... Aste Santuan izan zuen finala, Gasteizen, eta erraz irabazi zioten Aizpuruk eta lagunak aurkako bikoteari. "Partidu ia guztiak irabazi ditu, gainera alde handiarekin, eta baten bat galtzea komeni zaio", adierazi digu Pedro Aizpuru aitak.

Bien bitartean, Iker pozik dago lortutakoarekin, eta pilotan jokatzen jarraitu gura du: "Arrasaten mutikoak entrenatzen ibiltzen den Mauri Zubillagak esan dio joateko, baina gero Gipuzkoan jokatu beharko lituzke partiduak, eta ez zaigu eroso gelditzen", dio aitak.

**GAINERAKO PILOTARIAK**

Gatzagako gainerako mutikoek ere jokatzen dute pilotan; 14 inguruk. Orain bi txapelketa dituzte aurrez aurre, bata Amurrion, otsailean Gatzagan jokatutako partiduei errebantxa hartzeko, eta bestea Oñatin. Azken hori eskola kirolari dagokiona da, eta lehen ere ibili ziren jokatzen. Bataren zein bestearen datak oraindik zehaztu barik dituzte, baina laster izango dira, eta bitartean gogor dabiltza entrenatzen Jose Inazio Belokik emandako aginduei jarraituta.

## Dirulaguntza Dominagara doan bidea berritzeko

Foru Aldundiko Landa Ingurune Garapeneko diputatu Rafael Uribarren izan zen joan den astean bisitan herrian. Gaztainuzketa eta Gatz Museoa ezagutu zituen, eta Olaun eta Pago Eder inguruko larreak ere bai; oso ondo zainduta daudela aipatu zuen. Nordebizi baserritik Dominagara bitartean dagoen bidea berritzeko dirulaguntza agindu zion Udalari; izan ere, kamioiak pasatzen dira, eta hondatuta dago.



JON SASIAIN

> PARROKIA

## Maiatzaren 1etik aurrera Dorletan esango dituzte mezak

Gatzagako San Milixan parrokian esaten dituzte mezak negu partean. Domeketan izaten dira, 12:30ean, eta halaxe egingo dute oraingo domekan, hilak 29, ere.

Maiatzaren 1ean hasita, ostera, Dorletako santutegira joango da Martin Mendizabal frantziskotarra meza esatera. Ordu berean izango dira mezok, 12:30ean, eta azaroaren 1a arte, hau da, Domu Santu eguna arte esango ditu santutegian. Hala, herriko parrokian ez da mezarik egongo.

URONDO
Elektrizitatea
* Elektragaiak
* Instalazioak
* Automatismoak
* Proiektuak
* Argiztapena
* Bobinaketak
Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

> ESKUPILOTA

## Debagoieneko lagunarteko esku pilota txapelketako bigarren jardunaldia jokatuko dute

Sei bikote dabiltza Debagoieneko lagun arteko txapelketan esku hartzen, eta oraingo asteburuan jokatuko dute Aretxabaletan bigarren jardunaldia.

Lehenengo partiduan (10:00) aretxabaletarren arteko derbia egongo da jokoan: Sarasua anaiak Uribetxebarria eta Erañaren kontra. Ondoren (10:45), Korta eta Iturbe bikote arrasatearrak Bergarako Gomez eta Unai izango ditu aurrean. Azkeneko norgehiagokan (11:30), berriz, Arkaitz Lizarraldek eta Axibar Elortzak Juantxuren eta Unai Uriarteren kontra jokatuko dute.

Hain zuzen ere, txapelketa horretan bost jardunaldiz osatutako ligaxka egingo dute, eta ondoren etorriko dira finalerdiak eta finala. Era berean, bikote kopuru handirik ez badago ere, aipatzekoa da hainbat herritako pilotazaleak animatu direla parte hartzera.

> FUTBOLA

## Aloña Mendik eta Aretxabaletak derbia jokatuko dute domekan Azkoagainen (16:30)

Norgehiagoka polita izateko osagai guztiak izango ditu domekako derbiak. Hasteko, bi taldeak lasaitasuna ematen duten postuetan daude. Aretxabaletak dagoeneko egin ditu etxeko lanak (43 puntu), eta Oñatiko taldeari azkeneko ahalegina egitea baino ez zaio geratzen (36 puntu). Horrela, bi taldeetako nor geratuko den aurretik erabakitzeko derbia izan daiteke domekakoa. Aretxabaletak ezustekoa ematen badu Azkoagainen, txantxikuarrek nekez hartu ahal izango dute aurre. Bestalde, Aloñak irabazten badu, bost jardunaldiren faltan lau puntura gerturatuko dira.

Mondrak (45 puntu), bestalde, aurreko postuetan amaitu gura du denboraldia. Gutxienez, laugarren postua kendu gura dio Ordiziari (46). Eta, hain zuzen ere, talde horren zelaian jokatuko dute Gordobilen mutilek bihar arratsaldean (16:00). Kontuan izan behar da Aloña Mendik oraindik Atxabalpera joan behar duela.

> PILOTA

## Ibai Bolinaga, Teledonosti sariko txapelduna

Teledonosti sariko txapeldun berria da Ibai Bolinaga arrasatearra. 15 urteko pilotariak Iraitz Arrieta izan zuen kontrario domekan Antiguoko pilotalekuan. Arrasatekoak 22-9 hartu zuen mendean Markinako pilotaria, indarrarekin batera, esku oneko pilotaria dela erakutsita. Bolinagak orain dela aste batzuk Elgetan egin zuten Euskal Herria txapelketan ere maila ona erakutsi zuen.



Ibai Bolinaga. X.U.

**ATLETISMOA** > ARRASATE-OÑATI LASTERKETAK ZILARREZKO EZTEIAK

# Arrasate-Oñati pr eta Otala-Zelai kr

**KLASIKOAK** Ibarreko lasterketen artean, bi horiek klasiko bilakatu dira. Arrasate-Oñatik 25 urte egingo ditu, eta Otala-Zelaiko krosak 29 urte

**JARRAIAN** Zapatuan egingo dute lasterketa bat, eta domekan bestea. Ondo errekuperatuta, jarraian egiteko moduko probak dira

**XABIER URTZELAI** > BERGARA

Datorren maiatzaren 12ko eta 13ko asteburuan gura beste atletismo izango da ibarrean, dagoeneko klasiko bilakatu diren bi proba egingo dituzte-eta jarraian.

Oñatiko Laixan euskara elkarteak antolatuta, zapatuan, hilak 12, egingo dute 25. Arrasate-Oñati lasterketa (18:30ean, Garibai pasealekuan). *Jantzi kirola euskaraz* lelopean, antolatzaileek aurreikusten dute 200 korrikalari inguru animatuko direla ibarreko bi herri horiek banatzen dituzten 11,7 kilometroak egitera.

Lasterketa horretan parte hartzeko dagoeneko zabalik dago izenemate epea. Horretarako, zazpi euro sartu behar dira Euskadiko Kutxako 3035-0005-31-0050041235 kontu korronte zenbakian –antolatzaileek zenbakiak banatzerakoan bankuko ziurtagiria eskatuko dute–. Gainera, lasterketa egunean ere eman ahal izango da izena. Oñatin, 17:00ak arte Foru plazan egongo dira lan hori egiten, eta Garibai pasealekuan 18:15ak arte. Haiek, baina, apur bat gehiago ordaindu beharko dute, bederatzi euro, hain zuzen ere –Laixan elkarteko bazkideek sei euro–.

**Arrasate-Oñati proba baino lehenago, 500 neska-mutiko inguruk maila askotariko lasterketak egingo dituzte Oñatin; nagusien probarako 200 korrikalari espero dituzte**

**Aurten ere korrikalariek itzuli bakarra emango diote Urkuluko urtegiari: "Korrika apur bat egiten duen edonork har dezake lasterketan parte"**

**ERREKORRA EZIN GAINDITU**

Oñatiko herriarekin lotura handia zeukan Diego Gartzia korrikalariaren baitan dago proba horretako errekorra, eta oraindik inork ez du gainditu. 1983an, azkoitiarrak 34 minutu eta 16 segundo behar izan zituen proba betetzeko, baina normalean baino ibilbide motzagoa egin zuten orduan. Hurrengo urtean, baina, 34 minutu eta 25 segundoan geratu zuen erlojua, eta ordutik hona inork ez du denbora hori hobetu. Bestalde, joan den urtean azpimarratzekoa izan zen lasterketako txapela Oñatin geratu zela, bertako lasterkari Yerai Varela izan zen-eta probako azkarrena (36:46).

**SARI GEHIAGO ETA HOBEAK**

Probak 25 urte egingo dituenez, Laixaneko Amaia Kerexetak azaldu digu ahalegin berezia egiten dabiltzala korrikalariendako sariak lortzeko orduan –20:00etan egingo dute sari banaketa, eta ondoren, autobusa egongo da Arrasatera itzultzeko–. Hori bai, bidegurutzeak eta bihurguneak zaintzen ibiltzeko laguntza behar dute, urtero moduan: "Guztira 34 pertsona inguru behar ditugu Arrasate eta Oñati artean dauden

## 'Asteleheneko Goienkaria', Debagoieneko kirol taldeekin

**Eskoriatza Kirol Elkarteko areto futbol saila 06-07 astelehen honetan, *Asteleheneko Goienkaria*-rekin**

Debagoieneko kirol taldeen posterrak argitaratzen dihardu astero *Asteleheneko Goienkaria*-k.
Oraingo astelehenean, apirilak 30, Eskoriatza Kirol Elkarteko areto futbol sailarenak argitaratuko ditugu. Saileko hiru taldeen argazkiak eta horietako bat, Euskadiko txapelketakoa, handiz eta jokalarien izen-abizenak jasoko dituzu, erdi-erdian, koloretan.

Ez galdu aukera eta eskuratu *Asteleheneko Goienkaria.*




Asteleheneko Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

# roba maiatzaren 12an
# osa hurrengo egunean

ESANAK

**"Errepideko bidegurutzeak eta kurbak zaintzeko lagun bila gabiltza; anima dadila jendea"**

**Amaia Kerexeta** > Antolatzailea

**"Otala-Zelaiko krosa proba herrikoiagoa izatea gurako genuke; kendu lotsak, eta etorri goiz pasa polita egiteko asmoz"**

**Asier Muxika** > Antolatzailea



**YERAI VARELA** Iaz, Oñatiko korrikalari gaztea izan zen helmugara iristen lehena; erretratuan, herritarren txaloak jasotzen. GOIENKARIA

bidegurutzeak zaintzeko. Orain hasi gara laguntzaileak bilatzen, eta dagoeneko animatu dira hainbat lagun, baina jende gehiago behar dugu". Gutxi gorabehera 18:00etatik 20:00etara egin beharreko lana izango da, eta boluntarioek izango dute sariren bat edo beste: kamisetak guztiendako, eta bi lagunendako afari baterako zozketan parte hartuko dute. Lan hori egiteko gertu daudenek dei egin dezatela 943 71 63 11 telefono zenbakira, edota *laixan@laixan.org* helbide elektronikora idatzi.

**LEHENAGO, GAZTETXOAK**
Lasterketa nagusia baino lehenago, motorrak berotzen joateko gaztetxoen lasterketak antolatu dituzte, Oñatin. Benjaminek 550 metro korrituko dituzte (17:15), alebinek 1.200 metro (17:30), infantilek 1.800 metro (17:45) eta kadete mailakoek 1.800 metro (18:00). Hala, antolatzaileek 500 neska-mutikoren parte-hartzea aurreikusten dute, ikastetxe guztietan egin dute-eta deialdia.

**29. OTALA-ZELAI KROSA**
Domekan (hilak 13), berriz, Otala-Zelaiko krosak hartuko du errelebua, Aretxabaletan (11:00). Lasterketa horretan ere edozeinek har dezake parte, eta antolatzaile lanetan dabilen Asier Muxikak, gainera, izaera herrikoiaren alde egin du: "Lasterketaren ibilbidea behin baino gehiagotan aldatu da, eta lehenago errekorrak eta bestelakoak kontutan hartzen baziren ere, orain ez dira aintzat hartzen. Azken batean, gure asmoa da herritarrei zuzendutako lasterketa egitea. Lehenago, korrikalariek Urkuluko urtegiari bi itzuli egiten zizkioten, baina orain bakarra egingo dute. Hala, lasterketa Otala-zelain hasiko da, urtegiraino jaitsiko dira eta itzulia egin eta gero berriro ere gora egingo dute. Daukan distantziarekin (8,4 kilometro), uste dut korrika apur bat egin duen edonork har dezakeela parte proban".

Horrela, bada, lotsak alde batera uzteko eskaera egin du Muxikak: "Urtean zehar hemen inguruan jende mordoa ibiltzen da korrika, baina gero ez dira lasterketa horietan parte hartzera animatzen, korrikalari onak etorriko diren beldurrez. Eta non dago arazoa? Azken batean, proban parte hartu eta goiza ondo pasatzea da gura duguna". Izan ere, kanpotarrendako beharrean horrelako lasterketa bat herritarrendako antolatzen dela ikusterakoan, gauzak gusturago egiten direla aitortu digu Aretxabaletako Kirol teknikariak.

**HOR ERE GAZTEEN PROBAK**
Oñatin egingo duten moduan, Otala-Zelain ere gaztetxoek girotuko dute goiza. "Aurreko urteetan oso neska-mutiko gutxi animatzen ziren nagusien proba baino lehenago korrikan egitera. Azken urteotan, berriz, Leintz Eskola Kirolaren bitartez bideratu dugu hori, eta ikastetxeetan deialdiak eginda, joan den urtean 125 gaztetxok hartu zuten parte lasterketetan. Aurten ere beste horrenbeste etorriko direla uste dugu".

Proba horretarako ere dagoeneko zabalik dago izenematea epea (bost euro); horretarako, deitu 943 71 26 28 telefono zenbakira. Bestela, egunean bertan ere izena eman ahal izango da –09:30etik 10:30era arte banatuko dituzte dortsalak–. Hemen ere kontuan izateko moduko sariak egongo dira.

FUTBOLIN TXAPELKETA
Saria: **Mercedes SE 400** edo **5.000 euro** txapeldunarentzat
eta beste horrenbeste tabernarentzat (taberna bakoitzak zazpi jokalari)
BTLS 7 JOKU AUTOMATIKOAK
www.ehmff.com
943 76 42 31 / 652776051
**Antzuola:** Mox – Surpe **Aretxabaleta:** Haizea – Izotz – Kixkor **Arrasate:** Biona – Iturriotz Equs – Udala – Wiskeria **Bergara:** Agirrebeña – Agorrosin – Avenida – Biko – Ganbara Gaztetxea – Mitor **Eskoriatza:** Aldatz – Naira **Oñati:** Arrano – Ongi – Otamendi

## asteburuko hitzorduak

### FUTBOLA

**Lehenengo maila**
Getafe-Reala
Domeka. 17:00. Getafe.

**Preferente maila**
Aloña Mendi-Aretxabaleta
Domeka. 16:30. Azkoagain.

Ordizia-Mondra
Zapatua. 16:00. Altamira.

**Lehen erregionala**
Bergara-Union Txiki Touring
Zapatua. 15:30. Berio.

**Bigarren erregionala. Igoera fasea**
BTLS-Landetxa
Astelehena. 18:00. Ipintza.

Mariño-Antzuola
Zapatua. 15:30. Irun.

Elgeta-La Salle
Zapatua. 16:30. Unbe.

Mondra-Zestoa
Zapatua. 18:00. Atxabalpe.

**Ohorezko mailako gazteak. Igoera fasea**
Mondra-Elgoibar
Zapatua. 12:00. Atxabalpe.

Aretxabaleta-Aloña Mendi
Zapatua. 17:30. Ibarra.

Bergara-Ostadar
Zapatua. 17:30. Agorrosin.

**Lehen mailako gazteak. Igoera fasea**
Arizmendi Aretx.-Luberri
Zapatua. 15:30. Ibarra.

**Lehen mailako gazteak. Kopa txapelketa**
Ikasberri-Antzuola
Zapatua. 15:30. Garmendipe.

Urki-Bergara
Domeka. 15:30. Unbe.

Arrasate-Zestoa
Zapatua. 16:00. Atxabalpe.

**Ohorezko mailako kadeteak. Igoera fasea**
Real Union-Arizmendi Aretx.
Zapatua. 11:45. Gal.

Eibar-Bergara
Domeka. 17:00. Unbe.

Aloña Mendi-Sanse
Gaur. 18:30. Azkoagain.

Aurrera Ondarroa-Arrasate
Domeka. 17:00. Ondarroa.

**Kadeteak. Kopa**
Bergara-Ilintxa
Domeka. 12:00. Agorrosin.

Arizmendi-Amaikak Bat
Domeka. 11:30. Ibarra.

**Ohorezko infantilak. Txapeldunen fasea**
Arizmendi Aretx.-Eibar
Zapatua. 11:45. Ibarra.

Arrasate-Ondarroako Aurre.
Zapatua. 10:00. Atxabalpe.

Real Union-Aloña Mendi
Zapatua. 10:00. Atxabalpe.

**Infantilak. Igoera fasea**
Allerru-Bergara
Zapatua. 10:30. Lezo.

**Emakumezkoen igoera fasea**
Mondra-Tolosa
Gaur. 18:30. Atxabalpe.

Zarautz-BTLS
Domeka. 11:30. Asti.

Urola-Arizmendi Aretx.
Zapatua. 18:00. Zumarraga.

Anaitasuna-Aloña Mendi
Domeka. 11:00. Azkoitia.

**Kadete neskak. F11 txapeldunen fasea**
Arizmendi Aretx.-Hernani
Astelehena. 11:00. Almen.

Aloña Mendi-Touring
Zapatua. 11:00. Oñate.

**Kadete neskak. F8 txapeldunen fasea**
Arizmendi Aretx.-Hernani
Astelehena. 11:00. Almen..

**Alebinak**
Arrasate-Aloña Mendi
Domeka. 11:00. Atxabalpe.

Bergara-Ordizia
Astelehena. 11:30. Ipintza

Aretxabaleta-Zumaiako
Domeka. 10:00. Ibarra.

### ARETO FUTBOLA

**Euskadiko Liga**
CD Alegria-Eskoriatza
Zapatua. 18:00. Alegria.

**Lehenengo maila**
Gorka Pinturas-Aloña Mendi
Domeka. 11:30. Usurbil.

**Hirugarren maila**
2king-UAK-UDA Mercedes
Zapatua. 17:00. Mutriku.

### SASKIBALOIA

**Gipuzkoako ligako senior maila, gizonekoak**
Candy BKE-Bar Iraeta
Zapatua. 16:00. Labegaraiet.

BKL CAF-Ointxe Arrasate
Zapatua. 18:30. Beasain.

**Gipuzkoako ligako senior maila, emakumezkoak**
Aloña Mendi-Internacional
Zapatua. 11:00. Zubikoa.

Cafes Aitona-Eskoriatza
Zapatua. 16:00. Donostia.

**Gipuzkoako ligako junior maila, gizonezkoak**
Easo A-Mugarri Alkesa Arra.
*maiatzaren 1era atzeratua.

**Gipuzkoako ligako junior maila, emakumezkoak**
Ford Mugarri-Tolosa
Zapatua. 11:00. Musakola.

**Gipuzkoako ligako kadete maila, gizonezkoak**
Bergara-Aloña Mendi
Domeka. 10:00. Bergara.

**Infantilak**
Leintz Eskola K.-Aloña Mendi
Zapatua. 10:30. Musakola.

Arizmendi A-LEK B
Zapatua. 10:30. Musakola.

Arizmendi B-Ikasi ISB
Zapatua. 12:00. Musakola.

Bergara-Tolosa
Zapatua. 12:00. Mariaren L.

LEK B-LEK A
Zapatua. 11:00. Intxaurtxuet.

LEK E-Andraitz B
Zapatua. 12:00. Almen.

LEK D-BKLD
Zapatua. 12:00. Musakola.

Aloña Mendi-Ordizia
Zapatua. 11:00. Zubikoa.

### ESKUBALOIA

**Lehenengo eta bigarren mailako Kopa**
Ford Mugarri-Amenabar
Zapatua. 17:00. Iturripe.

Aloña Mendi-Urnietako
Domeka. 17:30. Zubikoa.

Tecnomeca-Gatz Museoa
Zapatua. 19:30. Elgoibar.

Verkol Aloña-Arrate
Zapat. Zehaztu barik. Oñati.

Bera Bera-Verkol Aloña
Domeka. 12:00. Donostia.

Aitxuri Jat.-Verkol Aloña
Zapatua. 17:30. Bikuña.

Arrasate-Elgoibar
Zapatua. 10:00. Iturripe.

**Lehen eta bigarren territorialeko Kopa**
Aloña Mendi-Hegialde Auto
Zapatua. 16:00.

### PILOTA

**Pilotari profesionalak Bergaran**
Domeka. 17:00. Bergara.
Capellan-Galartza VI
Berasaluze IX-Nalda
---------------------------------
Gonzalez-Lasa III
Xala-Laskurain
---------------------------------
Apezetxea-Urberuaga
Alzugarai-Elkoro



**HITZARMENA** Victoriano Gallastegi Bergarako alkatea eta Patxi Mutiloa, azken hitzarmenaren sinatze ekitaldian. GOIENKARIA

**PILOTA** > PATXI MUTILOA, ASPEKO ARDURADUNAREKIN BERBETAN

# "Dakidana da hitzarmena errespetatu egingo dugula"

Eibarko Udalak Astelena pilotalekuko %60 erosita, badirudi Aspe enpresa etxera itzuliko dela berriro ere; eta horrek zuzenean eragingo dio Bergarari

**XABIER URTZELAI** > BERGARA

Argi eta garbi inork esaten ez badu ere, bistakoa da datozen urteotan Bergarako pilotalekuak ez duela azken bi urteotan izan duen zorioneko protagonismoarekin jarraituko. 2005ean utzi zion Aspek Astelena pilotalekuan jaialdiak antolatzeari, eta bi urte hauetan Bergaran aurkitu dute bidelagun onena: "Geneukan arazoaren aurrean, Bergaran irtenbide ona aurkitu genuen. Bergarako Udalarekin izan dugun harremanaren gainean berba onak baino ez ditugu, baina etorkizunaren gainean galdetuz gero, oraindik ez dago ezer garbi. Dakidan gauza bakarra da Bergarako Udalarekin daukagun hitzarmena errespetatu egingo dugula", esan digu aste barruan Aspeko arduradun Patxi Mutiloak.

**15 PARTIDU JOKATZEA**

Hitzarmen hori betetzeko, baina, ez da askorik behar, martxotik hona Aspek dagoeneko bederatzi jaialdi antolatu dituelako Bergaran: "Buruz buruko final-laurdenetako bat Bergaran jokatuko dela aurrera dezaket, Gonzalezek eta Bengoetxeak jokatuko dutena –finalerdietako bat, berriz, Astelenan jokatuko dute, inaugurazio ekitaldi barruan–. Hori horrela, hamabost partiduko konpromisoa ondo beteko dugu. Orain, hortik aurrerakoaren gainean ezin dut gehiagorik esan".

**ALDE BATERA, EZ**

Aspe Astelena pilotalekura itzuliko da; izugarri okertu behar dira gauzak bestelakorik gertatzeko. Gaztañazatorre familiak saldu du bere zatia –%60, hiru milioi eurotan–, eta Bidarte familiarena da gainontzeko %40a. Asmoa da Udalak oso-osorik erostea pilotalekua, eta Aspek bertan jarduenean jarraitzea. Hala ere, Mutiloak ez du Bergarako pilotalekua baztertu gura: "Ezin gara pilotazaleak mareatzen ibili, hori ondo dakit nik, baina formula bat baino gehiago egon daiteke Bergarara partiduak ekartzeko. Adibidez, hor daude egubakoitzeko norgehiagokak".

**Hezurren kalitatea zain ezazu.**
**Hezur-dentsitometria orain Arrasaten.**

CG
CONSULTORIO GINECOLOGICO

Policlinica Gipuzkoa

**ARRASATE**
**Zerkaosteta 17**
**943 79 20 18**
Donostia: 943 30 82 08
Eibar: 943 12 10 21
Irun: 943 61 78 88



**> MUSIKA**
Los Chichos taldearen kontzertua gaur Jamen > 45



**> KOMUNIKAZIOA**
Euskal kultura Second Life mundu birtualean ari da sartzen > 51

**> AITZOL MUXIKA**
Bergararra txikitatik ibili da musikan; lehenengo, tronboia jotzen. Gero, bakarlari aritu zen eta gaur egun, Donostian Kantu ikasketak egiten dabil > 50






**MINTEGIA** *Euskal Herriko Alardeak* izenburupean, maiatzaren 3tik 6ra bitartean mintegia egingo dute Antzuolan. ARGAZKIA: ANTZUOLAKO UDALA

**MINTEGIA**

# Alardeak aztergai Antzuolan

**ANTOLATZAILEAK**
Antzuolako Udalak, Eusko Ikaskuntzak eta Mairuaren Alardearen Elkarteak antolatu dute mintegia

**EUSKAL HERRI OSOTIK**
Euskal Herrian egiten diren alardeetako ordezkariak etorriko dira Antzuolara

**EDU MENDIBIL** > ANTZUOLA

*Euskal Herriko Alardeak* izeneko mintegia egingo dute hurrengo astean Antzuolan, han eta hemen egiten diren alardeen gaurko egoera ezagutzeko asmoz. Antzuolako Udalak, Mairuaren Alardearen Kultur Elkarteak eta Eusko Ikaskuntzak antolatu dute mintegia. Maiatzaren 3tik 6ra bitartean, gaurko kezkak eta etorkizunerako erronkak izango dituzte aztergai. Era berean, alardeetan parte hartzen dutenak elkar ezagutzea da mintegiaren helburu nagusieta-

(44. orrialdean jarraitzen du)




**MAIRUAREN ALARDEA** Uztaileko hirugarren zapatuan ospatzen da Antzuolako Alardea. GOIENKARIA

# Alardeak aztergai Antzuolan

(43. orrialdetik dator)

ko bat. Bordeleko Unibertsitateko Xabier Itzaina irakasleak emango dio hasiera mintegiari eguenean, maiatzaren 3an, 19:00etan, Olaran Etxean. *Alardeak, bere jatorria, iragana eta garapena herrialde ezberdinetan* izenburuko ponentzia aurkeztuko du Itzainak.

**ANTZUOLA: ORAINA ETA GEROA**

Antzuolako Udalaren aginduz, Eusko Ikaskuntzako kide Margaret Bullen eta Xabier Kerexeta irakasleek Antzuolako Alardearen gaineko ikerketa egiten dihardute joan den azaroa ezkero. *Antzuolako alardearen lehena, oraina eta geroa* ikerketa soziokulturala aurkeztuko dute maiatzaren 5ean.

Aipatutako ikerketak hainbat fase ditu. Dagoeneko testuinguru soziala eta historikoa aztertu dute Bullenek eta Kerexetak, eta, datorren zapatuan, herriko hainbat ordezkarirekin egindako elkarrizketen emaitzak aurkeztu dituzte.

EHUko Donostiako Filosofia Fakultatean Antropologia Soziala irakasten du Bullenek. Hauxe adierazi digu: "Mairuaren Alardearen Elkarteko eta Antzuolako beste elkarte batzuetako jendea elkarrizketatu dugu, egoera zein den aztertzeko. Oraindik goizegi da konklusioak ateratzeko, baina gehienak ados daude alardean aldaketak egitearekin: jaietako egunetatik ateratzea, mairuak rol duinagoa izatea eta parte-hartzea bultzatzea aipatu izan digute, besteak beste. Jendearen parte-hartzea bultzatzeko aldaketak egitea komenigarria ikusten da".

Bullenek eta Xabier Kerexeta historialariak aurtengo alardearen behaketa egingo dute uztailean, eta udazken partean amaituko dute lana. Antzuolako Alardean 160 lagun inguruk hartzen dute parte gaur egun. 1980an egin zuen Juan Antonio Urbeltzek gaurko alardearen diseinua. Uztaileko hirugarren zapatuan antzezten da, plazan, 920. urtean Valdejunqueran Abdal-Rahmanen aurka borrokatu omen zuten antzuolarrak gogoratuz.

**ALARDEEN EGUNA HILAREN 6AN**

Egitarauari dagokionez, datorren domekan, maiatzaren 6an, Alardeen Eguna ospatuko dute Antzuolan. Horren barruan, ekitaldiei amaiera emateko, hainbat alarde konpainiaren desfile erraldoia izango da, 18:00etan. Elorrioko errebonbiloak, Iparraldetik, Makeatik eta Heletatik etorritako Beste Berrikoak, Arabako Markinez herriko alardekoak, Irungo eta Hondarribiko ordezkariak eta Antzuolako Mairuaren Alardekoek hartuko dute parte. Hondarribiko eta Irungo alardeek zeresan ugari eman dute azken urteotan, emakumeen partaidetza dela-eta. Baina Antzuolan ez da polemikarako tarterik egongo: goizean herri bietako alarde ofizialekoak arituko dira eta arratsaldez alarde mistoetako partaideak ibiliko dira kalejiran. Alardeak indartzea eta Antzuolan hausnarketarako topagune bat sortzea da antolatzaileen asmo nagusia.

## 'Euskal Herriko Alardeak' mintegia

**Maiatzaren 3an, osteguna**
19:00etan.
Ponentzia: *Alardeak, bere jatorria, iragana eta garapena herrialde ezberdinetan.* Xabier Itzaina (Bordeleko Unibertsitatea)

**Maiatzaren 5ean, larunbata**
10:30ean, *Antzuolako alardearen lehena, oraina eta geroa* ikerketa soziokulturalaren aurkezpena.
Margaret Bullen-Xabier Kerexeta
11:30ean Kafea
11:45ean Tailerrak
1. tailerra
(Margaret Bullen laguntzailea)
2. tailerra
(Xabier Kerexeta laguntzailea)
3. tailerra (Farapiko kide baten laguntzarekin)
4. tailerra (Farapiko kide baten laguntzarekin)
12:45ean Mahai ingurua
Goizean zehar ateratako konklusioen aurkezpena.
Bazkaria
18:00etan Mahai ingurua
gazteei zuzendutako saioa.
*Gazteak herriko jaietan, alardearen inguruan*
20:00etan Bertso saioa herriko gaztetxean

**Maiatzaren 6an, igandea**
ALARDEEN EGUNA
11:00etan, Euskal Herritik etorritako alarde konpainietako ordezkariei harrera eta ongietorria.
Markinez (Araba)
Elorrio (Bizkaia)
Hondarribia (Gipuzkoa)
Irun (Gipuzkoa)
Legazpi (Gipuzkoa)
Tolosa (Gipuzkoa)
Makea (Lapurdi)
Heleta (Nafarroa Beherea)
Ordezkariak bakarrik izango dira bertan, hau da, 3-4 pertsona herri bakoitzeko.
11:15ean, kafea-hamaiketakoa...
12:00etan, Euskal Herriko alardeak.
Ordezkari bakoitza bere alardeari buruzko informazioa emango du.
Ikus-entzunezko medioak erabiliko dira. Mahai Ingurua.
14:00etan Bazkaria
18:00etan, Alarde konpainien desfile erraldoia
Euskal Herriko alardeek ibilaldi erakargarria eskainiko dute.

Egun osoko txahal errea frontoi txikian. Haragia eta sagardoa dastatuko dute desfileko partaideek 19:30ak aldera.

**ERAKUSKETA**
Maiatzaren 2tik 6ra bitartean alardeen erakusketa izango da ikusgai Olaran etxeko erakusketa aretoan. Alardeak islatzen dituzten argazkiak jarriko dituzte bertan. Aldamenean, berriz, hau da, Olarango aretoan, alardeetako bideoak eskainiko dituzte.



**Iñigo Ramirez de Okariz** > Antzuolako kultura zinegotzia

# "Elkar ezagutzea bultzatu nahi dugu mintegiarekin"

**E.M.** > ANTZUOLA

**Antzuolako Udalako kultura zinegotzia izateaz gain, Mairuaren Alardearen Kultur Elkarteko kidea da Iñigo Ramirez de Okariz. Alardea bultzatzeko ahaleginetan ari dira azken bi urteotan. Aldi berean, herriko alardeko beteranoenetako bat dugu Ramirez de Okariz: 1975etik hartzen du parte.**

**Lehen aldia da horrelako mintegi bat egiten dela, ala?**

Bai. Elkar ezagutzea bultzatzea da helburuetako bat. Azken baten bakoitzak berea egiten du esklusiboa dela pentsatuz. Eta toki askotan egiten dira antzeko alardeak. Izan ditzakegun kezkak eta etorkizunerako asmoak aztertu nahi ditugu. Ideala zera izango zen: hurrengo urtean mintegiak jarraipena izatea beste herriren baten. Elkarrengandik hain gertu egon arren, ezjakintasun handia dago. Hondarribian edo Irunen ez dute apenas Antzuolako Alardearen berri, eta guri beste horrenbeste gertatzen zaigu Legazpi, Tolosa edo Elorriokoekin. Bakoitzak dauka bere berezitasuna: esaterako, Markinezen, Araban, Corpus egunean egite dute alardea, Iparraldeko beste hainbat tokitan bezala. Soldaduak balezta eta guzti ateratzen dira Markinezen, palioaren azpian prozesioan doan Txit Santua babesten.

**Zein da Antzuolako Alardearen berezitasuna?**

Oso testuinguru politiko konkretu baten sortzen da, 1876an Euskal Herriak foroak galtzean. 1880an korronte erromantiko bat sortuko da, galdutako ohiturak eta pertsonaiak berreskuratzeko asmoz. Goi mailako politikariak eta intelektualak izan ziren horren bultzatzaileak. Sortutako usadioen artean alardearena dago. Hiri-gutuna eta Antzuolako armarria zirela eta, mairuaren istorioa sortzen da, antzuolarrak Valdejunquerako batailara joan zirela. Mitoa eta errealitatea nahasten da, folklorean hala izaten da eta. Azken baten euskaldunak galtzaile izan ziren Valdejunqueran eta gu irabazle ateratzen gara..., mairua zapalduta gainera.

**Korrekzio politikoaren izenean, hori ere zalantzan jarri dute zenbaitek...**

Mintegian hausnarketa hori egin nahi dugu: gizartea aldatzen ari den heinean, testuinguru berriak sortzen dira. Horren aurrean zelan jokatu eta zer egin ikusi behar dugu. Alardearen puntu ahulak eta sendoak ikusi, jendearen parte hartzea eta inplikazioa baloratu eta hortik abiatuta, erabaki. Mintegiko konklusioak udazkenean kaleratu ditugu eta aurretik, aurtengo alardea sakon aztertuko dugu.



GOIENKARIA

**MUSIKA** > GAUR, EGUBAKOITZA, LOS CHICHOS BERGARAKO JAM ARETOAN

# Runbaren sortzaile Los Chichos Jam aretoan

Gaur, egubakoitza, flamenko-runbaren sortzaile Los Chichos talde madrildarrak kontzertua egingo du Bergarako Jam aretoan, 22:00etan

IKER BARANDIARAN > BERGARA
Gaur egun oso ezagunak dira runba eta flamenkoa. Are gehiago, doinu horiek zale ugari dituzte Euskal Herrian bertan. Lehen, ordea, ez zen horrela; alderantziz baizik.

Los Chichos taldea 1973an sortu zuten, Madrilen. Flamenkoa runba bihurtu zuten, eta hirien kanpoaldeetan kokatuta dauden langile-auzoen kontuak abesten hasi ziren.

Taldea flamenkozale handiak ziren musikari ijito batzuek osatu zuten: Julio eta Emilio Gonzalez anaiak eta Juan Antonio Jimenez *Jeros* izan ziren sortzaileak, hain zuzen ere.

Langile auzoetako kontuak abesteak eta flamenkoa halako gaietara hurbiltzeak harrera itzela lortu zuen Espainiako Estatuko hiri eta herri askotan. Izan ere, miloika disko saltzea lortu zuten, eta oso ezagunak bilakatu ziren; Espainiako Estatuko talde ezagunenetakoa bilakatu zen, eta ez dago gasolindegirik talde horren kaseterik salgai izan ez duenik.

**ERESIAK DIREN ABESTIAK**
Are gehiago, eurek idatzitako hainbat abesti ia eresiak dira milaka lagunendako: *Quiero ser libre, Historia de Juan Castillo, A dos amigos* eta *Esto sí que tiene guasa*, besteak beste.

Haien ospea handituz joan zen, eta 1985ean Jose Antonio de la Loma film zuzendariak *Yo, el Vaquilla* filmerako soinu banda egitea eskatu zien.

**'YO, EL VAQUILLA'**
*Yo, el Vaquilla* filmak erakutsi zuen Espainiako Estatuko 70eko hamarkada bukaera eta 80ko harmakada bitartean hainbat hiritan biztanleriaren zati batek bizi izan zuen –eta bizi duen– egoera berezia: delinkuentzia, drogak, prostituzioa eta beste. Los Chichos taldeak soinu banda jarri zien istorio gogor eta latz haiei. Film horrek eta jarraituko ziotenek polemika handia piztu zuten, baina oso ikusiak izan ziren. Horrek madrildarren ospea handitu egin zuen.

**'JEROS' BARIK JARRAITU ZUTEN**
1990ean Juan Antonio Jimenez *Jeros*-ek (*El de enmedio de Los Chichos* izenpean ezaguna egin zen) utzi egin zuen taldea. Horrek taldearen beherakada eragin zuen. *Jeros*-ek bakarkako ibilbidea jarraitu zuen, eta bi disko kaleratu zituen. 1995ean hil zen Juan Antonio Jimenez *Jeros*.

**JUNIOR, 'JEROS'-EN ORDEZKOA**
1991ean Emilio Gonzalezen seme Juniorrek hartu zuen *Jeros*-en lekukoa; eta beste disko bat kaleratu zuten. Ordutik hona kontzertuak ematen jarraitzen dute.

Los Chichosen eragina oso handia izan da; eta gaur egungo taldeek omenaldi ugari egin dizkiete, tartean Estopak. Bergaran izango ditugu gaur Los Chichos.



**LOS CHICHOS** Milioika kasete saldu dituzte gasolindegietan. GOIENKARIA

**MUSIKA** > GAUR, EGUBAKOITZA, OÑATIKO GAZTELEKUAN

# 70eko hamarkada gogoan The Answer eta Radio Wingsekin

Gaur, egubakoitza, The Answer taldeak kontzertua egingo du Oñatin, 22:00etan. Radio Wings talde arrasatearra izango du alboan

I.B.> OÑATI
Nazioarteko rock aldizkari askok jakinarazi dute The Answer talde irlandarraren *The rise* debuteko lana aspaldian kaleratu den rock disko onena dela.

Hala, Debagoieneko rockzaleek zortea dute; izan ere, gaur, egubakoitza, Oñatiko gaztelekuan izango dira kontzertua egiten. 22:00etan izango da, eta haiekin batera Radio Wings talde arrasatearra ere arituko da.



**GAZTETASUNA ETA ENERGIA** Bi bertute horiek ditu The Answer taldeak. MUSKERRA

**HARD-ROCKA, BLUESA ETA SOULA**
The Answer taldea 2000. urtean sortu zuten, Irlandan, 70eko rockaren zale porrokatuak diren lau gaztek. Euren disko bilduman ez dira falta Led Zeppelin, Thin Lizzy, Hendrix, Slade eta Black Crowes taldeen diskoak. Kontzertuak egiten hasi eta AC-DCren Albert Productions diskoetxeak *The Rise* debuta kaleratu zien. Ospe handia hartu zuten, eta Deep Purple, The Darkness eta beste talde batzuekin batera aritu dira agertoki gainean.

Adituek diotenez, Status Quo, Kiss, The Who, Zeppelin eta Black Crowesen soinua batzen dute.

Irlandarrek luxuzko gonbidatuak izango dituzte: Faces, The Who eta Grand Funk Railroaden arima berpizten ahalegintzen den Radio Wings talde arrasatear birtuosoa, hain zuzen ere.

**MUSIKA** > DES-KONTROL AEB-ETATIK BUELTAN

## Des-Kontrol taldeak jaia egingo du 3.60 aretoan

Sarrerak 3.60 aretoko txarteldegian eskuratu ahal izango dira gaur bertan

I.B. > ARRASATE
Des-Kontrol talde arrasatearra AEBetatik bueltan dago, eta hori ospatzeko jaia egingo du gaur, egubakoitza, 3.60 aretoan, 23:00etan. Lehenik eta behin, Orreaga 778 oi! talde donostiarrak kontzertua egingo du.

Horren ostean, Des-Kontrol taldeko kideak igoko dira agertokira. *Duintasunez eutsi* eta *Behin eta berriz* diskoetako 15 bat kantu joko dituzte. Horren ostean, Special Crew taldeak –Des-Kontroleko hiru lagun– hainbat abesti joko dituzte. Eta bukatzeko, Des-Kontrolek jarraituko du. Tartean, grabatu berri dituzten hiru kantu eskainiko dituzte.

Kontzertuaren soinua mahaitik grabatuko dute, eta baita kamerekin, etorkizunean DVD bat kaleratzeko.



HAURRENTZAKO MASAJE IKASTAROA

Urte 1era bitarteko haurrak dituzten gurasoei zuzendua

ANTOLATZAILEA
MUGI, Psikomotrizitate Prebentzio eta Laguntza Zentroa
TOKIA
Araba etorbidea 3, 2-3.atea
EGUNAK
Maiatzaren 10,17, 24 eta 31ean
ORDUA
10:30etatik 12:00etara
INFORMAZIOA
MUGI ZENTRUAN
943 77 08 05
ARRASATE

- LASAITZEKO
- HOBETO LO EGITEKO
- KOLIKO ETA HORTZALDIETAKO MINAK BARETZEKO
- UMEAREKIN KOMUNIKAZIO AFEKTIBOA SENDOTZEKO
- INMUNITATE-SISTEMA SENDOTZEKO

INMOBILIARIA KOROSTI
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**Bergara:**
- Ibargarai 74 m². Oso ondo.
- Simon Arrieta 80 m². Eguzkitsua.
- Masterreka 92 m². Ondo.
- Osintxu 80 m². Berritua.
- Angiozar. Bi solairu. Berritzeko.
- San Pedro 110 m². Estreinatzeko.
- Zabalotegi 50 m². Oso ondo.
- San Pedro 65 m². Prezio ona.
- Aranerreka 87m². Oso ondo.
- Simon Arrieta 80 m² Ondo.
- Zubieta 60 m². Prezio ona.
- Ortuibar 97 m². Oso ondo.
- Osintxu 95 m². Prezio ona.
- Zubiaurre 60 m². Berritua.

**Elgeta:**
- Etxebizitza berrien erainkuntza, 2-3 logela. Duplex-ak, garajea, terraza. Bista politak.
- San Roke 90 m². Berritua.
- Salbador 90 m². Igogailuarekin.
- San Roke. Prezio ona.

Alfa
INMOBILIARIA HIPOTECAS
Parrokia ondoan
Tel.: 943 77 19 19 / 677 49 89 89

**ARRASATE**
- Erguin: 2 logela, sukaldea, egongela, bainua eta berogailua. 30.000.000 pta.
- Santa Teresa. 3 logela, sukaldea, egongela eta bainua. 30.000.000 pta.
- Uribe Auzoa. 3 logela, sukaldea eta bainugela. 38.000.000 negoziagarriak.
- Uribe Auzoa. 4 logela, sukaldea, egongela eta bainua. Berehala joateko. 53.500.000 pta.
- Makatzena. 72 m². Berritzeko.
- Erguin. 65 m². Oso ondo.
- Zentroan. 115 m². Garajea. Arrasateko tokirik hoberenean. Bista ezin hobeak.

**ARETXABALETA**
- Markole. 99 m². Bi trasteleku eta garajea.
- Etxe bakarra, 140 m². 400 m²-ko lursaila. Garajea.
- Estrenaitzeko etxebizitza. 3 logela, 2 bainu, egongela, sukaldea, ganbara eta garajea. 49.000.000 pta.
- Portasol. 85 m². Berritua. Prezio ona.

**www.alfamondragon.com orrialdean 7.000 etxebizitza baino gehiago aukeran**

DEBA GARAIA
INMOBILIARIA
Telesforo Aranzadi 2
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

**BERGARA**
- Masterreka 170 m² duplexa, ondo
- Simon Arrieta, 84 m², berritzeko
- Matxiategi 80 m², ondo
- Iparragirre,190 m², berritzeko
- Iraburu, 84 m², ondo
- Martoko,45 m², ondo
- Aranerreka, 90 m², oso ondo
- Artekale, 74 m²
- Ibargarai, 118 m², oso ondo
- Angiozar, berritzeko
- Fraiskozuri, 102 m², oso eguzkitsua
- Bidekurutzeta, 60 m², berritua
- Zubiaurre, 60 m², aukera ona
- Koldo Eleizalde,107 m², igogailua.
- Paseo Irizar 89 m², garajearekin.
- San Lorentzo 18 etxebizitza berri garaje eta trastelekuarekin.

**SORALUZE**
- Gabolatz, 65 m², oso ondo
- Atxuri, 93 m², oso ondo.

**ANTZUOLA**
- Duplex berria, erdialdean.
- Eguzki auzoa, 85 m², erdi berritua.

**ARETXABALETA**
Jatetxe batek esperientziadun zerbitzaria behar du.
679 45 57 75

**BERGARA**
Depor tabernak zerbitzaria behar du.
629 26 88 51

# IRAGARKI SAILKATUAK

| 1. ETXEBIZITZAK | 3. LOKALAK | 5. IRAKASKUNTZA | 7. ANIMALIAK | 9. HARREMANAK |
|---|---|---|---|---|
| 101. SALDU | 301. SALDU | 501. JASO | 701. SALDU | 901. AGURRAK |
| 102. EROSI | 302. EROSI | 502. EMAN | 702. EROSI | 902. HARREMANAK |
| 103. ERRENTAN EMAN | 303. ERRENTAN EMAN | 503. BESTELAKOAK | 703. EMAN | 903. DEIAK |
| 104. ERRENTAN HARTU | 304. ERRENTAN HARTU | | 704. BESTELAKOAK | 904. BESTELAKOAK |
| 105. ETXEAK OSATU | 305. BESTELAKOAK | | | |
| 106. BESTELAKOAK | | | | |

| 2. GARAJEAK | 4. LANA | 6. MOTORRA | 8. DENETARIK | 10. RELAX |
|---|---|---|---|---|
| 201. SALDU | 401. ESKAINTZAK | 601. SALDU | 801. SALDU | |
| 202. EROSI | 402. ESKAERAK | 602. EROSI | 802. EROSI | |
| 203. ERRENTAN EMAN | 403. BESTELAKOAK | 603. ALOKATU | 803. EMAN | |
| 204. ERRENTAN HARTU | | 603. KONPONDU | 804. HARTU | |
| 205. BESTELAKOAK | | 604. BESTELAKOAK | 805. TRUKATU | |
| | | | 806. GALDU | |
| | | | 807. AURKITU | |
| | | | 808. BESTELAKOAK | |

Eguazten eguerdira arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

**943 25 05 01**

**sailkatuak@goiena.com**

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU; GAINERAKOAK 18 EURO (+BEZ-A) ORDAINDU BEHARKO DIRA MODULUKO. PREZIO BEREZIA: EGUBAKOITZETAKO ETA ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N, BIETAN ARGITARATUZ GERO, 25 EURO (+BEZ-A).**

GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**ARRASATE**
Jatetxe batean **esperientziadun** zerbitzaria behar da astelehenetik ostiralera lan egiteko.
615 75 98 40

**DEBAGOIENA**
Laguntzailea behar da mediku kontsultarako, arratsaldetan. 27 urte baino gehiago eta harremanetarako dohaina duena.
Ez da esperientziarik behar.
Bidali CV argazkiarekin hona:
92 posta kutxa, Bergara.

**BERGARA**
Zerbitzaria behar da taberna baten.
605 70 11 74

**BERGARA**
Sukaldaria edo sukaldari laguntzailea behar da Hamaika tabernan.
669 36 65 79
943 03 45 85

**ARRASATE**
Bi etxebizitza salgai

| | |
|---|---|
| • Estreinatzeke | • Estreinatzeke |
| • Unibertsitatetik gertu | • Unibertsitatetik gertu |
| • Sukalde hornituta, 2 gela eta bainua | • Sukalde hornituta, 3 gela eta bi bainu |

617 33 63 11

**ARRASATE**
Zerbitzari euskalduna behar da taberna baten lan egiteko.
650 03 65 47

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Antzuola** Etxebizitza salgai, adosatua. Estreinatzeko. 607 79 00 37.

**Aramaio.** Bi familiarendako etxe osoa salgai. Berritua. Herritik gertu. Lorategia eta baratzea. Bi familien telefonoak, honakoak. Telefonoa: 685 71 35 65 edo 618 83 77 49.

**Arrasate.** Arimazubin etxea salgai. Egoera onean dago. Bi logela, egongela, komuna, sukaldea eta ganbara. Kanpoaldera begira dago. 657 77 81 87.

**Arrasate.** Etxea salgai Grupo San Juanen. 60 m2, eguzkitsua, ganbararekin eta sotoarekin. 606 25 92 80.

**Arrasate.** Etxebizitza salgai Azoka kalean. Eraikin berria. 94 m2. Sukaldea, egongela, 3 logela, 2 bainugela. Garajea aukeran. 686 24 97 48.

**Arrasate.** Etxebizitza salgai Uribe auzoan. Lau logela, egongela, sukaldea eta bi komun. Garajea aukeran. 625 28 72 06.

**Arrasate.** Etxebizitza salgai. San Andresen. 57 m2. Guztiz berrituta. Bi logela, egongela, bainugela eta sukaldea. Kanpoaldera begira. Igogailua eta sotoarekin. 620 15 12 12.

**Arrasate.** Zigorrolan. Hiru logela, egongela, bainua, sukaldea, trastelekua eta hiru balkoi. Oso eguzkitsua. 652 73 22 83.

**Bergara.** Etxebizitza salgai Zubiaurren. Guztiz berritua. Berogailua eta ganbara. 619 41 39 72.

**Bergara.** Apartamentua salgai Zubietan. Eguzkitsua. Telefonoa: 656 78 06 95.

**Bergara.** Boni Laskurain kalean. Eguzkitsua, altzariekin. Bizi izatera sartzeko gertu. Prezio interesgarria. 628 26 65 77.

**Bergara** Simon Arrietan etxebizitza salgai. 80 metro koadro. Dena kanpo alder. Egoera onean. 652 76 86 68.

**Elgeta.** Etxebizitza salgai, bigarren solairuan. Igogailua, 3 gela, sukaldea, komuna, egongela eta ganbara. 138.232 euro (23.000.000 pezeta). Telefonoa: 645 71 76 25.

**Elgeta.** Etxebizitza salgai. 4 urtekoa. 3 logela, 2 bainugela, egongela, sukaldea eta garajetrastelekua. Deitu telefono honetara: 655 45 07 26.

**Miarritz.** Etxebizitza salgai, 90m2. Hondartzatik oinez 10 minutura. 646 69 47 99.

**Mutriku.** Bista ederrak. 70 metro koadro. Bi logela. Berrituta dago. Bizitzera sartzeko moduan (Belen). Telefonoa: 676 38 07 83. 676 38 07 83.

**Oñati.** Apartamentua salgai San Lorentzo auzoan. Saloi-sukaldea eta bi logela. Eguzkitsua, terraza handiarekin. Garajea aukeran. Telefonoa: 658 75 22 37 edo 943 78 18 38.

**Oñati.** Aurten eraikiko den etxe berri baten duplexa salgai. 110 m2. Lau logela, sukaldea, egongela, bi komun eta garajea. Telefonoa: 670 85 85 41.

**Oñati.** Etxea salgai San Lorentzon. 656 74 80 47.

**Oñati.** Ugarkalden lehen eskuko etxebizitzak salgai: 100 m2. Oso eguzkitsuak. Sukaldea guztiz jantzita eta etxea norberaren gustura egiteko aukera. 649 44 60 92.

**Soraluze.** Apartamentua salgai. 30 m2. Logela bat, egongela, sukaldea eta komuna. 80.000 euro. 943 79 21 18.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Benidorm.** Abuztuko lehen hamabostaldian eta maiatzaren 15etik ekainaren 15era apartamentua errentan ematen da. 945 29 33 80.

**Cambrils** (Tarragona). Apartamentua, hondartzatik oso hurbil. Igerileku eta berdegunearekin. 610 79 47 29.

**Eskoriatza.** Etxebizitza alokagai daukat. Hiru logela eta berogailua ditu. Egoera onean dago. 18:00etatik 20:00etara bitartean deitu. 617 80 26 19.

**Hendaia.** Apartamentua errentan uztailean. Toki lasaian dago, terraza eta parkingarekin. 600 euro. 677 65 39 34.

**Hendaia.** Urbanizazio batean dagoen apartamentu bat errentan ematen da. Urbanizazioak igerilekua dauka eta apartamentua egokitu berria da. Parking partikularra. Lau lagunendako edo familia batentzako egokia. Inaxio. 670 41 08 58.

**Jaca.** Etxe bat errentan ematen da maiatzetik azarora. Urbanizazioa, tenis pista eta igerilekua dauzka. 665 73 95 65.

**La Barrosa-Chiclana** (Cadiz). Apartamentua errentan ematen da urbanizazio berri batean. Leku zoragarria. La Barrosa hondartzatik oso gertu. 616 14 65 54 edo 678 78 39 10.

**La Pineda (Salou).** Apartamentua errentan ematen dut. Berritua. Igerilekuarekin. Telefonoa: 943 79 79 28.

**Noja.** Duplexa hondartzan. Uda. 696 90 94 43.

**Peñiscola.** Apartamentua errentan ematen da. 945 29 33 80.

**Peñiscola.** Apartamentua errentan udan. Hondartzatik gertu. Igerilekuarekin eta aparkaleku pribatuarekin. 610 87 83 57.

**Salou.** Apartamentua alokagai, toki onean. Uztailean eta abuztuan. Telefonoa: 943 79 45 19 edo 627 34 31 78.

**Torrevieja.** Apartamentua, hondartzatik 100 metrora. Bi logela eta egongela-jangela ditu. Telefonoa: 943 77 03 85.

**Vera (Almeria).** Hondartza eta urbanizazio naturistan dagoen etxebizitza errentan ematen da. Guztiz jantzita. Igerilekuarekin. 657 73 94 25.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Aretxabaletan.** Bi neskak etxebizitza errentan hartuko lukete. 610 82 02 17.

**Bergara.** Etxea alokairuan hartuko nuke. 666 67 84 21.

**Debagoiena.** Bikote batek etxebizitza errentan hartuko luke. 606 92 59 33.

**Debagoiena.** Etxebizitza hartuko nuke errentan Debagoieneko herri baten. 638 43 80 27.

**Etxebizitza** bat errentan hartuko nuke Arrasaten. Telefonoa: 665 73 17 66.

### 105. ETXEAK OSATU

**Arrasate.** Logela errentan ematen dut. 696 53 36 44.

**Arrasate.** Neska bat beste batzuekin konpartitzeko etxe bila dabil. 696 11 01 94..

### 106. BESTELAKOAK

**Bergara.** Logela bat errentan ematen da. 670 85 86 68.

## 2/ GARAJEAK

### 201. SALDU

**Arrasate.** Garaje itxia alokagai Uarkapen. 605 77 59 03.

**Bergara.** Garaje itxia salgai San Lorentzon. 943 76 40 05.

**Bergara.** Garaje itxia salgai Zubiaurren. 37 metro koadro. 606 65 97 82.

### 203. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Garajea errentan ematen da Uarkapen. 605 77 52 75.

## 3/ LOKALAK

### 304. ERRENTAN HARTU

**Bergara.** Lokala errentan hartuko nuke. Telefono honetara deitu: 660 43 71 94.

## 4/ LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Debagoiena.** Neska bat gertu umeak zaintzeko, taberna edo jatetxeetan lan egiteko edo garbiketak egiteko. Telefono honetara deitu: 636 11 23 40.

**Oñati.** Emakume euskalduna behar da arratsalde batzuetan bi ume zaintzeko eta astean behin etxeko lanak egiteko. Telefono honetara deitu: 638 37 91 89.

### 402. ESKAERAK

**Arrasate.** Emakume euskalduna gertu edozein lanetarako. Telefonoa: 659 82 75 18.

**Arrasate.** Emakumea gertu nagusiak zaindu, tabernak garbitu edota etxeko lanak egiteko. Esperientziaduna. Telefonoa: 943 77 16 73.

**Bergara.** Emakumea edozein lanetarako prest. 686 99 54 41.

**Bergara.** Eskarmentua duen emakumea gertu etxeko lanak egiteko eta umeak edo adinekoak zaintzeko. Cristina Lissette. 666 67 84 21.

**Bergara.** Jostuna lanerako gertu: beheak konpontzen ditu, kremailerak, jantziak txikitu eta bestelako lanak egiten ditu. 699 34 86 88.

**Debagoiena.** Emakume arduratsua eskaintzen da pertsona nagusiak zaintzeko edota etxeetan garbiketak egiteko, egunez eta orduka. 697 93 73 32.

**Debagoiena.** Emakume gaztea gertu dago garbiketa lanak egiteko, umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko eta bestelako lanak egiteko. 659 37 41 95.

**Debagoiena.** Emakume gaztea gertu dago garbiketa lanak egiteko, umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko eta bestelako lanak egiteko. 662 26 67 25.

**Debagoiena.** Emakumea gertu arratsaldez lan egiteko. Erika. 636 31 15 36.

**Debagoiena.** Gizonezkoa eskaintzen da edozein lanetarako. 943 71 21 13 edo 676 23 41 13.

**Debagoiena.** Mutil bat eskaintzen da ostalaritza lanak, garbiketa lanak edo eraikuntzan lan egiteko. 648 10 26 53.

**Debagoiena.** Mutil gazteak lan egingo luke peoi, garbiketa kontuetan edo fresatzaile. Telefonoa: 647 19 36 95.

**Debagoiena.** Nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egingo nituzke. 943 79 76 88 edo 666 21 88 95.

**Debagoiena.** Neska bat gertu pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko, sukaldari laguntzaile moduan lan egiteko edo garbiketak egiteko. 646 75 08 07.

**Debagoiena.** Neska bat gertu pertsona nagusiak zaintzeko, sukaldari laguntzaile edota zerbitzari moduan lan egiteko edo garbiketak egiteko. Telefonoa: 662 26 67 25.

**Debagoiena.** Neska bat gertu pertsona nagusiak zaintzeko, sukaldari laguntzaile edota zerbitzari moduan lan egiteko edo garbiketak egiteko. Telefonoa: 663 46 93 60.

**Debagoiena.** Neska bat gertu umeak zaintzeko, taberna edo jatetxeetan lan egiteko edo garbiketak egiteko. 648 10 26 53.

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Arrasate.** DBH2ko ikasle batek eskola partikularrak jasoko lituzke, ahal bezain laster. Telefonoa: 943 79 89 96.

**Bergara.** First titulua duen irakaslea behar dut astean hiru orduz eskolak eman diezazkidan. 943 03 73 39.

**Bergara.** First titulua duen irakaslea behar dut astean hiru bider ingeles eskolak eman diezazkidan. 615 79 41 02.

**DBHko** 2. mailako eskolak jasotzeko irakasle partikularra behar dut. Ikasturte osorako. Telefonoa: 652 76 21 63.

**Web orrialdeen** programazioko klaseak jasoko nituzke. Linux-en oinarritutako oinarrizko maila. Olaia. 649 17 48 27.

### 502. EMAN

**Arrasate.** Behar bereziak dituzten umeei laguntza eskolak emango nizkieke. Arratsaldez deitu. 645 73 04 69.

**LAN ESKAINTZA**

Txatxilipurdi elkartean pertsona bat behar da:

**ZUZENDARI-IDAZKARI lanpostua betetzeko.**

**Lanaldi osoko kontratuarekin.**

**Gutxieneko eskakizunak:**
- Gizarte zientzietan diplomaduna.
- Euskara maila handia.

**Kontuan izango da:**
- Erakundeen kudeaketan esperientzia.
- Euskalgintzaren ezagutza.
- Pertsonen kudeaketa, lidergoa eta komunikaziorako gaitasuna.

**Arrasate edo ingurukoa izatea lehenetsiko da.**

**Interesa edukiz gero bidali curriculuma:**
*idazkaritza@txatxilipurdi.com*
Txatxilipurdi elkartea
Pablo Uranga 6, behea
20500 Arrasate
Tel.: 943 795446

txatxilipurdi

**BERGARA**
Etxebizitza salgai Tokiederren. Eguzkitsua. Egoera onean.
607 27 20 23

## 6/ MOTORRA

### 601. SALDU

**Alfa Romeo** 156 SW. Gasolinazkoa. 2004koa. 48.000 km. 645 00 99 35.

**Audi A3** Sportback salgai, egoera ezin hobean. Urte eta bost hilabete eta 32.000 km. Estra ugari: Sline paketea, Tempomat, 17 hazbeteko hagunak eta bixenon argiak. Prezio negoziagarria. Telefono honetara deitu: 635 73 72 07.

**Karabana.** Burstner markakoa, 435 TS. 2006koa. Oñatin. Presazkoa da. 695 71 88 85.

**Karabana** saltzen da. Sun Roller, 2005. urtekoa. Estrak ditu. Telefonoa: 943 76 70 81.

**Autokarabana** salgai. 1994. urtekoa. Eguzki-energiarako plaka dauka. Egoera oso onean. 18.000 euro. 663 69 31 44.

**Ford Fiesta** salgai. 1.25 eta 75 ZP. 90.000 km. 9 urte. Telefonoa: 609 31 29 63.

**Jeep Cherokeee.** 2.1 Td Limited. Margotu berria. Oso egoera onean. Saltzen dugu ez dugulako erabiltzen. 4.500 euro. Arratsaldez deitu. 655 45 07 25.

**Megane** Luxe Dinamique salgai, oso egoera onean. 1.9 Dti, 120 ZP, 2005ekoa, 40.000 kilometro. 13.300 euro. Telefono honetara deitu: 652 75 54 46.

**Mobilette** GAC 49 cc salgai. Matrikulatuta dago. Oso egoera onean dago, erabiltzen ez baitugu. E-posta: jdesan@ozu.es.

**Peugeot 106** diesela. Bost ate. 140.000 km. Oso ondo dago. (Jon). Telefono honetara deitu: 669 17 01 72.

**Renault Express.** Diesela. 300 euro. Arratsaldez deitu. Telefonoa: 655 45 07 25.

**Seat Alhambra** Sport monobolumena salgai. Egoera onean. 653 71 04 56.

**Suzuki GS 500E** motorra salgai. 25.000 km eta egoera oso ona. 1.800 euro. Telefono honetara deitu: 669 97 93 48.

## 7/ ANIMALIAK

### 701. SALDU

**Bi behor.** Antzuolan bi behor salgai. 662 34 76 86.

**Zazpi txakurkume** salgai. Setterrak dira. Telefono honetara deitu: 943 78 70 64 edo 652 71 61 99.

### 703. EMAN

**Katakumeak.** Hiru katakume eta haien ama oparitzen ditut. Zuri-zuriak dira katakumeak. Telefono honetara deitu: 649 57 70 59.

**Katakumeak** oparitzen ditut. Telefono honetara deitu: 943 79 43 31.

## 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**Emaztegai soinekoa** saltzen da, estreinatu barik.Neurria: 40. Zuria berdearekin. Modernoa.800 euro. Telefono honetara deitu: 652 75 54 46.

**Jaunartzea** egiteko almirante jantzia saltzen dugu, 10 neurrikoa. 150 euro. Telefono honetara deitu: 943 77 16 73.

**Kanpin denda-karroa.** Raclet Minto. 2002koa. Oso erraza muntatzeko eta gutxitan erabilita. 1.300 euro. Telefono honetara deitu: 617 28 08 86.

**Parapentea.** Edel Quantum markakoa; M neurria du. Telefono honetara deitu: 606 15 54 62.

**Philips** telebista panoramikoa salgai. 32 hazbetekoa, egoera onean. Telefono honetara deitu: 607 45 54 84.

**Trialeko bizikleta.** Monty 221 Ti. 2004koa. Egoera onean. Lehen 1.300 euro, orain 550 euro. Markel. Telefono honetara deitu: 943 79 41 88.

**Txakurrentzako** erremolkea saltzen da. Oso egoera onean. Jon. 618 72 68 34.

### 802. EROSI

**Bankuko** billete eta txapon zaharrak erosiko nituzke. Telefono honetara deitu: 688 61 85 02.

### 806. GALDU

**Bergara.** Mayc lantegiaren inguruan zilarrezko pultsera bat galdu nuen martitzenean, apirilak 17. Telefono honetara deitu: 615 78 49 64.

### 807. AURKITU

**Bergara.** Patinete bat aurkitu nuen martxoaren 16an Mariaren Lagundia ondoan, Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren autobusaren ondoan. 615 75 18 45 edo 943 76 16 19.

**Bizikletako** poltsatxoa galdu dut errepidean. Ganbera eta giltzak ditu barruan. Telefonoa: 606 65 85 86.



**Gaizka Aranburu** oñatiarra eta Barakaldoko **Ane Moreno** Apirilaren 28an ezkonduko dira Oñatiko San Pedro baselizan. Ondoren, Txinara joango dira bidaian. Zorionak bikote, eta ongi pasa eguna. Gaizkaren koadrilako lagunak.



**Alberto Vicente** bergararra eta **Laxia Renedo** donostiarra zapatuan ezkonduko dira Donostiako udaletxean. Bazkaria Martin Berasategiren Kursaaleko jatetxean egingo dute. Bidaian Kenya aldera joango dira. Zorionak eta ondo pasa. Familiakoak eta lagunak.



**Karlos Aspiazu Lizarralde** eta **Karmen Abio Gartzia** Osintxun ezkondu ziren 1954ko apirilaren 24an. Aurten beteko dituzte 53 urte elkarrekin ezkonduta eta ospatzeko bazkaria egingo dute seme-alabekin eta ilobekin. Zorionak, bikote, etxekoen partetik.

## hildakoak

- **Dolores Herzog Carton.** Bergaran, apirilaren 14an. 90 urte.
- **Pedro Sobral Laskurain.** Bergaran, apirilaren 14an. 74 urte.
- **Maria Malavia Talavera.** Oñatin, apirilaren 16an. 75 urte.
- **Felix Anduaga Irizar.** Oñatin, apirilaren 16an. 85 urte.
- **Fernando Sanchez Pescador.** Bergaran, apirilaren 16an. 63 urte.
- **Timoteo Martin Lazaro.** Arrasaten, apirilaren 17an. 85 urte.
- **Nicasio Muguruza Alberdi.** Antzuolan, apirilaren 18an. 84 urte.
- **Joakin Zurutuza Lazkano.** Bergaran, apirilaren 18an. 68 urte.
- **Lorenzo Peña Etxeberria.** Aretxabaletan, apirilaren 19an. 80 urte.
- **Natividad De Sosa Okariz.** Arrasaten, apirilaren 19an. 74 urte.
- **Lino Gil Benito.** Arrasaten, apirilaren 19an. 73 urte.
- **David Rodriguez Rodriguez.** Arrasaten, apirilaren 21ean. 79 urte.
- **Dominga Etxeberria Beitia.** Oñatin, apirilaren 21ean. 86 urte.
- **Ramon Guridi Irazola.** Bergaran, apirilaren 21ean. 72 urte.
- **Benito Arnaiz Gomez.** Antzuolan, apiriilaren 22an. 67 urte.
- **Benita Abarrategi Abarrategi.** Arrasaten, apirilaren 22an. 84 urte.
- **Jose Gantxegi Telleria.** Bergaran, apirilaren 23an. 87 urte.
- **Gregoria Lizarralde Gisasola.** Antzuolan, apirilaren 23an. 94 urte.
- **Josefa Goitia Larrañaga.** Oñatin, apirilaren 25ean. 81 urte.



**Juan Mari Leturia** eta **Jesusita Berasategi** bergararrak 1957ko apirilaren 25ean ezkondu ziren, Loiolan. Urrezko ezteiak bete dituzte-eta, laster ospakizuna egingo dute. Zorionak eta laztan handi bana, etxekoen partetik.



**Fernando Iturbe** antzuolarra eta Urantziako (Los Arcos) **Edurne Hermoso de Mendoza** ezkondu zirela 25 urte beteko dira aurten. Zilarrezko ezteiak direla-eta zorionak, denon partetik, eta domekan ondo-ondo pasa Nafarroa aldean. Laztan handi bana.

ESKER ONA

## Gregoria Lizarralde Gisasola

Juan Igartzaren alarguna

**Antzuolan hil zen 2007ko apirilaren 23an, 94 urte zituela.**



Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.

Antzuolan, 2007ko apirilaren 27an.

ESKER ONA

## Joakin Zurutuza Lazkano

**Donostian hil zen 2007ko apirilaren 18an, 68 urte zituela.**



Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.

Bergaran, 2007ko apirilaren 27an.

Babeslea:

OROILORE
Hileta eta beilatoki zerbitzuak

Zerbitzu etengabea 365 egunean

Behar bagaituzue aski duzue dei bat, laster joango gara zuekin egoteko: etxera, ospitalera…

Erantzun azkarra, tratu pertsonala

Eskelak: egunkari, irrati eta paperetan
Aukera lore apainketan: koroak, erramuak eta zentroak

Bete beharreko tramiteak

Gorpua prestatu eta dotore ipini

Zerraldo aukera, denetariko prezioak

Oroilore beilatokiak hiru gela ditu, beila egiteko

Amillaga 27, Bergara
Tel.: 617 44 21 55 – 943 76 94 73 / Faxa: 943 76 94 76

URTEURRENA

## Luzia Otadui Etxaniz



Lehen urteurreneko meza
domekan, apirilaren 29an,
11:00etan,
Udalako San Esteban parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

## Edurne Larrañaga Elorza

Balbino Larrañagaren alarguna



Lehen urteurreneko meza
domekan, apirilaren 29an,
11:00etan, San Andresko
Jasokundeko Andre Mariaren elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

## ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu,
deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:

**943 25 05 01**

**Eskelaren prezioa: 87 euro.**
Prezio berezia: egubakoitzeko eta astelehenekoGOIENKARIAn, bietan, argitaratuz gero, **100** euro.

**Goienkaria: astero, 45.000 irakurle.**



ESKER ONA

## Roman Guridi Irazola

**Donostian hil zen 2007ko apirilaren 21ean, 72 urte zituela.**



Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.

Bergaran, 2007ko apirilaren 27an.

## bila-bila 7





## hitz gezidunak



Leku basa
Larria
Entzun
Herrestan dabilena
Arrain mota
Joan den urtea
Putreak
Mea
Zikoitza
Atari
* Irudiko animalia
Errep., pil-pil
Iodoa
Zintzo
Ukuilua
Berriro esana
Alkoholen bukera
Euskaraz eta kitto!
Nitrogenoa
Fanatismo-ak jota
Bokala
Kontso-nantea
Infusio mota
Kontso-nantea
Huts
Oxigenoa

GOIENKARIA



## umore giroan

Kike Amonarriz

**Bonboi partiketa**

Matematika ordua da eta Karmele andereñoak honako ariketa hau jarri dio Patxikuri:
- Ea, Patxiku, adi entzun. Zuk hamasei bonboi dituzu eta zure anaiarekin partitu behar dituzu. Zenbat emango dizkiozu?
- Lau!
- Patxiku, mesedez, ez al dakizu zatiketak egiten edo?
- Nik bai, baina nire anaiak ez.

**Hegan**

- Zuek ba al dakizue nola orientatzen diren Tolosako hegazkin pilotoak?
- (!!!)
- Errepideetako seinaleak irakurriz!

## sudokua

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 8 | | | | 5 | 4 | | | 7 |
| | | | | 3 | | 8 | | |
| | 3 | 1 | 7 | | | 6 | | |
| 7 | | | | | | 2 | | |
| 9 | 1 | | | | | | 5 | 4 |
| | | 2 | | | | | | 3 |
| | | 4 | | | 9 | 3 | 8 | |
| | | 6 | | 2 | | | | |
| 3 | | | 4 | 8 | | | | 6 |

## hieroglifoa

Nola zegoen Jose Mari?




## hizki salda

Debagoieneko 5 mendiren izenak

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| J | Z | E | B | E | H | I | A | A |
| N | I | B | O | S | H | K | E | L |
| A | E | R | I | M | A | D | A | U |
| Z | N | U | A | R | R | E | I | G |
| T | A | D | H | F | D | E | N | O |
| R | S | E | T | R | A | T | D | I |
| A | R | R | U | K | A | X | T | H |
| H | E | Z | E | K | T | O | T | E |
| D | I | B | E | H | A | T | E | B |

## soluzioak





| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | ■ | B | ■ | A | ■ | B |
| | | | H | A | N | D | I | A |
| | | | ■ | S | A | I | A | K |
| ■ | Z | ■ | H | A | R | T | Z | A |
| B | E | B | A | R | R | U | ■ | I |
| ■ | K | O | R | T | A | ■ | O | L |
| B | E | R | R | E | S | A | N | A |
| ■ | N | ■ | I | ■ | T | E | ■ | O |
| F | A | N | A | T | I | K | O | A |

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 8 | 6 | 9 | 2 | 5 | 4 | 1 | 3 | 7 |
| 4 | 7 | 5 | 1 | 3 | 6 | 8 | 9 | 2 |
| 2 | 3 | 1 | 7 | 9 | 8 | 6 | 4 | 5 |
| 7 | 4 | 3 | 9 | 1 | 5 | 2 | 6 | 8 |
| 9 | 1 | 8 | 3 | 6 | 2 | 7 | 5 | 4 |
| 6 | 5 | 2 | 8 | 4 | 7 | 9 | 1 | 3 |
| 5 | 2 | 4 | 6 | 7 | 9 | 3 | 8 | 1 |
| 1 | 8 | 6 | 5 | 2 | 3 | 4 | 7 | 9 |
| 3 | 9 | 7 | 4 | 8 | 1 | 5 | 2 | 6 |

**Jeroglifikoa:** jdhf asljdfhasldfhaeiy aeif aeiffaeoifa oeifaoifeifiiefeioffoileifelo

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| J | Z | E | B | E | H | I | A | A |
| N | I | B | O | S | H | K | E | L |
| A | E | R | I | M | A | D | A | U |
| Z | N | U | A | R | R | E | I | G |
| T | A | D | H | F | D | E | N | O |
| R | S | E | T | R | A | T | D | I |
| A | R | R | U | K | A | X | T | H |
| H | E | Z | E | K | T | O | T | E |
| D | I | B | E | H | A | T | E | B |

## bono fotoa



**Arrasateko Musakola auzoan dagoen kiroldegiaren ondoan kirolgunea egin dute, hantxe dagoen baserriaren soloetan. Nola du izena kirolguneak?**

**Argazkia eta galdera** > Jose Felix Diaz de Tuesta

Super BM
IFA
Super BMk emandako
50 euroko erosketa-txartela
zozketatuko du GOIENKARIAk asmatzaileon artean!

**ERANTZUNA** ..............................
..............................
IZEN-DEITURAK ..............................
TELEFONOA ..............................

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO Goienako edozein egoitzara

**Maria Dorada Marbu galletak**
800 g-ko kaxa
**1,69 €**
Super BMn beti eskaintzarik onenak!

**AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA**

Arrasateko **Nerea Zugasti**rendako izan da erosketa-txartela. Zorionak!

**Galderaren erantzun zuzena: Telesforo Maria Monzon (1826-1889)**

# San Andres jaiak • ARRASATE

## Apirilaren 28tik maiatzaren 1era arte

### Apirilak 28

11:00 ETXAFUEGOAK eta BURUHANDIAK jaiei hasiera emateko.

11:30/14:30 Bedoñabe herri eskolako patioan HAUR PARKEA puzgarriekin.

12:00 SAMASIKU fanfarrearekin KALEJIRA.

16:00 Gudarien plazan CLUB AUTOMODELISMO ARRASATEk antolatutako auto telegidatuen ikuskizuna.

17:00/19:00 Bedoñabe herri eskolako patioan HAUR PARKEA puzgarriekin.

18:00 SAMASIKU fanfarrearekin KALEJIRA.

19:00 ETXAFUEGOAK eta BURUHANDIAK.

22:30 Gudarien plazan KAIXO taldearekin DANTZALDIA.

### Apirilak 29

11:00 ETXAFUEGOAK eta BURUHANDIAK.

11:30/14:30 Bedoñabe herri eskolako patioan HAUR PARKEA puzgarriekin.

12:00 BIZNIETOS DE CELEDON fanfarrearekin KALEJIRA.

17:00/19:00 Bedoñabe herri eskolako patioan HAUR PARKEA puzgarriekin.

18:00 Kurtze Txiki plazan haurrentzako TXOKOLATADA.

18:00 BIZNIETOS DE CELEDON fanfarrearekin KALEJIRA.

19:00 BONBA JAPONIARRAK.

19:30 BURUHANDIAK.

22:30 Gudarien plazan KAIXO talderekin DANTZALDIA.

### Apirilak 30

11:00 ETXAFUEGOAK eta BURUHANDIAK.

11:30/14:30 Bedoñabe herri eskolako patioan HAUR PARKEA puzgarriekin.

12:00 BARALDE fanfarrearekin KALEJIRA.

17:00 Gudarien plazan GORRITI eta bere animaliak.

17:00/19:00 Bedoñabe herri eskolako patioan HAUR PARKEA puzgarriekin.

17:30 BARALDE fanfarrearekin KALEJIRA.

18:30 BONBA JAPONIARRAK.

19:00 BURUHANDIAK.

22:30 Gudarien plazan JOSELU ANAIAK taldearekin DANTZALDIA.

### Maiatzak 1

11:00 ETXAFUEGOAK eta BURUHANDIAK.

11:00 Gure nagusien omenez meza.

11:30/14:30 Bedoñabe herri eskolako patioan HAUR PARKEA puzgarriekin.

12:00 TURRU-TARRA fanfarrearekin KALEJIRA.

12:30 Luntxa 80 urtetik aurrerakoentzat CENTRO CULTURAL EXTREMEÑO elkartean.

13:00 Gudarien plazan HERRI KIROLAK.

17:00/19:00 Bedoñabe herri eskolako patioan HAUR PARKEA puzgarriekin.

17:00 TXIKITXU dantza taldearen KALEJIRA Maiatzaren Bata plazatik Gudarien plazaraino.

17:30 Gudarien plazan TXIKITXU dantza taldearen emanaldia.

18:00 TURRU-TARRA fanfarrearekin KALEJIRA.

18:30 ETXAFUEGOAK eta BURUHANDIAK.

19:30 Gudarien plazan BETIZU FESTA haurrentzako.

21:00 ETXAFUEGO jaurtiketa eta jaien amaiera.

## *Ondo pasau San Andres-eko jaixetan!*

**Kapikua** opariak eta osagarriak • **Jabier** gozoki-denda • **Meher** jantzi-denda

**Lana** gazta-denda • **Imagen** ile-apaindegia • **Kurruxko** okindegia

**Raos** sarraila-denda 24 ordu • **Rita** frutategia • **Avenida** kafetegia • **Nuevo** taberna

**Urretxu** taberna • **Oihal** etxerako ehungintza • **Cepin SA** • **C. Ikaia SL**

**Ibarra** okindegia • **Perez** frutategia • **Bedoñabe** haur eskola

Aitzol Muxika > Musikazalea

# "Duela urte batzuetatik hona, musika taldeen maila nabarmen hobetu da "

Aitzol Muxikak (Bergara, 1979) musika du zaletasuna. Txikitatik ibili da musika ikasten; lehenengo, tronboia jotzen ikasi zuen. Gero, bakarlari aritu zen kontzertuak ematen eta gaur egun, Donostian Kantu ikasketak egiten dabil. Gainera, Bergarako orfeoiarekin batera *Seussen mundua* ikuskizuneko Potol elefantearen rola ere egin du Muxikak.

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA

**Mariaren Lagundia Ikastolan egiten du lan Aitzol Muxikak. Lanetik atera eta GOIENKARIArekin duen hitzordura etorri da bergararra. Musika du zaletasuna Muxikak, eta horretaz jardun dugu hizketan.**

**Musika zaletasuna ardatz hartuta, Musika Irakasle ikasketak egin zenituen.**

Bai; nire zaletasuna musika dela kontuan hartuta, musika irakasle izateko ikasi nuen Bilbon. Gero, Andoainen, Soinu Teknikari modulua egin nuen; eta, orain, Donostian, Kantu ikasketak egiten ari naiz.

Hasiera batean helburua nire lana musika irakasle alorrera bideratzea zen. Baina bizitzak beste bide batzuetatik eraman nau; hala ere, oraindik gaztea naiz, eta badut denbora.

**Garai batean bakarlari aritu zinen, inguruko herrietan kontzertuak ematen.**

Bai; ikastolako kontzertu batean hasi zen bakarlari izatearen kontua. Hasieran, gitarra hutsarekin aritzen nintzen, eta gero, beste gitarra jole batekin hasi nintzen. Azkenik, bateria sartu genuen; orduan, ni baxua jotzera pasa nintzen.

Orain bost urte utzi nuen kontzertuen mundua, baina garai haietako oso oroitzapen ona daukat. Azken urteetan, behin baino gehiagotan esan dut berriro ere itzuli behar dudala!

**Zaila izango da musikan lekua egitea.**

Bai, uste dut baietz. Ez dakit gaur egungo egoera zein den, baina zera ikusten dut: orain dela urte batzuetatik hona, taldeek maila handiagoa dutela. Gehiago lantzen da musika, eta hori emaitza orokorrean nabaritu egiten da.

Gure inguruan rocka asko entzuten da, baina hori ere pixkanaka aldatzen doa. Gero eta musika estilo gehiago dago gaur egun; eskaintza dibertsifikatu egin dela esan daiteke. Orain dela urte batzuk euskal rocka bakarrik entzuten zen, ez zegoen beste aukerarik. Bakarlari bezala, nire erreferentzia nagusiak Pedro Guerra, Javier Alvarez eta Tontxu izan dira. Baita ere Silvio Rodriguez, Aute… Egia esan, bakarlari guztiak gustatzen zaizkit.

**Orain, alaba txikiari kantatzearekin konformatu behar ko duzu.**

Bai, zerbait kantatzen diot, baina gutxi. Ez dut gura umeak nagusi denean traumarik izatea. Noizean behin elkarrekin kantatzen dugu, baina, bestela, ez naiz gitarra hartu eta hari kantatzen hasten. Musikari dagokionez, orain, umeen musika entzuten dugu autoan.

**Hain gazte aita izateak asko aldatu zaitu?**

Pertsona bezala ez, nik uste dut umea izan aurretik nahiko finkatuta nuela nire bizitza. Baina orain, beste ikuspegi batetik ikusten ditut gauzak; eta, aita izateak bizitza bera ere guztiz aldatzen dizu. Orain, umearen inguruan antolatzen ditugu gure eginbeharrak.

***Seussen mundua*-n Potol elefantearena egiten duzu. Badu zu Poloten antzik?**

Bai, nik uste dut baietz. Egia esan, asko gustatzen zaidan pertsonaia da; on puska hutsa da. Ni ere, Potol elefantea bezala, beti prest nago behar duenari laguntzeko. Alde batetik bertutea da, baina, bestetik, gauza askotan sartzen naizela uste dut, eta gero, dena gainetik egiten dudala iruditzen zait.

**Zer izan da zailagoa, Bilboko Euskaldunan edo Bergarako pilotalekuan antzeztea?**

Nire iritziz, Bergarako frontoian egin genuen ikuskizuna zailagoa izan zen. Alde batetik, emanaldia baino egun batzuk lehenago gaixorik egon nintzen eta ondorioz ezin izan nuen gura bezala entseatu. Bestetik, Bergarako frontoian, txikiagoa izanda, ikusleak gainean genituen. Euskalduna antzoki luzea da, baina ez zabala. Beraz, nik elefantearen buruari mugimendu txiki bat eginda, areto guztia hartzen nuen. Bergarako pilotalekuan, berriz, mugimendu luzeagoa egin behar nuen pilotalekuak duen zabalera guztia hartzeko.

**Taula gainean, noiz edo noiz geratu zara zer esan ez zenekiela?**

Ez, zer esan ez dakidala ez naiz inoiz geratu, baina anekdotaren bat edo beste izan dut. Behin, Elgetan, bakarlari bezala kontzertu bat ematen ari nintzela, mutil bat argazkiak ateratzen ari zitzaidan lehenengo ilaran. Ni urduri jartzen ari nintzen, eta, halako batean, geratu egin nintzen eta "atera behingoan argazkia!" esan nion.









ARANTZAZU EZKIBEL

PERTSONALA

**Herria:** Bergara. **Adina:** 27 urte. **Ikasketak?** Irakasle ikasketak eta Soinu Teknikaria. **Zaletasunak?** Musika, kirola eta antzerkia. **Gorrotatzen duzu zerbait?** Bai, gauza asko. **Gustuko musikari bat?** Pedro Guerra. **Inoiz ahaztuko ez duzun kontzertua:** San Ferminetan Pedro Guerrak emandakoa. Baita Javier Alvarezen kontzertua ere. **Egin duzun bidaia gustukoena?** Lagunekin Asturiasera egin nuen hura; Somiedo inguruan ibili ginen. **Debagoieneko toki gustukoena?** San Martzial.



EUSKAL ETXEA Euskarians Euskal Etxeak 1.024 m2 ditu eta dantzalekua, taberna eta euskal produktuak erosteko aukera dago. GOIENKARIA

**EUSKARA** > INTERNETEKO ARLO GUZTIETAN DAGO EUSKARA

# Second Life mundu birtualak euskaraz ere hitz egiten du

Euskara eta euskal kultura indarrez ari dira sartzen Second Life Interneteko unibertso erraldoian: bi euskal komunitate eta Euskal Etxea daude, besteak beste

**LEIRE KORTABARRIA** > BERGARA

Second Life Interneteko unibertso paraleloak euskaraz egiten du. Are gehiago, Euskal Etxe birtuala ere badauka. Izan ere, adituek esaten zuten, eta internautek badakite, hizkuntza minoritarioendako tresna ezin hobea izan daitekeela Internet.

Second Life (*http://secondlife.com*), Bigarren Bizitza euskaraz, hiru dimentsiotako mundu birtuala da. Zerbitzari sare handi baten banatuta dago eta Internet bidez joka daiteke. Horretarako, jokalariak bere burua ordezkatuko edo irudikatuko duen pertsonaia sortu behar du. Hortik aurrera, zenbatu ezineko aukerak daude: ekonomia birtualean parte hartu –moneta propioa du, Linden dolarra, eta 64 milioi dolarreko balioa duen ekonomia ere–, kultura ekitaldietara joan –U2, Suzanne Vega eta mota horretako musikariak entzun daitezke–, beste pertsonaiekin denetariko harremanak sortu…

Norberaren itxura nahi bezala molda daiteke, eta, gizaki ez ezik, dragoi, orko edo estralurtar izan gaitezke Second Lifen.

Kontsumoa Second Lifeko elementu garrantzitsua da. Arropa, hegalak, Harley Davidson motorrak… Denetarik dago.

Mundu birtual horrek egiazkoaren besteko ezaugarri asko ditu; hala, jokoa eta prostituzioa ere badaude.

**BLOGETAN ERE BAI**

Euskara eta euskal kultura ere sustraiak botatzen hasi dira Second Lifen. Besteak beste, Euskal Etxe bat dago (*http://slurl/secondlife/Hauwai/206/233/70*), eta bi euskaldun komunitate ere: Euskaldunak eta Euskarians.

Bigarren Bizitza hori euskarazko blogetan ere agertzen hasi da: horren adibide da Gaur8-ren artikulu bat (*www.gaur8.info/edukiak/20070310/art7282.php*). Iban Zalduak han ibiltzen dela aitortzen du, Deckard izenarekin. Bestetik, Ana Courier izeneko pertsonaia duen internautak bere esperientzien gaineko bloga zabaldu du, *http://bigarrenbizitza.nireblog.com* helbidean.

**teknologia berriak**

> ARGAZKILARITZA

## Klasizismoa eta azken teknologia Panasonic etxearen SLR kamera berriaren eskutik

Panasonic reflex merkatuan sartu da Four Thirds estandarraren eskutik. Merkaturatzen duen lehenengo SLR kamera da. Argazki kamera klasikoen diseinuan oinarrituta dago eta azkeneko teknologiak erabiltzen ditu.

Ezaugarriak: 7,5 megapixeleko Live MOS sentsorea, 3136x2352 pixeleko gehienezko bereizmena eta 2,5 hazbeteko TFT pantaila.

Salneurria: garraiatzeko poltsa, filtro babeslea eta uhal gehigarria 2.149 eurotan.




Panasonic Lumix DMC-L1 kameran Leica etxearen diseinua antzematen da.

> GPS GAILUAK

## Tom Tom One XL, formatu handiko 4,3 hazbeteko ukimen pantaila duen autorako GPSa

GPS gailu horrek 4,3 hazbeteko eta 480x272ko bereizmena ematen duen pantaila du.

Mapak tamaina handiagoan erakuts ditzake, baita datu estrak ikusteko aukera eman ere. Hain zuzen, zirkulazioaren egoera denbora errealean eta aurreinstalaturiko milioika interesgune ditu. Mapak giga bateko barne memorian gordeta ditu, eta atetik atera nabigazioa eskaintzen du Mendebaleko Europako edozein lekutara.

Salneurria: 399 euro.




Atetik atera nabigazioa eskaintzen du Mendebaleko Europako edozein lekutara.

> MAHAI GAINEKO ORDENAGAILUAK

## Erabiltzailearen beharretara pertsonaliza daitekeen HP etxearen Pavillon gama berria

Pasa den astean HP enpresak Pavillon ordenagailu gama berria aurkeztu zuen.

Mahai gaineko ordenagailuek itxura dotorea dute, akabera beltz distiratsua, zilar koloreko ertz finak eta argi adierazle urdinak.

Ezaugarriei dagokienez, ordenagailuek goialdean dute pizteko botoia, txartel irakurgailua, eta, gainera, hardware ezberdinarekin erabiltzailearen beharretara pertsonaliza daiteke.

Salneurria: 220 eta 626 euro bitarteko prezioan.



Hiru gama ezberdinetan eskura daitezke, AMD edo Intel prozesagailuekin.

Zure negozioaren erakusleihoa Interneten

www.goiena.net-eko blog komertzialak

www.goiena.net/blogak

/aebpn /aiastui /aretxargi /argi-plastik /arregi /atai /azkarate /bastida /briz-aseguruak /BZ-sistemas
/dragon-oriental /dukiena /ego /ekilore /ekin /elejalde /ezkutuorly /galgorri /gallastegi /ganesha /garaia
/gertu /gorkataxi /gurea /guztizeder /hamaikataberna /itxaseder /irudisport /jracing /joseba /korozabaleta /markiegi
/maulanda /mayte /merkeopari /multiopticas /ohiak /ogizun /okipark /otzeta /pando /perfipar /richimaier
/tabernaberri /udalaitz /urdeki /urbieta /vitoria /zainduz /ziripot

Eta baita ere:
www.aizue.com
www.lilura.com
www.baster-aldejatetxea.com
www.ehmff.com
www.gelatzu.com
www.goikobenta.com
www.haurtxoa.com
www.klorofila.com
www.landaluze.com
www.toldoslete.com
www.uxarte.net

Goiena.net
Debagoieneko ataria Interneten



## berriak

> GOITB

### Domeka arratsaldean futbol derbia eskainiko du GOITBk

Hilaren 29an, domekan, eta astelehenean, hilaren 30ean, futbol derbia ikusteko aukera izango da Goiena Telebistan. Talde aurkariak Aloña Mendi eta Aretxabaleta izango dira eta domekan, 20:30ean eskainiko dute saioa. Beraz, futbolzaleek izango dute domeka arratsaldean etxean gelditzeko aitzakia, Debagoieneko bi futbol talderen arteko partidua ikusteko modukoa izango baita.

> GOITB

### Bergarako Erramu Zapatuko bertso saioa gaur ikusgai

Bergaran Erramu Zapatuan egin zen bertso saioaren bigarren atala eskainiko dute gaur GOITBn. Aste honetan eskaini dute lehen atala eta gaur, egubakoitza, izango da bigarren atala ikusteko aukera. Punta-puntako bertsolariak izango dira taula gainean: Egaña, Paya, Elortza, Iturriaga, Mendiluze eta Lujanbio, hain zuzen ere. Beraz, gaur 17:47an, bertsolari bikainez gozatzeko aukera.

> ARRASATE IRRATIA

### Intxortako frontea berbagai 'Asteko gainbegiratua´-n

Martitzenean bete ziren 70 urte Intxortako frontea tropa frankisten esku geratu zela. Garai hartako gertakariak ekarri genituen gogora urteurrenaren egunean, Intxorta 1937 kultura elkarteko Juan Ramon Garai eta Jesus Gutierrezekin.Asteburuan berreskuratuko dugu elkarrizketa hori. Horrez gain, haurrentzako baratzea egiteko aholku interesgarriak ere emango ditugu.

> ARRASATE IRRATIA

### 107.7ko autobusak eguaztenera arte jai izango du

Arrasate Irratiko *Igo autobusera!* saioak aste laburra izango du hurrengoa; astelehena eta martitzena jai hartuta, eguaztenean itzuliko da uhinetan barrena. Eguaztenean, besteak beste, merkatu txikiaren geltokira hurbilduko gara. Oharrik izanez gero, deitu 943 71 17 31 telefonora.

*Igo autobusera!* saioaren lekukoa, bada, aurrez egindako elkarrizketa sortak hartuko du. Goizeko 10etarako egingo dugu hitzordua.

**'ILUNPEAN'** > EGUBAKOITZA, 22:15

# Gorrotxategi pastelgile ezaguna 'Ilunpean' saioan

Jose Mari Gorrotxategi Tolosako gozogile famatuaren nondik norakoak jakingo ditugu

GOIENKARIA > ARRASATE

Ospe handiko pastelgile bat elkarrizketatuko du gaur Oihana Elortzak *Ilunpean* saioan. Jose Mari Gorrotxategi da haren izena eta tolosarra da jaiotzez. Erretiratua badago ere, Tolosako Letxuga kalean duen gozo dendan ematen du ia egun guztia; gainera, bere denda zaharreko gailu eta tresnak bildu eta museoa ipini zuen duela urte batzuk. Gaur egun izen handiko pastelgilea da eta Debagoienean ere badugu haren pastelez eta gozokiez gozatzeko aukera. Izan ere, Oñatin eta Bergaran denda bana ditu Gorrotxategik.



**'ILUNPEAN'** Oihana Elortza kazetari oñatiarra da saioko aurkezlea. GOIENKARIA

**BERTSOAK** > ASTELEHEN ETA MARTITZENEAN

## Nafarroako bertsolari txapelketako finala astelehen eta martitzenean

GOIENKARIA >ARRASATE

Goiena Telebistak Nafarroako bertsolari txapelketako finala eskainiko du datorren astelehenean, hilaren 30ean, eta baita maiatzaren 1ean, martitzenean. Hala, ospe handiko zortzi bertsolari ikusi ahal izango dituzue lehian: Xabier Silveira, Jon Barberena, Iñigo Olaetxea, Erika Lagoma, Julen Zelaieta, Joxe Juan Zubieta Etxabe, Migel Mari Elosegi Luze eta Bittor Elizagoien. Martxoaren 24an Elizondon jokatu zen bertso finalean 950 entzule egon ziren eta lepo bete zuten Lur aretoa. Hasierahasieratik sortu zen giro bikaina bertsotarako, entzuleen artean giro aparta baitzegoen. Saioaren hasiera motel samarra izan bazen ere, berehala berotu ziren bertsolariak, eta kartzelako lanean ikusiko dituzue lanik onenak. Zortzi bertsolarien maila bikainaz gozatzeko aukera paregabea, beraz. Galdu ezineko hitzorduak astelehenean, hilaren 30ean, 12:30ean, eta martitzenean, maiatzaren 1ean, 22:00etan. Nafarroako bertsolari onenak gertutik jarraitu ahal izango dituzue GOITBn.

## telebegi

**Leire Kortabarria**

### Fenomeno estatusa

Telesaio bat noiz da, arrakastatsu baino haratago, fenomeno bat? Ikusleen bizimoduan eragina izatea adierazle on bat dela uste dut. Aurrekoan horixe komentatzen genuen lankideon artean, *Goenkale*-ren kontura. Batek esaten zuenez, Euskal Herrian, hiru bat kidek osatutako familia bakoitzean, gutxienez jarraitzaile amorratu bat badu *Goenkale*-k. Taldeko bik komentatu zuten euren etxeko kasua, lehenengoak esandakoa egi den adibide. *Goenkale* kentzen duten egunean, hemen bai izango direla kale agerraldiak eta protestak!, horixe izan zen, behintzat, gure ondorioa. Eta hori, *Goenkale*-ri ez diotela, demagun, Txapeldunen Ligari edo goi mailako pilota partiduei adinako publizitatea ematen; baina, egunero-egunero, urtetik urtera, hortxe jarraitzen du, fenomeno bilakatuta, ligak hasi eta bukatzen ikusten.

Estatus horretara iristen diren saioak hobe ez ukitzea; jarraitzaileak batzen segitzen duten artean, utzi hortxe, euren ohiko egun eta ordutegian. Nire ustez, bizitzako gauza guztiek ohartarazten digute noiz bukatu den euren zikloa. Bitartean, gozatu.

## arrasate irratia

**FM 107.7**

**Zapatua**
**10:00** Asteko gainbegiratua.
Elkarteen geltokian, Intxorta 1937 kultura elkartea berbagai; Lorategiaren geltokian, haurrentzako baratzea egiteko aholkuak; Xabier Olarra, itzultzailea;...

**Domeka**
**10:00**Asteko gainbegiratua.

**Astelehena**
**10:00** Elkarrizketa bilduma(Aurrez egindako elkarrizketa sorta).

**Martitzena**
**10:00** Elkarrizketa bilduma.

**Eguaztenetik egubakoitzera**
**10:00-12:00** Igo autobusera!
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Elkarrizketak
Zorion agurrak
(parte hartzeko: 943 71 17 31)
**12:05** Arrasate Irratiko albistegi laburra.
**12:20** Izarren ordua: abesti ezagunak
**13:00** Euskadi Irratiko albistegia.
**14:00** Igo autobusera! (errep.)
**17:00, 19:00, 21:00, 23:00** Arrasate Irratiko albistegi laburra.
**17:15** Zorion agurren tartea (errep.

## GOITBko programazioa

**Egubakoitza, 27**
**13:15**Emisio hasiera. **13:20**Marrazki bizidunak: Calimero. **13:45**Gaurkoak. **13:47** Berbaire.**14:15** Musikantoi. **14:45**Albiste aurrerapena. **15:15**Ikusten. **15:45** Gaurkoak. **15:47** Didjeridu. **16:15**Eltze beroa **16:45** Albisteak. **17:15** Calimero. **17:45**Gaurkoak. **17:47**Bertso saioa. **18:15**Erreportajea. **18:45**Albisteak. **19:15** Erreportajea . **19:45**Berriak. **20:15** Marrazki bizidunak: Calimero. **20:45** Berriak. **21:15**Teknopolis. **21:45**Gaurkoak. **21:47** Hitz bitan. **22:15**Ilunpean. **22:45**Berriak. **23:15**Berbaire. **23:45**Gaurkoak. **23:30**Kirolari. **00:15**Emisio amaiera.

**Zapatua, 28**
**08:00** Emisio hasiera **08:05** Marrazki bizidunak: Boboboak, Calimero eta Trikitraka trikitron. **11:00** Ikusmira. **11:30**Kirolari. **12:00** Astekoak. **12:15**Bizitegia. **12:30** Eltze beroa **13:30** Bertso saioa. **14:00**Ur eta lur. **14:30** Musikantoi. **15:00** Ikusmira. **15:30**Berbaire. .**16:00** Didjeridu. **16:30** IIlunpean. **17:00** Marrazki bizidunak. **19:00** Hasiberriak. **19:30**Klip@. **20:00**Ikusten. **20:30**Erreportajea.**21:00**Berbaire. **21:30**5+5. **22:00**Astekoak. **22:15**Klip@. **22:30**Ilunpean. **23:00**Didjeridu. **23:30**Musikantoi. **00:00** Emisio amaiera.

**Domeka, 29**
**08:00** Emisio hasiera. **08:05** Marrazki bizidunak: Calimero, Boboboak eta Trikitraka trikitron. **11:00**Ikusten. **11:30**Musikantoi. .**12:00**Ur eta lur. **12:30**Klip@. **13:00**Kirolari.**13:30**Erreportajea. **14:00**Didjeridu. **14:30**Ilunpean. **15:00** Ikusmira.**15:30** Marrazki bizidunak. **18:00**Kirolari. **18:30**IIkusten. **19:00** Hasiberriak. **19:30** Eltze beroa. **20:00** Ur eta lur **20:30** Futbola:Aloña-Aretxabaleta. **22:30** Berbaire. **23:30** Erreportaia.**00:00**Ilunpean-.**00:30** Musikantoi.**01:00**Emisio amaiera

**Astelehena, 30**
**08:00** Emisio hasiera **08:05** Marrazki bizidunak: Boboboak, Calimero eta Trikitraka trikitron. **11:00** Ikusmira. **11:30**Kirolari. **12:15**Bizitegia. **12:30** Nafarroako bertsolari txapelketaren finala. **15:00** Futbola:Aloña-Aretxabaleta. **17:00** Marrazki bizidunak. **19:00** Hasiberriak. **19:30**Klip@. **20:00**Ikusten. **20:30**Erreportajea.**21:00**Berbaire. **21:30**Ikusten. **22:00**Musikantoi. **22:30**5+5. **23:00**Ikusmira. **23:30**Musikantoi. **00:00** Emisio amaiera.

**Martitzena,1**
**08:00** Emisio hasiera. **08:05** Marrazki bizidunak: Calimero, Boboboak eta Trikitraka trikitron. **11:00**Didjeridu. **11:30**Ilunpean. .**12:00**Musikantoi. **12:30**Klip@. **13:00**Kirolari.**13:30**Erreportajea. **14:00**Didjeridu. **14:30**Ilunpean. **15:00** Ikusmira.**15:30** Marrazki bizidunak. **18:00**Kirolari. **18:30**IIkusten. **19:00** Hasiberriak. **19:30** Eltze beroa. **20:00** Ur eta lur **20:30** Erreportajea.**21:00** Kirolari. **22:00**Nafarroako bertsolari txapelketa.**00:30**Emisio amaiera

**Eguaztena,2**
**13:15**Emisio hasiera. **13:20**Marrazki bizidunak: Calimero. **13:45**Gaurkoak. **13:47** Berbaire. **14:15**Erreportajea. **14:45**Albiste aurrerapena. **15:15**Ur eta lur **15:45** Gaurkoak. **15:47** Hasiberriak. **16:15** Eltze beroa. **16:45** Albisteak. **17:15** Calimero. **17:45**Gaurkoak. **17:47**Harmaillatik. 1**8:15**Eltze beroa. **18:45**Albisteak. **19:15** Teknopolis. **19:45**Berriak. **20:15** Marrazki bizidunak: Calimero. **20:45** Berriak. **21:15**Erreportajea. **21:45**Gaurkoak. **21:47**Bertso saioa. **22:15**Telesaila. **22:45**Berriak. **23:15**Berbaire. **23:45**Gaurkoak. **23:30**Ur eta lur. **00:15**Emisio amaiera

**Eguena,3**
**13:15**Emisio hasiera. **13:20**Marrazki bizidunak: Boboboak. **13:45**Gaurkoak. **13:47** Bertso saioa. **14:15**Erreportajea. **14:45**Albiste aurrerapena. **15:15**Eltze beroa.**15:45** Gaurkoak. **15:47** Telesaia. **16:15**Ikusmira **16:45** Albisteak. **17:15** Boboboak. **17:45**Gaurkoak. **17:47**Eltze beroa .**18:15** Teknopolis. **18:45**Albisteak. **19:15** Klika. **19:45**Berriak. **20:15** Marrazki bizidunak: Boboboak. **20:45**Berriak. **21:15**Berbaire. **21:45**Gaurkoak. **21:47**Musikantoi **22:15**Didjeridu. **22:45**Berriak. **23:15**Erreportajea. **23:45**Gaurkoak. **23:30**Ilunpean. **00:15**Emisio amaiera.

# Jatetxe Gida




## Azpeitxi jatetxea

Aranerreka 13 / BERGARA
943 76 55 00

**Eskaintza**
- Eguneko menua eta karta
- Jaunartzeak eta bataioak

**Berezitasuna**
- Arraina eta haragia parrillan

**Domeketan, astelehenetan, martitzenetan eta eguaztenetan afaririk ez.**



## Baster-Alde

Galartza auzoa / ARETXABALETA
943 79 24 58 www.baster-aldejatetxea.com

**Eskaintza**
- Karta
- Ezkontzak
- Jangela: 160 lagunendako
- Jaunartze eta bataioak
- Kintadak
- Terraza
- Aparkalekua

**Astelehenetan itxita**



## Dragon Oriental

Araba etorbidea 3 (Super BM ondoan) / ARRASATE
943 79 85 33

**Txinatar jatetxea**

**Eskaintza**
- 140 lagunendako jangela
- Aparkaleku ezin hobea
- Janaria etxera eramaten dizugu

**Eguneko menua eta karta**



## Dukiena jatetxea

Azkoaga auzoa / ARAMAIO
945 44 50 86

**Eskaintza**
- Menua eta karta
- Jaunartze eta bataioak
- Enpresa bazkariak
- Lagun eta familia arteko ospakizunak

**Berezitasunak**
- Arrain freskoa laban erreta
- Etxeko postreak

**Astelehenetan itxita**



## Gure Ametsa

LEINTZ GATZAGA
943 71 49 52

**Eskaintza**
- Ezkontzak
- Jaunartzeak eta bataioak
- Hiru jangela
- Aparkaleku handia
- Umeendako jolaslekua

**Astelehenetan itxita**



## Larrinetxe

Udala auzoa / ARRASATE / 943 79 22 15
www.larrinetxe.com

**Eskaintza**
- Karta
- Enkarguz menu bereziak
- Plater konbinatuak eta ogitartekoak.

**Berezitasunak**
- Denboraldiko arraina
- Bildotsa erreta
- Etxeko postreak

**Martitzenetan itxita**



## Taberna-Berri

Durana 24-26 / ARETXABALETA
943 79 20 67 / 943 79 49 41

**Eskaintza**
- Menua
- Afari informalak



## Torrekua

Ibargarai 37 / BERGARA
943 76 50 99

**Eskaintza**
- Eguneroko menua
- Karta
- Kintadak
- Bataio eta jaunartzeak

**Berezitasunak**
- Batik bat arraina
- Itsaskia
- Txuletak



## Unzueta

Zabola auzoa / ARAMAIO
945 44 50 95

**Eskaintza**
- Eguneko menua
- Karta
- Bataio eta jaunartzeak
- Lagun afariak

**Berezitasunak**
- Parrilla: okela eta arraina
- Etxeko postreak

**Egunero zabalik**

# Apirilak 27 maiatzak 4

MONIKA BELASTEGI
Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguaztenekoeguerdia baino lehen.
Posta elektronikoa: **kultura@goiena.com**
Tel.: **943 25 05 01/02** • Faxa: **943 25 05 13**

## Pailazo ikuskizuna



ARRASATE
**> Txirri, Mirri eta Txiribiton Junior pailazoek saioa egingo dute**
*Pailazoketan* delako ikuskizuna egingo dute hiru pailazo ezagunek. Batutako dirua Arrasateko Iturrigorri Elkarlana taldeari laguntzeko izango da. Bihar, zapatua, izango da emanaldia, 18:00etan, Amaia antzokian.

## Musika



ELGETA
**> Rogelio Botanz abeslariak kontzertua egingo du gaur, egubakoitza**
Euskal Herritik Kanariar Irletara joandako kantautoreak emanaldia egingo du gaur, egubakoitza, Espaloia Kafe Antzokian. Rogelio Botanzek taldearekin batera egingo du emanaldia. 22:30ean hasiko da.

## Omenaldia



ELGETA
**> Gudari eta miliziarrei omenaldia egingo die Elgetako herriak domekan**
Intxortako fronteak defendatu zituztenei egingo die omenaldia. 10:15ean meza egongo da Asentzion eta 11:00etan elkarretaratzea *Intxortako Atea* eskulturan. Gero bazkaria izango da pilotalekuan. Izena emateko deitu: 648 20 29 88 zenbakira.

## Musika

BERGARA
**> Los Chichos talde mitikoak emanaldia egingo du**
Talde ezagunak gaur, egubakoitza, egingo du emanaldia.
22:00etan, Jam aretoan.

OÑATI
**> Ganbara abesbatzak emanaldia egingo du**
Txantxiku ikastolaren 40. urtemugako ospakizunen barruan egingo du emanaldia Oñatiko Ganbara abesbatzak. 40 urteotan eskolan lehendakari eta zuzendari izandakoak omenduko dituzte ekitaldi berean.
Gaur, egubakoitza, 20:00etan, Santa Ana aretoan.

BERGARA
**> Musika Eskolako ikasleen emanaldia**
*Apirilean Musika* egitarauaren barruan egingo dute saioa. Eskolako hainbat talde instrumentalek egingo dute kontzertua. Berrikuntza da taldeok kalean egingo dutela emanaldia; herriko hiru gunetan.
Gaur, egubakoitza, 17:00etan, Espoloian eta San Martin eta Simon Arrieta plazetan.

BERGARA
**> Zumarragako Musika Eskolako Orkestraren saioa**
*Apirilean Musika* egitarauaren barruan egingo du emanaldia Zumarragako taldeak. Bergarako eskolak Zumarragan egindako emanaldiaren trukea da.
Gaur, egubakoitza, 19:30ean, Mariaren Lagundiko elizan.

OÑATI
**> Raul Lasa bakarlariak kontzertua egingo du**
Arrasateko musikariak zuzeneko kontzertua egingo du Portu tabernan.
Bihar, zapatua, 19:00etan.

ARRASATE
**> Udaberriko III. Musikaldia egingo dute**
Tirri Tarrak, Goikobalu abesbatzak eta Sotto Voice Orkestrak hartuko dute parte.
Maiatzaren 1ean, 20:00etan, Amaian.

ARRASATE
**> Carvin Jones Band taldearen emanaldia**
3.60 aretoak antolatutako *Blues Gauak* izeneko egitarauaren barruan egingo dute saioa.
Bihar, zapatua, 23:00etan, 3.60 aretoan.

## Erakusketak

ARRASATE
**> Elena Odriozola ilustratzailearen erakusketa Kulturaten**
Ilustratzaile donostiarrak publizitate agentzia baten ekin zion lan munduari, baina 1998an hura laga eta marraztera dedikatzea erabaki zuen. Ordutik hainbat sari jaso ditu.
Maiatzaren 13ra arte, Kulturaten.

BERGARA
**> Kilometroetako logotipoen erakusketa**
Aranzadi ikastolak Kilometroetako logotipoen erakusketa antolatu du. 31 edizioetako logotipoak egongo dira ikusgai erakusketan.
Maiatzaren 1era arte, Aroztegi aretoan.

## Hitzaldiak

ARETXABALETA
**> Nekazaritzaren gaineko berbaldia egingo dute**
EHNEko kide Onintza Ostolazak *Gizarte segurantza eta nekazariak* delako hitzaldia egingo du.
Maiatzaren 3an, eguena, 19:00etan, udaletxe zaharrean.

## Lehiaketak

BERGARA
**> Pazkoetako zapiarendako marrazki lehiaketa**
Bergaran bizi edo erroldatutako edonork har dezake parte. Eskuz zein formatu digitalean aurkeztu ahalko da lana. Gaiak jaiekin lotutakoa izan beharko du eta jaiak eta euskara uztartzen dituen leloa eroan beharko du. Jardun elkarteak deitu du lehiaketa.
Maiatzaren 9a da mugaeguna. Informazio gehiago: 943 76 08 19.

DEBAGOIENA
**> Mundumira jaialdiak bi lehiaketa deitu ditu**
Bata da ikastetxeetarako lehiaketa, eta ibar osora zabalik dago. Bi maila daude: 6-9 eta urtekoak 10-12 urtekoak. Lehiaketaren gaia da: *Munduari bira*. Teknika librea da eta baita egileak erabil dezakeen materiala ere. Parte hartu nahi dutenek Aretxabaletako kultura etxera bidali beharko dituzte lanak, maiatzaren 15a baino lehen. Beste lehiaketa da grafitiena. 15 urtetik gorako pertsonek parte hartu ahal izango dute. Baita taldeka ere –gehienez lau lagun eta gutxienez bat ibarreko izan edo bizi behar da–. Lehiaketa ekainaren 1ean izango da, Aretxabaletako plazan. Gaia izango da: *Bost kontinenteak*. Parte hartzeko Aretxabaletako kultura etxean eman behar da izena maiatzaren 21a baino lehen.
Argibide gehiago 943 71 10 27 zenbakian.

BERGARA
**> Pazkoetako egitarauko azala egiteko lehiaketa**
Bergaran bizi edo erroldatutako edonork har dezake parte. 40x60 neurria izango du kartelak eta teknika librea erabili ahalko da. Derrigorrezko honako testua eroan beharko du: *Pentekoste jaiak 2007, Bergara*. Lanak aurkezteko azken eguna bihar, hilak 28 da.
Argibide gehiago 943 77 91 58 zenbakian.

ANTZUOLA
**> Balkoi eta leihoetako loreapainketa lehiaketa**
Hamaikagarren aldiz deitu du Udalak lehiaketa hori. 90 euroko sariak banatuko dituzte.
Sari ematea ekainaren 23an egingo dute.

GIPUZKOA
**> '%100 Gipuzkoa' delako lehiaketa deitu dute**
Norbere ingurunearen gaineko mobilmetraien (telefono mugikorrarekin grabatutakoa) on-line lehiaketa deitu dute. 12-18 urte artekonedako.
Argibideak: *www.gipuzkoamobil.net*.

## Ospakizunak

ESKORIATZA
**> Batzokia inauguratuko dute gaur, egubakoitza**
Hidalga kaleko 3. zenbakian dago eta 20:00etan izango da inaugurazio ekitaldia. Herriko EAJko ordezkariez gain, Joseba Egibar GBBko lehendakaria ere etorriko da. Eskoriatzako EAJtik azpimarratu dute batzokia izateaz gain, herritar guztiei zabaldutako elkarte gastronomikoa ere izango dela.

PROPOSAMENA

BERGARA
### > San Prudentzioak ospatuko dituzte Elorregi auzoan

Bihar, zapatua, ospatuko dute auzoko egun handia Elorregiko auzotarrek. 13:00etan meza izango da eta gero, auzo bazkaria. Urtero bezala, Peñagarikano eta Amuriza bertsolariek alaituko dute bazkalostea. 22:00etan, erromeria egongo da soinu-jotzaileekin. Etzi, domeka, meza nagusia egongo da 10:30ean, Alai Taldeak abestuta eta gero, salda eta txorizoa banatuko diete joaten direnei.
Bihar, zapatua eta etzi, domeka egun osoan zehar.



**nire aukera**



Alfredo Meabe
Aretxabaletako kiosko dendakoa

## Bizikleta irteerak ikasle gazteekin

Alfredo Meabe aretxabaletarrak kontatu digu dendako lanak ez diola aisialdirako denbora luzerik uzten. Lanetik kanpo dagoenean, familiakoekin egoteko edota bizikletan ibiltzeko aprobetxatzen du: "Gu oso herrikoiak gara, ez gara askorik irteten. Autoari 5.000 kilometro egiten dizkiot urtero, gehiago ez".

Hori bai, lanik ez badu, ez dio bizikletan ibiltzeko edo koadrilakoekin bazkaltzera joateko hitzorduari muzinik egingo.

**Datozen egunetan, zer?**
Astelehenean lan egin behar dut, eta hemendik ibiliko gara. Kurtzebarri ikastetxeko guraso taldekoa naiz, eta bihar eta etzi adin askotariko gazteekin mendiko bizikleta irteerak egingo ditugu. Nagusitxoekin mendira egingo dugu, eta gaztetxoekin auzo batetik bestera ibiliko gara.

**Eta martitzenean ezer berezia egiteko asmorik?**
Aurten jai izango dut, eta emaztearekin bazkaltzera joateko aprobetxatuko dut, gu ezkondu gineneko urteurrena ospatzera. Denda ere egun horretan zabaldu genuen, maiatzaren 1ean.

**Eguna pasatzera joateko leku bat?**
Gu Donostiara joaten gara askotan, familiakoekin. Gaztetxoekin paseatzera, dendarik denda ibiltzera, zinemara...

**Bizikletan ibiltzea atsegin-da, esan gustuko paraje bat.**
Bai mendikoarekin bai errepideko bizikletarekin ibiltzeko, Santikurutze-Kanpezuko (Araba) parajea ederra da.

# Zinema

### ARAMAIO
**KULTURA ETXEA**

**Alex eta Alexis**
Domeka: 17:00.

### ARRASATE
**AMAIA ANTZOKIA**

**El velo pintado**
Domeka: 19:30.
Astelehena: 20:30.

**Descubriendo a los Robinsons**
Domeka: 17:00.

### ELGETA
**ESPALOIA ANTZOKIA**

**El ilusionista**
Eguaztena: 21:30.

### OÑATI
**KULTURA ETXEA**

**300**
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.
Martitzena: 19:30.

**Pequeña Miss Sunshine**
Eguena: 20:00.

**PORTU TABERNA**

**DDT-ko artxiboko filma**
Domeka: 21:00.

### EIBAR
**UNZAGA**

**Cerdos salvajes**
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua, domeka eta martitzena: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena eta eguaztena: 19:30, 22:15.

### GASTEIZ
**GURIDI**

**La maldicion de la flor**
17:30, 20:00, 22:30.

**La vida de los otros**
20:30.

**La fuente de la vida**
16:30, 18:30, 20:30, 22:30.

**Descubriendo a los Robinsons**
18:30.

**Los abandonados**
16:30, 18:30, 20:30, 22:30.

**Cerdos salvajes**
16:30, 18:30, 20:30.

**Diario de un escandalo**
18:30, 22:30.

**Premonition**
15:30, 20:00, 22:30.

**Seduciendo a un extraño**
1630, 20:30.

**El numero 23**
16:30, 20:30, 22:30.

**FLORIDA-GURIDI**

**Tu la letra, yo la musica**
17:30, 20:00, 22:30.

**La vida en rosa**
17:00, 19:45, 22:30.

**Tuya siempre**
17:00, 19:45, 22:30.

**I love Miami**
17:30, 20:00, 22:30.

**Dame 10 razones**
17:30, 20:00, 22:30.

**Despues de la boda**
17:30, 20:00, 22:30.

**River Queen**
19:45, 22:30.

**Sunshine**
17:00.

Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:45, 22:30.

**ÁBACO-LAKUA ZINEMAK**

**Los abandonados**
16:00, 18:15, 20:30, 23:00.

**El numero 23**
16:00, 18:15, 20:30, 23:00.

**Sunshine**
16:00, 18:15, 20:30, 23:00.

**The river queen**
16:00, 18:15, 20:30, 23:00.

**Seduciendo a un extraño**
16:00, 18:15, 20:30, 23:00.

**Shooter, el tirador**
16:00, 19:00, 23:00.

**El corazon de la tierra**
20:30, 23:00.

**Descubriendo a los Robinsons**
16:00, 18:15.

**300**
16:00, 18:15, 20:30, 23:00.

**Un puente hacia Therabitia**
16:00, 18:00, 20:00.

**Diamante de sangre**
19:00, 23:00.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguena, ikuslearen eguna.

**YELMO CINEPLEX-GORBEIA**

**Premonition**
12:15, 16:30, 18:30, 20:30, 22:30, 00:30.

**La telaraña de Carlota**
12:15, 16:00, 18:00, 20:00.

**Sunshine**
12:15, 15:45, 18:00, 20:15, 22:30, 00:45.

**Tu la letra, yo la musica**
12:15, 16:00, 18:10, 20:20, 22:30, 00:40.

**El numero 23**
12:15, 16:15, 18:15, 20:15, 22:15, 00:15.

**Seduciendo a un extraño**
12:15, 15:50, 18:00, 20:10, 22:20, 00:30.

**Cerdos salvajes**
12:15, 16:20, 18:20, 20:20, 22:20, 00:20.

**Shooter**
19:30, 22:05, 00:35.

**El corazon de la tierra**
20:10, 22:10, 00:10.

**La cosecha**
20:35, 22:35, 00:35.

**300**
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:30, 22:00, 00:30.
Domeka: 12:15, 16:00, 18:30, 21:00.

**Las vacaciones de Mr. Bean**
12:15, 16:10, 18:10.

**¡Por que lo digo yo!**
20:25, 22:25, 00:25.

**Diario de un escandalo**
22:00, 00:00.

**Diamante de sangre**
19:15, 21:55, 00:35.

**Infiltrados**
21:00, 00:05.

**Alpha dog**
12:15, 15:55, 18:10.

**Descubriendo a los Robinsons**
12:15, 15:45, 18:45.

**Azur&Asmar**
12:15, 15:35, 17:30.

**Un puente hacia Therabitia**
12:15, 15:45, 17:30.

**Happy feet**
12:15, 16:35, 18:35.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.
Astelehena, ikuslearen eguna (jaiegunak izan ezik).

**ÁBACO BOULEVARD**

**Premonition**
12:15, 15:15, 18:20, 20:20, 22:25, 00:30.

**Adios Bafana**
12:05, 17:00, 19:30, 22:10, 00:45.

**Dame 10 razones**
12:15, 16:15, 18:10, 20:05, 22:00, 00:30.

**Sunshine**
12:00, 15:50, 18:05, 20:25, 22:45, 01:00.

**Tu la letra, yo la musica**
12:10, 16:00, 18:10, 20:25, 22:40, 01:00.

**Cerdos salvajes**
12:10, 16:00, 18:10, 20:20, 22:30, 00:45.

**Seduciendo a un extraño**
18:05, 20:25, 22:40, 01:00.

**Shotter el tirador**
12:00, 17:00, 19:40, 22:20, 01:00.

**La cosecha**
18:15, 20:20, 22:30, 00:45.

**El buen pastor**
Egubakoitza eta zapatua: 19:15, 22:30.
Domeka: 18:30, 22:00.

**¡Porque lo digo yo!**
Egubakoitza eta zapatua: 16:00.
Domeka: 12:00.

**Descubirendo a los Robinsons**
Egubakoitza eta zapatua: 17:00.
Domeka: 12:15, 16:15.

**Las vacaciones de Mr. Bean**
Egubakoitza eta zapatua: 16:30, 18:30, 20:30, 22:30, 00:30.
Domeka: 12:15.

**300**
Egubakoitza eta zapatua: 15:45, 18:00, 20:20, 22:45, 01:00.
Domeka: 12:00.

**Rebelión en la isla**
Egubakoitza eta zapatua: 16:10.
Domeka: 12:10.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.
Eguena, ikuslearen eguna.

Eskasa:* Balekoa:** Ona: *** Oso ona:**** Bikaina:*****

**300** ***
AEB, 2004. Zuzendaria: Zack Snyder. Aktoreak: Gerard Butler, Rodrigo Santoro, Lena Headey.
115 min.
V. mendea Kristo aurretik. Pertsiako inperioak errenditzeko eskatu dio Greziako konfederazioari. Atenas eta beste hiri estatuak ez daude ados horrekin. Espartako erregeak persiarrei aurre egitea erabakiko du, 300 soldadu indartsuenekin. Filma Frank Millerren komikian dago oinarritua.

**Alpha Dog**
AEB, 2007. Zuzendaria: Nick Cassavetes. Aktoreak: Bruce Willis, Sharon Stone.
116 min.
Johnny Truelove gazteak diru asko du, eta Los Angeleseko luxuzko etxe batean bizi da. Festa ugari antolatzen ditu etxe horretan. Droga trafikoari esker du luxuzko bizimodua, baina egun batean mundu hori guztia kolokan jarriko da.

**Confianza ciega**
AEB, 2007. Zuzendaria: Etienne Chatillez. Aktoreak: Cecile de France, Vincent Lindon.
98 min.
Elkar ezagutu aurretik, Chystelek eta Christophek ez zuten inorengan konfiantzarik eta ez zekiten zer zen norbait maitatzea. Horregatik, elkarrekin daudenetik ez dute inoiz banandu nahi. Maitasuna dagoenean, konfiantza itsua da...

**Descubriendo a los Robinsons** ***
AEB, 2007. Zuzendaria: Stephen J. Anderson. Marrazki bizidunak.
102 min.
Lewisek etorkizunetik datorren mutil misteriotsu bat ezagutuko du: Wilbur Robinson. Biek denboran bidaia egingo dute.

**Diario de un escandalo**
AEB, 2007. Zuzendaria: Richard Eyre. Aktoreak: Judi Dench, Cate Blanchett, Bill Nighy.
92 min.
Barbara irakasle bakartia da, Londresen. Sheba eskolako arte irakaslea heltzen denean, behar zuen laguna bilatuko du. Baina egun batean, Shebak ikasle batekin harremana duela jakingo du Barbarak.

**El buen pastor** ***
AEB, 2007. Zuzendaria: Robert de Niro. Aktoreak: Matt Damon, Angelina Jolie, William Hurt, Joe Pesci, Alec Baldwin.
160 min.
Robert Wilson gazte idealista bat da, Margaretekin ezkondu berria. AEBetako Zerbitzu Estrategikoen Agentzian sartuko da, CIAren aurrekoan. Wilson denborarekin gero eta hotzagoa bilakatuko da, eta horrek bere bikote bizitzan eragin kaltegarria izango du.

**El corazon de la tierra**
AEB, 2007. Zuzendaria: Antonio Cuadri. Aktoreak: Catalina Sandino Moreno, Sienna Guillory, Bernard Hill.
90 min.
1888. urtea. Espainiako armadak Riotinto herriko biztanleei tiro egingo die, kalean protestan dabiltzan bitartean. Gatazka horren erdian, meatzari baten alabak eta zaldun britainiar baten ilobak adiskidetasun harreman bat hasiko dute, eta maitemindu egingo dira.

**El ultimo show**
AEB, 2006. Zuzendaria: Robert Altman. Aktoreak: Meryl Streep, Woody Harrelson, Lily Tomlin.
105 min.
Fitzgerald Theater antzoki zaharra botatzekotan dira, eta han country musikako irratsaio baten azken emanaldia egitekotan dira.

**El velo pintado**
AEB-Txina, 2007. Zuzendaria: John Curran. Aktoreak: Ed Norton, Naomi Watts, Liev Schreiber, Toby Jones.
125 min.
Kitty gazte britainiar bat da. Familia ingurutik ateratzeko, Walter medikuarekin ezkonduko da. Shanghaira joango dira, eta han Kitty AEBetako gizon batekin maiteminduko da. Baina senarra haien arteko harremanaz ohartuko da.

**Seduciendo a un extraño**
AEB, 2007. Zuzendaria: James Foley. Aktoreak: Bruce Willis, Hale Berry.
109 min.
Nowena Priceren txikitako laguna hil dute eta ez dute hiltzailea aurkitu. Nowena bere kabuz ikertzen hasiko da.



## Diario de un escandalo ***

**Zuzendaria:** Richard Eyre.
**Aktoreak:** Judi Dench, Cate Blanchett.
AEB. 2007.

*Diario de un escandalo*-ren alde aipagarriena aktoreen lana da. Judi Dench eta Cate Blanchett aktore zoragarrien arteko interpretazio-duelua benetan bikaina da. Denchek egiten duen pertsonaia munduarengan eta gizakiengan mesprezu ikuspegia mantentzen duen irakasle bakartia da. Aktorea gehiegikerian erori barik, eta barnetik ateratzen den intentsitatearekin, maisutasun osoz aditzera ematen digu bere pertsonaiaren alderdi kezkagarria eta honek sentitzen duen atsekabea. Eta Blanchettek esperientzia gutxiko irakaslearen pertsonaia egiterakoan argi erakusten du kamerenganako duen erakargarritasuna. Erraz uler daiteke Denchek Blanchettez maitemintzea, baina sentimendu hori ez da elkarrenganakoa: Blanchettek egiten duen pertsonaia ezkonduta dago eta adin-txikiko ikasle batekin harreman sexualak ditu. Hala, gatazka sentimentala sortuko da, eta istorioak pertsonaien deskribapen psikologikoa eta gizartearen deskribapen soziologikoarekin batera trhillerek duten osagai kezkagarriak erabiltzen ditu.

Bi alderdi horiek nahiko ondo garatuak daude: pertsonaien deskribapena, aktoreen laguntza bikainarekin, interes handikoa da eta thriller partea orokorrean ondo dago. Zuzendaria Hollywoodeko thriller zaratatsuetatik ihes egiten ahalegintzen da, beste bide neurritsuago bat jarraitzen, baina filmaren azken partea, denbora gutxian gauza asko gertatzen eta Denchen pertsonaiaren alderdi psikopata gehiegi nabarmentzen, konbentzionalagoa gertatzen da.

**Antonio Zabala**



Goienkaria
EGOITZA NAGUSIA
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
Harpidetza: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com
2007-04-27

# Piano afinatzailearen lezioa

**ERAKUSTALDIA** Jose Maria Hijarrubia gasteiztarrak pianoaren barruko sekretuak azaldu zituen Bergaran

**AFINATZAILEA** Hijarrubia gasteiztarrak 25 urte darama piano gozatzaile; 17.000 piano inguru igaro dira haren eskuetatik

**MUSIKA ESKOLA** Bergarako Musika Eskolan 80 lagun ari dira pianoa ikasten; helduen aukera nagusia da pianoa

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

Bere eskuetatik 17.000 piano inguru igaro dira: Jose Maria Hijarrubia gasteiztarrak 25 urte darama piano gozatzaile. Eguaztenean Bergaran izan zen, Musika Eskolako ikasleei piano barruko sekretuak azaltzen. Pianozale amorratua dela nabaritzen zaio Hijarrubiari, instrumentuaren xehetasunak azaltzen hasteaz bat: " Kolpekatutako hari instrumentua da pianoa; 240 soka dauzka eta horietako bakoitzak 100 kiloko tentsioa jasaten du. Gaur egun 88 nota edo tekla dituzte eta pianoa gozatzeko La-5 da erreferentzia, teklatuaren erdian dagoena. Segundoko 440 bibrazio ematen ditu nota bakoitzak".

**PIANOA, IKASLE HELDUEN AUKERA**

Bergarako Musika Eskolan 80 lagun ari dira pianoa ikasten eta eguazteneko erakustaldian batutakoek aho zabalik jarraitu zituzten Hijarrubiaren azalpenak. Ikasleen artean gaztetxoak dira nagusi, 8 eta 13 urte bitartekoak. Hala ere, helduak ere ari dira pianoa ikasten; Musika Eskolan adierazi digutenez, musikan geroago hasten direnen aukera nagusia pianoa da.

Jose Maria Hijarrubiaren hitzetan, gaur egun pianoen produkzioaren masifikazioa heldu da: "Japonian, Yamaha eta Kawai etxeek, 1.200 piano egiten dituzte egunero. Pianoaren kultura handia dago han: pianoa erosteko aurrezki-libreta irekitzen diete jaioberriei. Europan fabrikatzaile bikainak daude: Schimmel, Steinway, Bechstein, Petrov...". Isats pianoen eta paretakoen artean, kirol-autoen eta seriekoen artean egon daitezkeen diferentziak daudela dio.

Urte hauetan guztietan gozatu dituen pianoen artean, 1876ko Pleyel batekin geratzen da Hijarrubia: "Donostiar batek ekarri zuen Gasteizera. Nik Pleyel modernoago bat daukat, Schimmelek egindakoa". Pianorako idatzitako pieza bat aukeratzeko eskatu diogu: "Debussy dut konpositore gustukoena. Haren *Sueño de amor* pieza zoragarria da".



LEZIO DIDAKTIKOA *Apirilean musika* egitarauaren barruan erakustaldia egin zuen Hijarrubiak eguaztenean, Bergaran. E.M.

## ahobero

### "Rodríguez Zapatero Espainiako presidentea Ségolène Royal baino femeninoagoa da"

**Alain Touraine**
> Soziologoa

Konparazioak gorrotagarriak direla dio esaerak. Ez dakigu zehatz-mehatz Tourainek zer adierazi nahi duen, baina badirudi ez dela Royali botoa eman dioten horietakoa.

## iturri onetik

### Euskadiko Moto-kros Txapelketako azken proba Bergaran, maiatzaren 26an

Euskadiko Moto-kros Txapelketako hirugarren eta azken proba Bergaran jokatuko da, maiatzaren 26an. Aurretik beste bi proba jokatuko dira, maiatzaren 12an Nanclaresen eta 19an Gernikan. Iaz bezala, Bergarako proba Candy lantegi ondoko lursailean jokatuko da: goizean entrenamenduak eta arratsaldean lasterketak, maila ezberdinetan. Antolatzaileak 100etik gora partaide izatea espero dute.

## piperrautsa

**Mikel Irizar** > www.goiena.net/blogak/piperrautsa

### Ségolène

Oso ondo oroitzen dut Miterrandek lehen aldiz Frantziako hauteskundeak irabazi zituenekoa, 1981an. Giscard eta Chiracen artean gelditu zen lehen itzulian; bigarrenean, ozta-ozta eta ustekabean nagusitu zitzaion Giscardi. Poz galanta hartu genuen Europa ezkertiarra amesten genuenok. Gero etorriko ziren desengainuak, han eta hemen.

Gaur apenas dudan amets politikorik. Edo, hobeto, ez dut ikusten nire ametsak gauzatuko lituzkeen hautagai politikorik. Eta, hala ere, poztu egin nau Ségolène Royalen emaitza onak. Ez luke Europa ezkertiarra ekarriko, baina bere alderdiko apezpikuek trufa egin zioten: ea nork zainduko zituen bere seme-alabak hautatzen bazuten. Batzuetan horrelakoei muturrean emateak ordezka ditzake galdutako amets handiak.

## ai, ene!



### Denborak suntsitu ez duen erlojua

XVI. mendeko poltsikoko erloju hori dotorea da benetan: iparrorratza, eguzki-erlojua eta bolbora gordetzeko kaxatxoa ere bai.

http://tinyurl.com/32kccr



GOIENKARIAren PUBLIZITATE GEHIGARRIA

# Autoak

Egubakoitza / 2007ko apirilaren 27a / **Arduraduna:** Monika Belastegi / **Maketazioa:** Oxel Arrieta / **Publizitatea:** Mireia Larrañaga




ARGAZKILARIA: ELEANOR2007/ AZALA: OXEL ARRIETA



## *MAPFRE bulego berria Eskoriatzan*

# *Zerbitzurik onena hurbilago*

*MAPFREn liderraren kalitatea eta gizatalde handi bat dauzkazu, behar gaituzunean zure ondoan izateko.*

*Eta zerbitzu hobea eskaintzeko, **Eskoriatzan** (Intxaurtxueta kalea, 2 - behea) **bulego berri bat irekiz zabaldu dugu gure sarea.***

***Eta gainera, zure zerbitzura jarraitzen dugu leku hauetan:***

| | | |
|---|---|---|
| **ARRASATE** | Garibai, 16 (b.n.) | 943-798900 |
| **ARRASATE-SAN ANDRES** | Loramendi, 2 | 943-711723 |
| **ARETXABALETA** | Errekabarren, 3 | 943-771176 |
| **BERGARA** | Ibargarai, 5 | 943-762879 |
| **OÑATI** | Portu Kale, 5 | 943-781265 |

MAPFRE

***Handia izatea Jarrera bat da***



■ AUTOMOBILAREN NAZIOARTEKO FERIA, BARTZELONAN

# Tintinen autoak izango dira aurtengo erakusketako izar

XABIER URTZELAI

**Ekainaren 9tik 17ra egingo dute Bartzelonako Fira erakustazokan automobilen aurtengo feria. Azken urteotan feria horrek sekulako bultzada izan du, eta dagoeneko munduko bost garrantzitsuenen artean dago. Berritasun modura, Tintin pertsonaiaren autoak erakutsiko dituzte aurten.**



Automobil etxeek modelo berriak aurkezteko aprobetxatzen dituzte feria horiek. GOIENKARIA

Aurreko edizioetan, besteak beste, James Bonden autoak erakutsi dituzten moduan, aurten Georges Remi *Herge* (1907, Brusela) komikigileak sortutako Tintin pertsonaiaren autoak erakutsiko dituzte Bartzelonako Fira erakustazokan. *Tintin eta automobilak* erakusketarekin feriako antolatzaileek komikigilearen 100. urteurrena ospatu gura dute.

*Herge*-ri izugarri gustatzen zitzaizkion automobilak, eta berak sortu zuen Tintin pertsonaiaren abentura guztietan automobilak ahalik eta antzekotasunik handienarekin marrazten ahalegintzen zen. Hala, Firari esker, ikusleek leku oso gutxitan ikusgai egongo den erakusketaz gozatu ahal izango dute.

**200 ERAKUSKETARI**

Bartzelonako erakusketa da, estatuan egiten dituzten automobil ferien artean OICA-k (Organisation Internationale des Constructeurs d'Automobiles) bere baitan hartzen duen bakarra. 1914an egin zuten lehenengo erakusketa, eta aurtengoa 34. edizioa izango du. Hala, aurreko edizioan (2005) marka guztiak gainditu zituzten, 1.100.000 bisitari izan ziren-eta estatuko eta nazioarteko marka ezagunenen produktuak jarraitzen.

Esandako moduan, nazioarteko etxe nagusienak izango dira Bartzelonan, eta ondoren aipatuko ditugun arloak jorratuko dituzte: automobil berriak; automobil komertzialak eta turismoetatik eratorriak; autoa pertsonalizatzeko ekipoak; ordezko pieza eta osagarriak; car audio; telefonia eta alarmak; petrolio konpainiak; pneumatikoak; boxen gunea; probak egiteko gunea (4x4 ibilgailu eta quadsendako), Bat Formulako simulagailuak, eta abar luzea.

**Bartzelonako erakusketa da OICAk bere baitan hartzen duen bakarretakoa**

**Aurreko edizioan egon ziren bisitarien %92k itzultzeko asmoa erakutsi zuten**

**Apirilaren 21eko eta 22ko asteburuan egin zuten Ficoauto erakustazoka**

Aurreko edizioetan batera egin dituzte automobilen erakusketa eta Kataluniako Bat Formulako Sari Nagusia. Eta, horrek elementu osagarriak gehitu dizkio azokari. Hala, hainbat pilotuk, marketing konpromisoak bete asmoz itzulitxoa egiten zuten Firatik, eta bertara gerturatutako zaleek ondo eskertzen zuten hori. Gainera, sari nagusirako sarrerak zituenak ez zuen sosik ordaindu behar azokara sartzeko (12 euro aste barruan, 15 euro asteburuan). Hala, aurtengo edizioak ez du erakargarritasun hori izango, munduko auto azkarrenek maiatzaren 13an egingo duteeta lasterketa Montmelon. Hori bai, erakusketan formulak erakutsiko dituzte.

**AUTOMOBIL FERIA ZENBAKITAN**

Fira Bartzelonak aurreko edizioan egindako ikerketek balorazio ezin baikorragoa egin zuten. Datuek diote bisitarien %35a erosteko asmoarekin joan zela erakusketara, eta %92ak 2007an ere feriara itzultzeko asmoa erakutsi zuela. Izan zituzten 1.103.427 bisitarietatik %78,6a gizonezkoak izan ziren, eta %21,4 emakumezkoak; horrekin batera, erakusketarien artean egindako galdetegien arabera, %87k helburuak bete zituen, erakusleiho aparta da, horrenbestez.

**LEHENENGO FICOAUTO EGIN DUTE**

Apirilaren 21ean eta 22an egin zuten Irunen dagoen Ficoba erakustazokan Gipuzkoako automobilen lehenengo erakusketa, Ficoauto. Bartzelonakoarekin alderatuta beste maila batean, 20 erakusketari baino gehiago izan ziren Irunen, adin eta aurrekontu guztietarako eskaintzekin: unitarioak, familiarrak, zilindrada handiko autoak, luxuzkoak...

Erakusketariek ondo dakite jende asko erosteko asmoarekin joaten dela erakustazoketara. Bigarren eskuko merkatuak geroago eta indar handiagoa du, eta auto berria gura duenak momentuan bertan erosiko ez badu ere, eskertu egiten du auto guztiak parean izatea, hori da-eta alderatzeak egiteko modu onena; ondo erosteko bidea.



■ BERRITASUNAK

# Segurtasuna eta teknologia uz

EDU MENDIBIL

**Autozaleak irrikaz egoten dira modelo berrien diseinua eta xehetasunak ezagutzeko. Urtero moduan, automobiletxe garrantzitsuenek ezagutzera eman berri dituzte euren bitxiak. Ohikoa denez, diseinu dotoreekin eta teknologia aurreratuenarekin datoz. Aukera zabala dago, eta alboan duzue horren adibide diren azken nobedadeetako batzuk.**

Udaberria heltzearekin batera, automobil-etxeek euren modelo berriak aurkezten dituzte urteko sasoi honetan. Azken urteotako tendentzia nagusia izan da monobolumenen arrakasta: gero eta gehiago ikusten dira gure errepideetan. Baina aukera ez da hor amaitzen.

**TEKNOLOGIA ETA SEGURTASUNA**
Era berean, teknologia berrienek gero eta protagonismo handiagoa daukate merkatura atera berri diren autoetan. Erosotasunaz gain, segurtasuna eskaintzea da helburua. Nola ez, diseinuak ere zerikusi handia dauka modeloa aukeratzeko orduan, eta, alde horretatik, marka bakoitzak estilo propioa du, urtetako lanaren jarraipena dena. Badira ausardia bilatzen dutenak eta baita klasikotasunera jotzen duten markak. Hiri barruan eta errepidean ibiltzeko hemen duzue 2007ko auto uzta.




### OPEL ANTARA

**Frankfurteko azken nazioarteko auto azokako izarretako bat. Kroskobakar eraikuntza, diseinu dinamikoa eta trakzio integrala konbinatzen dituen modeloa. Potentzia handiko diesel eta gasolina motorrak. Kirol-auto izaera duen auto indartsua, bidaia luzeak modu erosoan egiteko aproposa.**



### CITROËN C4 PICASSO

**Urtetako esperientzian oinarrituta, turismo izaera duen monobolumena da Citroën C4 Picasso. Bost lagunendako lekua du (Gran C4 Picasso zazpi lagun har ditzake). Erosotasunaz gain, gidatze arina, estetika dotorea, segurtasuna eta markaren fidagarritasuna eskaintzen dituen autoa.**




### FIAT BRAVO

**Autoen sektorean zeresan ugari eman du, ingeniaritza teknika sofistikatuekin eta garapen birtualarekin sortua baita. Segurtasunari lehentasuna emanez, EuroNCAP bost izar eskuratu ditu. Zazpi airbag, hiru puntuko gerrikoak eta karga mugatzaileak dira erreferenteetako batzuk. Ez bakarrak.**



### FORD MONDEO

**Ford etxearen garantia nagusietako bat bilakatu da Mondeo autoa. Orain, azken modeloa datorkigu, egonkortasuna, gidatze dinamikoa eta segurtasuna indartuz. Gasolina motorra 100-200 zaldi bitartekoa da eta diesela, 125-204 zaldikoa. Lau, bost atekoa edo *wagona* aukeran.**

LAGUN GARAJEA
Mekanika orokorra
ad®
Tailer profesionala
Santalaitz 3. BERGARA. Tel.: 943 76 11 20

# ztartzen dituzten modeloak



## RENAULT SCENIC

Gama esklusibo hirukoitza eskaintzen du Renaultek: Scenic (konpaktua eta praktikoa), Grand Scenic (XXL neurriko maletategiarekin) eta Grand Scenic izenekoa (zazpi bidaiarirendako lekua duena). Dinamikoak, konpaktuak, modulagarriak eta azken detailea zaintzen duten autoak.



## SEAT ALTEA XL

Familiak handitzen diren heinean, autoak ere bai. 18,7 zentimetro handitu da Altea berria eta 123 litroko espazio gehiago dauka. Errepidean etxean bezala egotea posible da: teknologiarik berriena, atzeko jarlekuak eraisgarriak dira eta segurtasun gailurik aurreratuenak.



## SKODA OCTAVIA SCOUT

Era guztietako trazatuetan erantzun bikaina ematen duen autoa. Lurrorotako automobil baten itxura du kanpoaldetik eta barrualdea praktikoa eta zabala dauka, bidaiarien erosotasuna bermatuz. Diesel eta gasolina motorrak, biak ere sei abiadurako eskuko kaxarekin.



## TOYOTA AURIS

Kanpoko diseinu dinamikoa eta barrualde zabala eta erosoa eskaintzen du Toyota etxeko modelo berriak. Hiru edo bost ateko modeloa aukeran eta teknologiarik aurreratuena gidariaren zerbitzura. Diesel D-4D eta VVT-i gasolina motorrak dira nobedadeak. Hitz baten, sofistikazioa.

**Monobolumenek dute arrakasta handien, baina aukera ez da hor amaitzen**

**Segurtasuna, erosotasuna eta teknologia berriena dira erreferenteak**

**Diseinu erakargarria izateak zeresan handia izaten jarraitzen du**

**Arrakastatsu izan diren modeloei ukituak egitea da joera nagusietako bat**

4x4
aukera zabalena



Saltzeko eta erosteko
•
Nahi duzun modeloa ez badaukagu, bilatu egingo dizugu
•
Ia berriak eta bigarren eskukoak (bost urte baino gutxiagokoak)

4QUATTRO4
Aukerako 4x4 ibilgailuak
Musakola auzoa 21 (Roneo parean)
ARRASATE

Tel.: 605 71 15 76 eta 943 79 52 32
E-posta.: 4quattro4@telefonica.net
www.4quattro4.com



ESPAINIAKO SARI NAGUSIA

# Parean daude indarrak, behingoz




Fernando Alonso, MP4-22 autoaren atzealdeari begira. GOIENKARIA

XABIER URTZELAI

**1 Formulako lehenengo hiru lasterketak korrituta, sailkapenak erakusten du Ferrariko eta McLaren etxeko lau pilotuak pare-parean daudela. Horrela iritsiko dira Kataluniako Montmelo zirkuituan egingo duten Espainiako Sari Nagusira. Adituek diotenez, zilarrezko gezidun autoek abantaila izango dute zirkuitu horretan.**

1950. urtean izan ziren azkenekoz hiru pilotu sailkapeneko lehenengo postuan. 57 urte behar izan dira egoera hori errepikatzeko, hau da, Fernando Alonso (26 urte), Kimi Raikkonen (27 urte) eta Lewis Hamilton (22 urte) puntu kopuru berarekin ikusteko (22). Hori gutxi balitz, Bahraingo zirkuituan lehenengo helmugaratuta, Felipe Massa brasildarra bost puntura baino ez dago (17). Horrek guztiak emozioa emango dio maiatzaren 13an Kataluniako Montmelo zirkuituan egingo duten Espainiako Sari Nagusiari.

Orain arte ikusitakoaren arabera, badirudi Ferrariren eta McLarenen arteko borroka ikusiko dugula berriro ere, BMW etxeak ezustekorik ematen ez badu –gauza dira horretarako–.

**HASIERAN ABANTAILA**

Maranelloko taldeak abantaila izan du urte hasieran; Ferrarik ez du Bridgestone gurpil etxera moldatzeko ahaleginik egin behar izan, eta aurreko urteotan Michelin etxearekin lanean ibili direrek ahalegin berezia egin behar izan dute horretan. Badirudi McLarenek neurria hartu diola egoera berriari, ondo asmatu dutela MP4-22 autoaren diseinuan. Bestelako egoeran daude, berriz, Briatoreren mutilak. Renaultek bi urte egin ditu gorengorenean, baina R27 autoa ez da aurreko bi modeloak bezain azkarra. Gainontzean, daukaten aurrekontua ikusita Toyotak eta Hondak nabarmen egin dute kale, eta nekez zuzenduko dute denboraldia. Aurreratu moduan, BMW Sauber etxeak iraultza egin du, eta gauza dira txapelketari piper gehiago gehitzeko. Podiumean ikusiko ditugu, lehenago edo geroago, Nick Heidfeld edo Robert Kubika.

## Ordutegia

| EGUNA | ORDUA | SAIOAK |
|---|---|---|
| Maiatzak 10 eguena | 10:00 | *Pit-lane*-era bisita. |
| Maiatzak 11 egubakoitza | 10:00-11:30 | 1. Entrenamendu saioa |
| Maiatzak 11 egubakoitza | 14:00-15:30 | 2. Entrenamendu saioa |
| Maiatzak 12 zapatua | 11:00-12:00 | 3. Entrenamendu saioa |
| Maiatzak 12 zapatua | 14:00 | Sailkapen saioa |
| Maiatzak 13 domeka | 12:30 | Pilotuen aurkezpena |
| Maiatzak 13 domeka | 14:00 | Espainiako sari nagusia |

## Zirkuituaren datuak

| | |
|---|---|
| Zirkuituaren luzera | 4,655Km |
| Bira kopurua | 66 |
| Bihurgune kopurua | 11 |
| Luzera osoa | 307,104 |
| Birako errekorra | |
| G. Fisichella (2005, Renault) | |
| Denbora | 1m 15s 641 |

ELGETA AUTOAK
JULIAN SANZ FERNANDEZ

Berraondokoa z/g ELGETA • Tel.: 943 76 82 02 Faxa: 943 76 82 98

■ AUTO-ASEGURUAK

# Bada oraindik asegururik gabe gidatzen duenik

AMAIA ZALDUA

**Autoa erosten denean, ohikoena da aseguratzea; baina asegurua egiten denean hainbat faktorek eragiten dute: asegurua nahi duen pertsonak berak, autoaren ezaugarriek eta eskuratu nahi duen aseguruak, besteak beste. Horrez gain, promozioek aukera berriak eskaintzen dituzte.**


Andoni Narbaiza (eskuman) lanean Mapfreko bulegoan Bergaran. AMAIA ZALDUA

Gaur egun, auto bat erosi eta berehala aseguratu ohi da derrigorrezkoa delako. Edozelan ere, badago asegururik gabe gidatzen duenik.

Askotariko aseguruak dauden arren, Mapfre Bergarako arduradun Andoni Narbaizak dio auto berrietan arrisku osoko aseguruak egin ohi direla eta bost urte baino gehiago dituztenetan, berriz, hirugarrenekiko auto-aseguruak nahiago izaten direla. Bestalde, badira promozioak aprobetxatzen dituztenak ere.

**ASEGURUA EGITEN DUTENEN PROFILA**
"Automobila aseguratzea legez derrigorrezkoa denez, adin eta sexu askotariko jendea etortzen da guregana", dio Andoni Narbaizak.

Bikoteka ere joaten da jendea aseguru-etxeetara, eta, Mapfre Bergarako arduradunaren esanetan "normalean, gidabaimenaren eta adinaren arabera merkeen ateratzen zaionaren izenean joaten da asegurua".

**ASEGURUA EGITEKO IRIZPIDEAK**
Gidari esperientziadunek abantaila gehiago izaten dituzte eta "gidari gazteen kasuan, adibidez, oso garrantzitsua izaten da autoaren pisuaren eta potentziaren arteko erlazioa", dio Narbaizak.

Mafre Bergarako arduradunak gaineratzen du autoaren koloreak ez duela eraginik aseguruaren prezioan, zaldiek edo potentziak baizik. "Gehienetan, ordea, *sport* autoak kolore bizikoak izaten dira".

**PUNTUKAKO GIDABAIMENA**
Orain, gidabaimena kenduz gero, garraioa ordaintzeko dirulaguntza ematen da, eta galdutako puntuak berreskuratzean ere dirulaguntza dago. Aseguruaren prezioa, ostera, ez da aldatu.

**Autoak berriak badira, arrisku osoko aseguruak eskatu ohi dira normalean**

**Gidari gazteak aseguratzean autoaren pisua eta potentzia kontuan hartzen dira**

**Puntukako gidabaimenaren ondorioz, berme berriak gaineratu zaizkie aseguruei**

Salneurri gomendatua Peninsulan eta Balear Uharteetan Mondeo Futura X TDCi 115zp eta C- MAX Newport 1.6 100zp hil amaiera arte baliagarria. Prever plana, BEZa, garraioa, sustapen deskontua eta kontzesionarioaren ekarpena barne. Eskaintza hau ez da baliagarria langile eta flotentzat. Ikusten diren modeloak: C-MAX Ghia eta Mondeo Titanium X. C-MAX/Mondeo: kontsumoa: 4,8-10,6 l/km. CO2 emisioak: 127-198 g/km.




LENIZ ESKORIATZA
SUZUKI

Konponketak: Txapa, Margoak, Mekanika

Bigarren eskuko autoen salerosketa, injektoreen konponketa eta I.A.T aurreko azterketa

Aingeru Ibiltokia 31 • ESKORIATZA • Tel.: 943 71 50 61 • Faxa: 943 71 31 45

**ELKARRIZKETA: CARLOS LARRINGAN / LARRINGAN AUTOESKOLAKO ARDURADUNA**

# "Puntukako sistemak bai balio dezake istripuak ekiditeko"

AMAIA ZALDUA

**Gidatzeko sistema berriak urtebete egingo du laster. Puntuen berreskurapenaren inguruan Carlos Larringanekin –Larringan autoeskolako arduraduna– mintzatu ginen. Puntuak berreskuratzeko eskolak emango dituzten autoeskolak prest daude kurtsoak emateko, baina horretarako, Trafikoko Zuzendaritza Nagusiak jakinarazte ofizialak egin zain daude.**

**Nola dago orain puntukako gidabaimenaren sistema?**

Une honetan zain gaude Trafikoko Zuzendaritza Nagusiak ofizialki jendeari adierazi arte puntuak kendu zaizkiola. Pertsona horiek Interneten ikus dezakete zein zentro diren puntuak berreskuratzeko kurtsoak ematen dituztenak, eta eska dezakete informazioa. Puntuak galdu dituzten ikasleak etorri dira informazio eske, baina, euren datuak hartzeaz aparte, ezin dugu beste ezer egin Trafikoren agindua jaso arte.

**Zein jarrera izango du jendeak eskolekiko?**

Orain arte etorri diren gehienei amorrua ematen die puntuak galtzeak; denei bezala, ezta? Gidari profesional batek esango du egunero ibiltzen dela errepidean eta ezin dituela puntuak galdu. Profesionalei egin behar zaie presio handien; beste edonork baino gehiago gidatzen dute eta arriskua sortzeko aukera gehiago dituzte. Gainera, profesionalak baldin badira, ez lukete akatsik egin beharko. Puntuak berreskuratzerakoan, profesionalak dira jarrera ezkorrena dutenak.

**Zure iritziz zeintzuk izango dira gidabaimena galtzearen arrazoi nagusiak?**

Alkohola eta abiadura. Alkoholagatik jendea nahiko kezkatuta dago, nahiz eta abiadura handian ibiltzea ere larria den. Orain arteko zigorrak, behintzat, bi kausa horiengatik izan dira.

**Zeintzuk etorriko dira puntuak berreskuratzera?**

Gidabaimenarekin urte bat edo bi daramatzaten gazteak; jada konfiantza hartuta dutelako. Eta gidari profesionalak ere bai, nahiago dutelako lanagatik azkar ibiltzera arriskatu. Sexuari dagokionez, mutil gazteak azkarrago ibiltzen dira neskak baino; edozelan ere, emakumeek ere izaten dituzte istripuak. Beraz, emakumeen eta gizonen kopurua bertsua izango da.



Carlos Larringan, bulegoan. AMAIA ZALDUA

**"Gidabaimena galtzearen arrazoi nagusiak alkohola eta abiadura izan ohi dira"**

**"Gaizki gidatzen da ez delako ezer errespetatzen, ez gidatzen ez jakiteagatik"**

**Sistema berriak balio du istripuak ekiditeko?**

Behar den bezala abian jarriz gero, bai. Hori ondo egiten bada, istripu eta hildakoak saihestea lortuko da. Nik sisteman sinesten dut. Kontua da gaur egun oso gaizki gidatzen dela, eta ez da ez dakigulako gidatzen, baizik eta ez delako ezer errespetatzen. Inork ez du ezer errespetatzen eta aginteak berak ez du denuntziatzen.

**Aste Santuan iaz baino hildako gehiago izan diren arren, sistemak balio duela uste duzu?**

Nik beste galdera bat dut: zergatik iaz uztailean 2005ean baino %35-40 hildako gutxiago izan ziren? Lege berria indarrean jarri zelako, eta jendea adi zebilelako. Igarri egiten zen errepideetan. Denbora pasatzen joan da, ordea, eta ez dira neurriak hartu, ez dira zigorrak ezarri; beraz, jendea berriz hasi da ez errespetatzen. Horregatik hil dira hainbeste Aste Santuan: ez dago zigorrik, eta, beraz, jendea lasai dabil.

Urte bat igaro da legea indarrean sartu zenetik, eta ez da gidabaimen bat bera ere kendu. Kenduko dira? Bai, baina zain gaude oraindik. Sistema abian jartzea bakarrik falta da, dena prest dugu eta.

ELGOIBAR BH INSTITUTUA
DOANEKO IKASTAROAK

AENOR ER Empresa Registrada ER-0715/2000
AENOR Gestión Ambiental ES-2006/0260
Q Euskadi 2004
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

LANGABETUEI ZUZENDUTAKOAK:

| | |
|---|---|
| Administrari Komertziala | 809 ordu. |
| Geriatrian Asistentzia-Arreta | 70 ordu. |
| Office Teknikaria | 210 ordu. |
| Soldadura | 260 ordu |

AUTOMOZIOKOAK LANGILEENTZAKO:

| | |
|---|---|
| Segurtasun eta erosotasun sistemak | 50 ordu. |
| Diagnosia, multimarka ekipoen bitartez | 25 ordu. |

Arregitorre 2 – Tel: 943 74 80 19 (Susana) – prestakuntza@elgoibarbhi.net




Zabalkunde **haundi**ko enpresa, beti **zure ondoan**

**GIAUTO**

OPEL

**ELGOIBAR · EIBAR · BERGARA · ARRASATE**
**OLABERRIA · ANOETA**
Tel. 902 345 123 · www.giauto.es
clientes@giauto.es

CHEVROLET

**EIBAR · OLABERRIA**
Tel. 902 345 225 · www.red-chevrolet.com
clientes@giauto.es

SAAB

**BERGARA**
Tel. 943 763 347 · www.giauto.redsaab.com
clientes@giauto.es

**MENDAUTO**

HYUNDAI

**ELGOIBAR · DONOSTIA · IRUN · LASARTE**
**ARRASATE · TOLOSA · BEASAIN**
Tel. 902 345 335 · www.mendauto.com
hyundai@mendauto.com

**KUAUTO**

LANCIA

**DONOSTIA · LASARTE · ELGOIBAR**
Tel. 902 345 365 · www.kuauto.net
kuauto@kuauto.net

**EUSKOAUTO**

TOYOTA

**PASAIA · ELGOIBAR · BERGARA · OLABERRIA**
Tel. 902 245 245 · www.euskoauto.toyota.es
toyota@euskoauto.com

■ KUTSADURA

# Karbono dioxidoaren kontrako

MONIKA BELASTEGI

**Automobilak isurtzen dituen gas kutsagarriak dira berotze globalaren erantzule nagusietakoak. Gizartea geroago eta kontzientziatuago dago aldaketa klimatikoarekin eta automobilen fabrikatzaileak ere hasi dira neurriak hartzen. Genevako erakusketa, esaterako, horren adierazle izan da.**

Europako Batzordeak automobil berrien isurketa kaltegarriak mugatu nahi ditu 2012rako. Kilometroko 120 gramo karbono dioxidora mugatu nahi du, hain justu, emisioa –gaur egun kilometroko 163 gramo da–. Fabrikatzaile nagusiendako "lortezina" da batzordearen proposamen hori esandako epean betetzea, batik bat potentzia handiko automobilen fabrikatzaileendako.

Kontuan kontu, badiruri automobil sektorea onartzen hasi dela bere produktuak ingurumenaren kontaminazioan zerikusi handia duela eta geroago eta gehiago dira propultsio hibridoko sistemei esker isuri baxuko modeloak egiten dituzten fabrikatzaileak. Hau da, fabrikatzaileok ohiko erregaia eta elektrizitatea konbinatzen dute edo material begetaletatik eratorritako bioerregaiz baliatzeko presatuta dauden motorrak erabiltzen dituzte.

**PROPULTSIO HIBRIDOKO SISTEMAK**

Propultsio hibridoko sistema horien adibide da, esaterako, Saab 9-5 BioPower –oraindik prototipo fasean–: %100ean bioetanola erabiltzeko prestatuta dago, Renault Meganeren bertsio batek bezala –oraingo Udaberrirako aurreikusita dago–.

Beste fabrikatzaile batzuek ere kontsumo baxuagoko modeloak iragarri dituzte. Volkswagenek, esaterako, Passat Bluemotion iragarri du: 5,1 litro gaso-

**Sektorea onartzen hasi da ingurumenaren kontaminazioan zerikusia duela**



Gaur egun kilometroko emisioa 163 gramo da; Europako Batzordeak 120ra jaitsi nahi du. OXEL ARRIETA

Ostiralero, GOIENKARIAN, geure artekoak atala!

Merkatuan dauden autoei buruzko informazio zabala!



gure artekoak

**ALFA ROMEO 159** > Iaz merkaturatu zuten automobil hori; Carlos Ruizek azaldu digu 100 urteko ibilbidea eta eskarmentua duela Alfa Romeo etxeak kirol-automobilak egiten, eta horixe da azkeneko modeloa.

**Carlos Ruiz** > Kanpanzar-eko salmenta arduraduna

## "Kalitate eta erosotasun handiena eskaintzen dizkigu"

**AINTZANE IRIZAR** > ARRASATE

Kirol-automobilen errege dira Alfa Romeo etxekoak, Carlos Ruiz Kanpanzar kontzesionarioko salmenta arduradunak adierazi digunez. Iaz merkaturatu zuten Alfa Romeo 159 eta horrelaxe deskribatu digu Ruizek: "Potentzia handiko automobila da, oso erosoa eta segurtasun handia eskaintzen digu. Kalitate eta erosotasun handiena eskaintzen digu".

Estetikari dagokionez, Alfa Romeo guztien estiloari jarraitzen dio: "Automobilaren muturrak itxura oso erasokorra, oldarkorra dauka, Alfa Romeo markaren ezkutuarekin. Aipatzekoa da, gainera, Giorgetto Giugiaro diseinugile ezagunak diseinatu duela Alfa Romeo 159". Faro borobil bereizgarriak ere aipatzekoak dira.

**SEGURUENEN ARTEAN**

EuroNcap-ek egiten duen balorazioan, bost izarrak ditu automobil horrek. Airbag sistema osoa dauka eta oso automobil sendoa da. Xasis malgua dauka eta aurreko suspentsioak karratuak. Horrek esan nahi du errepideari heltzen zaiola egonkortasun handiarekin. Gainera, 150 ZP-ko indarrarekin, aurreratzeetan eta irteera arriskutsuetan segurtasuna ematen digu.

Carlos Ruiz familiar erako Alfa Romeo 159 automobila erakusten. A.I.

**Alfa 159 1.9 JTD 150 ZP Selective**

| | |
|---|---|
| Prezioa | 31.310 eurotik hasita |
| Luzera | 4,66 metro |
| Zabalera | 1,82 metro |
| Maletategia | 405 litro[1] |
| Kontsumoa | 6 litro /100 km[2] |
| Abiadura | 210 km/h[3] |
| 0tik 100era | 9,4 seg. |
| CO2 isurketak | 159 g/km |

(1) Gehienezko edukiera
(2) Batez besteko kontsumoa, hiri barrukoa eta errepidekoa kontuan hartuta
(3) Gehienezko abiadura

Bestalde, kirol-automobila den heinean, aipatzekoa da nerbio biziko motorra duela eta gidatzeko orduan berezia dela.

**ESPAZIO HANDIA**

Bidaiariei automobilak espazio eta erosotasun handia eskaintzen die. Eserlekuak bereziki erosoak dira eta diseinua oso dotorea da barrutik ere.

Aipatzekoa da, azkenik, berlina edo familiar erakoa daudela aukeran. Lehendabizikoa da lau atekoa eta bigarrena bost atekoa. Azken horrek espazio handiagoa eskaintzen digu.

Goienkaria

# neurriak sendotzen doaz

lio behar du 100 kilometroko eta modu horretan isurtzen duen CO2a 136 gramo da. Peugotek ere isurketa 125 gramora jaitsi duen 1007ren Diesel bertsioa kaleratu du.

Kirol-automobilak egiten dituen Porsche etxeak ere iragarri du 2008. urte hasieratik beteko dutela bere autoek Euro5 arautegia; izan ere, motor guztiek onartuko dute %10-25eko etanol nahasketa.

**JAPONIARRAK AURRERATUEN**

Isurketak gutxitzea ondoen daroatenak japoniarrak dira; izan ere, europarrak eta estatubatuarrak baino aurreratuago daude teknologia garbietan. Hor daude, beste batzuren artean, Honda –hidrogenoarekin mugitzen den FCX autoa aurkeztu zuen Genevako Automobil Erakusketan–; Toyota –6v, 3,5 litro eta 400 zaldi potentziako motorra daukan FT-HS kirol-auto hibridoa erakutsi zuen–; eta Lexus –LS 600 h 4x4 auto hibridoa erakutsi zuen. 445 zaldi potentzia dauka eta kilometroko 220 gramo baino ez du isurtzen–.

Fabrikatzaile estatubatuarrak, nahiz eta atzeratuago egon, ari dira garatzen emisioa gutxitzeko teknologiak

General Motorsek, esate baterako, 6v, 2,9 litro eta 250 zaldi potentziadun diesel motorra aurkeztu zuen Genevako erakusketan. Aurretik aurkeztutako motorrak baino %40 potentzia handiagoa dauka, baina emisio txikiagoa.

**Gutxiago kutsatzeko propultsio hibridoko sistemak garatzen ari dira**

**Japoniarrak dira, europarren urretik, teknologia garbietan aurreratuenak**

## Duela 50 urte gehiago kutsatzen zuten autoek

**Autoak sortu zituztenetik beti izan dira kutsadura iturri. Urteek aurrera egin ahala, baina, kutsadura kopuru hori jaisten joan da. Gaur egun, duela 50 urte baino gutxiago kutsatzen dute automobilek; %90 gutxiago, hain justu ere, adituen esanetan. Izan ere, gizartea oro har eta politikariak ere gero eta gehiago kezkatzen dira ingurumenarekin, duela 50 urte ez bezala.**



Autoa zenbat eta modernoagoa izan orduan eta gutxiago kutsatzen du. Izan ere, autoak diseinatzeko orduan gutxiago kutsatzea ere hartu izan dute kontuan azkeneko urteetan.

Adituen esanetan, lehen baino gutxiago kutsatzen dute automobilek gaur egun: duela 50 urtekoek baino %90 gutxiago.

Beherakada horren arrazoi nagusiak dira aluminioa eta altzairua produktu sintetikoekin ordezkatu dituztela, egungo ibilgailuek erregai gutxiago kontsumitzen dutela, eta, azkenik, CO2 gutxiago isurtzen dutela. Horrez gain, autoen piezak birziklatu egin daitezke.

Kutsaduraren aurkako politika murriztaileek garestitu egin dute produkzioa, bai ikerketan zein garapenean inbertsioak egin behar direlako. Hala eta guztiz ere, automobil etxe handiak jabetzen doaz ingurumenari egiten dioten kalteaz eta neurriak hartzen hasita daude.




- 5 edo 7 eserleku independente eta modulagarri – 7 airbag – ESP, ASR eta ABS balaztatze banatzaile elektronikoarekin eta AFU – 6 abiadurako eskuzko aldagailu gidatua – Esku-freno automatiko eta elektrikoa – Nahi gabeko bide aldaketarako alerta sistema – Aparkatzeko laguntza sistema aurrealdean eta atzealdean – Aparkatzerakoan alboko espazioa neurtzeko neurgailua – Aldapan irteteko laguntza sistema. –GSM esku libreko telefonoa duen Navidrive nabigatze sistema – Bolantean aginteak dituen irrati-CD MP3a bluetootharekin. Bi-Xenon faro autodirekzionalak – Aire-girogailu automatikoa – Sabai panoramikoa beiraz hornitua – Atzealdeko suspentsio pneumatikoa – Motorizazioak: gasolina 143 ZPrainokoa eta diesela 138 ZPrainokoa.



CITROËN C4 Picasso 5 eserleku



CITROËN GRAND C4 Picasso 7 eserleku

CITROËN Crédit Ezagut itzazu eskaintza bereziak www.citroën.es webgunean. Citroën Informazioa: **902 44 55 66**

CITROËN
NO TE IMAGINAS LO QUE CITROËN PUEDE HACER POR TI

CITROËN prefiere TOTAL

Ekipamendua bertsioen arabera. Aurkezten diren modeloak dira Citroën C4 Picasso Exclusive 5 ate eta Citroën Grand C4 Picasso Exclusive 7 ate. Kontsumo mistoa (l/100 km.) / CO2 igorpena (g/km.) Citroën C4 Picasso 5 ate: 5,7 / 8,9 – 150 /211. Citroën Grand C4 Picasso 7 ate: 5,7 / 8,9 – 150 / 211.(1)Ibilgailu testatua: Grand C4 Picasso. Grand C4 Picassok lortutako puntuak ibilgailuan doazen nagusien segurtasunean.

ETOR ZAITEZ Debagoieneko Citroën Zerbitzu ofizial bakarrak:
**TALLERES CHAPIME S.C.L** San Andres 5 - Tel.: 943 79 45 22 - ARRASATE
**AUTOS ION** Amillaga 36 - Tel.: 943 76 47 49 - BERGARA

■ AUTOKARABANAK

# Gero eta herritar gehiagok nahiago dute autokarabana

UBANE MADERA

**Gero eta autokarabana gehiago ikusten da gurean. Izan ere, geroago eta gehiago saltzen dira mota horretako ibilgailuak, oporrak, asteburuak edo bestelako irteerak antolatzeko askatasun handia ematen dute-eta. Hain justu, diotenez, hori da autokarabanen ezaugarri nabarmenena: autonomia.**

Gorantz doa autokarabanen salmenta Estatuan eta Euskal Herrian. 2006ko datuen arabera, 1.800 eta 2.000 autokarabana inguru saldu zituzten Estatuan. Katalunian saltzen da autokarabana gehien eta bigarren lekuan dago Euskadi. Hala jakinarazi du Ramon Tobesek, Autocaravanas Tolosako ordezkariak; autokarabanak saltzen dituen ibarretik gertuen dagoen enpresakoak. "Bidaiatzeko beste modu bat da; autokarabanarekin opor luzeak, zubiak edo asteburuak aprobetxa daitezke. Lekuren baten gustura egon ezean, autokarabana hartu eta beste leku batera joan daiteke. Askatasun handia ematen du".

Edozelan ere, Tobesek gaineratu du Europako bestelako herrialdeekin alderatuta, Estatuko merkatua oso-oso txikia dela. "Frantzian, iaz, 15.000 autokarabana pasatxo saldu zituzten eta Italian, berriz, 7.000-8.000". Gaineratu du Estatua ez dagoela batere gertu halako ibilgailuei zerbitzuak emateko. Horren harira, baina, Euskal Herria hobetzeko bidean dagoela azpimarratu du: "Inauguratu berri dute Legazpin autokarabanendako Gipuzkoako lehenengo gunea. Eta jakin badakit bestelako udal batzuk ere hasi direla gai horren gainean informatzen".

Autokarabanen bezero mota zelakoa den ere kontatu du: "Ile zuridunak. Hau da, aurre-erretiratuak, bizimodua eginda dutenak eta kanpina gustuko dutenak (50-60 urte). Dena den, geroago eta jende gazte gehiago dabil animatzen halakoak erostera".

Prezioei dagokienez, hiru motatako autokarabanak saltzen dituzte: oinarrizkoak, maila ertainekoak eta goi mailakoak: "35.000 eta 60.000 euro bitartean daude". Horren harira kontatu du prezioak apur bat garestitu direla: "Aurten autokarabanei aplikatu diete matrikulazio zerga, eta horren ondorioz, %12 igo da horien prezioa, 4.500 euro, batez beste. Espero horrek kalte larregi ez eragitea. Jendea oso gustura dabil-eta".



## UMEA ZETORRELA-ETA EROSI ZUTEN AUTOKARABANA

**Maider Otamendi eta Gorka Arrese eskoriatzarrek 2005eko urrian erosi zuten: "Bidaiatzea oso gustuko dugu eta haurdun geratu nintzenean, bidaia horiek bukatu zirela ikusita, autokarabana erostea pentsatu genuen. Bidaiatzeko beste modu bat da. Askatasun handia ematen du", kontatu du Maider Otamendik. Gaineratu du Europaren aldean Estatua ez dagoela batere gertu turismo mota horretarako.**



KANPAZAR
Zatoz FIAT BRAVO ezagutzera!
**TAILERRA** Bizkaia Etorbidea z/g **ARRASATE** Tel.: 943 79 41 98 • Faxa: 943 77 12 84
**ERAKUSKETA** Araba Etorbidea 32 **ARRASATE** Tel.: 943 79 77 66



## AUTONOMIA HANDIA ETA BIDAIA LUZEAK EGITEKO AUKERA

Bergaran bizi den Jaione Isazelaia arrasatearrak esan digu lau urte dela erosi zutela autokarabana: "Autonomia emango zigun medio bat nahi genuen turismoa egiteko, eta beti izan gara kanpinzaleak. Gainera, hiru alaba ditugu eta bidaia luzeak egitea dugu gustuko. Errentagarritasuna ere behar genuen. Lau urte pasa ondoren, hura erosteko arrazoiak konfirmatu egin ditugu".



## OPORRAK NATURATIK GERTU, ASKATASUN OSOZ

Yoli Perez de Arenazak, Alberto Ozaetak eta Aner eta Oihan semeek gustuko dute naturatik gertu pasatzea oporrak. Baina, oporrak aldez aurretik planifikatu ezin, eta sarri leku barik geratzen ziren. Kanpineko giroa gustuko, autokarabana erostea erabaki zuten 2002an, "askatasun apur bat izateko", azaldu du Yoli Perez de Arenazak. Gustura dabiltza harrezkero.



## ONDO APROBETXATUTA: URTEBETEAN 20.000 KILOMETRO

Iaz erosi zuten autokarabana Harkaitz Ugarte eta Onintza Andres oñatiarrek: "Beti karabana izan dugu eta kanpinera joan izan gara; horregatik animatu nintzen erostera. Asko aprobetxatzen dugu: asteburuetan, abuztuan, Aste Santuan, eskiatzera joateko… pentsa, urtebetean 20.000 kilometro egin dizkiogu. Gainera, gurasoek eta neskalagunaren gurasoek ere erabili dute".



## FAMILIAREKIN EROSO IBILI AHAL IZATEKO

Jon Valle andoaindarrak eta Aitziber Lopez de Aretxaga antzuolarrak irailean erosi zuten autokarabana: "Beti ibili gara furgonetarekin. Ume bat izan genuenean jarraitu egin genuen, baina birekin (Harkaitz eta Aratz, argazkian) furgonetan ez ginen konpontzen. Autokarabana erosi eta jarraitu dugu lehen egiten genuena egiten, gutxi gorabehera bizimodu bera gordeta".

Izar cars

KM 0 - AUTO IA BERRIAK - MULTIMARKA

*Gama altuko autoetan espezializatua*

San Andres Auzoa 10 - D3 (Gasolindegi parean) ARRASATE
Tel./Fax: 943 79 19 00 Mug: 616 772 012 izarcars@telefonica.net

**SEGURTASUN ETA EROSOTASUNEAN OINARRITZEN DIREN SISTEMA IKUSGARRIAK EGITEN DIRA**

# Teknologia berriek ez dute atsedenerako unerik ematen

MIRIAN BITERI

**Teknologi berriak arlo guztietan aurreratzen ari dira abiadura izugarrian. Orain dela urte gutxi batzuk inork ez zuen pentsatuko ibilgailuan jarritako aparatu txiki baten bidez, GPS delakoaren bidez, munduko edozein tokitara iristeko gai izango ginenik. Esandakoa horren adibide bat baino ez da.**

Gidaririk gabe ibiltzeko gai diren ibilgailuak asmatzen buru-belarri dabiltza gaur egun automobilgintzako fabrikatzaile eta adituak. 2030eko hamarkadarako merkatuan egon daitezkeela gero eta maizago entzuten da.

Baina, auto adimendun gisa ezagutzen direnak iristen diren bitartean, gidatzeko orduan izugarri laguntzen duten sistemak sortzen ari dira. Fabrikatzaileen artean lehia bizia dago, eta, beraz, besteak oraindik lortu ez duen sistema ikusgarria asmatzen saiatzen da bakoitza.

**BIDAI DIBERTIGARRIAK**

Zeinek esango zien, adibidez, duela hamar bat urte haur nahiz nagusiei oporretako bidaiak dibertigarriak izango zirela. DVD eta pantailek dute errua. Bezeroen beharretara egiten dituzte fabrikatzaileek. Modu horretan, bi ume izanez gero, aurreko eserlekuen atzean bi pantaila jar daitezke.

Fikziozko pelikula batetik irten direla ematen dute nobedade batzuek. Ziur aho zabalik uzten jarraituko gaituztela.




**AZKEN URTEETAKO PROTAGONISTA: GPS-AK**

**Hasierako nabigatzaile klasikoarekin zerikusi gutxi dute oraingo GPS-ek. Satelite bidez, lapurtutako autoa aurkitzeko edo auto-gidariak kontrolatzeko aukera eskaintzen dutenak aurki daitezke merkatuan. Barneko ispiluan integratuta joaten direnak ere badaude.**



**INFRAGORRIAK, GAUEAN HOBETO IKUSTEKO**

**Gauean okerrago ikusten du normalean gidariak. Eta auto gehienen argiek ez dute ikuspen nahikorik eskaintzen. Xenon gisa ezagutzen diren fokuen ondoren, infragorriak erabiltzen dituen sistema iritsi da orain. Mercedes S-500 modeloan barruko ispilu ondoan jar daiteke.**



**LORIK EZ HARTZEKO ESERLEKU MUGIKORRA**

**Lehen, txiklea jateko ohitura zegoen lokartuta ez geratzeko. Fabrikatzaileek, baina, bestelako metodoak ikertu dituzte azkenaldian. Citroen etxeak, adibidez, Ibilgailuak errepideko marra ukitzen duen bakoitzean gidariaren eserlekua mugitzen duen sistema merkaturatu du.**




**ABIADURA MUGATU EDO ERREGULATU**

**Segurtasunari garrantzi itzela ematen zaio. Abiadura handiegian joateak istripu ugari eragiten ditu, eta horri aurre egin gura diote. Erreguladoreek gidariak zehaztutako abiadura mantentzen dute, azeleragailu edo balazta ukitu arte. Abiadura mugatzen duten sistemak ere badaude, bestalde.**

GOIENA
aseguru
artekaritza
ZUREKIN. ZURETZAT
Aseguru baten bila zabiltza?
Zatoz gure bulegoetara eta informatuko zaitugu
ARRASATE: Antso Abarka 6 Tel.: 943 79 59 81 Faxa: 943 79 39 18
BERGARA: Zurradero 2 Tel.: 943 76 97 65 Faxa: 943 76 40 37
e-posta. goiena@goienaaseguruak.com
www.goienaaseguruak.com
ING NATIONALE-NEDERLANDEN · CATALANA OCCIDENTE · ZURICH · Allianz · Banesto · AXA · MAPFRE · LAGUN ARO · Caser · ASPECTA · OCASO · DKV · FIATC · ESTRELLA · SEGUROS BILBAO · VITALICIO · ASEFA · winterthur · RAC · Mutua General de Seguros · ARAG




| NEURRIAK | MICHELIN ENERGY | Continental CONTIECONTACT3 | DUNLOP SP30 |
|---|---|---|---|
| 155/80 R13 79T | 52,23 € [1] | 46,86 € | 46,33 € [1] |
| 165/65 R14 79T | 68,66 € | 58,58 € | 56,92 € |
| 165/70 R13 79T | 64,77 € [1] | 54,61 € | 54,38 € |
| 175/65 R14 82T | 78,88 € | 75,40 € | 71,34 € |
| 175/70 R13 82T | 65,14 € [1] | 56,41 € | 53,30 € |
| 185/55 R15 82H | 122,86 € | 97,42 € [1] | 111,90 € [2] |
| 185/60 R15 84H | 114,26 € | 109,62 € [2] | 97,44 € [3] |
| 185/65 R15 88T | 92,13 € | 77,67 € | 76,45 € |
| 195/65 R15 91H | 107,88 € | 103,82 € | 98,60 € [4] |
| 195/65 R15 91T | 102,59 € | 84,19 € | 85,74 € |
| 205/55 R16 91V | 149,35 € [2] | 143,26 € [1] | 146,16 € [5] |
| 205/55 R16 91H | 159,09 € [2] | 116,47 € [1] | - |
| 205/60 R16 92H | 142,45 € | 140,36 € [3] | 139,20 € [6] |
| 225/45 R17 94V | 208,97 € [2] | 196,08 € [4] | 209,83 € [7] |
| 165/70 R14C 85R | 109,62 € [3] | 93,96 € [5] | 99,76 € [8] |
| 195/65 R16C 100T | 134,72 € [4] | 131,08 € [6] | 124,12 € [9] |
| 225/65 R16 112R | 215,76 € [5] | 161,24 € [7] | 172,84 € [9] |
| | (1) ENERGY E3B (2) PILOT PRIMACY (3) AGILIS 61 (4) AGILIS 51 (5) AGILIS 81 | (1) PREMIUM CONTACT (2) PREMIUM (3) PREMIUM CONTACT 2 (4) CONTISPORT CONTACT 2 (5) VANCO CONTACT (6) VANCO 6 (7) VANCO 8 | (1) SP 10 3E (2) SP SPORT 01 (3) SPORT 01 (4) SP SPORT 220 (5) SP SPORT 2000E (6) SP SPORT 300 (7) SP SPORT 3000A (8) LT 30-4 (9) LT30-8 |

RENAULT
**AUTOBERRI**
San Andrés auzoa, 8.- Tel. 943 71 24 72 - ARRASATE
AZPEITIA - ELGOIBAR - IRÚN - TOLOSA


www.euskoauto.toyota.es
AURIS
Toyota berria
Auris. Dena hemen hasten da.
Auris. Eguzkian inspiratutako autoa. Bere indarrean. Barrutik botatzen duen energian. Horregaitik dago barrutik kanpora deseinatuta. Bidaiarien erosotasunean eta segurtasunean pentsatzen. Toyotan, dena hemen hasten da.
Auris. Toyota berria. 14.710 *-tik aurrera
TODAY TOMORROW TOYOTA
GARANTÍA 3 años o 100.000 KM.
Informazioa eta probatzeko:
902 342 902
Euskoauto 2003 S.L.
San Marcos bidea 32 Pavinsa eraikina PASAI ANTXO. Tel.: 943 345 080
Olaso poligonoa 25 ELGOIBAR. Tel.: 943 747 417
Olabarrena z/g BERGARA. Tel.: 943 762 385
*Prezio baliogarria Penintsula eta Balear uharteetarako "Auris" 1.4 VVT 97 zp 3 ate bertsioarentzako ( pintura metalizatua ez dago barne). BEZ-a, matrikulazio zerga eta garraioa barne.
Iragarkiko modeloa: Toyota Auris 2.2 D-4D D-CAT 5 ate "Sport". Kontsumo mistoa 5,0 eta 9,0 artean l/100 km. CO2 emisioa 119 eta 209 g/km artean.